

Hendai-Hondarribietako biltzarrak: XX. mendeko hizkuntz plangintzaren iturburu



Mikel Zalbide

Hezkuntza Saileko Euskara
Zerbitzuaren burua

- I. Atarikoa
- II. Hizkuntza eta gizartea, uztarri berean aztergai
- III. Ortografia bateratzea: zergatik, zertarako eta noiz-non?
- IV. Biltzarra prestatzen: nor-nori-nork
- V. Nor izan da Hendaian?
- VI. Hendaian zer?
- VII. Hendaiaetik Hondarribira: lemazainik gabeko bidaia
- VIII. Hondarribiko biltzarra: prestaera eta esan-eginen kronika
- IX. Porrotaren ondoren, zer?: Hendaiaetik Oñatira

Oharra: behin-behineko idazkuntza da hau, ahal balitz aurten bertan osatzekoa. Era bateko eta besteko oharrek esker onez jasoko nituzke beraz.

I. Atarikoa

Ehun urte joan dira, Hendaiaiko eta Hondarribiko biltzar, kongresu edo bilera famatuak egin zirenetik. Biltzar bi izan zirela esan daiteke, edota biltzar bakarrak bi bilera-egun izan zituela. Azalpen biak dira posible, segun gauzak nola esplikatu nahi diren. Urtebeteko tartea izan zen, nolana ere, batetik bestera: 1901eko irailaren 16an egin zen Hendaiaiko biltzarra, euskararen ortografia bateratzeko asmoz; eta handik urtebete ingurura, 1902ko irailaren 11n, egin zen Hondarribikoa, Eskualzaleen Biltzarrari benetako ibilbidea eman ziona. Bilera haiek frakaso handia izan omen ziren. Sabino Aranak izan omen zuen, bere 320 bizkaitarrista “ezjakin”, “indokumentatu”ekin, frakaso horren erantzukizuna. Hendaiaiko eta Hondarribiko biltzar haiek porrot egin zutela: hala dio gure bibliografiak, behin eta berriro. Bakarrak dira, oso, epai-modu etsigarri horretatik aldentzen diren azalpenak¹.

Urteetan isilgordean egon ondoren, Euskaltzaindiaren Bilboko artxi-boetan P. Broussain-en eta R. M. Azkueren arteko epistolarioa aurkitu eta argitaratu zuen² Alfontso Irigoienek 1956tik aurrera. Elkarridazketa edo epistolario horren ildotik, behin eta berriro aipatu izan da porrot-kontu hori. Bi gai izan dira, biltzar haietaz hitz egiterakoan, nagusi. Batetik, batasunik ez zela lortu ortografiaren alorrean. Bestetik, hutsegite horren erruduna (errudun nagusia, eta are bakarra) pertsona jakina izan zela: Sabino Arana. Mende-erdi inguru daramagu, bertsio horren arrastoan. Aita L. Villasantek bere *Historia de la Literatura Vasca* famatuan ematen duen azalpen-bertsioa ez da, inondik ere, diogunaren lekuko okerreana. Horra liburu horren 294-5 orrialdeetan(3), 194-5etan bezalatsu, Irigoienek 1957ko *Euskera* aldizkarian argitara emandako datuetan oinarriturik Villasantek zer dioen: “*A principios del presente siglo hubo reiterados contactos entre vascófilos de la parte española y francesa con el fin de llegar a la unificación de la ortografía vasca, punto muy vital e importante para que los libros y publicaciones euskéricas de cualquier lado del país puedan difundirse en el otro. Por la parte vascofrancesa intervenían en estas reuniones y contactos Arbelbide, Daranatz, Guilbeau, Darricarrère, Adema, Hiriart-Urruty, Broussain, etc. Por la parte española Campin, Azkue, Arana,*

Bi gai izan dira, biltzar haietaz hitz egiterakoan, nagusi. Batetik, batasunik ez zela lortu ortografiaren alorrean. Bestetik, hutsegite horren erruduna (errudun nagusia, eta are bakarra) pertsona jakina izan zela: Sabino Arana.

¹ Azalpen-bide nagusi horretarik aldentzen hasitako lehena, dakidalarik, Koldo Zuazo izan zen bere “Euskararen Batasuna” tesi-lanean. Geroztik, M. Goihenetxek ere alde batera utzia du irizpide hori.

² Ikus, batez ere, *Euskera* aldizkariaren 1957ko alea.

³ 1979ko argitaraldia (2.a)

Aranatarren intransigentzia eta Adema-Zaldubi burulehenaren nahi eta ezina: horiek izan omen ziren orduko porrotaren motiboak.

Oso informazio mugatua zeukaten eskueran, eta informazio apur harekin kontuak horrela ateratzen zitzaizkien.

Juan Carlos de Guerra, Serapio Múgica, etc. En el espitolario mantenido entre Azkue y Broussain por los años 1901-1902, hay numerosos datos sobre los preparativos de un congreso que se celebraría en Fuenterrabía para la unificación de la ortografía. Tanto Azkue como Broussain y demás vascofilos ilustres temblaron ante la noticia de que Arana se iba a presentar allí con 320 partidarios suyos, gente indocumentada en su mayoría, pero ciegos e incondicionales seguidores de su maestro. Se celebró, en efecto, el congreso, y como ya se dijo en otra parte, constituyó un "fiasco" completo, por la intransigencia de los aranistas y la actuación poco firme del presidente Adema, poco avezado a estas lides. Los vascofranceses se retiraron disgustados, y el desacuerdo ortográfico entre ellos y nosotros continúa hasta hoy". Esplikazio bera emana du funtsean, xehetasunak xehetasun, horretaz ezer idatzi duen ia edonork. Aranatarren intransigentzia eta Adema-Zaldubi burulehenaren nahi eta ezina: horiek izan omen ziren orduko porrotaren motiboak.

Hala zioen Villasantek, orain berrogei urte inguru, eta ez zitzaion arrazoirik falta hori esateko: eskueran zituen datuetatik (auziaren ikuspegi bakarra eskaintzen zuten dokumentuetatik) berez bezala ateratzen zen ondorio-modu hori. Are bertsiio etsiagoa eman zigun P. Laffittek, handik urte gutxira, Hendai-Hondarribietako gertaerak azaltzerakoan. Hiriart-Urrutiren biografiaz ari zelarik honako hau idatzi zuen, izan ere, Larresoroko euskaltzain jakitun handiak: *"Euskaltzalekin har-emanetan hasi zen (Hiriart-Urruti): parte hartu zuen Hendaiaiko (1901) eta Ondarrabiako biltzarretan (1902). Azken huntan aspertu zen, ikusirik bozetan ezartzen zituztela gramatika-legeak, bozemaile gisa Arana-Goirik 320 lagun ekarri zituelarik bere alde, deus ere ez zakitenak mintzairerak jakitateaz"*. Villasantek eta Laffittek ez zuten gezurrik esan: ez, behintzat, jakinaren gainean. Oso informazio mugatua zeukaten eskueran, eta informazio apur harekin kontuak horrela ateratzen zitzaizkien. Geroztik, han eta hemen, beste askok errepikatu du Villasanteren eta Laffitteren azalpide hori⁵. Molestatu ere ez da egin jendea, gehienetan, hasierako (orain berrogeitaka urteko) epai zorrotz haren balio-indarra neurtzen. Gatozen, ordea, benetako datuetara. Hots, dokumentu-oinarri argiz egiazta litezkeen kontuetara. Benetako datu horiek diotena, aldiz, zera da:

⁴ P. Laffitte in Hiriart-Urruty, 1971: 39

⁵ Are bertsiio bihurriagorik ere badabil gure artean, inork (dakidalarik) kontrako oharrik egiten ez diolarik. Ondoko hau, esate baterako, egia tik are urrunago dabil: "En una reunión de vasquistas celebrada en Fuenterrabia (sic) en 1901 nace Euskalzaleen Biltzarra por iniciativa de Landarretche (sic). [...] Al año siguiente, en 1902, se reunía en Fuenterrabia de nuevo, asistiendo Arana Goiri, proponiendo un nuevo sistema ortográfico que fue rechazado". (EGIPV: 270; SEV: 11)

Sabino Arana ez zen Hondarribiko biltzarrean izan. Are gehiago: nahi izan balu ere, ez zuen Hondarribira joaterik izango. Preso zegoen Bilbon.

320 bizkaitarrista indokumentatu haiek ez ziren Hondarribian izan. Ez 320 haiek, ez 32 eta ez 3.

- a) Sabino Arana ez zen Hondarribiko biltzarrean izan. Are gehiago: nahi izan balu ere, ez zuen Hondarribira joaterik izango. Preso zegoen Bilbon, Larrinagako kartzelan, maiatz-bukaeratik (Roosevelt presidenteari, Cuba Espainiatik askatzen lagundu izanagatik, bidalitako zorion-mezua zela-eta). Jarraitu ere presondegian jarraitu zuen Sabinok, Hondarribiko biltzarra egin eta handik bi hilabetera (azaroaren 8an epaiketa izan eta hurrengo egunean) kalera atera arte.
- b) Preso sartu aurretik ere, 1902ko apiriletik aurrera bereziki, Sabino Aranak ez zuen Hondarribira joateko asmorik. Ez berak eta beste askok, aurreko sei hilabeteetan gertatu zirenak gertatu ondoren. Idazlan honetan zehar xehekiro esplikatu nahi da asmo-aldatze hori noiz-nola eta zergatik gertatu zen.
- c) Hondarribiko biltzarrean ez zen ortografiar hitz egin. Ortografiaren bateratze kontu hori ez zegoen, hasteko, biltzar-eguneko gainerrendan sarturik. Gaurkoz ez dago gainera inolako daturik, Hondarribian ortografiaren bateratze-bideaz minutu bakar batez ere jardun zenik uste izateko. Are gutxiago euskararen gramatika-arauak bozketa bidez erabaki zirela esateko.
- d) Are gehiago: 320 bizkaitarrista indokumentatu haiek ez ziren Hondarribian izan. Ez 320 haiek, ez 32 eta ez 3. Gerora abertzale suhar eta are buruzagi izango zenik ere Hondarribiratu zen, egia da hori: Isaac Lope-Mendizabal esate baterako⁶. Tolosako abokatu gaztea, *Xabi*txoren eta beste hainbat ikasmaterial arrakastatsuren egilea, gerra aurreko ikastolen sortzaileetarikoa, Gipuzkoako euskal inprenta famatuenetariko baten jabea, 1916an Lausanan egindako Nazionalitateen Mundu Kongresuan euskal ordezkari izandako abokatua ezin liteke ordea, inondik inora, "indokumentatu"tzat hartu.
- e) Azkenik, egia da istiluak eta haserre handiak izan zirela Hondarribian, 1902ko irailaren 11n. Goizean ia mutur-joka hasi ziren biltzarkide bi, eta arratsaldean okerrera egin zuen gauzak. Zalaparta haiek guztiak beste jende-modu batek sortu zituen ordea, ez arana-zaleek. Gero ikusiko dugu nork eta zergatik. Eztabaidaren mamia ez zen, gainera, ortografia izan.

Ezer deigarria bada kontu honetan guztian, zera dela esango nuke nik: euskaltzaleok eta euskalariok zein erraz ontzat ematen ditugun, itu-

⁶ Bere seme Xabierrek esanik dakigu, hain zuzen, bizikletaz egin zuela Isaacek Tolosatik Hondarribirako joan-etorri hura. Beste zenbait iturritatik ere antzeman daiteke, Isaacen Hondarribiko biltzarrean parte hartu zuela.

Geure ibilbidearen informazio ahula eta, kasu honetan bezala, errotik distortsionatua nekez gerta litezke euskalgintzaren mesedegarri.

Orain arteko "bertsio ofizial" hori hobetzeko, behintzat, badago behar adina material.

rrietara joan gabe, euskalgintzaren nondik norakoari buruzko azalpenak. Geure lehenaldiaz dugun ezaguera, oro har, ahula da oso. Ahuldade horretan nekez besteri errua (erru osoa, behintzat) egotziko diogu. Gure *modus operandi* arruntaren ezaugarrietako bat, zoritxarrez, zera da: unean uneko ekinaldi larrian lepahezurreraino sartuta ibiltzea. Hots, berehala edo oso egun gutxiren buruan egin beharreko lanetan murgildurik bizi izatea eta, presaka ibiltze horren ondorioz, luzera begirako ikuspegiaren axola handirik gabe jardutea, urtea joan eta urtea etorri. Hori dela-eta, euskal estudioen urrutira begirako bizkarrezur sendorik ez daukagu; ez euskalgintzaren alorrean, eta ez hizkuntz plangintzarenean ere. Ezaxola eta zehaztasun-falta horiek, motibo argikoak izanik ere, nekez justifika litezke. Are nekezago, jakina, hogeitertetik gora ele biko ofizialtasun-markoa indarrean duen eta luze-zabaleko euskalgintzari dirubide ohargarriak eskaintzen dizkion gizarte honetan. Justifikazio errazik ez izateaz gainera, ondorio larrikeria ere badute berekin: ardura- eta interes-gabezia hori ez da biderik sendoena euskalgintzari etorkizun zabala eskaini ahal izateko. Geure ibilbidearen informazio ahula eta, kasu honetan bezala, errotik distortsionatua nekez gerta litezke euskalgintzaren mesedegarri. Besterik da hori, ordea, eta oraingoz bego horretan.

Ba ote dago gaur, ehun urteko distantzia honekin, Hendaian eta Hondarribian benetan zer gertatu zen jakiterik? Egia osoa, bistan da ezetz. Joan berria dugun XX. mendeak bihurtune, estualdi, eten-urradura eta bide-galtze nabarmenak izan ditu. Halakoa izan da mendea euskaldun-jendearentzat oro har, eta halakoxea euskaltzaleentzat nahiz euskalarientzat. Gorabehera horien ondorioz, dokumentu askotxo galdu egin da han-hemen, mende beteko bidean. Egia osoa argitxerik ez dugu beraz, gaurkoz eskuera ditugun dokumentuen argitan, izango. Horrenbestera ezin iritsi bagara ere argitasun berririk atera liteke, ordea, han-hemen: orain arteko "bertsio ofizial" hori hobetzeko, behintzat, badago behar adina material. Material hori eskuratzea ez da betibeti erraza, inor gutxi saiatu baita gure jakintza-alor honi dagozkion datuak biltzen eta sailkatzen⁷. Muga horiek guztiak hor daudelarik ere,

⁷ Eskerrik beroenak zor dizkiogu, horrexegatik, Piarres Xarritoni. Bere lan zehatz, isil eta jarraituari eskerrak lehen ez bezalako jakintzariak ditugu orain, lozorroan jarraitu nahi ez badugu, azterkizun eta ikergai. Bere argibide zehatz eta ugari horiek laguntza handia eskaintzen dute, garai hartako esan-eginak zuzen (orain arte baino zuzenago, nolana ere) interpretatu ahal izateko.

Manex Goihenetxek, bestalde, berariazko aipamena merezi du. *Eskualzaleen Biltzara* noiz-nola sortu zen, eta 1913ra arte zer ibilbide izan zuen, ohi ez bezalako zehaztasunez ikertua digu berak. Ikuspegi soziohistorikoari helduz, orduko (berezi iparraldeko) euskaltzale haien argi-ilunak begi zorrotzez arakatuak ditu Goihenetxek.

Azken-azken orduan, lan honen oraingo idazkuntza bukatua nuelarik, berri pozgarria jaso ahal izan dugu euskalgintzaren ibilbide historikoa zertxobait aztertzen saiatzen garenek. Jurgi Kintanak, izan ere, Azkueren biziak eta esan-eginez ekarpen sendoa eskaini berri digu bere *Vizcaytik Bizkaita*? delakoan. Bere lanak ere argitasun zabala gureganatzen du, garai hartako gorabeherak sakonago ulertu eta artezago azaldu ahal izateko.

Hendaian eta Hondarribian benetan zer gertatu zen argitzen lagundu nahi luke idazlan honek. Horrekin batera, orduko esan-eginak euskalgintzaren ikuspegi soziolinguistiko batean txertatu nahi lirateke,aldi hartako protagonista nagusiei (itxurazkoei eta benetakoei) bere lekua eskainiz. Bihar edo etzi, datu-biltze eta -sailkatze hoberik eskueran dugunean, gaurko hau baino bertsio zuzen, zabal eta orekatuagorik prestatu ahal izango da noski. Horretarako ere kilikagarri izan nahi luke oraingo saio honek. Horra beraz, labur-labur, txosten honen hiru asmoak azaldu.

Esandakoaren arabera argi dago Sabino Arana ez zela Hondarribian izan, 1902ko irailean. Bere 320 bizkaitarrista indokumentatu haiek ere ez. Jakin dakigunetik, gainera, Hondarribiko biltzar-egunean eztabaida piztu zuen gaia ez zen ortografia izan. Ipuin hutsa al da, beraz, Hendai-Hondarribietako gertaerez 1956tik aurrera han-hemen esan den guztia? Ez: guztia ez da gezurra. Baina egiaren zati handi bat, jakin ezaz edo interes faltaz, ez da esaten. Hutsarte horrek sortzen ditu katramilak, orduko euskalgintzaren *puzlea* ulertzeko orduan.

Hondarribiko bilerara agertu ez bazen ere, bete-betean parte hartu zuen S. Aranak 1901eko eta 1902ko martxora arteko bateratze-saio haietan.

Hondarribiko bilerara agertu ez bazen ere, bete-betean parte hartu zuen S. Aranak 1901eko eta 1902ko martxora arteko bateratze-saio haietan. Hendaiaiko biltzarrean, hasteko, goizean goizetik azken momentura arte hantxe izan zen abandoarra. Protagonismo handia izan zuen, gainera, egun hartako esan-eginetan. Hurrengo hilabeteetan ere ezin utzizko erreferentzi puntua izan zen Sabino, gero azalduko denez. Hitzez ez ezik, idatziz ere aurre-aurrean ibili zen. Hendaiaiko eta Hendai ondoko gertakariez idatzirik dagoen gehiena ez ote da, hain zuzen, berak idatzia? Argitara emana dagoenetik, behintzat, baietz esan liteke. Bistan dago, bestalde, 1902ko urtarrilean irristada larria egin zuela berak, azken hiruzpalau hilabeteetan gainerako biltzarkideekin (biltzarkide jakin batzuekin) zeraman disputari itxuragabeko irteera emanaz. Irriada larri horrek ekarri du, gerora, 320 bizkaitarrista indokumentatuen kontu osoa. Hori horrela da, eta saio honek ez dauka gertaera hura isilgordean uzteko asmorik. Are gutxiago jokabide hura zuritzeko gogorik. Hanka sartu zuen Aranak, bere haserre bizian, 1902ko urtarrileko pauso oker hartan.

Pauso edo pausotxo asko eman ziren, era batera edo bestera, urte bi haietan. Hanka-sartzeak berriz, egitez edo egin faltaz, askorenak eta ugari samarrak izan ziren.

Urtarrileko gertaera hura pauso bat izan zen ordea, bere larrian eta sendoan ere, Hendai-Hondarribietako jardunbide osoaren baitan. Pauso edo pausotxo asko eman ziren, era batera edo bestera, urte bi haietan. Hanka-sartzeak berriz, egitez edo egin faltaz, askorenak eta ugari samarrak izan ziren. Urtarrileko "umekeria" hura ez zen lehenengo irristada izan, ez eta azkena ere. Beste hanka-sartze ugari eta nabarmenez ez da, ordea, hitz erdirik inon esaten. Perspektiba osoaren distortsio zorrotza ezartzen dio horrek, orduko esan-eginak bere

Ekimen osoaren ikuspegi zabalari heldu nahi bazaio, pauso jakin-konkretu bakarrean kateatu gabe, ezin esan liteke bi urte haietako gertaeren errudun bakarra S. Arana izan zenik.

Hendai-Hondarribietako gorabehera haiek oso egokiak dira, bestalde, orain dela ehun urte inguruko euskal gizartea, bertako hizkuntz egoera eta buruz buruko ideologiak halako patxada batez aztertzeke.

hotzean hauteman nahi dituenari. Kontua bere osoan eta hotz-hotzean begiratzen bada ez dago hain garbi, izan ere, porrotaren giltzarri nagusia Aranaren gehiegikeria hura izan zenik. Giltzarri bakarra, behintzat, seguru da ezetz. Urte t'erditik gorako ekimen luzea izan zen Hendai-Hondarribietakoa. Ekimen osoaren ikuspegi zabalari heldu nahi bazaio, pauso jakin-konkretu bakarrean kateatu gabe, ezin esan liteke bi urte haietako gertaeren errudun bakarra S. Arana izan zenik. Are gehiago: inor orduko kontuetan jokabide argi, definitu eta dokumentu-oinarri sendoz hornitua eskaintzen saiatu bazen abandoarra izan zen hori. Aurrez aurre jardun zuen berak, 1902ko urtarrilera arte. Aurrez aurre eta, gehienetan, idatziz. Beste askorengatik ezin liteke beste horrenbeste esan. Aurpegia eman ordez isilgordean ibili nahiago izan zuen, aitzitik, biltzarkide batek baino gehiagok. Isilgordeko pauso horiek zailagoak dira orain identifikatzen. Baina daturik ez da hantxerik falta, horrelakorik ere ugari izan zela uste izateko. Ortografia bateratzeko saio haietan Guilbeuren aurka, azpijoko nabarmenez, jardun zuen hainbat euskaltzalek 1901eko ekain-uztailetan. Joko-arau berriak ezarri ondoren, antolatzaileek Vinsonen ezkutuan jokatu zuten geroxeago, iraileko biltzar-egunera arte hain zuzen. Eta azkenik, 1901eko urritik abendura, Aranaren isilgordean ibiliak ditugu ardura-dun bat baino gehiago. Ibilera horiek ere ez zioten, jakina, ortografiako biltzarrari mesede handirik egin. Hendai-Hondarribietako gertaeren berrikustapen sakona egin beharra daukagu beraz, euskaltzale eta euskalariok, geure hizkuntzaren corpus-plangintzaz eta indarberritze-saioez orain artekoa baino informazio zehatz, ulergarri eta orekatua-goa eskuratu nahi badugu.

Hendai-Hondarribietako gorabehera haiek oso egokiak dira, bestalde, orain dela ehun urte inguruko euskal gizartea, bertako hizkuntz egoera eta buruz buruko ideologiak halako patxada batez aztertzeke. Orduko gizarte-moldea aski aztertutik dago, unibertsitatean eta unibertsitatekan kanpora, ohiko gizarte-zientzien ildotik: bai historiaren ikuspegitik, bai transformazio ekonoteknikoen aldetik eta bai, bereziki, ideologia soziopolitikoen alorretik. Disziplina akademiko *establezitu* horien alorrean diharduenarentzat erraza da ortografiaren biltzar-rraldi hura, 1901-1902 urteak alegia, lekuz eta denboraz zehatz situatzea. Europako mendebaldean, *Belle Epoque* delakoaren muin-muinean kokaturik daude Hendaiako ortografi biltzarra eta Hondarribiko bilkura. Demografiako eta soziokulturazko eragin argia du, gure kostaldean, delako *Belle Epoque* horrek: Donostia eta Zarautz, Miarritze eta Donibane-Lohizune, Hendai-Hondarribiak ere bai, gero eta turista arrotz ugariagoz betetzen dira uda partean, itsasoko bainuen arri-muan. *Kursaal* eta *Casino*, zezen-plaza eta errege-palazio, *Grand Hotel* eta hipodromo, eskulan nekosoaz eta elizako prozesioez aparteko beste zerbait nahi duen kaletar-jende berria ugaritzen ari da baz-

Espainiako Restaurazio garaia
**Edugu bestalde, bete-betean,
mende-hasiera hura. Euskal
(berdin katalan,...) kutsua duen
hainbat gauzari susmagarri-kutsua
hartzen zaio.**

terretan: baita gure artean ere. Espainiako *Restaurazio* garaia dugu bestalde, bete-betean, mende-hasiera hura. Euskal (berdin katalan,...) kutsua duen hainbat gauzari susmagarri-kutsua hartzen zaio *Establishment* horretatik eta, zenbaitetan, tentsio-iturri bihurtzen ere ari da: airean jarri dira Donostiako kaleak, esate baterako, jendearen eskeari entzungor eginaz bertako musika-bandak *Gernikako Arbola* jo ez duelako. Hildakoak ere izan dira tartean. Bartzelonako artzapezpikuari ere atentzioa deitu zaio aginte-esparrutik, sermoia (partez?) katalanez egin duelako. Telegrafotan espresuki debekatua dago, urte batzuk lehenagotik, euskaraz jardutea. Zer esanik ez eskolan, administrazio alorrean eta, oro har, idatzizko mintzajardun jasoarekin zerikusia duten alor gehienetan. Bere lekutxoia eginik du halere, kale-giro horretan, demografiaraz eta espazio soziofuntzionaleraz gero eta murriztuago dagoen euskarak. Euskarazko literaturak, ahozkotik idatzira bidean ari den horretan, baditu zenbait helduleku. Donostian eta Donostia inguruan bereziki: bertso-paperak igande-eguardean, meza nagusiko irteeran; poesiatoxoak noizean behin, “gure betiko ohitura onak” goralduz; eta San Tomasetan, hiria baserriarrez betetzen den egunean, “teatrua” Donostiako antzoki zaharrea. Hortik aurrera, eta elizkizun jakinak salbu⁸, ia guztia debeku du hizkuntzak jendaurreko agerbide jaso-formaletan. Debeku du edota, soil-soilik, bazterturik dago egon.

Behinola elkarren eskutik ibili
**Dohi ziren euskaltzaleak
banaturik daude: zuriak batetik,
gorriak bestetik.**

Frantziako III. Errepublikaren garaian gaude, era berean, eta eliz agintaritzaren *Ralliement* famatua bide luzetxoia eginik dago. “Apezek ezin dute politika egin”: hori da lege berria, eta batzuek airean altxa dira. “Guk ez eta (estatuak jarritako) erriente-maisuek bai? Non gelditzen da, orduan, *Jainko gure errege, zeru-lurren jabe*”? Behinola elkarren eskutik ibili ohi ziren euskaltzaleak banaturik daude: zuriak batetik, gorriak bestetik. Zurien eta gorrien arteko eztabaida horiek ez dira hauteskunde alorrera mugatzen. Kultura sailean ere gero eta nabarmenagoa da batzuen eta besteen arteko etena. Hego Euskal herrian ere tirabira nabarmenak ari dira euskaltzaleen artean agertzen. Tirabira horien banatze-lerroak diferenteak dira ordea. Fuerismoaren adar liberal, errepublikazale eta karlo-integristei lehiakide berriak sortzen ari zaizkie: langile-mugimenduaren eta abertzaletasun politikoaren hasieragaraiak dira Hendai-Hondarribietako haiek. Are gehiago: Sabino Arnaren *eboluzio espainolista* bete-betean harrapatzen du urte biko epe labur horrek. Gogo-giro horretan txertatzen dira, hortaz, Hendaiako eta Hondarribiko biltzarrak. Txosten honen xedea ez da, halere, gizarte-aldaketaren ikuspegi historiko, juridiko, ekonomiko eta soziopolitiko

⁸ Hor ere gauzak ondotoxoz estuago dabilta, ordea, handik ehun urterako iritzi publikoak uste izango duena baino.

M i k e l Z a l b i d e

horietan sakontzea, hizkuntza eta gizartea une hartako ekimen (para)instituzionalen, ideologia soziolinguistiko nagusien eta biografia jakin batzuen argitan aztertzea baizik. Alde batera utziko dira beraz, ezinbesteko puntuetan izan ezik, ohiko beste azalpen horiek guztiak.

II. Hizkuntza eta gizartea, uztarri berean aztergai

Hizkuntz soziologiaren aldetiko aipamenik ez da falta, Hendai-Hondarribietako gertaerez edota garai hartako gogo-giroaz.

Gizarte-gertakaria da, nonahi eta noiznahi, hiztun biren, zenbaiten edo askoren arteko mintzajarduna. Hizkuntzaren gizarte-dimentsio horri heldu nahi diogu, hain zuzen, oraingo txosten honetan. Zer erakusten digu 1901-1902 urtealdiak, mintzajardunaren gizarte-dimentsio horri dagokionean? Zer dio, hasteko, garai hari buruzko bibliografia soziolinguistikoak? Hizkuntz soziologiaren aldetiko aipamenik ez da falta, Hendai-Hondarribietako gertaerez edota garai hartako gogo-giroaz. Aukeran bakanak eta egituratu gabeak dira ordea, zoritxarrez, gaurkoz eskueran ditugun ikuspegi soziolinguistiko horiek: unibertsitate alorreko azterketa historikoak, juridiko-politikoak edota ekonomikoak baino askozaz ahulagoak, nolana ere. Hortik abia gaitzez ordea, hoberik ezean, iritsi nahi dugun alorrera hurbiltzeko.

II.1. Garbizaletasuna ala garbizalekeria?

Orduan indarturiko garbizaletasun modu bat, S. Aranaren purismoa bereziki, izan da filologoen eta hizkuntzalarien ikersaio horien azterkizun nagusia.

Goian esandako muga horiek guztiak hor daudelarik ere, aurreko mendearen hasierako "hizkuntza - gizarte - ideologia" multzo horren gainean ikersaio ederrik badago gure artean eginik. Filologoen eta hizkuntzalarien merezimendua da bide-argitze hori, lehenik eta behin. Orduan indarturiko garbizaletasun modu bat, S. Aranaren purismoa bereziki, izan da filologoen eta hizkuntzalarien ikersaio horien azterkizun nagusia. Deskribapen zehatzez gainera balio-irizpen argia ekarri dute, normalean, ikersaio horiek. Gaitzespen hutseko giroa nagusiturik da aspaldidanik, gure artean, Aranaren eta aranazaleen *corpus planning* hartaz jarduterakoan. Eta ez motiborik gabe: Campioneek eta Urkixok lehenik, Altubek ondoren eta Villasantek nahiz Mitxelenak orainago, esperimentalismo logizista hartaz esandakoak oso kontuan hartzekoak dira. "Maisu"aren *Aita Gureaz*, *bostamar*-eko zenbaki-sistema berriaz, *Koldobikaz* edo *euzkoen* aberri *Euzkadi* eta antzeko mila berritasunez oraturiko euskara hura ez zen, bistan da, hezurmamizko euskaldun-jendearen "betiko euskara". Ez betikoa eta ez inoiz-inongoa. Bere jarraitzaile batzuen sorkariek, gainera, maisuaren amets-irrikak gaudituz sublimazioaren goi-erpina jo zuten, handik gutxira. Aranismo askotxo Sabino hil ondoko aranazaleek sortuak dira, ez abandoarrak berak. Borondaterik onenaz jardutea ez dela aski, kirteneriarik ez egiteko: horixe erakusten digute, besteak beste, garbizaletasunezko jokabide itxuragabe haiek. Hizkuntza salbatzeko baino bizi-rik zegoen apurra hankaz gora jartzeko egokiagoa zen, alde askotatik, S. Aranek eta bere zenbait jarraitzailek joan den mendearen hasieralde hartan asmatutako garbitze-saio hura. Hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio-bide arrunta, lekuan lekuko hiztun-taldeen ohiko interakzio-moduan oinarritua, alde batera utzi zen corpus-plangintza

hura diseinatzerakoan. Jasotako emaitzetan, jakina, garbi antzematen da nola-halako saio haien hipoteka⁹.

Hendai-Hondarribietako garaia
Hez da soil-soilik Aranaren
 garbizaletasun, garbizalekeria edo
 (Azkueren hitzetan esateko)
 txukuneriaren garaia.

Hori guztia egia izanik ere, egia murrirtza, partziala eta orekagabea da epai-modu hori. Beste hainbat datu, izan ere, alde batera uzten ditu balioespen horrek. Hasteko, garbizaletasuna eta aranazaleen esperimentalismoa ez dira gauza bat eta bakarra. Hendai-Hondarribietako garaia ez da soil-soilik Aranaren garbizaletasun, garbizalekeria edo (Azkueren hitzetan esateko) txukuneriaren garaia. Beste askorena ere bada. Aldi hartan euskaraz eskribitzen zuten idazle gehienak garbizale ziren gutxi-asko. Zaletasun horren aztarnarik gabeko idazle jatorhutsen bila dabilenak alferrik jirako ditu, puntatik puntara behintzat, orduko *Euskal-erria*, *Euskalzale*, *Ibaizabal* edo *Eskualduna* aldizkariak. Alferrik lihoake Txomin Agirrerren *Auñemendiko Lorea* edo *Garoa*

⁹ Sabino Aranaren corpus-plangintzari egotzi izan zaion akats larriena, oker ez banago, logizismoarena da. Logikaren izenean, inork inoiz erabili gabeko "euskerari" bat erutzen saiatu izana: hiztegi kontuan ageri da hori batez ere, nahiz eta logizismoaren oinatzat hiztegiaren bakarrik agertu ez. Zuzena da, funtsean, txuri ala beltzeko logizismoaren balioespen hori. Motx gelditzen da, ordea, bere corpus-plangintzaren deskribapen zehatza egin ahal izateko. Aranaren garbizaletasun-kontua ulertzeko eta, oro har, bere corpus-plangintzaz jabetzeko ondoko puntuok izan behar dira, ene ustez, gogoan:

- a) Euskaldunberria da Arana, eta urrundik nabari zaio jatorrizko hiztunaren etorri falta hori. Ezagutza formalaz eta jarduera praktikoz euskaldunberri asko baino landuagoa izanik ere, morfosintaxian bertan euskaldun garbiek inoiz egiten ez dituzten hutsarteak ageri ditu berak, bere idazkietan. Azkueri zor zaio, dakidalarik, Aranaren hizkera-idazkeren muga-ezintasun horien lehen deskribapen egitura-tua. Ikus, horretarako, Euskaltzaindiko bere *Morfologia Vasca*.
- b) Bere muga-ezintasun horietatik abiatuz gizarte-molde berrirako egokiagoa, eguneratuagoa zitekeen euskara-eredua lantzen saiatu zen bera, aski gaztetatik. Hizkuntzaren hitz-altorra zabaldu eta eguneratzeko, bereziki, Fergusonek (eta geroztik, beste hainbatek) hain zehatz definitu izan duen *intertranslatability* delakoaz baliatu zen bera: oparo eta jakinaren gainean baliatu ere. Justu kontrako asmoa izanik ere, bere *Ausbau*-lanketak (Kloss; Fishman) erdararekiko (hots: gaztelaniarekiko) morrontza zekarren ezinbestean. Erdarazko elementu lexikalen kasuan, bereziki, erabateko homomorfismoa bilatzen zuen berak euskarazko hizperriak sortzerakoan. Semantika alorreko homomorfismoaz ari naiz noski, lehenik eta behin.
- c) Bere hizperrigintza horrek (eta ez bereak soilik: Piarres Broussain hazpandarra ere bide beretsutik ibili ohi zen maiz asko) arazo handia zekarren euskaldun-jende xehearrentzat: hizkuntzaren (hobe esan: hitz-eraketazko sorbideen) eredu galdu-ihartuetatik abiatzen zen hizperrigintza hori. Erdal kontzeptu (eta termino) jakin baten "euskal ordaina" zela berari azaldu gabe, euskal ordain horren esanahia ez zen asmatzen erraza: behinolako hitz-junturetako hots-aldaketa aspaldi *agortuak* arau *emankortzat* hartuz, morfemak txikituz eta herbailluz bere asmakizun horiek askoz *ulertezinago* bihurtzen zituen: *etxe* eta *done*-tik *txadon*-erako bidea, inoiz halakorik izan bada, aspaldi-aspaldidanik galduta dago. Mekanismo ihartua da hori, onenean ere, egungo hiztunen ezpain-belarrietan. Iharturik ego-tearen ondorioz, euskaldun arruntak ezin bere kabuz (hots, hizkuntzaren egungo erabideez duen ezagutzaz) bere esanahi "berri"an eskura dezake.
- d) Konturatzen ziren noski, Arana eta gainerakoak, gauza bat dela paper-punta hartu eta horrelako hizperriez betetzea, eta oso bestea euskaldun-jendeak asmakizun horien berri izan, ikasi, gustatu eta beren hitz-altorrean normal-normal integratzea. Bazekiten lan nekeza, oso nekeza zela hori. Are gehiago hizperri horientzat euskaldun garbiek lehendik ere baliokide jatorrak (nahiz, oharkabean edo jakinaren gainean, maileguzkoak) eskueran zeuzkatelarik, umetatik buruz ikasiak eta eguneroko mintzajardunaren harian gatz-piperrez ongi osatuak. Beren *language loyalty* puntarik puntaok neke-saio hori eta gehiago eskatzen zuela uste zuten ordea hizperri-sortzaileok, eta zailtasun-behaztopa horien aringarria ere eskueran zutela iruditzen zitzairen: beraiek halaxe aitorturik dakigu eufonia bidez kitatu nahi izaten zituztela, bai Aranari eta bai Broussainek, jokamolde horrek sortutako kalteak. Abandoarraren beraren hitzetan esateko "una vez derivada de un radical resultará menos inteligible que la que se componga de términos usuales; pero será más breve, de más fácil pronunciación, se ajustará mejor al genio de la lengua, y constituirá para la misma un verdadero elemento de riqueza" (ABI: 398). Bistan dago "el genio de la lengua" eta "un verdadero elemento" horiek diskutigarriak direla oso. Diskutigarriak baina, hizkuntzaren ehun urteko ibiliak erakutsi duenez, ez beti eta ezinbestean gutxiestekoak. Pertsona-izenekin (Gorka, Edurne, Iñaki, Nekane,...), eta ez horiekin bakarrik, zer gertatu den ikusteak ematen du zer pentsatua.

Neurri batean edo bestean txukun idazten saiatzen ziren, gaur ere gehienok saiatzen garen bezala, orduan euskaraz eskribitzen zutenak.

Azkue eta Arana biak ziren garbizale, eta ez nolanhikoak, nor bere modura. Garbizale guztiak ez ziren, ordea, Arana-Azkueren bi eredu horietariko batean sartzen.

irakurtzera ere. Neurri batean edo bestean *txukun* idazten saiatzen ziren, gaur ere gehienok saiatzen garen bezala, orduan euskaraz eskribitzen zutenak. Euskal idazle haietariko gehienak ez ziren bestalde, bistan da hori ere, ez politika aldetik Aranaren jarraitzaile eta ez hizkuntza kontuan bere asmakizun haien miresle edo erabiltzaile. Txukun idaztea ez da gainera euskaldunon aparteko mania, ez eta luxua. Ezinbesteko eginbidea da hori, gurea bezalako egoeran dagoen hizkuntza orotan: nahi eta nahiezkoa, nork irakurria eta zer ulertua izango badugu. Asmatu egin behar neurrian: horixe da guztia.

Orain ehun urteko garbizaletasun-joera horrek, gaur egunekoak bezalaxe, adar asko zituen: purismoak ez zuen jokabide bakarra (Aranarena, aho batez aitortu ohi dena) ez eta bi errepide nagusi ere (Aranarenaz gainera Azkuereña, adituek gero eta sarriago onartu ohi dutena). Azkue eta Arana biak ziren garbizale, eta ez nolanhikoak, nor bere modura¹⁰. Garbizale guztiak ez ziren, ordea, Arana-Azkueren bi eredu horietariko batean sartzen. Eredu nagusi horietatik aski bestelakoa zen, adibidez, Tolosako P. A. Orkaiztegi artziprestearen garbizaletasuna, hitz kontuan baino joskera-molde jakinetan askozaz zentratuagoa eta a itsatsiari, hobe beharrez eta besteak beste, erruki gabe erasotzen ziona. Besterik zen P. Zamarripa abadearen eredia ere, bai ohiko idazpraktika arruntean eta bai *Ibaizabal*-eko bere formulazio teorikoetan. Arras bestelakoa zen, bestalde, Larresoroko bere irakasgusetik hain oparo eta hain zorrotz idazten zuen Hiriart-Urrutiren garbitasun-eredua, Lapurdi-Baxenabarretako herritar xeheen itzulika jatorrez oratua baina estilo-lanketa sendoaz eta kaskoin-puntuaren bizitasunaz gainerako idazleengandik (zer esanik ez herritar xehe guztien hizkera-molde xumetik) aski berezia eta, noizean behin, *beribilen* moduko asmakuntzez arras loriatua. Garbizalea zen orobat, nahiz bere modura, Joanategiren *Fedeco Propagacioneco urtecaria* (1877-1891); orobat handik gutxira, hitzez hitzeko itzulpenez, *Fedearen Hedameneko Urtekaria* bihurtu zuen Landerretxe bera. Iparraldeko idazle horiengandik hurbilago ibiliko ziren, handik gutxira (1916tik

¹⁰ Haien lumatik ateratzen zena ez zen euskaldun-jendeak, erdaraz apenas zekienak, hitzetik hortzera erabiltzen zuena. Are gutxiago lasai-lasai erabil zezakeena. Purismo horren antzutasun funtzionalak iturri bat baino gehiago zuen, halere. Hizkuntz soziologiaren aldetik:

- a) Irakurle potentzialen arazoa, hasteko, oso kontuan hartzekoa da. Irakurle-jende hori eskola handirik gabea zen, oro har, eta euskaraz irakurtzen ez zegoen ohitua: eskualde edo euskalki mailako bertso-paperak zituen, eliziburuez kanpora, euskara idatziarekiko lokarri bakarra. Erdaraz, aldiz, errazago irakurtzen zuen hainbatek.
- b) Idazte kontuan, are ilunago zeuden gauzak. Euskaldun garbiak ez zuten, ehunetik laurogeita hemeretzi, euskaraz ezer idazten. Idatzi-idatzi, gutxi batzuk egiten zuten euskaraz. Euskal idazle bakan horiek, ehunetik ehun, elebidunak ziren. Eta ez nolanhiko elebidunak: beren ikasketak, guztiak edo gehien-gehienak, erdara hutsez egindakoak eta lanbidez ere, lautatik hirutan, erdal munduarekiko kontaktu zuzenean zihardutenak. Apaiz-jendea, zenbait maisu saiatu, mediku-abokatu batzuk profesio liberalekoen sailean eta administrazio alorreko (edo bere jira-bueltako) kargudun jakinak: horiek ziren ordura arte, euskal idazleetan, nagusi. Gero ikusiko dugunez, marko jeneral horren salbuespen sendoak eta idazle-multzotako berriak orduantxe sortzen hasten ari ziren.

Desoreka handia dago, beraz, euskal garbizaletasunaz gailendurik daukagun bertsio aranofobo burubakarraren eta orduko dokumentazioak begien bistaratzan digun aniztasun deigarriaren artean.

36ra, batez ere), Irigarai “Larreko” eta Zubiri “Manezaundi” nafarrak: haiek ere beren eredu propioa sortuko zuten, ordea, euskara ederrean jarduteko. Eta hor dago, *cliché* askoren enbarazgarri, Mañariko Bustintza “Kirikiño”: Azkueren eskutik eta Aranaren fedeez euskal idazlangintzan une horretantxe murgil egiten ari zen “Bloa” joriak ere bere garbizaletasun-eredu propioa sortuko zuen, Arriandiaga-Nabarniztar-Olabide aranazale puruengandik aski diferentea. Aranazale organikoa zen Kirikiño politika kontuan, horretan ez dago dudarik. Baina aranazaleei purismo kontuan egozten zaizkien hutsegite gehien (ez, jakina, *notiñ* moduko hitzen eta idazkera hiperfonetistaren) antipodetan zegoen bera. Aranazaleen *euzkera garbijari* egozten zaion bekatu larriena, jatortasunik ezarena, bidegabe larria da Kirikiñori eta, bere ondoren, ibilbide zabal-emankorra osatuko zuten Altuberi, Orixeri eta Lizardiri bizkarreratzea¹¹. Desoreka handia dago, beraz, euskal garbizaletasunaz gailendurik daukagun bertsio aranofobo burubakarraren eta orduko dokumentazioak begien bistaratzan digun aniztasun deigarriaren artean.

Desoreka horrek hiru iturri ditu, inoiz patxada handiagoz aztertzea komeniko direnak. Batetik jeneralizazioa, bestetik partikularizazioa eta, azkenik, soziolinguistikazko itsumena. Ikus ditzagun hirurak, gaingiroki bederen. Jeneralizazioak, orain ere indar betean daukagun jeneralizazioak, orduko garbizaletasun-eredu guztiak molde bakarrera ekarri nahi izaten ditu: *garbizaletasun-ereduaz*, singularrean alegia, hitz egiten da orain ehun urteko garbizale-eredu *diferenteak*, zenbait puntutan arras kontrajarriak, behar den bezala bereizi eta analizatu gabe. Horren hurrengo pausoa, ia berez bere datorrena, partikularizazioa dugu: garbizaletasun-eredu jakin bati (S. Aranaren *euzkera barrijari*) eransten zaizkio, normalean, orduko garbizaletasun-molde guzti on-gaitzak. Horrela ezin da, jakina, ikerketaren alorrean aurrera egin. Argitu behar genukeena estali eta ilundu egiten dugu, izan ere, jokabide horrekin. Inork ez al du ordu-pare bat pasa behar, egoskaitz okerragoak alde batera utziaz, Azkueren *Latsibi* irakurtzen? Hala egiten duenak, behintzat, garbizaletasun bakarraren irudi hori gezurrezkoa dela konturatzeaz gainera besterik ere antzemango du, oso hasiberria ez bada kontuotan: *Euskal Izkindetik* aurrera Bilboko Institutuko

¹¹ Egunen batean esplikatu beharko da, euskara jatorraren eta arrotz-artifizialaren arteko diferentzia nagusia, orain bezala, iturburua lexikogenetik eta are aldian aldiko joera kontutik kanpora duten ondoko bi faktoreotan dagoela:

- a) Hitzunen (orobat idazleen) euskarazko gaitasun-mailan. Hitzun-idazle batzuen eta besteen gaitasun-diferentziak ongien iragartzen dituen iturri bikoitza, bestalde, ezaguna dugu aspaldidanik: batetik, hitzun-idazle horiek euskaraz etxetik dakiten ala ez; bestetik, eguneroko bizibidean (osorik edo nagusiki) euskaraz jardun ohi duten, ala erdaraz;
- b) urteetako idaztrebakuntza: hitz-altxorra zabalduz, esamolde bereziak erantsiz edo etengabeko estilo-lanketan jardunaz etxetik, edo geure kabuzko esfortzu handiz, ikasi dugun aho-hizkuntza horri idatzizko forma landua eranstea. Lan luze eta gogorra da hori guztia, ekinaren ekinaz baizik nekez eskura litekeena.

euskara-irakasleak sortua digun garbizaletasun-eredua gainerako guztiak baino landuagoa dela, berriazko terminologiak aski finkatua izateaz gainera esaldi-estilo berria ekarri digula eta, urteen buruan, beste askoren baino bere garbizaletasun-eredu horren zordunago bihurtu garela egungo idazleok¹². Gure euskarak (batez ere gure hizkera-molde jasoak eta idazkera formal, azalpen-kutsukoak) gainezka egiten du Azkueren soluzio lexikal, morfologiko eta estilistiko haiez. Azkueren berrikuntza horiez gainera, beste hainbaten oihartzuna ere ez litzateke gure egungo prosan identifikatzen hain zaila, *cliché* errazak alde batera utzi eta ikerlan pausatuari sendoago helduko bagenio.

Hizkuntzaren garai hartako gizarte-egoeraz ahaztu-bezala egiten dira, sarriegi, orain ehun urteko idazmoldeen deskribatzaile gehienak.

Eta azkenik, esan bezala, itsumen soziolinguistikoaren kontua dago: hizkuntzaren garai hartako gizarte-egoeraz ahaztu-bezala egiten dira, sarriegi, orain ehun urteko idazmoldeen deskribatzaile gehienak. Idaztankeraz hau eta bestea esaten dute, orduko idazleen egoera kasik kontuan hartu gabe: aurreko (XVI., XVII. eta XVIII. mendeetako) idaztradizio(ar)ekin ia erabateko eten kulturala gertatu zela, euskal usaineko azter-lanketa sistematikoa eskola- eta unibertsitate-mundutik erauzia zegoela ia erabat eta, ororen gain, euskalgintzara hurbiltzen ziren asko eta asko (gero eta gehiago, Bilbo moduko hiriguneetan) nolazpaiteko euskaldun ele-erasanak zirela, euskaldun berri hutsak ez zirenean. Deigarria da, oso, gure itsumen hori: gutxitan izana du euskarak, lur-eremuz zein funtzio-esparruz, 1850etik 1900erako bitartean jasan zuen atzerakadaren parekorik. Mende t'erdiz bederen indarrean egondako *language spread*¹³ ezaguna *language shift* bihurtzen ari zen guztien begien aurrean. Aitita-amamek erdaraz berba egiten ia jakin ez, eta ilobak erdaldun huts izatea: hori ez zen Ameriketara artzain, esneketari, eskulangile edo urre bila joandako euskaldun-sail ugari

¹² Azkueren garbizaletasuna, hala esan ohi da gehienetan, jatorragoa da Aranarena baino. Ez da hain artifiziala, hain logizista. Egia da hori, parte on batean. Ez osorik, ordea. Izan ere Azkue bera, Arana-Martijak argi azaldua digunez (RMA: 93-4), logizismoaren irizpidez baliatu zen erabat bere corpus-plangintzaren lehenengo saioan: gaur errazegi zokoraturik daukagun 1891ko *Euskal Izkindean*. Arana-Martijaren arabera Pedro Pablo Astarloa, Juan Mateo Zabala eta Arturo Campin izan zituen Azkuek iturburu, *Euskal Izkindea* prestatzerakoan. "De Astarloa toma Azkue el prejuicio de que el euskera es una *lengua lógica*, cuyas reglas gramaticales no tienen excepciones. Y huyendo inconscientemente del idioma hablado extrae conclusiones del idioma literario construyendo unas normas gramaticales de lo que el idioma debía de ser y no de lo que era en realidad. Esta concepción era la que prevalecía en aquellos momentos en que privaban los análisis esquemáticos de la generación anterior, los neogramáticos que brillaron justamente en el decenio de 1870 a 1880". Logizismoa zer den ondo ikasitakoa dugu, beraz, R. M. Azkue ere. Ez da erabateko egia, gainera, bere "pobre primogénita, pecado de juventud" izandako *Euskal Izkindean* hartutako bide hori berehala utzi eta han-hemengo euskaldun garbien jatoritasun-bidera jo zuenik zeharo. Hiztegiaren eta morfologiaren alorreko bere corpus-plangintzaren nondik norako nagusiak 1892-93ko *Bein da Betikon* azaldu zituen Azkuek, beste inon baino argiago, eta irizpide horietariko batzuek ez zituen inoiz baztertu. Bertako 3. eta 4. puntuek azaltzen dute, hain zuzen, Azkueren bizi osoko langintza luzearen zenbait irizpide finko. Aldiz, 5. puntuko irizpidea bistan da handik berehala baztertu zuela.

¹³ *Language spread* hori, *language shift* ez bezala, diglosiazko eramolde zaharrean oinarritzen zen oraindik. Bere osagai nagusiak honako hauek zituen: frantsesa han, eta hemen gaztelania, ikastea eskolan eta abarretan, baina euskara izanik ama-hizkuntza eta hala egiten jarraituz etxean eta lanean, lagunartean eta bizibide arruntaren esparru gehienetan.

Eredu berria sortzeko orduan, berriz, oso abiaburu diferenteak izan zituzten Aranek eta bere inguruko euskaldun berri edo erdi-berriek batetik, eta kultura modernoaren kale-mundura baserriko edo euskalgiro garbiko herri-herrisketatik zetozen Azkueren moduko euskaldun zahar jatorrek.

Zerikusi handia izan zuen horretan, berebiziko eztanda sortuz eta luzaroko oihartzuna piztuz, Miguel Unamunok.

haien kontua soil-soilik. Euskal herrian bertan ari zen mintzaldatze hori, gero eta abiada biziagoan, gertatzen. Bai Bizkai-Gipuzkoetan eta bai, bereziki, Nafarroan: hiru belaunaldiren bitarteko translinguifikazioa, bihotz-hungigarrizko narrazio literarioaz gutxi azaldua digu Campionek bezain argi¹⁴. Ezinbestean ekarri behar zuen luze-zabaleko translinguifikazio horrek, munduko beste hainbat lekutan gertatu izan den bezala, ordura arteko mintzajardun garbiaren, hizkera-molde jator-intaktoaren indargaltze sakona. Indargaltze horrek, eta autore klasikoen ezaguera arras mugatuak, idatzizko euskara “egoki”aren eredu-apurtzea eragin zuen ezinbestean. Hutsetik bezala hasi beharrean sentitu ziren, hori dela-eta, garai hartako euskal idazle asko. Eredu berria sortzeko orduan, berriz, oso abiaburu diferenteak izan zituzten Aranek eta bere inguruko euskaldun berri edo erdi-berriek batetik, eta kultura modernoaren kale-mundura baserriko edo euskalgiro garbiko herri-herrisketatik zetozen Azkueren moduko euskaldun zahar jatorrek. Eztabaida haien oinarrian faktore soziokultural nabarmenak ere bazeuden, beraz, ez kapritxo estilistiko hutsak. Nahi izatea (terminologia zein estilo kontuan soluzio bat edo beste aukeratu nahi izatea) gauza bat zen, orduan ere, eta ahal izatea bestea. Soziolinguistikazko faktore horiek ere kontuan izan gabe ezinezkoa-edo da orduko eztabaida gogor haien zergatikoaz eta zertarakoaz irudi argirik eskuratzea.

II.2. Euskararen auzia edo “kuestioa”

Ezintasun hori ez zen, gainera, euskal literaturaren edo euskaltzale-munduaren etxe barneko arazoa, kanpokoan isilean gorde zitekeena. Inork halakorik nahi edo uste izan balu ere, alferrik jardungo zukeen hartan: aztergai dugun 1901-1902 horretan, izan ere, lau haizeetara zabaldu zen euskararen auzia edo “kuestioa”. Zerikusi handia izan zuen horretan, berebiziko eztanda sortuz eta luzaroko oihartzuna piztuz, Miguel Unamunok. Bilboko euskal jaietan, Hendaiako biltzarra baino hemeretzi egun lehenago, aldarrikapen gogorra egin zuen berak: hobe genuela euskara ahaztu, bizimodu berrirako ez baitzuen balio, eta erdal itsasoan gogotsu murgildu. “La cuestión del vascuence” haren zabalaz eta sakonaz jabetzeko ezinbestekoa da 1901eko abuztuaren 28ko bere hitzaldia, hurrengo urtean idatziz osatua, euskararen azterbide soziolinguistikoaren argitan tratatzea¹⁵. Ez dago

¹⁴ Ikus, besteak beste, bere “El último tamborilero de Erraondo” edo 1903an, Irungo Euskal Festetan, irakurritako txostena.

¹⁵ Oker legoke, guztiarekin ere, Unamunoren planteamendu hura ekintza isolatua izan zela pentsa lezana. Aski da horretaz jabetzeko, eta ezagunenetara mugatuz, urte-inguru hartako Maezturen kritikak, Grandmontagnerenak edo Bilboko *Lucha de Clases*-en argudioak irakurtzea.

dudarik Unamunoren hitzaldi hura ere Hendai-Hondarrietako zikloan sartzekoa dela bete-bete. Are gehiago: 1901-1902ko urtealdian euskaltzale batek baino gehiagok kaleratutako jakintza-txostenak eta iritzi-artikuluak, buruz buruko eskutitzak bezala, Unamunoren argudio soziolinguistiko haiei erantzutera etorri ziren¹⁶, aldez edo moldez.

Eskuar-tean zuten
Hizkuntza-jakituriaz gainera,
zer-nolako ideologia zerabilten
mende-hasierako euskalari,
euskaltzale eta euskal idazleek?

Hori argitu gabe
Alferrikakoa-edo da, hala
iruditzen zait niri behintzat,
Hendaiako porrotaz edo
Hondarribiko itxuragabekeriez hitz
egitea.

Azken kontu horrek garamatza, hain zuzen, ortografiatzko eztabaida haien oinarrian zeuden desadostasun nagusietariko batera: eskuar-tean zuten hizkuntza-jakituriaz gainera, zer-nolako ideologia zerabilten mende-hasierako euskalari, euskaltzale eta euskal idazleek? Gorago esan denez euskalari-euskaltzaleen (eta haien aurkarien) ideologia linguistikoaz, ez bestelakoez, ari gara hemen: linguistikoaz edota, nahiago baduzue, hizkuntz soziologiatzko ikuspegiaz, jarreraz eta jokamoldeaz. Gizajende haien buru-bihotzetan nola lotzen ziren gizartea (familia eta hurbileko auzoa, eskualde ezaguna, probintzia, Euskal herria, Espaini-Frantziak eta Mendebal Europa), hizkuntza (lekuan lekuko berba-egikera, eskualdeko hizkera-molde arrunta, norberaren euskalki nagusia, euskaldunon lokarri den euskara osoa eta frantses-gaztelaniak) eta, gizarte-bizitzaren nondik norakoari dagokionez, XX. menderako sortzen hasiak zituzten itxaropen-ametsak? Hori argitu gabe alferrikakoa-edo da, hala iruditzen zait niri behintzat, Hendaiako porrotaz edo Hondarribiko itxuragabekeriez hitz egitea. Gure artean bizirik zeuden ideologia desberdinen (gero eta aurrez aurreago kontrajarriak zeuden ideologia guztien) bilgune eta probaleku izan zen Hendai. Ez Hendaiako bitzarra bakarrik, biltzar aurreko trimestrea eta, batez ere, biltzar osteko urte t'erdia baizik. Horren argitan ulertu behar dira, nire ustez, euskararen ortografia bateratzeko xedeaz orain ehun urte egindako saioak. Biltzar haien oinarritzko asmoetan, eta ortografia bateratu gabe amaitu izanaren funtsean, ez baitzeuden "euskara ona"-ri buruzko dibergentzia linguistikoak soilik. Beste dibergentziak ere han zeuden, eta indar bizia zuten.

Badakit gure artean, aspalditxodanik gainera, badabilela ikuspegi-modu bat honelako zerbait dioena: hizkuntza baten ortografia bateratzea, bere hiztegia osatu eta eguneratzea, hizkuntza hori ongi erabiltzeko arauak ematea eta abar gauza teknikoak direla alderik alde. Heinz Kloss¹⁷ egindako kontzeptu-lanketaz geroztik *corpus*

¹⁶ Aipagarrienak, nire jakinaren gainean, honako hauek dira:

- a) S. Aranaren bi: D eta "Conócete a ti mismo"
- b) Telesforo Arantza diren eskutitzak eta 1906ko artikulua.
- c) R.M. Azkueren eskutitzak, Unamunori berari bidaliak.
- d) A. Campionen 1901eko irailaren 19ko hitzaldia, Azpeitiko Euskal Festetakoa.

¹⁷ Ikus Heinz Kloss (1969: 81)

Bere garaiko ideologien eragina barren-barrenean iltzaturik darama edozein corpus-plangintzak, han eta hemen.

planning deitzen den langintza hori filologoen eta hizkuntzalarien kontua dela alegia, haiena eta soil-soilik haiena, gauzak txukun egingo badira. Ideologien tira-bira ugariatatik aparte dagoen (edo egon behar lukeen) eginkizuna omen da hizkuntzaren bateratze, osatze eta eguneratze hori. Eginbehar neutrala, irizpide zientifikoetan oinarritua. Hots: zeregin teknikoa omen da, erabat, hizkuntzen (edozein hizkuntzaren) corpus-plangintza. Urteetako eskarmentuak erakusten diguna, ordea, besterik da: ideologiatan blai eginik bideratu ohi dela corpus-plangintza, hemen eta munduko beste edozein bazterretan. Bere garaiko ideologien eragina barren-barrenean iltzaturik darama edozein corpus-plangintzak, han eta hemen. Marka-seinale hori ez da "gaizki egindako corpus-plangintza"-ren makurra, plangintza-saio guztien ezinbesteko ezaugarria baizik. Nazioarteko bibliografiak, hizkuntz soziologiaren eta hizkuntz plangintzaren iturburu nagusiek bereziki, behin eta berriro azaldua dute hori. Orain ehun urteko saio haiek itxura batean entenditu nahi baditugu, hortaz, orduko ideologiak (euskara "on"-aren irudikapenaz, euskara-erdaren erabileraz eta bientzat begiz jotako funtzio-banaketat), bai eta hiztun-multzo desberdinez indarrean zeuden ikusmoldeak ere, oraindik baino atentzio handiagoz aztertu beharko ditugu. Hizkuntzaren soziologiak egin dezakeen ekarpenik sendoena ez ote da horixe, akaso?

II.3. Giza faktorea, betiko behaztopa-harria

Ideologien eta gizarte-egoeraren azterketa xehea eginaz ere, orduko istiluak nekez osorik uler daitezke Hendaia biltzarkideen (eta, Unamunorenean bezala, biltzar inguruko pentsalarien) biografia kontuan izan gabe.

Badago, azkenik, Hendaia biltzar famatuaren inguruan aipatu gabe utzi ezin den beste puntu bat: beti ere hain erabakitzaile gertatu ohi den giza faktorea. Ideologien eta gizarte-egoeraren azterketa xehea eginaz ere, orduko istiluak nekez osorik uler daitezke Hendaia biltzarkideen (eta, Unamunorenean bezala, biltzar inguruko pentsalarien) biografia kontuan izan gabe. Prestaeraz eta lanbidez, nortasunez eta pentsamoldez oso jende berezia bildu zen Hendaian eta Hendai inguruan. Beste horrenbeste gertatu zen, itxura guztien arabera, Hondarribian. Biltzarkide batzuen izaerak eta jokamoldeak, gizarte-alorreko tirabirez gainera, eragin zuzena izan zuten soziokulturazko bateratze-saio haien bilakaeran eta proiektu osoaren azken emaitzan.

Has gaitzen, hoberik ezean, Hendaia eta Hendai inguruko *prima donna* direlakoekin. Hots, biltzarraren aurrez aurreko antolatzaile ez izan arren Hendaia (erreferentzialki behintzat) agertu, modu batera edo bestera bertan parte hartu eta biltzarraren emaitza-ondorioetan, artez edo moldez, zer ikusi nabarmena izan zutenekin. Sabino Arana, Resurrección María Azkue, Manex Hiriart-Urruti, Julien Vinson eta Miguel de Unamuno ditugu, dudarik gabe, horietariko batzuk. Saia gaitzen beraz, axaetik izango bada ere, buruzagi horien nortasuna eta jokaera-ezaugarri zenbait gogora ekartzen.

Ideologia soziopolitiko baten sortzaile eta aktibatzaile da, lehenik eta behin, Sabino Arana (1865-1903): abertzaletasun politikokoaren formulatzaile.

Bere proiektu horren muin-muinean dago euskara, egunetik egunera ahulduago dagoen hizkuntza, indarberritzea.

Has gaitzen Aranagandik. Ideologia soziopolitiko baten sortzaile eta aktibatzaile da, lehenik eta behin, Sabino Arana (1865-1903): abertzaletasun politikokoaren formulatzaile eta, horretan oinarriturik, hura indartzera letorkeen alderdi politikokoaren fundatzaile eta zabaltzaile. Euskaltasuna indartu nahi du berak, besteak beste, bere esparru-alor guztietan: soziokulturazko osaeran oro har¹⁸, eta hizkuntzarenean bereziki. Hartarako erabilgarri gerta dakiokkeen *glorious past* eratzen, osatzen eta asmatzen jardungo du buru-belarri, Europako protoelite abertzaleetako beste hainbat aitzindarik bezala, eta bere proiektu politiko-operatiboari hainbat erreferentzi ikur eransten: *aberri*, *abenda*, *Euzkadi*, *euzkotar*, *askatasuna*, *ikurriña* eta abar. Bere proiektu horren muin-muinean dago euskara, egunetik egunera ahulduago dagoen hizkuntza, indarberritzea: buru-bihotzetan duen *Euzkadi* berri horri jatortasun-zigilua eta, arrazaren kontzeptu batez edo bestez, Jainkoa lagun bizi-iraupenezko bermea emango dion hizkuntza "nazionala". Jendea bildu behar du, horretarako, bere ingurura. Bildu eta bere ondoan gorde, ez uxatu. Politika eta euskalgintza uztarri berean loturik ikusten ditu berak. Euskaltzale benetakoa izateko, abertzale izan behar da bere ustez. Eta abertzale nor den, berak definitzen du. Euskaltzale porrokatua eta Euskal herriaren maitale sendoa izatea ez da aski, Aranaren abertzaletasun-*labela* eskuratzeko. Abandoarrak berak aitorturik dakigu haren inguruan ibiltzea, berari oso-osoan men egin gabe, ez dela batere gauza erraza¹⁹: airean astintzen ditu euskaltzale sendoenak ere, bere helburu politiko-operatiboen argitan (edota helburu horrekin loturik zihoan "euskara on"-aren eredu egokiaren kontuan) bide-okertzeren bat antzematen dien orduko. Damnifikatuena zerrenda luzea da noski, Azkue eta Campion aurre samarrean daudelarik. Kalte hartutakoen erantzuna ere, lagunarte hurbilenetik kanpora inoiz gutxitan agertzen den arren, parekoa-edo izan ohi da: *Prakerre*, *Kirten*, *Jaun Zuria II.a*, *Tirano de Sukarrieta* eta antzeko izengoitiak bere lagunek, ez bere etsaiek, jarritakoak dira guztiak. Zurruna da Arana, giza arteko harremanetan: gauzak bere osoan erabaki eta onartu behar direla uste du, eta erdibideko konpromisoetara iristea asko kostatzen zaio. Ortografiaren batasuna, berriz, nekez egin liteke konpromiso moduren bat lortu eta urte luzez bere horretan gorde gabe.

Gatozen Azkuerengana. Handia da Azkue (1864-1951) gorpuzkeraz, bizialdiz eta esan-eginez. 1888an apaiz egiteaz bat, Bizkaiko Institutuan hasi da irakasle-lanean. Bizkaiko Diputazioak sortu berria duen

¹⁸ Ikuspegi zabalago batek, hemen esango direnez gainera, bere arraza-irizirik eta erlijio-kontuak aurrez aurre landu beharko lituzke.

¹⁹ Kizkitzari 1899an aitortua zionez "a los ojos de los que no me conocen debo de ser una fiera que no puedo estar más que riñendo con todos".

Denbora eta aukera ez du Azkuek alferrik galtzen. Corpus-plangintzaren alorrean, horrela, berariazko gramatika eta hiztegia prestatzen hasten da berehala.

Jendaurrean ez da, Sabino Aranaren moduan, enfrentamendu pertsonalik sortzen ibili zale.

euskal katedraren kargu egin da orduan, eta hor jardungo du 1903 arte (hots, Europako bere ibilaldi luzeari ekin arte). Gotzaitegiak ez dio, katedran dirauen artean, lan-lotura esturik dakarren elizkargu edo obligaziorik jarri. Libre dago, hortaz, gorputz eta anima euskalgintzari heltzeko. Denbora eta aukera ez du Azkuek alferrik galtzen. Corpus-plangintzaren alorrean, horrela, berariazko gramatika eta hiztegia prestatzen hasten da berehala. Gero “gaztetako bekatu”tzat hartuko duen *Euskal Izkindea* 1991n argitaratu du, eta *Iztegia* ere taxutzen ari da burutik burura. Corpus-plangintzaren *codification stage* hori oso begikoa izango du bere bizi guztian. Euskara indarberritze aldeko langintza ez du, ordea, ildo horretara mugatzen: *implementation stage* eta (Cooper-en hitzetan esateko) *acquisition planning* ere etengabe landuko ditu lekeitiar irakasle nekagaitzak. Etengabe eta jeniño biziz. On Resurrección María ere ez baita, gaztetan bereziki, isilik eta otxan egoteko jaio izan diren horietarikoa. Berak aitorturik dakigu odol-gorria izana dela bera, ez Txomin Agirreren pareko odol-zurbila²⁰. Urteekin gozatu egingo da gizona, baina lehengo lepotik du burua. Jendaurrean ez da, Sabino Aranaren moduan, enfrentamendu pertsonalik sortzen ibili zale. Zorrotza eta garratza da hainbatean, pulpitutik jarduten duenean edo *Vizcaytik Bizkaira* moduko argitalpenetan, mingarri zaizkion gizarte-arazoak plazaratzerakoan: halakoetan ez da ordea, normalean, *ad hominem* sartzen²¹. Besterik da, aldiz, eskutitz bidezko elkaridazketari heltzen dionean. Bereak eta bi esaten ditu hor, inolako lotsarik gabe. Isilikako maniobren zale da, gainera, On Resurrección. Hots: konfiantzako harreman-sare hautetsian oinarriturik, diskreziozko interbentzio-neurrien aldekoa da oso. Lau paretaren arteko elkarriketa garbiaz, edo eskutitz zorrotzaz (aldian behin mingarriaz, inoiz ez ordea iraingarriaz), bere intereseko neurriak aurrera ateratzen gogor saiatzen da. Ondorioa ere bistan da: bidean aurrean jartzen zaiona ondo asko enteratuko da, batera ez bada bestera, Azkueri kontra egiteak baduela ondorenik.

Manex Hiriart-Urrutiz (1859-1915), era berean, aspalditik esanak daude gehienak. Azterkizun dugun garai horretan (eta kasik 1882an apaiztu zenetik) Baionako Elizbarrutiaren Larresoroko Seminarioan irakasle da hazpandar gaztea. Langintza ez du ordea, berak ere, irakaslan horretara mugatzen: iparraldeko xurien bozeramale sutsua den

²⁰ Ikus Villasante, Historia de la Literatura Vasca.

²¹ Sotanadun izateak, jakina, ez dio aparteko askatasunik ematen plaza-gizon osoa izateko. Ez, behintzat, *Establishment* nagusiaren ibilbidetik kanpora (are gutxiago ibilbide horren kontra) jarduteko. Bere umore zabal, sendo, etenik gabeak, eta aldian aldiko gizarte-girora harrigarriko erraztasunez moldatzen jakiteak, lagundu egiten dio, halere, bestela itxirik lukeen hainbat leiho-ate zabaltzeko. Alderik alde ez bada ere, bai behintzat bere burua (gorputz sendo askoa barne) tartetik pasatzeko. Hartarako egin behar izaten dituen ziraun-filigranak ez dira guztien gogoko. Ez, bereziki, S. Aranaren atsegingarri.

Euskarazko kazetaritzan (eta kazetaritza bidezko iritzi-sorkuntzan eta -zabalkundean) inoiz maisurik izan bada iparralde osoan, Hiriart-Urruti da hori.

Maisu da Vinson, hautsak astindu eta eztabaida pizten. Hautsak astintzeaz gainera merituak ere baditu, ordea, euskalari atzerritarren artean lehenengo ilaran egoteko.

Eskualdun kazetan (hots, *Eskualduna* astekarrian) lankide da 1891tik aurrera. Iritzi-artikuluak eta bestelako antolamendu-kontuei dagokiez, lankide ez ezik arduradun ere ari da *de facto* bihurtzen. Apaiz izaiteak ez dio, berari, traba handirik egiten bere gogoko ez dituenak etsai deklaratzeko eta halakoei dagokien eskarniozko tratua emateko. Gustukoak ez dituenak larrutzen eta astero-astero *Eskualdun* kazetan moldeko letraz barreiatzen maisu da bera. Iparraldeko Eliza Katolikoa-ren, eta oro har bertako xurien, defendatzaile sutsu eta bozemaile ezagun bihurtzen ari da merezimendu propioz, eta dedikazio pertsonal horrek sostengu sendoa eskaintzen dio, *Establishment* erlijiosoaren eta eskuindar askoren (ez guztien) aldetik. Euskarazko kazetaritzan (eta kazetaritza bidezko iritzi-sorkuntzan eta -zabalkundean) inoiz maisurik izan bada iparralde osoan, Hiriart-Urruti da hori. Aurrean hartzen duena astin-astin egiten ondo baino hobeto daki berak, bere zirkada bereziaz. Eskutitzez, orobat, ez da inoiz erdizka ibili zalea: oso zorrotza da bere buruarekin, eta halaxe hartzen ere ditu bere "lagun" diletanteak, azken orduko ideia berriaren ondotik txoro-txoro dabiltzanak edota, momentuko errazkeriagatik, azken (bere azken) xedeak arriskuan jartzen dituztenak.

Julien Vinson (1843-1926) ere lehen mailako aktorea dugu, bere gogoz kontra bada ere, Hendaiako biltzarrean. Bera ere ez da, euskalarien eta euskaltzaleen alorrean batik bat, isilik eta baketsu ibili ohi diren horietarikoa. Maisu da Vinson, hautsak astindu eta eztabaida pizten. Hautsak astintzeaz gainera merituak ere baditu, ordea, euskalari atzerritarren artean lehenengo ilaran egoteko. Euskal liburu zaharrak eta erdi-galdurik dauden testuak (berr)argitaratzen aparteko lana ari da egiten. Euskal kontuei buruzko libururik ere badu paraturik. Horiek aski ez balira 1891n *Essai d'une Bibliographie de la langue basque* atera (eta handik zazpi urtera osatu) duenetik ezinbesteko erreferentzia bihurtu da Vinson, euskal ikasketen alorrean zientzi arauz eta atzerriko jakintza-bideen ildotik aurrera egiteko. Aurreko urtean (1900en) Parisko Euskal Kongresua antolatu izanak gehigarriko itzala ematen dio, gainera. Bilboko J. Urkixok bere harreman-sare intelektuala nazioartean hedatu arte bera (hots: Vinson) izango da, askorentzat, etxeko eta kanpoko euskalarien arteko zubi nagusia. Atzerritar gehienek baino hobeto daki berak euskaraz (idatzi ere inoiz egin izan du) eta euskal ortografia bateratzeko proposamen konkreturik ere badu besapean. Bestelako ezaugarriak ere badu, ordea, oihan-zain orientalista ezagunak. Batetik, progresoaren eta zientzi emaitzen ikuspegi zurrun-itsuak mendean harturik dauka Vinson. Ikuspegi horrek eraginik honako hau esana dauka, adibidez: "No hay nada nacional de los vascos, absolutamente nada original que no sea su idioma, y se debe precisamente a este hecho el que este idioma sea incompatible con su civilización actual —la española— el que no

Horrela pentsatzen duen euskalariarekin ez du erraza izan behar, jakina, alde bietako euskaltzaleak jardunaldi batean biltzea: zertarako eta beren hizkuntza ahula indarberritzeko.

Miguel Unamuno (1864-1936) dugu, azkenik, kontuan hartu beharrekoa. Bere bizialdi luzean maiz egingo duen bideberritze horietariko batean sartua dago Miguel, mende-hasieran horretan.

pueda ya sobrevivir y debe desaparecer fatalmente. El euskera no es ni una lengua literaria ni una lengua conveniente a los instintos democráticos de nuestro siglo” (Vinson, 1876). Horrela pentsatzen duen euskalariarekin ez du erraza izan behar, jakina, alde bietako euskaltzaleak jardunaldi batean biltzea: zertarako eta beren hizkuntza ahula indarberritzeko. Iparraldean ezezik hegoan ere jendea gogor ateratzen zaio kontra: lehenengoa Luis Luziano Bonaparte printzea izan zen, 1877an, eta handik gutxira Gorostidi abokatu donostiarra (Revista Euskara I, 1878, 215. or.). Badu gainera Vinsonek, ezaugarri hori aski ez balitz, beste eragozpen-markarik ere: xuri-klerikal-tradiziozaleak ez ditu batere gogoko. Beraiek ere ez, jakina, librepensadore frantses, framazon-gorria. Atzerriko euskalariarekin ere, azkenik, eztenkada bizian jardun ohi du zubigile behar lukeenak. Gogotik larrutuak ditu Luchoire, Bonaparte eta Van Eys, A. Campion-ez eta S. Aranaz gainera. Eztabaida bizia izango du, gainera, Charency-rekin, Schuchardt-ekin eta Stempf-ekin. Bere ondoan ere ez da giro, hortaz.

Miguel Unamuno (1864-1936) dugu, azkenik, kontuan hartu beharrekoa. Bere bizialdi luzean maiz egingo duen bideberritze horietariko batean sartua dago Miguel, mende-hasiera horretan. Soziokulturazko deskribapen zorrotzak, hainbat puntutan perspektiba historiko sendoan eraikiak, dakartzan *Paz en la Guerra* argitara berria du. Eleberriarren hainbat deskribapenetan ez da zaila Unamunok Euskal herriaz eta euskal gaiez handik aurrera izango duen ikuspegi nagusiaren ardatza asmatzen. Bueltarik gabeko transetnizazio eta mintzaldatze “natural, berezko” baten formulatzaile informatua da bera. Kontu horiek lehenagotik elaboratuak ditu berez, baina orain hasi dira jendaurreko oihartzun zabala eskuratzen. Euskal ameslari suharra gaztetan, unibertsitate garaiko jakiniturrien ildotik etxetikako eta Bilboko Zazpikaleetako erdal-elebitasun pertsonala euskararen berezko ezintasunaren paradigmara jasotakoa ondoren, euskaltasunaz eta euskara indarberritzeko saioez zenbait gogoeta zorrotz eginikako pentsalari gaztea: hori eta gehiago dugu bilbotar irakaslea. Erdal *Establishment* akademikoan aurrera egiteaz bat hispanokonformidarearen euskal bertasio berriaren formulatzaile akademikoa ere bada Unamuno. Hendaiara agertu ez bada ere, bertara bildutakoek bizibizirik dute Salamankako errektore izendatu berriak hemeretzi egun aurretik Bilbon, Lore Jokoen hitzaldi nagusian esandakoa. Unamunoren euskal sentieraz, euskaltzaleekiko destainaz eta sarri-askotako jokabideaz Hendaiako biltzarlagun batek baino gehiagok idatziko du, oso minduta idatzi ere, fetxa-inguru horietan. Bere iritzi-aldatze nabarmenez, eta goikoak lausengatzeko behekoak hankapean erabiltzeaz batez ere, euskaltzaleen kritika mingotsak jasoko ditu hantemen. Aldekoak ere baditu noski, Grandmontaigne bat adibidez, agerian edo eskutitz bidez txalo-jotze handiak egingo dizkietenak.

Salamankako errektoreak poz-pozik jarri ditu batzuk bere hitzaldiarekin, eta sutan euskaldun-euskaltzale gehienak. Inor gutxi gelditu da, nolana ere, eztabaidaren zurrumbiloi sartu gabe.

Kritika-zaparradaren erdi-erdian egingo da, nolana ere, Hendaia biltzarra. Bileran bertan ez dago Unamuno, baina guztien gogoan eta askoren ahotan bai. Kritika horien balioespen-saio globala egiteko dago oraindik. Halakorik inoiz egin nahi bada, Unamunoren beraren a *posterior*ko esplikazioak ere kontuan hartzea komeniko da. Bestere-naz gainera, eta haien epaiaren nolabaiteko bermagarri, bere aitormen espresurik ere ez da falta noski²²: "... en los elogios que por aquel acto se me han prodigado hay un fondo repugnante, hediondamente repugnante. No me alaban lo que se llama patriotismo, no el decir serena y tranquilamente la verdad, no; les regocijó el ver que se sintió herido en vitales sentimientos un pueblo, mi pueblo vasco, al que aborrecen. Fuí, sin quererlo, un instrumento de sus mezquinas pasiones". Zientzi goseak ez baina euskal gorrotoak eragindako txalo-zartadek ustekabeen harrapatu zutela dio berak: hitzaldi "zientifikoa" behar zuen lekuan gorrotoa lege. Aitormen hori baino gogorragorik nahi duenak beti dauka, jakina, urte-inguru horietan Azkue irakasle-abadeak, Campion poligrafoak, Arana plaza-gizonak eta, batez ere, Unamunoren beraren lehengusu-osaba Telesforo Arantzik gai horretaz idatzi zutenera jotzerik²³. Salamankako errektoreak poz-pozik jarri ditu batzuk bere hitzaldiarekin, eta sutan euskaldun-euskaltzale gehienak. Inor gutxi gelditu da, nolana ere, eztabaidaren zurrumbiloi sartu gabe.

Jenio biziko *Prima donna* horien ondoan, bestalde, txepelak eta kemen-epelak ere badira Hendaian. Ez gutxi, gainera. Hasitako lanari jarraipena ematen ez dakitenak. Zer egin behar den esateko beti prest daudenak, baina lana bere gain hartu eta aurrera ateratzeko gai ez direnak. Etxean seme-alabei euskaraz erakutsi ez baina biltzarretan, oihuka bizian, euskararen aldeko beren planak aldarrikatzen dituztenak. Horiek ere ez dute Hendai-Hondarribietako jardunean eragin txikia izan. Askoz handiagoa, nolana ere, orain arte esan izan dena baino.

Horrelako jende-modua bildu da Hendaian edo Hendai inguruan. Ez da harrizkoa, beraz, biografiako argi-ilun horiengatik ere haserre-

²² Ikus 1905eko urtarrilaren 29ko *Euskalduna*.

²³ Bakarrik izan gabe ere Telesforo Arantzikaren eskutitz pertsonalak dira, ene ustez, Unamunoren nortasun-aiheka hori argien azaltzen dutenak. Etnokultura txikietako arrisku estrukturala ere bada, dena den (eta ez soil-soilik norbanako baten edo besteren ezaugarri bihurri-iluna), nork bere "encumbramiento personal"-erako etxeokoa ahaztu eta kanpoko nagusiaren sailera aldatzea. Ingeleseko esaldia ere badago, hizkuntzaren soziologian, fenomeno estruktural hori azaltzeko inoiz edo behin erabili izan dena: "if you can't beat them, join them". Jokabide ilun-mingotsa da hori, plano pertsonalean. Baina gizarte-bizitzan indarturik zegoen (eta dagoen) balore-sistema jakinaren argitan esplikatzeko erraza ere bai: euskara-erdaren *social reward (and sanction) system* direlaokoen desoreka sakonaren ondorio zuzen eta konpungaitza da jokabide hori, nolana ere.

Eskueran ditugun datu apurrekin ez da erraza jakiten, porrot haren motibo nagusia zein izan den.

bideak eta adar-hots handiak gertatu izana urte-pare hartan. Eskueran ditugun datu apurrekin ez da erraza jakiten, porrot haren motibo nagusia zein izan den: glotopolitikazko ideologia desberdinen ezin elkar eramana, bertako hainbaten nortasun-ezaugarriak bateraezinez izatea edota, soil-soilik, hainbaten nagitasuna eta zenbaiten gaitasunik eza. Faktore guztiok eragin dutela, segurutzat eman liteke gaur. Nagitasun kontuak eta gaitasunik eza geroko utziaz lehenengo puntu biak, luze-zabaleko hizkuntz ideologiak eta benetako buruzagien nortasun-ezaugarriak, xeheago aztertzen saiatzea komeni zaigu hortaz, orduko eztabaida haiek itxura batean ententiduko baditugu.

II.4. Hendaia, hizkuntz ideologia nagusien talkagune

Has gaitezen, horretarako, garai hartako hizkuntz ideologia nagusien deskribapen-saioarekin. Nondik hasi ordea, eta nola osatu, deskribapen hori? Hoberik ezean, eta kontuak xingleegi ateratzeko arriskuaz izango bada ere, honako bost galdera hauek gerta litezke joan den mendearen hasierako ikusmolde eta jarrera haien azalpen-ardatz nagusi:

- euskara (eta, oro har, euskaltasuna) galtzen ari al da?
- zergatik ari da euskara galtzen?
- galera hori konpondu al daiteke?
- konpondu nahi al dugu?
- zein da konponbidea?

Orain ehun urteko gizartean, iparrean zein hegoan, genotipozko arazo bihurtutik zegoen euskara-erdaren kontua, eta fenotipozko “konflikto” bihurtzera zihoan handik gutxira (1902-03 urtealdian).

Segun bost galdera horiei zer-nolako erantzuna ematen zaien, halakoxe ideologi modua ageri ere da Hendai-Hondarribietako biltzarkideen eta garai hartako iritzi-sortzaile nagusien artean. Orain ehun urteko gizartean, iparrean zein hegoan, genotipozko arazo bihurtutik zegoen euskara-erdaren kontua, eta fenotipozko “konflikto” bihurtzera zihoan handik gutxira (1902-03 urtealdian): Frantzialdean lehenik, euskal dotrinaren debekua zela medio, eta hegoaldean handik berehala. Gizarte-bizitzaren azal azpiko arazo hori ez zen eguneroko hedabideetan ageri, baina bai Frantzi-Espainietako kantzilerietan, eliz eta probintzi agintarien esparruan eta, oso bereziki, Bilboko, Iruñeko eta iparraldeko protoelite euskaltzaleen artean²⁴. Jendaurreko konflikto-eztanda, berez, 1902ko udazkenean hasi eta handik aurrera mingostuko zen. Horixe da, hain zuzen, 1901-02ko gizarte-giro hartan nabarmen ageri zen sakoneko eztabaida.

Eztabaida hori guztia ahazturik Hendai-Hondarribietako elkar-hartzeak eta elkar-jotzeak argitzen jardutea aski lan antzua da. Itxuraz

²⁴ Gero azalduko den moduan, eta behar bezain ondo argitu gabe dauden motiboengatik, “hizkuntz arazoa”ren kontu hori ondotoz itzaliago zegoen, une horretan, Donostian eta Gipuzkoa osoan. 1906tik aurrera agertuko ziren Gipuzkoan, indarberriturik gainera, hizkuntzaren inguruko ekimenak eta eztabaidak.

ortografi kontuekin aztoraturik zebiltzanean ere, goiko beste bost galdera horien zurrunbiloan katramilaturik baitzebiltzan guztiak, bat bakarra ere apartatu gabe²⁵. Eztabaidatzen zutena ez zen *etxe*, *etse*, *etche* edo *eche* behar zuen. Ez hori bakarrik, behintzat. Ikus dezagun beraz, labur-labur izango bada ere, bost galdera-modu horien inguruan zer-nolako ikusmolde, sentiera, jarrera, interes eta konpromisoak (hitz batean esateko, zer-nolako ideologiak) eratzen eta osatzen ari ziren.

II.4.1. *Euskara eta euskaltasuna galtzen ari al dira? Euskal hizkuntzaren eta etnizitatearen osasun-diagnostikoa*

Hendai-Hondarribien aurretik eta haien ondoren, hizkuntza kontuei dagokienez eta garaiko ikusmolde-ideologia guztien gainetik, horixe da hain zuzen adostasun zabaleneko puntua. **Baietz, euskara eta euskaltasuna galtzen ari direla.**

Hau da, inolako duda-jenerorik gabe, eztabaida guztien abiaburua. Harrigarria bada ere gai horretaz ez dago, lehen begirada batean behintzat, desadostasun handirik. Hendai-Hondarribien aurretik eta haien ondoren, hizkuntza kontuei dagokienez eta garaiko ikusmolde-ideologia guztien gainetik, horixe da hain zuzen adostasun zabaleneko puntua. *Baietz, euskara eta euskaltasuna galtzen ari direla*: hala esaten dute orduko guztiak. Horretan ez dago salbuespenik: kontserbadore eta aurrerakoi, euskaltzale edo ez, bertako hiritar xume zein kanpoko espezialista hotsandiko, aho batez onartzen dute guztiak euskaltasuna eta euskara galtzen ari direla. Menderik mende bere buruari eusten (eta hartarako, jakina, bere neurriko egokitze-lanak egiten) harrigarriro jakin izan duen euskal konstelazio etnokultural osoa gainbehera dator: horretan ez dute dudarik egiten. Behinolako (zenbaitetan, orain puntura arteko) janzkera eta jan-edanak, kaleko etxeen eta langile-auzo berrietako etxalde osoen eraikuntza-moduak, behinolako lanbide-moduak eta hartarako prestakuntza-bideak, jendearen eta merkantzien garraio-moldeak, itsasgintzatik artzantzara arteko interdependentzia sozioekonomiko beregaina, kalearen eta baserriaren arteko sinbiosi-molde arras berezia, familiaren osaera eta itzala, testamentu egiterakoan ondasun nagusia seme edo alaba bakarrari eskuratzeko *betiko legea*, gurasoek hitzarturiko ezkontza-tratuak, astialdiko denbora-pasa, joko, jolas eta kirol-moduak, abemariak jo arteko kalejirak eta dantzak, kantu zaharrak eta txistu-doinuak, aldian behingo errefrau-esaerak, supazterreko ipuinak eta kontuxarrak, jaiotzatik heriotzara arteko ospakizun-erritoak, giza arteko eginbeharrak eta eskubideak eta, nola ez, gizalegearen eta gizabidearen arauemaile nagusi eliza izatea: hori guztia ahultzten, bestelakotzen eta galtzen ari da egunetik egunera. Gainbehera horren barruan ikusten da,

²⁵ Bost galdera horiek, eta Hendaiaiko ortografi auzia, are modu sinpleagoan ere adieraz daitezke agian. Ondoko hiru galdera-puntuon jirabueltan, hain zuzen: zer-nolako herri (Euskal herri, Espainia etab.) nahi dugu?; euskarari zer leku eman nahi diogu hor?; leku hori ongi bete ahal izateko, zer itxura-molde emango genioke euskara idatziari? Azterlan honen xedea kontuan izanik, halere, goiko bost galderak landuerrazago eta argigarriago direla iruditzen zait.

ez hortik aparte, euskararen indargabetze eta bizitasun-galtze amai-gabea ere.

Vinsonek eta Unamunok, era berean, ezinbesteko gertaera errealtzat hartzen dute euskararen galbidea: progresoaren berezko emaitza da ordea, aditu bi hauen iritzian, indargaltze hori.

Bidasoaz alde bietako *Establishment* politiko, ekonotekniko eta akademikoentzat, azkenik, denbora kontua da guztia.

Reclus soziologo anarkista izan da seguruenik, kanpoko aztertzaileen artean eta XIX. mendearen bigarren erdialdeari dagokionez, hemengo berrikuntza-moldeak sortutako dislokazio soziokultural horren lehenengo deskribatzaile sistematikoa²⁶. Geolinguistikari dagokionez, konkretuki, euskara-erdaren nagusitasun-esparruak kota topografi-koarekin lotzera iritsia da bera: beheko haran-ibarrak eta zabaldiak, hiriburuak barne, erdararen esku daude; goi-herriak eta mendi-hegalak (oraingoz) euskararen mende. Campionek berak ez dio, funtsean, Reclus-en azalpen egonkor-itxurako horri formulazio dinamikoa baizik erantsiko, bere ohiko idazkera erromantiko dotoreaz: "el euskera huye hacia las cimas de los montes, para morir más cerca de Dios". Vinsonek eta Unamunok, era berean, ezinbesteko gertaera errealtzat hartzen dute euskararen galbidea: progresoaren berezko emaitza da ordea, aditu bi hauen iritzian, indargaltze hori. Progreso-mota jakin-konkretu hori gizarte berriaren berezko paradigma unibertsaltzat hartzen duten neurrian, gizakion erabakimen-esparrutik haranzko fenomeno ere bada, bataren zein bestearen irudiz, euskaltasunaren eta euskararen gainbehera hori.

Bidasoaz alde bietako *Establishment* politiko, ekonotekniko eta akademikoentzat, azkenik, denbora kontua da guztia. Aginte- eta erabakimen-esparruetan ez da dudarik egiten eraikuntza etnokultural zaharkitu hori erortzen ari dela eta, bere orde, edifizio sozial hobea eraikitzea komeni dela lehenbailehen, zibilizazioaren eta gizarte-bizitza baketsuaren izenean. Transetnizatze eta mintzaldatze hori bultzatzerakoan, azken euskal *nativoen* beraien mesedetan ari dira antza, inoiz besterik badirudi ere, estatu ongileak. Zenbat denbora itxaron behar-ko ote da, ordea, transetnizatze osabeteaz hitz egin ahal izateko? Parisen luzeiritziz daude agintari batzuek (Tausia), azken hamar urteotan. Ez ote da hobe —diote berekiko— zuzen-zuzenean, kontenplaziorik gabe, debeku-bidearen gurpilari buelta bat gehiago ematea? Informatuenek badakite, nonbait, debeku-neurriak areagotzen ez badira uste baino luzeago joan litekeela alderik aldeko euskalgabe-zearen kontu hori.

Justu-justu ehun urte aurretik (1801ean), berariazko ikerbidaia egin ondoren eta euskal maitezko aitormenez, iragarpen etsia egina zuen Wilhelm Humboldt: inguruotako gizarte-urak zihoazen bidetik zihozelarik, euskal agregatu etnokultural honek ez omen zuen ehun urte-

²⁶ Ikus, batez ere, bere "Les Basques — Un peuple qui s'en va", in *Revue des Deux Mondes*, XXXVII. alea, 1867ko martxoaren 1ekoa.

tik gora bizirik iraungo. Ehun urte pasa dira ordea eta, orduan bezain bizkor ez bada ere, indarrean dago euskara zenbait eskualde, jardungune eta rol-harremanetan. Baserri-giroan eta arrantzaleen artean, baita hainbat herri-herriskatan ere, euskara-erdaren diglosiazko eramolde zaharra da orain ere jaun eta jabe. Etxegiroa eta lagunartea, aurrez aurreko harreman-sare hurbilak eta eguneroko mintzajardun arrunta euskararen erreinu dira, oraindik ere, diglosi bide tradizional hori bizirik gorde den lekuetan. Eramolde tradizional hori atzeraka doa, ordea, lurraldez. Eta ez lurraldez bakarrik: soziofuntzionalki ere ahultzen ari da. Etxea eta lagunartea, kale-bizitza arrunta eta eguneroko langiro xumea non ditu oraindik bere esku?: modernizazio ekonoteknikoa, urbanizazio zabala eta etorkinen herriratze masiboa elkarren gainka bateratu ez diren kasuetan. Uste baino luzeago gertatzen ari da euskal agonia, baina garbi ikusten da norabidez ongi asmatu zuela Humboldttek: epe kontuan oso motx gelditu zen, baina nondik norakoan ez zebilen batere oker Berlingo jakintsua.

Ziztu bizian batzuen ustez, espero
baino motelago beste zenbaiten
iritzian, galtzen ari da
euskaltasuna.

Honegatik ez bada hargatik, gertatzen ari den aldaketa horrekin pozik sentitu edo triste, sortzera doan konfigurazio berriaz itxaropentsu egon edo haserre bizian, ados daude guztiak diagnostikoarekin: ziztu bizian batzuen ustez, espero baino motelago beste zenbaiten iritzian, galtzen ari da euskaltasuna. Menderik mendeko aldaketa soziokulturalak bere kabuz eta bere gisa erregulatzen, eta horrenbestez bizirik jarraitzen, jakin izan duen euskal etnokultura jator hura gainbehera dator. Soziokulturazko autorregulazio-ahalmen tradizional hura galtzen ari da. Horren ondorioz, eta egunetik egunera nabarmenago, aspaldi-aspalditikako etnokultura berezi horren zati nabarmen, adierazpide nagusi eta ikur seinalatua den euskara bera ere gainbehera dator.

Den-denean iritzi bereko ez
badira ere, funtsezko puntu
horretan behintzat bat datoz
Hendaiara bildutakoak.

Den-denean iritzi bereko ez badira ere, funtsezko puntu horretan behintzat bat datoz Hendaiara bildutakoak: bere onetik aterata, gogor erasanda, galtzeko arrisku bizian dagoen “zerbait”-en konponbidez jardutera datoz biltzarrerara. Ez datoz egoeraren tristeaz kexatzera, arazoari konponbideren bat bilatzera baizik. Gauza berria da gogo-jarrrera hori, halako neurri batean. Urtero bildu ohi dira han-hemen, ia mende erdiz, euskara eta euskaltasuna goraltzeko, omentzeko eta euskal izate osoaren ederraz eta jatorraz gozatzeko. Bai eta, azken 20 urtean hor-nonbait, bere gaixotasunaz kezkatu eta “zerbait egin beharko litzatekeela” esateko ere. Oraingoan, ordea, esateaz gainera egitera doaz. Ez bakarka (horrelakorik ez da lehendik ere falta izan), zazpi probintzietako euskaltzale askok elkar harturik baizik. Elkar hartuz zerbait, eta berehala, egin beharraz ados daudelako etorri dira hain zuzen Hendaiara. Itxurazko adostasun zabal horrek oso erantzun diferenteetara eramango ditu, ordea, hurrengo galdera egin orduko.

II.4.2 Zergatik ari da euskara galtzen? *Language shift* edo luze-zabaleko mintzaldatzearen iturburuak.

Hiru dira, funtsean, azalpen-bide nagusiak: euskararen berezko ezintasuna; faktore politiko-operatiboen erabakimena; irabazpiderik gabeko gizarte-moldaeraren eragina.

Bukatu dira adostasunak. Bakoitzak bere esplikazioa ematen du, euskara zergatik galtzen ari den galdetzen zaionean. Hiru dira, funtsean, azalpen-bide nagusiak: euskararen berezko ezintasuna; faktore politiko-operatiboen erabakimena; irabazpiderik gabeko gizarte-moldaeraren eragina. Ikus ditzagun beraz, halako xehetasun batez, hiru esplikazio-molde nagusiok:

a) “El vascuence no sirve para la vida moderna”: *euskararen berezko ezintasuna*.

Euskarak bere barruan darama gaitza, sendatu ezina. Euskarak ez du balio zibilizazio berrirako: lastre bat da. Ezin da ukatu Parisko eta Madrilgo estatu- aparatuek frantses-gaztelaniak bultzatzen dituztela sistematikoki, ahalegin betean; baina euskara atzera baldin badoa ez da horregatik. Berez da inkapaza, bizigiro urbano berriak eta kultura teknifikatuak eskatzen duten kontzeptu-sare trinkoa sortu era hiritar modernoan adierazpide malgu, zorrotz eta aberats bihurtzeko. Linguistek garbi azaldu dute hizkuntza aglutinantea dela euskara, ez (ingelesa, frantsesa eta gaztelania bezala) analitikoa. Nazioarteko hizkuntzalaritzak garbi azaldu du —hala uste dute Vinsonek eta Unamunok— hizkuntza aglutinanteak motx gelditzen direla analitikoan, kontzeptu jasoak eta abstrakzio-mundua zehatz agertzeko orduan. Bere auzo-hizkuntza nagusiak baino traketsagoa da beraz euskara, zibilizazio berriaren mintzabeharrei bete-betean erantzuteko. Kontzeptu abstrakturik ez du euskarak. Ez, behintzat, bere baitariko hitz-altxorretik sorturikako hitz abstrakturik. Halakorik behar duenean, latin-erromantzeetara jo behar izan du bere historia osoan, eta orain ere horretaraxe jo beharra dauka ezinbestean: hor daude, esate baterako, behinola-ko *arbola, fedea, kolorea, borondatea, mila...* eta orainaldiko beste mila honelako.

Julien Vinsonek aspaldiko leloa du hori. Ez berak asmatu-rikkoa, baina bai bere-berea. Hogeitaka urte ditu, Hendaia aurretik, Abel Hovelacque-ren pentsamoldea eguneratuz *Asociación Euskarako* Arturo Campionekin eta *Euskal-Erria* aldizkariko M. Gorostidirekin berezkotasun horren inguruan katramilatu zela. Esentzialismo argia da izan, zientzi itxuraz estalia egon arren, hizkuntzen berezko ezintasunaz hitz egitea. Hizkuntzalaritzak argi asko azaldu du hori XX. mendean. Hizkuntzaren soziologiak are nabarmenago agertu du, berrikitanago, ikusmolde intralinguistiko horren ahuldadea. Zientziaren babespeko sentitzen zen ordea, Bonaparte printzeari kontra eginaz euskararen berezko ezintasunaz ari zelarik, gure oihanzain

Nazioarteko hizkuntzalaritzak garbi azaldu du —hala uste dute Vinsonek eta Unamunok— hizkuntza aglutinanteak motx gelditzen direla analitikoan.

Vinsonen argudioak eta
Vinsonen ondokoak batera
bilduz, euskararen berezko
neke-ezintasunen formulazio
eguneratua azalduko du
Salamankako errektore izendatu
berriak Bilboko Euskal Jaietan.

Sendabiderik ez duen gaitzak
jota dago euskara, eta
horregatik dago egunetik egunera
gaixoago.

bibliografoa. Kontu haiek ahanzteko bidean-edo egon zitezkeen, horra non agertzen den Unamuno, Hendaia biltzarra baino hemeretzi egun lehenago, berriro ere Vinsonen aspaldiko lelo harekin. Vinsonen argudioak eta Vinsonen ondokoak batera bilduz, euskararen berezko neke-ezintasunen formulazio eguneratua azalduko du Salamankako errektore izendatu berriak Bilboko Euskal Jaietan. Garbi dago, beraz, epaia: euskara galtzen ari da, bai; baina bere ezintasun propioagatik ari da galtzen. Ez gaitezen beraz gainbehera horren motiboak leku okerrean (estatu-aparatuen politika-bideetan, *Establishment* soziokultural osoaren jardunbidean eta gizarte-aldakuntzaren azken urteotako eramolde konkretuan) bilatzen hasi. Sendabiderik ez duen gaitzak jota dago euskara, eta horregatik dago egunetik egunera gaixoago. Bai orduan, eta bai hurrengo urtean (1902-X-31, PEA: 28), erabateko etena agertuko du Unamunok euskaltzale-jendearekin:

- yo estoy convencido de que la principal causa es de origen *intrínseco*, y se basa en la *ineptitud del eusquera* para convertirse en lengua culta;
- el vascuence se pierde sin remedio, [] se perdería aunque formásemos los vascos nación independiente y pretendiéramos imponerlo como idioma oficial;
- nos conviene a los vascos que se pierda, pues no por ello perderemos nuestra personalidad psíquica, sino que la acrecentaremos más bien;
- el vascuence [] carece de condiciones intrínsecas para servir de medio de expresión a un pueblo que entra de lleno en la vida espiritual moderna;
- constituye un grave obstáculo para la difusión de la cultura europea en mi país;
- la razón nos pide que no malgastemos (nuestros esfuerzos?) en la baldía labor de resistir a lo incoercible []; es preciso resignarnos por lo menos al progreso.

Unamunoren hitzaldiak sutan jarriko ditu batzuk (era bateko eta besteko euskaltzaleak), eta pozez kabitu ezinik (barru-barruko poz hori jendaurrean inoiz gutxitan agertuz, ordea) besteak. Badira, noski, Unamunoren hitzalditik lezio garbia atera duten eta inolako lotsarik gabe, Hendaia bileraren ondotik (handik hemeretzi egunera), moldeko letraz ondoko esaldia plazaratuko dutenak ere: “el vascuence es un enfermo tuberculoso en su último grado que irremisiblemente perece”²⁷.

²⁷ Ikus Bilboko *La Lucha de Clases*, 366. zkia (1901-X-5)

Aurreko formulazio intralinguistikoaren aurrez aurre, glotopolitikazko interpretazio mekanikoa indartzen hasten da Euskal herrian, Bizkai aldean bereziki, Hendaiaiko biltzarra egin aurreko hamarkadan.

b) “Fueroak kendu eta euskara hil”: *faktore politiko-operatiboen erabakimena*.

Aurreko formulazio intralinguistikoaren aurrez aurre, glotopolitikazko interpretazio mekanikoa indartzen hasten da Euskal herrian, Bizkai aldean bereziki, Hendaiaiko biltzarra egin aurreko hamarkadan²⁸. Formulazio hori ere ez da bat-batean eta huts-hutsetik sortua. Aitzitik, aitaponteko ugari izan ditu amaitu berria den XIX. mende zurrunbilotsuan. Bere iturburuena bila joan nahi lukeenak are urrutia-go, Larramendirenganaino gutxienik, jo beharko luke gainera²⁹. Aspaldiko ikuspegi hori ere azalberritzen ari da ordea, eta pentsalari edo plaza-gizon jakinen alorretik gizarteratzen ari: herritar xumeen gogo-bihotzetan txertatuz, alegia, luze-zabaleko mobilizazio-indarra eskuratzen ari da. Ikuspegi zaharberri horren argudio-bidea, formulaziorik gordinenean, aski ezaguna dugu: “(Frantziak eta, batez ere) Espainiak lepezamarretik hartuta gauzka(te). Foruak kendu dizkigutenetik ez dugu askatasunik³⁰. Eta, horren faltan, herri gisa bizirik iraun ahal izateko egin behar genukeena ezin dugu egin. Horregatik (benetako aginte-ahalmen politikorik ez dugulako alegia, eta ez euskara hizkuntza aglutinantea delako edo *arbola* euskaraz nola esan ez dakigulako) goaz gero eta okerrago. Espainolezko (frantsesezko) eskolak jarri dizkigute nonahi; atzerrira bidaltzen gaituzte soldadutza egitera; epaitegietan, goi- (eta, hainbatetan, erdi-) mailako eliz karguetan, aiuntamentuan, notarioaren etxean, tregeltokietan eta karabinero-puestoetan, bertako jendearen orde euskaraz tutik ez dakiten atzerritarak, *belarrimotzak*³¹ ari zaizkigu trumilka ugaritzen. Lehengo foru-askatasun haren galerak ekarri dizkigu egungo erdal miserioak”.

²⁸ Berez, formulazio horrek ondotoz urrutia-go dituen iturburuak. Ezagunena baizik ez aipatzearren, Felipe Arrese-Beitiaren 1878ko “Ama Euskeriari azken agurra”-k bete-betean sartzen gaitu, zirkulu mugatueta oraingoz, ikusmolde horretan. Hendaia aurreko hamarkadak ezagutuko du, jakina denez, ikuskera horren zabalkunde azkarra eta politikazko hezurramitza.

²⁹ Badakigu, gainera, glotopolitikazko formulazio hori ez dela Euskal herrian sortua, ez XVIII. eta ez XIX. mendean. Nebrijaren gramatika aski da, *lingua* eta *imperium* kontzeptuak uztarri berean lotzeak ondotoz erro sakon-urutiagokoak dituela gogoratzeke.

³⁰ Kontuan izan une horretantxe hasiko dela ohiko *libertade*, *libertate* hitzen gainbehera (hegoaldeko) euskal letretan, eta aldi berean askatasun sabindiarra hasiko dela esangura-esparru horretaz jabetzen.

³¹ *Belarrimotz* hitza ez da, jatorriz, despektiboa. Ez eta anatomiazko adierazle soila ere (cf. *hankaoker*, *besamotz*, *begiurdin*, *ilekizkur*, *musugorri*,...). Sorreraz linguonimo (edo, nahiago bada, audionimo) hutsa da: esaten zaiona (hots, euskaraz esaten zaiona) aditzen, entenditzen ez duena da *belarrimotza*. Jatorrizko esanahi horretan “corto de pabellón auditivo”, “corto de audición”, “corto de oído” litza-teke erdaraz. Edota, egungo hitzetara ekarri, erdaldun hutsa, erdal elebakarra: hots, euskaraz (tutik) ez dakiena. Hitz-osaeraz *bahuvrihi* arrunta izanik ere, transposiziozko esangura hori kontuan izanik *eskuzabal*, *begiluze*, *ahobero* edo *bihozberaren* parekoa genuke adieraz, ez goiko adibide garden horien parekoa. Bestalde, jatorrizko esanahi horrek korrelato territorial argia zukeen, seguru asko, hasiera batean: *belarrimotza* atzerritarra zen bide batez, *atzerritar* hitzak XX. mendera arte (cf., bidelagun gisa, Orixeren edo Satrustegiren azalpenak *atzerrí*, *kokoerri* eta abarrekoetz) izan bide duen esanahiaz: *nafarra* (baina ez nafar-euskalduna), *riojanua*, *kastillanua* edo hortik aurrerakoa. Zail da, kontuok sakonago aztertu arte, *belarrimotz* hitzak 1900ean zukeen esanahi zehatza definitzea.

Libertate politikoen galerak
Lekarri du, ezerk baino lehen eta
aski era mekanikoan, euskararen
eta euskaltasun osoaren galera.

Euskaraz dakigularik ere, goiko
Egintariak hartara behartu ez
arren nahiago izaten dugu askotan
erdaraz jardun.

Formulazio horren barruan ere, beste hainbatetan bezala, mailak eta mailak daude. Espelikazio xuabeenetik erradikalenera alde handia, erabatekoa dago. Bere ardatz nagusiak norabide bakarra du ordea: libertate politikoen galerak ekarri du, ezerk baino lehen eta aski era mekanikoan, euskararen eta euskaltasun osoaren galera. Euskal etnokulturaren sostengu izan den gizarte-antolamenduak galdu egin du, foruen garaiko aginte-ahalmenez bat, bere buruaren jabe izateko gaitasuna. Berriro ere aginte-ahalmen hori eskuratuz eta ausart-zuhur erabiliz konponduko dira beraz, inola konpontzetan, euskal konstelazio soziokulturalaren aje-gabeziak.

c) *Irabazpiderik gabeko gizarte-moldaera*: arraina burutik usteltzen delakoa.

Ikusmolde honen lelo nagusia ere aski ezaguna dugu euskaldunok: "Jakinarean gainean edo ustez uste gabean, euskaldunok geurok gara euskararen galtzaile. Ez euskarak bizimodu berria adierazteko berez balio ez duelako, eta ez (soil-soilik) Frantzi-Espainietako estatu-egitura bortitza euskaltasunaren aurrez aurreko etsai, euskararen arerio porrokatu eta debekatzaille zorrotz delako. Etxean, geure artean daukagu gaitza. Euskaraz dakigularik ere, goiko agintariak hartara behartu ez arren nahiago izaten dugu askotan erdaraz jardun. Dotoreago eta modernoago agertzeko, dezakeen jendeak erdaraz (erdara hutsez) egiten duelako, eskola-maisuak ere hala erakusten duelako eta jendaurrean barregarri agertu nahi ez duenak erdaraz (euskal azenturik gabe) egin behar duelako. Hots, norma sozialak hala eskatzen duelako. Bizian aurrera (gizarte-statusean gora) egin ahal izateko hala komeni zaigulako, alegia. Horregatik guztiatik eta, baita ere, gero eta erdaraz hobeto, finago eta lasaiago moldatzen garelako". Badakigu, funtsean, ikuspegi honek zeri erreparatzen dion: *social change* delakoari eta, nola ez, aldaketa horren iturburutzat har daitekeen *social reward (and sanction) system* osoari. Behinolako etnolekto unibertsal izatetik, gizartemolde berria oraindik bete-betean iritsi ez zaien bazter-eskualde edo gizarte-sail marjinaletako sozialekto markatu izatera pasatzen ari da euskara. Mendi-zokondoetako baserrietan edo arrantzalegiro itxian bizi den jende xeheak, eskolatu gabeak, dirubide eskasenekoak, edadean aurrera doanak, irakurtzen eta idazten apenas dakienak, besterik ezin duenak... jende-multzo markatu *horrek*, eta ez beste inork, egiten du egunero, erraz eta ugari, euskaraz.

Are gehiago: gizajende hori ere, ahal duen bezain azkar, erdal itsaso zabal-neutralean murgil egiten saiatzen da, nola saiatu ere!, bere atzerapen-marka horiek gainetik uxatuz. Horretarako ez du gobernadore zibilaren agindurik behar. Ez eta herriko maisuarenik

Jaun-andere, jauntxo eta jaun-usaineko horiek erdarara jotzen dute ordea, egunetik egunera maizago. Hor daukagu gaitza.

S. Arana izango da, ordura arteko bere formulazio politiko-operatibo intrantsigentea baztertuz edo xuabetuz, euskalgintzaren ardatza egungo upward social mobility eta social dependency interaction direlako kontsiderazio soziologikoen haritik eramaten (eta horretarako lehen marko kontzeptuala eskaintzen) saiatuko dena.

ere. Bere gogoz egiten du jauzi, euskaratik gaztelaniara edo frantsesera. Okerrenean ere, berak erdaraz egin ezin badu (nahi izatea ez baita horretan ere aski), seme-alabei behintzat gogotik saiatuko da gizarte berrirako euskararen (orobat gero eta zaharkituago ageri den euskaltasun etnokultural legezaharrekoaren) bajeza-estigma horiek kentzen eta, bere kalamidadeak sufritu beharrik izan ez dezaten, etxeko gazteak “noranahiko hiritar prestu” bihurtzen. Sufritzeko, nahikoa da bera³². Zer kulpaa dute umeeek, bada!

Besterik genuke, jakina, Euskal Herri osoko kapela- eta lebitadunek, dezakeen jendeak alegia, Gipuzkoan orain puntura arte egin izan duen moduan euskaraz egiten jarraituko balute etxean, lagunartean eta jendaurrean. Jaun-andere, jauntxo eta jaun-usaineko horiek erdarara jotzen dute ordea, egunetik egunera maizago. Hor daukagu gaitza: burua galdu du gure hiztun-herriak. Eta badakizu: burutik galtzen da arraina; handik hasten da usteltzen. Nafarroako *Asociación Euskarak*, bertako Arturo Campionek eta Estanislao Arantzadik bereziki, urteak daramatzate kontsiderazio soziologiko horiek beren gogoeta-bide nagusian txertatzen. Indarrean dagoen *social reward (and sanction)* sistemaren eragina, horren eskuz esku datorkien *elitearen* kontzeptua eta elite horiek gizarte-aldaketaren (kasu honetan luze-zabaleko mintzaldatzearen) katalizatzaile nagusi direneko ikusmoldea, bekoki-bekokian iltzaturik daramate euskaltasun etnokultural osoaren bigarren belaunaldiko aktibatzaile horiek. Indarrak ez dute, ordea, ikusmolde horren araberrako gizarte-mobilizaziorik hezurramitzeko: ez Nafarroako protoelite *euskaro* horiek eta ez F. Sagarminagaren Bizkaiko *euskalerrriak* (cf. Corcuera, 1979). Are gutxiago Arabako eta Gipuzkoako protoelite euskaltzaleek.

S. Arana izango da, ordura arteko bere formulazio politiko-operatibo intrantsigentea baztertuz edo xuabetuz, euskalgintzaren ardatza egungo *upward social mobility* eta *social dependency interaction* direlako kontsiderazio soziologikoen haritik eramaten (eta horretarako lehen marko kontzeptuala³³ eskaintzen) saiatuko dena. Hori

³² Ondo gogoan ditu, jakina, behin eta berrito entzun behar izaten dituen horrelakoak: “Habla cristiano, hombre, que pareces un casero!”. Euskaldun-jende xehearen mintzaldatzeko gogo-irrika ez da, oro har, berariaz landutako gaia gure tradizio soziolinguistikoa. Horren adibiderik ez da, ordea, falta. XX. mendearen hasierako urteei dagokionez, konkretuki, ikus A. Campionen 1903ko irailaren 27ko hitzaldia, Euskaltzaleen Biltzarrak Irunen egindako bileran azaldutakoa (Obras Completas de A. Campión. Discursos Políticos y Conferencias: 187-8 or). Siadecok ere bildu zuen halakorik, Euskararen Liburu Zurian. Harrigarria da ordea, batez bestean, gaia hain funtsezkoa izanik zein axaletik landua daukagun.

³³ Eliteen kontua begien bistan izango du berak ere, Campion eta Arantzadi nafarren moduan. Baina euskaldun-jende osoa hartzen du berak, lehenik eta behin, gogoan: hortixe datorkio, besteak beste, masak (euskaldun-jendea eta are euskotarrak bere osoan) mobilizatze-ko bere apustua.

izango da Hendaiako (eta, oro har, 1901eko) bere ekarpen nagusia, ehun urte luzez euskaltzaleen oharkabean geldituko dena. Paradigma berriaren jendarteratzea orduantxe eta hantxe egin du berak. Evaristo Bustintza "Kirikiño", Bermeoko Serapin Albizuri eta beste gutxi batzuk alde batera uzten badira, politikazko bere jarraitzaile gehienen artean ere ahulduz joango da funtsezko irizpide hori, indartu eta sendotu ordez, abandoarra hil ondoko urteetan. Berrito ere euskal eskolak sortzea, euskal literatura indartzea eta antzeko asmoak gailenduko dira han-hemen, *language and identity planning* orok (arrakastarik izango badu) behar-beharrezkoa duen ikusmolde soziologiko zabala zatikatuz, ahulduz eta are ezabatuz.

II.4.3. Galera hori konpondu al daiteke? Hizkuntz plangintzaren bideragarritasun-auzia

Aurreko puntuaren ondorio da, neurri on batean, orain ikustera goazena. Segun aurreko galderari zer erantzun ematen zaion, halakoa izango da hemengo jarrera ere. Bideragarritasun-auziari dagokionez bitarra bil daitezke, funtsean, aurreko hiru ikusmoldeak: ezkorren eta baikorren formulazioetara. Horrela,

Euskararen berezko ezintasuna aldarrikatzen dutenentzat (Vinson eta Unamunorentzat), euskararen galera ezin da ebitatu.

a) Euskararen berezko ezintasuna aldarrikatzen dutenentzat (Vinson eta Unamunorentzat), euskararen galera ezin da ebitatu. Hemorragia edo odol-isurtze etnolinguistiko horri ezin zaio inolako frenorik jarri. Barruko minbizi horrek ez du sendabiderik. Konformidadea behar dugu euskaldunok, gauzak diren bezala onartzeko. Bilboalde horretan euskaltzale batzuk (uler bedi: Azkue, Arana eta bien segiziokoak) egiten ari diren saioak, ia erabat hondoraturik dagoen euskara xaharra berriro ur-azalera ateratzeko, alferrikakoak dira. Alferrikakoak, *patetikoak* eta, zenbait kasutan, *groteskoak*.

Beste bi ikusmoldeak dituztenek (arazo nagusia burujabetza politikorik eza edota gizartearen aurrera egiteko euskarak balio ez izatea dela diotenek), aldiz, euskara salbatu litekeela uste dute.

b) Beste bi ikusmoldeak dituztenek (arazo nagusia burujabetza politikorik eza edota gizartearen aurrera egiteko euskarak balio ez izatea dela diotenek), aldiz, euskara salbatu litekeela uste dute. Euskara gaixorik dago haien ustez ere. Ez hori bakarrik: gaixoaren gaixoaz azkenetan, hilaginean dago bertako hizkuntza zaharra³⁴. Baina ez da sendatu ezin daitekeen gaixotasuna. Iturri jakinak ditu gaixota-

³⁴ Gogoratu, Hendaiaratu direnen artean ikusmolde horren adierazle goiztiarrenetakoa bera baita, Felipe Arrese-Beitiak 1878an, Abadiaren Elizondoko Euskal Jaietan, aurkeztutako (eta lehiaketaren lehen saria jasotako) olerkia: Ama euskerearen azken agurra. A. Campioneek 1902ko irailaren 29an, Oñatiko Euskal Jaietan egindako hitzaldian, bestalde, hona zer dioen: "no nos queda ya tiempo de ser eruditos. Estamos contemplando el ocaso, el crepúsculo de Euskaria [...]" Are baieztapen zorrotzagorik egin berria du Azkuek, euskararen atzerakadaz: lehen ehun urtean baino gehiago ari omen da euskara, mintzaldatze lasterraren oraingo fase honetan, bost urtean galtzen.

sun horrek, eta iturri horiei alderantzizko norabidea ematen bazaie uste baino azkarrago sendatuko da euskara.

Hizkuntz plangintzaren bideragarritasuna: hori da funtsean batzuek eta besteek arras diferente ikusten duten kontua.

Urteetako eztabaida da, jakina, bi ikusmolde antagoniko horien artean hezurmamitzen ari dena. Ez da orain (1900 inguruan) sortutako eztabaida, lehenagotik³⁵ datorrena baizik. Amaitu ere, ondo dakigunez, ez da berehala amaituko: aldeak alde eta kontuak kontu, orduko eztabaida hark indar betean darrai handik ehun urtera ere. Hizkuntz plangintzaren bideragarritasuna: hori da funtsean batzuek eta besteek arras diferente ikusten duten kontua. Puntu horretan ez dago erdibiderik: bada edo ez da posible, ia hondoraturik dagoen hizkuntzontzia berriro ur-azalera atera eta, bere beharren eta gogoaren arauz, portuz portu ibiltzeko atontzea? Giza interbentzioak ba al du hor lekurik? Euskararen eta Euskal herriaren berpizkunde-asmu hori egingarri al da? Bideragarritasun praktikoaren kontu horretan erdibidera hurbiltzen saiatu izan direnak ere (Hendaia ondoren saiatuko direnak barne) alde batera edo bestera makurtuko dira azkenik, korapiloa askatzeko ordua iris-ten denean³⁶.

II.4.4 *Konpondu nahi al dugu euskararen osasun-arazoa? Eukarerdaren bilakaera auzigai*

Diseinatu eta hezurmamitu nahi al dugu, zinez eta benaz, ahuldutako euskara hori indarberrituko duen luze-zabaleko planik?

Diseinatu eta hezurmamitu nahi al dugu, zinez eta benaz, ahuldutako euskara hori indarberrituko duen luze-zabaleko planik? Prest al gaude era horretako hizkuntz plangintzari, hitzez eta egitez, gure baiezkua emateko? Garaiko terminologiara itzuliz *la Restauración del vascuence* horren alde al gaude, bere esanahi betean? Hizkuntz plangintzaren zilegitasun etikoari jarri ohi dio gaur egun, zenbaitek, bere erreparoa: luze-zabaleko gizataldeen mintzajarduna isuri batera edo bestera bideratzeaz ari baikara, noraino da hori gizabanakoaren askatasun-markoarekin bateragarri? Gutxien-gutxienak dira, ordea, eukarerdaren auziari 1900ean (inperio kolonial berri eta zaharberrituen garaialdi betean hortaz) aieka horretatik helduko diotenak: hain dago jendea ohiturik, aginte-organoen kontenplazio handirik gabeko interbentzio-formuletar! Hori guztia ikusirik gero eta gehiago dira, etxean bertan, era honetako burutazioak jendaurrean egiten dituztenak: "Handiarentzat zilegi dena (eta mundua mudu denetik zilegi izan dela diru-

³⁵ Lehendikako adibide ezagunetara jo orduko Benito Jamarrek eta Goikoak, beste zenbaitekin batera, Donostiako *Ateneo Gipuzcoanon*, 1880 inguruan, aurrez aurre izandako eztabaida datorkigu gogora.

³⁶ Corpus-plangintzari dagokionez oso adierazgarria da, esate baterako, Ramón Menéndez Pidal-ek izandako jokabidea. Euskarari dagokionez, "dejar que la vida y la muerte se fragüen providencialmente en el arcano operar de la naturaleza" omen da jokabide zuhurra: hala aholkatu zigan aspaldi batean. Gaztelania zuenean aztergai, aldiz, ez zen batere probidentzialista agertu.

Gaixoa ezin sendatu dela diotenentzat, erantzuna argia da: ez. Guk ez dugu alferrikako esperimendu horietan parte hartu nahi.

Euskaltzaleak sutan jartzen ditu sentiera horrek: "Etxean dauzkagu etsaiak, ama hil nahi digutenak".

diena) zergatik ezin da txikiagoentzat zilegi izan? Gu ez goaz gainera besteak beste uztarrira biltzera, geure buruari eustera baizik".

Etika kontuak ez du hortaz, Kubako porrota eta Marruecosko gorabeherak hain begien bistan diren une horretan, aparteko bozeramailerik. Bai, aldiz, batzuen eta besteen gogo-nahien konfrontazioak. Sendatu nahi al dugu euskara gaixoa, edo ez dugu nahi? Gaixoa ezin sendatu dela diotenentzat, erantzuna argia da: ez. Guk ez dugu alferrikako esperimendu horietan parte hartu nahi. Euskara ondo dago filologoentzat, hizkuntzari jakintsuen ikerketa konparatibo sakonetarako batetik eta museoan gordetzeko bereziki, ("begira gure arbasoek nola hitz egiten zuten eta zer idazten zuten" esan ahal izateko, bihar edo etzi). Horraino bai. Horitik aurrera ez. Euskara hiltzera doanez, utz diezaiogun bakean hiltzen. Ezezkoan daudenen artean ere badaude, ordea, aldeak. "Berez ez legoke gaizki, ... baina ezin da": halatsu diote, zenbaitetan, ezezko jarrera aldarrikatzen dutenek. Kontra ez omen daude berez, hala diote moderatuenek; baina aldeko neurririk ez omen da hartu behar, alferrik delako. Jarrera hori baino gogorragorik ere bada ordea tartean. Bilboko *Lucha de Clases*-en, adibidez, ez dira oraindik bi urte (1899-X-7) honako hau idatzi dutela: "Nosotros, lo decimos como lo sentimos ..., quisiéramos un Gobierno que prohibiese los juegos florales donde se ensalzan las costumbres de una región en detrimento de otras, que no permitiera la literatura regionalista y que acabara con todos los dialectos y todas las lenguas diferentes de la nacional".

Euskaltzaleak sutan jartzen ditu sentiera horrek: "Etxean dauzkagu etsaiak, ama hil nahi digutenak". Euskal herria bihotzez maite dute euskaltzaleok, bere argi-ilun eta zera guztiekin. Badakite oso hondaturik dagoela behinolako eramolde etnokultural bizi-jator hura. Erabateko hondamendi horren larria adierazteko, euskararen beraren egoera tamalgarría iruditzen zaie termometrorik hoberena. Etorkizun pozgarria desio diote ordea gaixorik dagoen herri-kulturari eta bere zati-atal nagusi, adierazpide artez eta sinbolo-ikur argia den hizkuntzari. Euskararen alde daude beraiek, ez euskararen kontra, eta ez dute amore emango.

Hurrengo ehun urterako arazoa horra hor definiturik: "borondate-kontua da, azken-azkenean, guztia". Ez zaie arrazoirik falta, partez behintzat, batzuei eta besteei. Borondate-kontua da izan ere, ez zientzia huts, batzuek eta besteak banatzen dituen. Eliteen eta protoeliteen asmo-talka adierazten du, batetik, aurrez aurreko borondate-bitasun horrek. Ez hori bakarrik, ordea. Jende xehearen gogoa eta borondatea kontuan izan beharra gero eta nabarmenago dago guztientzat. Hiritar (kaletar eta baserritar) arrunten borondatea, ez jauntxoena eta jende ikasiarena soilik, gorabidean datorren balorea da han-hemen. Bakez-

Karlista garaiko arma kontuak alde batera utziaz, eta jauntxoek kaptazio-sistema kontraktuala aurrez aurre gaitzetsiz, boto bidez indarberritu nahi da Euskal herria, euskara barne.

Diferentzia, etsaitasun eta bide-banatzeko handiak ekarriko ditu, euskaltzaleen artean, Bilbotik hasita ekialderantz hedatzen ari den filosofia soziopolitiko berri horrek.

ko herri-bizitza arautzeko orduan lehen ez bezalako indarra du giza-jendearen gogo-jarrerak: Europako mendebal gehiena bezala *Gemeinschaft* formulatik *Gesellschaft* modura pasatzen ari da, modernizazio-prozesuak aurrera egin ahala, euskaldun-jendea ere. Bizkai-Gipuzkoetan inon baino lasterrago, gainera. Eta gizarte-berritze hori, besteak beste, hauteskunde-bidea indartzera dator. Hiritar bakoitzak boto bana, eta gehiengoak esan dezala. Karlista garaiko arma kontuak alde batera utziaz, eta jauntxoek kaptazio-sistema kontraktuala aurrez aurre gaitzetsiz, boto bidez indarberritu nahi da Euskal herria, euskara barne. Osin sakona dago, horretan ere, foruzale zaharren eta Bilboaldeko euskaltzale berri horien artean³⁷. Hasieran aipatu den bigarren blokeak, enfasi nagusia faktore politiko-operatiboetan egiten duenak, hementxe dauka hain zuzen bere indargunea: euskaldunek hala nahi badute (hots, hala nahi izan dezaten lortzen “badugu”), arazoa konpondu liteke. Euskalgintza arrunta eta herri xeheari begira antolatutako aktibismo politikoa, lehen ere nahas-mahas (baina oso bestelako ikuspegi tradizionalaz) ibiliak direnak, uztarri sendora lotzeko (eta esplizituki halaxe agertzeko) bidean daude berriro.

Diferentzia, etsaitasun eta bide-banatzeko handiak ekarriko ditu, euskaltzaleen artean, Bilbotik hasita ekialderantz hedatzen ari den filosofia soziopolitiko berri horrek. Euskaltzale asko “zarrontzale” (hots, zahar + on + zale = tradizionalista) huts dira funtsean. Hala izan da, nagusiki, XIX. mendeko euskaltzaleen bigarren belaunaldia³⁸. Eta, iparraldean bereziki, gero eta bere horretan tinkoago agertuko da apaizjende euskaltzalea, Hiriart-Urruti buru dutela. “Dagoenari eutsi” edo, bere hitzetan esateko, “dugun atxik eskuara”: horixe dute helmuga nagusi. Horik aurrerako abentura soziokulturalik, batez ere hartarako planteatzen den jardunbide politiko-operatibo beregainik, ez dute beraiek bultzatuko.

II.4.5. Zein da konponbidea? Euskalgintzaren diseinu estrategiko desberdinak ebaluatzeko ordua

Euskararen gaixotasunak konponbiderik ez duela diotenentzat, edota sendabiderik nahi ez dutenentzat, azken galdera horrek ez du sentidurik. Galderak ez du berez erantzunik edota, izatekotan, erantzun erraza du: utz dezagun euskara (hots, euskaraz ari den gero eta gizatalde, jardungune eta harreman-sare urri-mugatuagoa) bakean odolus-

³⁷ Eten-urradura horren adierazgarri da, bere mugatuan eta karikaturazko sinplezian ere, Azkueren garai-inguru horretako *Latsibi*.

³⁸ Hala izan da edota, dokumentuzko iturriak behar bezala uztia gabe ditugunez, hala izan delako ikuspegi nagusiturik dugu aspaldidanik. Hor ere balegoke, ordea, zoko-miraketa on baten beharrik.

ten, kordea galtzen eta hiltzen, esperimantu xebleak egin gabe. Puntu horrekin ez dute, beraz, minutu bat ere galduko.

Euskararen gaixotasuna sendatu ezina ez dela “badakite” jakin, eta sendatu egin nahi dute.

Gainerako guztientzat, aldiz, hauxe da puntu nagusia: hementxe dago gakoa. Euskararen gaixotasuna sendatu ezina ez dela “badakite”³⁹ jakin, eta sendatu egin nahi dute. Egia da gaixotasunaren diagostikoan ez datozela guztiak bat. Baina elkarrekin hitz eginez adostu nahi lukete, ahal izanez gero, gaixoari zer sendagai eman. Tratamendu kliniko egokia zein den eztabaidatzea merezi duela uste dute, nolana ere. Horretaraxe doaz, hain zuzen, Hendaiara⁴⁰.

Hasiera besterik ez da Hendaiako biltzar hori, preskripzio-formula egokiaren bila ari diren jakitun eta zaletuen artean: 1901eko Hendaia, 1902ko Hondarribia (*Eskualzaleen Biltzarra* sortzea alegia), 1906ko *Euskal Esnalea*, 1907ko *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 1911ko *Cercle d'Etudes Euskariennes*, 1918ko Oñatiko kongresua eta Eusko Ikaskuntzaren zein Euskaltzaindiaren sorrera, 1956ko lehen Euskal Mundu Biltzarra, Arantzazuko 1968ko Biltzarra (batez ere Mitxelenaren txostena), Euskararen Erabilera Normaltzeko 1982ko Legea, Euskararen Aholku-batzordea, Euskara Biziberritzeko Plana eta gaur arteko kate luzea. Jaurlaritzan, Foru Aldundietan eta hainbat udaletan hogeitun bat urtez lanean ari diren Euskara Zerbitzuak ere ibilbide horretan txertatzekoak ditugu: konkretuki, Kaplan eta Baldauf-en arabera *top-down* plangintza-motaren *implementation-stage*-eko ezarpen-gune jakinak ditugu horiek guztiak. Beste zenbait instantzia, aldiz, *bottom-up* jarduera-moldearen lekuko dira. Guztiek dute funtsean, aldeak alde, orduko kezkabidearen eta konpondu nahiaren ezaugarri amankomuna.

Euskara indarberritzeko diseinu estrategikoen gogoeta-leku, berritatzegune eta hainbat ekintza konkreturen abiaburu gertatu zirela, horretarako pentsaturik ez bazeuden ere, Bidasoaren ezker-eskuineko biltzar famatu bezain ezezagun haiek.

Ortografi kontuan porrot egin izanagatik dira Hendai-Hondarribietako biltzarrak ezagun. Arrazoizkoa da orduko saioak, ortografia bateratzeari dagokionez, huts egin zuela esatea. Txosten honek azaldu nahi lukeena, aurreko puntu hori ezertan ukatu gabe, beste kontu hau da ordea: euskara indarberritzeko diseinu estrategikoen gogoeta-leku, berritatzegune eta hainbat ekintza konkreturen abiaburu gertatu zirela, horretarako pentsaturik ez bazeuden ere, Bidasoaren ezker-eskuineko biltzar famatu bezain ezezagun haiek. *Nondik gatoz, zenbat gara eta zer izan nahi dugu* galderari erantzun eguneratua eman nahi-

³⁹ aspalditxodanik ibili dira Europaldeko hainbat indarberritze-saio berariaz aztertzen. Hainbat herrik (polakoek, flandriarrek, txekoeak, hungaroeak, finlandiarrek,...) burua jaso ere jaso dutela edo horretan aurrera ari direla badakite jakin. Ikus, adibide goiztiarrenetariko bat baizik ez aipatzearen, M. Gorostidiren 1886ko artikulua.

⁴⁰ Inork horretaz dudarik balu ikus beza, preskripzioaren aldeko asmo-giroa zein zabaldua zegoen antzemateko, R. Artola donostiarraren 1901-IX-10eko olerki xumea.

rik ari ziren Euskal herriko elite eta protoeliteak. Haien jarrerak eta jokabideak oso dibergenteak ziren, ideologia antagonikoak gorpuzten ari ziren galdera horren inguruan,... eta tira-bira gogor horien oihartzun bihurtu ziren, antolatzaileek besterik nahi izanik ere, Hendaia eta Hondarribiko biltzarrak.

III. Ortografia bateratzea: zergatik, zertarako eta noiz-non?

Gramatikagileek, euskal idazleek eta politika-alorreko buruzagi zenbaitek ere, han edo hemen, euskararen ortografia bateratu behar hori gero eta argiago ikusten dute.

Kontu hori ez dago, dakigularik behintzat, zuzen-zuzen inon erantzuna. Beste galdera askorentzat baino errazagoa da, ordea, oraingo honentzat erantzun aproposa bilatzea. 1890 ingurutik aurrera, izan ere, gauza asko esango eta idatziko da euskal ortografia bateratu behar horretaz. Bai iparraldean, ondotoxoz lehenagotik (1850 ingurutik) hasita, eta bai hegoan⁴¹. Gramatikagileek, euskal idazleek eta politika-alorreko buruzagi zenbaitek ere, han edo hemen, euskararen ortografia bateratu behar hori gero eta argiago ikusten dute.

Ados daude gehienak, Hizkuntzaren Akademia sortzea dela horretarako hoberena⁴². Benetako Akademia: gizon jakintsu egokiz osatua, diruz ongi hornitua eta, ahal balitz, goi-agintearen ofizialtasun-seiluaz babestua. Nola sortu, ordea, Akademia hori? Aginte-ahalmena dutenak ez dira horretaz, aldian behingo asmo-azalpen eta laudorio-hotsak gora-behera, behar bezain serio kezkatzen. Akademia sortzeaz gehien kezkatzen diren agintedunek eta aginteondokoek ere, horregatik edo hargatik, ez dute fundamentuzko pausorik eman mende-laurden luzean. Benetako kezka edo interes praktikoa dutenek, berriz, ez daukate hartarako aginte-ahalmenik. Nola uztartu biak, nahi izatea eta ahal izatea alegia? Batek baino gehiagok, edadean aurrera doazen euskaltzaleek bereziki, "agintari on"aren zain egon behar dela uste dute. Agintari onaren edo, aurrerago ikusiko denez, euskaltzale aberatsaren diru-ondasunen zain. Egon ere halaxe daude, momentu egokia noiz iritsiko.

S. Aranak ez du uste, oraingo agintari horiek inoiz pauso hori emango dutenik. Agintari horiek ez dira abertzale eta, bere ustez, abertzaletasunik gabe ez dago zer eginik: bere proiektu politiko propioak bakarrik zabal dezake.

Gaspeak (1860ko hamarkadan Bizkaian jaiotako gazte batzuk) ez daude ordea zain egoteko. S. Aranak ez du uste, oraingo agintari horiek inoiz pauso hori emango dutenik. Agintari horiek ez dira abertzale eta, bere ustez, abertzaletasunik gabe ez dago zer eginik: bere proiektu politiko propioak bakarrik zabal dezake, Sabinoren ustez, agintaritzaren ate hori. Horretarako indartu egin behar du ordea bere alderdia, luze-zabaleko masa-mugimendua osatuz, eta agintari izatera iritsi.

R. M. Azkuek ez du aurreko bi bide horietan gehiegi sinesten. Ez zain egote horretan, eta ez Aranaren konfrontazio hutseko aktibismo bizi-

⁴¹ Badirudi Jose Ignazio Arana jesuita dela une horretan, hegoaldeari dagokionez, erreferentzi puntu nagusia. Iparraldean berriz, 1890eko inguru horri dagokionez Ithurriren eta *Eskualdunaren* erreferentziak dira eragingarrienak.

⁴² Aristides Artíñanok eman dio itxuraz, bigarren karlistada amaitu ondoren, asmo horri inarrosaldi berria. Elizanburuk hil aurretik (ikus Sarako Euskal Festetan, 1897koetan, bere omenez esandakoak) eta Adema-Zaldubik etengabe, horren aldeko aipamenak egingo dituzte.

Pragmatikoa da Azkue, orenen ginetik. Pragmatikoa eta ekintza-gizon sendoa. Nekagaitza ere bai, inon halakorik bada. Euskarak presa du bere ustez, eta ez euskarak bakarrik: berak ere bai.

Sabinoren eta sabindarren garaipen-egun handia ez du, bestalde, batere hurbil ikusten.

zalapartatsuan. Pragmatikoa da Azkue, orenen ginetik. Pragmatikoa eta ekintza-gizon sendoa. Nekagaitza ere bai, inon halakorik bada. Euskarak presa du bere ustez, eta ez euskarak bakarrik: berak ere bai. Bere lan-programa zabalari eusteko beranduegi izan liteke, formula bata zein bestea noiz burutu itxaron behar badu. Hiztegia, aldizkaria, liburugintza, euskarazko eskolak eta abar kalean dauzka dagoneko, edo kaleratzeko puntuak. Aginte-esparruko katramilak ondo asko ezagutzen ditu berak. Elizgizon den aldetik, Europako hierarkia zahar-zabalenaren (kristau-elizaren) partaide eta zerbitzari ere bada. Bilboko batxilerrinstitutu probintzian euskara-katedradun denez, horrezaz gainera, hezkuntza alorreko funtzionario-bidea ere ongi ikasia du azken hamahiru urtean. Diputazioetan eta beste zenbait aginte-esparrutan ere baditu ezagunak ugari, hurbilagoko lagunak ere bai han-hemen, eta horko jardunbidearen argi-ilunez ondotoxoa jabeturik dago. Ohiko aginte-esparrua noiz benetan euskaltzaletuko zain egonda ez dauka berak, hortaz, bere euskalgintza-saioa aurrera eramaterik. Sabinoren eta sabindarren garaipen-egun handia ez du, bestalde, batere hurbil ikusten. Bera ez dago hain seguru, kontrakorik esatera ausartzen ez bada ere, Sabinoren abertzaletasun politiko-operatibo punta-muturreko horrek hori eta horrenbestez euskal auzia konponduko lukeenik. Eta, batez ere, berak ez du ikusten Sabinoren ideario politiko berria gauetik goizera Euskal herri osora hedatu eta herritarren gogo-giro zabalean gailentzera doanik. Horren zain ere ezin liteke egon, beraz, lekeitiar irakasle hiperlangilea. Zer egin, hortaz? Dauden zirrikituak aprobetxatu behar direla uste du berak, orain eta hemen, biharko formula egokien zain egon gabe. Eta zein dira zirrikitu horiek? Corpus-plangintzari dagokionez, funtsean bi: a) Hizkuntzaren Akademia (edo, Larramendiren izenez, *Ikasola*) "geuk" sortu; b) Akademiarik gabe ere, euskaltzaleok bildu eta elkarren artean ortografia bateratua adostu. Bietan saiatuko da Azkue, inor baino sendoago, 1891tik aurrera. Bai beharizan jenerala sentitzen duelako eta bai beretzat, euskararen mende-berritze horretarako corpus-plangile nagusiarentzat, eginkizun hori premia bizikoa delako. *Euskal Izkindea* argitaratu ondoren, izan ere, *Iztegia* kaleratu nahi du. Hasieran bizpahiru urtean egin nahi zuena, luzatzen eta korapilatzen ari zaio. Gaingitu beharreko oztopoetako bat, ortografiarena du: nola argitaratuko du hiztegia, hitzak idazteko grafia finkorik (hots, zehatz definitu eta euskalari zein euskaldun jantzien artean luze-zabal onartutako sistema grafikorik) ez badago? Balio estrategikoa du beretzat, sinbolikoaz eta funtzionalaz gainera, ortografiaren bateratze-lanak.

III.1. Zer-nola eta zertarako?

Bere lehenengo saioa, argi eta garbi planteatua, euskaltzaleen bidez egingo du Bilboko euskara-katedradun gazteak. Euskaltzale jakitunei

Bere betiko jokaera pragmatikoari eutsiz, eta konpondu beharreko arazoak argi asko azalduz, 50 orrialde eskaseko liburuxka eskainiko die “a los amantes del euskera”.

Anarkia ortografikoari irtenbide pragmatikoa eman nahi dio Azkuek, bere proposamen horrekin.

zuzendurik, *Proyecto de Ortografía* delakoa argitara emango du Bilbon, 1896an. Bere betiko jokaera pragmatikoari eutsiz, eta konpondu beharreko arazoak argi asko azalduz, 50 orrialde eskaseko liburuxka eskainiko die “a los amantes del euskera”⁴³. Sarrerakoan garbi esango du pauso hori zergatik eman duen: “*Ya que hasta ahora no se ha podido constituir la Academia de nuestra gran lengua, suplan los bascófilos dispersos la falta de su congregación*”. Garbi dio, orobat, bera ez dabilela protagonismo bila: “*Si en estas condiciones quiere otro cualquiera encargarse de escribir el Tratado de Ortografía del euskera, el que suscribe cederá gustosísimo el puesto que interinamente ocupa*”. Protagonismo bila ez dabil, agian, baina idazkera jakin baten aldeko apustua egina dauka. Apustuak irabazteko asmoz egin ohi direnez, ortografiaren bateratze-lana edonoren esku uzteko ez dago prest.

Anarkia ortografikoari irtenbide pragmatikoa eman nahi dio Azkuek, bere proposamen horrekin. *Port Royale*koen iturritik datorren konstruktuko klasikoa aukeratuko du berak ere, XIX. mende osoan bere aurreko bidegile gehienek behin eta berriro egin izan dutenez, proposamen hori zientzi soinekoz janzteko. Hona bere *Principio fundamental de Ortografía*:

*“Admitido por todos y por nadie bien observado, corre como axioma el principio que establece que la Ortografía de tal modo debe corresponder á la Prosodia, que todo sonido articulado debe representarse con su propia y peculiar letra: ó como, acaso con más claridad, dicen otros: todo se ha de pronunciar y leer como se escribe. De este axioma se deduce que **un sonido debe representarse con una sola letra, y viceversa: Á una letra debe corresponder un solo sonido**”.*

Jose Ignazio Aranaren hainbat berrikuntza aintzakotzat hartuz, eta kontuan izanik “el lindísimo semanario *Eskualduna*”k zorioneko > š < grafema aukeratu duela frantsesezko >ch<-ren ordeaz, gehientzat onargarria izan litekeela-edo iruditzen zaion letra-, digrama- eta grafema-zerrenda hobesten du Azkuek bere proposamen horretan, euskara euskaldunek (idazten dakiten euskaldun apurrek, eta uholdeka etor litezen gustatuko litzaizkiokeenek) oraindik baino uniformeago idatzi ahal izateko. Euskara idatzia erraz eta zabal erabiltzeari, eta horri eskerrak hizkuntza ahula indarberritzeari, dagokionez lau mesede modu ikusten dizkio Bilboko euskara-irakasleak, batez ere, ortografia bateratzeko saioari:

⁴³ Gogoan har dezagun, gero esango diren kontuen argigarri gerta baitaiteke, “amantes del euskera” edo “bascófilo”ei zuzendua dagoela bere liburuxka: ez, soil-soilik, euskalarietara edo euskaraz idazten dutenei.

“1.^a Uno de los primeros requisitos que debe reunir un sistema de doctrina, cualquiera que sea el asunto sobre el que verse, es la consecuencia. Sin ella los sistemas dejan de serlo; ya no son cuerpos de enseñanza cuya alma es la verdad, sino maniqués elaborados por el capricho del hombre. Por tanto para que podamos llamar propiamente sistema ortográfico al nuestro, es preciso ó que suprima absolutamente todos los casos ya citados de representar con una letra diversos sonidos homogéneos, ó que se valga del mismo procedimiento al representar todos los sonidos de esta naturaleza.

2.^a Con esta representación uniforme se facilitarían las relaciones, que hoy apenas existen, entre los diversos dialectos de nuestra hermosa lengua.

3.^a Muchos que hoy se desaniman para estudiar y escribir el euskera, en vista de la diversidad con que se escribe una misma palabra, pues mientras unos escriben **besoan** por ejemplo, otros escriben **besuan**, otros **besuen**, otros **besuun**, otros **besoban** y aun **besuin**; si todos escribieran con las mismas letras, indudablemente se facilitaría el camino al aprendiz; y al escritor se le abriría un campo relativamente vasto; pues si hoy adquieren y leen sus libros en determinadas zonas en que escriben como él, en el caso de uniformidad en la escritura no habría las barreras que existen hoy para la difusión de nuestras producciones.

4.^a Sería por lo mismo un poderoso estímulo para fomentar nuestra naciente literatura”.

Ortografiaz ari bada ere, eguna baino argiago dago ortografiaren berezko esparrutik harantzago doala bere xede-helburuetan. Hizkuntz soziologiaren eta hizkuntz plangintzaren bihotz-bihotzean sarturik agertzen zaigu hor, Bilboko euskara-irakasle, antzerkigile, aldizkari-arduradun eta liburu-argitaratzaile iaioa.

Ortografiaz ari bada ere, eguna baino argiago dago ortografiaren berezko esparrutik harantzago doala bere xede-helburuetan. Hizkuntz soziologiaren eta hizkuntz plangintzaren bihotz-bihotzean sarturik agertzen zaigu hor, Bilboko euskara-irakasle, antzerkigile, aldizkari-arduradun eta liburu-argitaratzaile iaioa. Bilbotik ari da, bizkaiera du abiaburu, baina euskaldungo osoa du gogoan. Osotasunezko perspektiba hori lehenetsiko du berak, behin eta berriro. Azkueren euskalgintzak bere-berea duen ezaugarri sendoa da hori. Azkenik, bizi osoan ardatz nagusi izango duena agertuz amaitzen du Azkuek euskararen ortografia bateratzeko bere proposamena:

“Daré fin á este proyecto repitiendo unas palabras que escribí en mi método teórico tratando de la manera de escribir la palabra **Bizkaia**. ‘Para lo que estoy defendiendo, más que conocimientos se requiere cierto desapego á la rutina, un tantico de amor á lo nuestro y no admitir como tutelares á lenguas que ni deben ni pueden

*ejerger este oficio. Hay tutelas que no aprovechan sino al tutor que arruina á los menores, tutelas que deshonran á quien las sufre. De todas las lenguas existentes ninguna (aun sin tener en cuenta que sea, no de **mayor edad**, sino tal vez **la de mayor edad**) tiene tanto derecho á la emancipación como la nuestra; y por correlación nadie está más obligado á procurarla que el euskaldun’.*

*Que este pequeño trabajo, además de ir enderezado á donde van todas las acciones bien ordenadas del hombre, sirva para estrechar las relaciones de los hermanos euskaldunes cifradas en aquella gráfica frase, ha tiempo cantada por los dulces poetas laboratorios: **zazpirak bat**”.*

Bere ortografiak, argi ikusten da hemen, grafia-kontu hutsaren magalean hizkuntz eredu eta herri-eredu osoa dauka itsatsirik.

Bere ortografiak, argi ikusten da hemen, grafia-kontu hutsaren magalean hizkuntz eredu eta herri-eredu osoa dauka itsatsirik. Emantzipazio edo autorregulazio soziokulturalaren defendatzaile eta arnasmaille sendoa da Resurrección María Azkue: politika-bide bat ala beste hartu, euskalgintza aurrera bultzatzea da beretzat balio duena. Uste izatekoa da gogoz irakurri dutela, une horretako *bascófilo* edo (Azkuek berak popularizatu berria duen hitzaz esateko) *euskaltzaleek* bere *Proyecto* hori. Kontrako iritzirik jasotzen ez bada, horixe izan liteke agian, euskararen ortografia bateratzeko zirrikitu-bide egokia.

Eskuratu orduko irakurriko du Sabino Aranek Azkueren proposamen-idatzia. Eta berehala, urte berean alegia, erantzungo dio euskara-irakaslearen proposamen horri.

Eskuratu orduko irakurriko du Sabino Aranek Azkueren proposamen-idatzia. Eta berehala, urte berean alegia, erantzungo dio euskara-irakaslearen proposamen horri. Ez nolana ere, 300 orrialde pasatxo duen liburu mardularekin baizik: *“Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino”*. Maiatzekoa da Azkueren *Proyecto*-a, eta irailekoa Sabino-ren erantzun zabala. Ez da lo egon, gehiena lehendik idatzia bazeukan ere, hirurehun orrialdeko *lezioak* prestatzeko. Bere corpus-plangintzaren ezaugarri nagusi izango diren irizpide linguistiko eta sozio-linguistiko gehienak inon baino zehatzago adieraziko ditu Sabinok 1896ko liburu horretan. Azkueren proposamenari ezezkoa ematera dator, zuzen-zuzenean, bere *Lecciones* horrekin. Ezezko hori oinarritzeko orduan, grafia kontu hutsez gainera beste hainbat alor landuko du abandoarrak, eta oinarritzeko zenbait hastapen-printzipioren argudioa egingo. Horrela:

a) Ortografiaren printzipioak puntatik puntara aplikatu behar dira: *“sentando, aunque vagamente, los principios á que debe sujetarse la escritura para ser correcta, no han querido, sin embargo, aplicarlo con rigor y llevar sus consecuencias hasta el último extremo”* (azpimarrak gureak). Sabino Aranaren konstanteetako bat ageri da hemen, argi eta zorrotz: bide bat aukeratzan denean bide horri eutsi

Edozein sistema ortografikok, ona izango bada, logikoa eta kontsekuentea izan behar du alderik alde. Azkuerena ez omen da erabat logikoa.

behar zaio oso-osoan, alderik alde. Hala eskatzen dio logikak. Hizkuntza kontuan logika bidez estaltzen baitu berak, hala aitorturik batzuetan eta oharkabean-edo besteetan, euskaraz jakite kontuan etxetik dakarren falta-gabezia. Edozein sistema ortografikok, ona izango bada, logikoa eta kontsekuentea izan behar du alderik alde. Azkuerena ez omen da erabat logikoa.

Zein da ordea, sistema ortografiko logiko-kontsekuate guztien artean hobereena? Nola lor daiteke hoberen hori aukeratzea?

- b) Ortografia erabakitzea ez da, zenbaitek besterik uste badu ere, euskalari jakintsuen autoritate-kontua: *“No hay más autoridad que la razón en materia científica, ni más juez que falle en esta contienda ortográfica que el sentido público. Aquél sistema gráfico que al público euskaldun le parezca más conveniente, ése será el que prospere sobre todos los demás”*. Ortografia finkatzea gizarte-prozedura da, ez espezialista askojakinen erabakimen hutsa. Eta, beraz, gainerako gizarte-prozeduren bidetik ibili beharko du gailenduko bada. Goitik beherako corpus-plangintza, XVII. eta XVIII. mendeetako Hizkuntz Akademiak bultzatzen (bultzatu nahi izaten) zutena, ez da bide egokia (ez egokiena behintzat) hemen (Euskal herrian) eta orain (1900 inguruan). Gizarte-molde berriaren sozializazio- eta difusio-bide nagusien arrastotik joan behar du, bere ustez, hizkuntzaren grafizazio-lanak ere. Jakitunak behar-beharrezkoak dira, baina erabakia herritarrek dute. Min egiten dio honek, eta ez nolanahikoa, Azkueri. Urteetan eskuratuz joan den *know how* osoak, bereak eta beste zenbait espezialistarenak, lau botoren mende gelditu behar al luke? A zer umekeria!

Ortografian ezezik gainerakoan ere “euskara on”-aren eredu finkoa du Aranak gogoan: hitz-altxorrez eta joskeraz ere Azkueren “euskara on”-etik hainbatean aldentzen dena.

- c) Ortografian ezezik gainerakoan ere “euskara on”-aren eredu finkoa du Aranak gogoan: hitz-altxorrez eta joskeraz ere Azkueren “euskara on”-etik hainbatean aldentzen dena. Euskalki kontuari eman nahi zaion irtenbidean banatzen dira, hasteko eredu bi horiek. Arana ez da euskara literario bakarraren (hots, Azkuek bere *Izkindean* eta handiak aurrerakoetan buruan duen euskara batuaren) aldeko. Hizkuntza indarberrituko bada formulazio polinuklearra egokiago dela uste du berak:

“Lo que procede, en mi opinión, es componer dentro de cada región euskeriana que ya ha sido antes estado autónomo y se halle en la posibilidad de volver á serlo algún día, un dialecto general, formado con los elementos menos alejados de las formas orgánicas, esparcidos aquí y allá, en los diferentes subdialectos ó variedades que se hablen en el territorio de que se trate; y que ese dialecto así elaborado no sea patrimonio exclusivo de la literatura

*y la clase elevada de la sociedad, sino habla que, abatiendo y matando las formas usuales desechadas, llegase á generalizarse en el país y á ser común de doctos é ignorantes, pobres y ricos, siendo la lengua oficial en todas las escalas de la enseñanza, desde las primeras letras hasta los estudios superiores, y apareciendo en las conversaciones callejeras lo mismo que en los discursos de más elevado estilo, y así en la enmarañada epístola del férreo aldeano como en los documentos oficiales y en las obras más abstractas ó más poéticas. De esta suerte tendríamos un solo Euskera Guipuzkoano, un solo Euskera Navarro, un solo Euskera Bizkaino, etc., viniendo á realizarse en la esfera lingüística la formula que en la política tiene tantos y tan decididos partidarios, **la variedad en la unidad**".*

Bere konstruktuaeren arabera, Azkueren maiatzeko proposamena ez da batere egokia. Berrogeita hamasei oker seinalatuko dizkio abandoarrak bere erantzun-liburuan.

Abandoarrak ez dauka, hala nahi izango balu ere, Azkueren bidez baliatzerik: ez corpus-plangintzan eta ez status-plangintzan.

Aurrez aurreko talka egin dute Azkuek eta Aranak. Aranak aurrez aurre eraso dio, halakoetan egin ohi duenez. Eta Azkuek, oraingoan ere, nahiago izan du jendaurrean ez erantzun.

Bere konstruktuaeren arabera, Azkueren maiatzeko proposamena ez da batere egokia. Berrogeita hamasei oker seinalatuko dizkio abandoarrak bere erantzun-liburuan, *"señalando lo más concisamente que me permita su falta de método, los hechos que tergiversa y los errores gramaticales y lexicológicos en que incurre"*. Horra Sabinok gerra deklaratu. Nori eta Resurrección Mariari, Euskal herrian dagoen euskara-katedradun bakarrari. Inork dudarik baleuka, azken puntada horrekin garbi ikusi behar luke eztabaida ortografikoa baino ondotoz gehiago dela Bilboko lagun-etsai-lehiakide biek esku artean darabiltena. Euskara onaren eredu diferente bana dute biek, eta eredu hori jendarteratzeko formulai dagokienez ere nor bere bidetik dabil. Beharko ibili. Abandoarrak ez dauka, hala nahi izango balu ere, Azkueren bidez baliatzerik: ez corpus-plangintzan eta ez status-plangintzan. Lehenengo sailari dagokionez, euskalkien arteko konparazio-lan sakonetan nekez sar daiteke bera, dakien euskara apur, mugatu, erasarekin. Mila buelta ematen dizkio Azkuek (hamarkada-hasierako bere logizismoak eta guzti), hamazazpi urterekin euskalduntzen hasitako Aranari. Status-plangintzan ere, eskuak ez dauzka osorik libre abandoarrak. Hamarkada osoan eraman duen politika-bideak itxi egin dio bertako *Establishment*aren hainbat ate, eta horren jakitun da noski:

"yo le rogaría al digno Profesor de la Excelentísima Diputación Provincial publicase, sea con los auspicios de la misma corporación, sea con el apoyo que tan generosa y espléndidamente le prestan para sus trabajos ciertos capitalistas de Bilbao, las respuestas que ha recibido ya de algunos euskeráfilos".

Aurrez aurreko talka egin dute Azkuek eta Aranak. Aranak aurrez aurre eraso dio, halakoetan egin ohi duenez. Eta Azkuek, oraingoan ere, nahiago izan du jendaurrean ez erantzun. Umekeria iruditzen

Ortografia bateratze hori euskaltzaleok *geure kabuz* egitea ez da, oraingoz, posible. "Akademia sortu behar dugu, beraz" dio berekiko.

zaio, setakeria ez bada, Sabinoren jokamolde hori. Eta umekeriei, badakizu, hobe da neurri berean ez erantzun. Konpromisozko elkarbi-deaz eskuratu nahi du Azkuek, euskalgintzan ari diren eta jakite kontuan nor diren espezialisten adostasunez, euskal ortografiaren batasuna. Aranarekin ezin da halakorik egin: berearekin atera behar beti! Isilik badago ere azkar ateratzen ditu, ordea, Azkuek kontuak: begiz joak zituen bi bideetatik, bat behintzat ez da posible. Ortografia bateratze hori euskaltzaleok *geure kabuz* egitea ez da, oraingoz, posible. "Akademia sortu behar dugu, beraz" dio berekiko. Iparraldean egin dituen ezaupideak baliatu nahi ditu horretarako. Adema-Zaldubi eta, batez ere, Hazparneko Pierre Broussain (1898tik aurrera bere herrian bertan mediku dena) izango ditu horretarako solaskide, gogaide eta berri-emaile nagusi. Horiek eta aurrerago ikusiko ditugun Arbelbide eta abar. Horrela jakingo du hain zuzen, 1897an Anton Abbadia hiltzean, badirudiela diru-pila polita utzi duela zientzialari euskaltzale handiak Euskal Akademia sortzeko. Hori bai aukera ederra! Bereak eta bi egingo ditu Azkuek, baita Abbadia zenaren Arragorriko jauregi-ra joan eta alargunari poesiak dedikatu ere, diru-kontu horiek nola dauden eta Akademia edo *Ikasola*⁴⁴ berehala sortzerik ba ote dagoen jakiteko. Gauza ez dago argi, ordea, eta urduri jartzen ere hasia dago gizona. Gutxien espero duenean, 1901eko ekainean hor ateratzen da Guilbeau bere Hendaia biltzar-asmoarekin.

III.2. Ortografi biltzarra, zergatik eta zertarako?

Ortografia bateratzeko saioa, euskaltzale-jendea elkarrengana biltzeko aukera ona da berez.

Hiru motibo aipa litezke, gutxienez, zergatikoak azaltzen hasita: ortografia bateratzeko saioa, euskaltzale-jendea elkarrengana biltzeko aukera ona da berez; horrezaz gainera, euskarari (euskarazko idazlangintzari) mesede egin diezaioke; eta, azkenik, bateratze horren behar gorrian daudenei tresna egokia eskaintzea. Ikus ditzagun hiru puntuok, banan-banan.

a) Biltzarra, euskaltzaleen indar-bilgune.

Guilbeurena ez da, egia esateko, bat-bateko burutazioa izan. Bere *Association Basque*-ren altzoan, 1897ko udan Elizanbururi Saran egindako omenaldian, euskal ortografia bateratzearen aldeko aipamen esplizitua egin zen. Aipatu bakarrik ez: jendeak gustura hartu zuen asmoa, itxura denez. Guilbeauk aspaldidanik darabil ideia buruan: gaztetatik euskaraz idazten jarduna da, Donostiako euskaltza-

⁴⁴ *Ikasola* hitzak, Azkuerentzat (1900 inguru horretan), esanahi jakina du: euskal *corpus-planning* eta, Cooper-en hitzetan esteko, *acquisition planning* direlakoez arduratuko den erakunde ofiziala. Hots, euskarazko irakasle-eskola ere bere baitan izango duen Euskaltzaindi modukoa.

Euskal ortografia bateratzeko proiektua egokia izan daiteke, gainera, iparraldeko euskaltzaileen arteko loturak sendotzeko.

Gorriek eta xuriek beren ika-mikak pixka bat (ez osorik, inola ere) ahaztu eta kolore guztietako euskalari, antropologo, historialari, eta kultur eragileak, ipar eta hegoaldekoak, bildu ziren bertan.

leekin (Mokoroa eta abarrekin) ere izanak ditu harremanak eta ondo asko daki eginkizuna zein den handia. Eskertuko dute izkribatzaileek, eta euskara bera indartu egingo da bide batez. Euskal ortografia bateratzeko proiektua egokia izan daiteke, gainera, iparraldeko euskaltzaileen arteko loturak sendotzeko. Berak aski hurbiletik ezagutzen duen ipar Euskal herriko giroan, 1890etik aurrera ika-mika gogorrak izan dira zurien (eskuindar klerikalen) eta gorrien (framazon errepublikazale, sarri antiklerikalen) artean. Diharasarriren *affaire* hura, eta Intxauspe bikario jeneralaren zesea, bestalde, ez ziren bertako euskaltzale-munduan oharkabea pasa. *Eskualdun* kazetaren jarduna ere ez da, bere ñabardura guztiekin, euskaltzale guztiak elkarrenganatzearen aldeko. Ez da giro, batzuekin eta besteekin. Merezi luke beraz, Guilbeauren ustez, euskaldun guztioi dagokigun arazo horretan guztiontzako bilgune moduko bat sortzea.

Badauka prezedente onik, gainera, saio horren aldeko. Batez ere iaz, Parisko Erakusketa Unibertsalaren itzalean, J. Vinsonek eta (justu hil aurretik) Goienetxe auzapezak Frantziako hiriburuan antolatu zuten *Congres d'Etudes Basques* hura. Gorriek eta xuriek beren ika-mikak pixka bat (ez osorik, inola ere) ahaztu eta kolore guztietako euskalari, antropologo, historialari, eta kultur eragileak, ipar eta hegoaldekoak, bildu ziren bertan. Oso giro onean, gainera, zenbaiten esanean. Zergatik ez antzeko zerbait antolatu, zientzi usainekoa noski, euskararen onerako?

b) Biltzarra, euskararen mesedegarri.

Ikusia dugu zenbaitek, Azkuek bereziki, zein lotura estua ezartzen duen ortografiatzko batasunaren eta euskarazko idazlangintzaren artean: “sería un poderoso estímulo para fomentar nuestra naciente literatura”. Azkue ez da bakarra, gainera, gauzak horrela ikusten dituen: ez hemen, Euskal herrian, eta ez mundu zabalean, bertako hizkuntza indarberritu nahian ari diren hainbat hiztun-herritan. Ikusmolde hori indartu egingo da han-hemen, XX. mendeak aurrera egin ahala. Hemengo kontuei dagokienez Oñatiko 1918ko kongresua izango da, Luis Eleizalderen hitzaldia dela medio, ikusmolde horren adierazle ezagunena. Ikusmolde horrekin erraz uztartzen den linguistika-eskola sendorik ere bada gainera, mundu zabalean: Pragako zirkulua, batez ere. *Kalevala* eta *Mireio* moduko maisu-lanik sortuko bada euskaraz, askok esango dizute hori, idazteredu bateratua sortu, landu eta findu beharra dago aurrenik. Eta horretarako, lehenik eta behin, hizkuntzaren idaztarauak finkatu beharra dago. Maisu-lan horiek hizkuntzaren indarberritu egiten dutela, azkenik, askotxok uste eta hainbatek aldarrikatu(ko) du. Mokoroa-lbar ez da, bere *Genio y Lengua*-rekin, ikusmolde horren azken (nahiz, hori bai, gailen-gaileneko) babeslea baizik

izango. Badakigu, jakin, asmo-helburu horien arragoan sortu, landu eta zaildutako haurra dela Orixeren *Euskaldunak* bera: “Geroak esan beza, erri bat izan zan; edota ats emaiogun, ortan iraun dezan”. Corpus-plangintza, bere atal batetik (kode-hautapenetik) edo bestetik (estilo-lanketatik) ekin, hizkuntzaren beraren mesedegarri dela alegia: hori ere gogoan izango du Guilbeauk.

c) Biltzarra, zenbaiten behar gorria asetzeko tresna.

Euskal ortografiari dagokion letra-molderik ez dago inprimategietan. Gaztelaniazkoa hegoan, eta frantsesezkoa iparraldean: horiek dira eskueran dauden bakarrak.

Guztia ez da teoria, estetika eta ospe-egarria. Badago hurbilagoko motiborik ere, batasun ortografikoa lehenbailehen lortzera bultzatzen duenik. Lehenbailehen eta, ahal delarik, norbere proposamena irabazle delarik. Euskal ortografiari dagokion letra-molderik ez dago inprimategietan. Gaztelaniazkoa hegoan, eta frantsesezkoa iparraldean: horiek dira eskueran dauden bakarrak. Euskarazko digrama eta zeinu diakritiko apartekorik erabakitzen bada ortografia batuan, enkarguz eginarazi beharko dira guztiak. Dirua da hori, eta ez gutxi. Hortxe dago, berriz, Hendaiaiko biltzarraren eta garai hartako euskalgintza osoaren ahuldade nagusietarikoa. Ohiko L funtziotik H delakora jaso nahi litzatekeen hizkuntza horren alde egiteko dirurik (oro har, baliabiderik) eza edo eskasia.

Interes zuzena dute hortaz, batak zein besteak, justu-justu “bere ortografia”, eta lehenbailehen, aurrera atera dadin.

Arana bera, urrutiago gabe, ez dabil diruz gainezka: etxetikako ondusunak ez zituen mugagabeak, eta azken hamarkadako ibilerak ez du inondik inora aberastu. Azkue ere, bere katedra eta guzti, ezin liteke ur handietan sartu. Jasotzen duen soldata aski mugatua da. Hain da mugatua non, bere estuasun hori lasaitze aldera, berariazko moziorik aurkeztuko den Bizkaiko Aldundian. Gainerako ekimen ugarietarako (lehengo *Euskalzale* aldizkarirako eta laster kaleratzekotan duen *Ibaizabalerako*) besteren patrikak igurtzi behar izaten ditu maiz). Dirurik sobra ez, eta denboraz justu: horra hor lehiakide bien amankomuneko egoera. Azkuek laster enkargatu beharko ditu (Alemanian, konkretuki) aparteko letra-moldeak, bere hiztegi handia konposatzeko. Aranak ere enkargua egiteko asmoa du. Hor ez dago, beraz, jolasik: dirua dago jokoan. Diruaz gainera denbora ere bai: irabazle irteeta ere alferrik izan liteke, gauzak gehiegi atzeratzen badira. Interes zuzena dute hortaz, batak zein besteak, justu-justu “bere ortografia”, eta lehenbailehen, aurrera atera dadin⁴⁵.

⁴⁵ Aranari dagokionez ikus, esate baterako, 1902ko ekainaren 3ko bere azalpena: “Pronto podrá poner a su disposición un gran surtido de tipos de imprenta de los caracteres euzkéricos, de suerte que pueda Ud. (Arrupe) dar su trabajo a la estampa con todas las exigencias”. Azkueri dagokionez, orobat, argiak dira 1902ko bere asmo-aitormenak.

Eskualdun kazetak badu bere idazmoldea, aspalditxodanik, eta berrikuntza handitan sartzeko apenas modurik daukan. Hona, besteak beste, zergatik: batetik, Elizak baduelako horretan eragimenik (oro har berrikuntza tipografikorik ez bultzatzera eramaten duenik); bestetik, Hiriart-Urrutik ere dirurik apenas daukalako berrikuntza horietan gastatzeko.

Horra hor, nire ustez, biltzarra zergatik eta zertarako egin nahi den: aski eta sobera dira, berez, hiru motibo horiek.

IV. Biltzarra prestatzen: nor-nori-nork

1901eko ekainean, Adema-Zaldubiren eta Arturo Campionen onespenaz, biltzar baterako deia egiten du Martin Guilbeauk, Donibane-Lohizuneko mediku euskaltzaleak. Biltzarra hurrengo hilean egingo omen da, uztailaren (15ean eta) 16an⁴⁶ hain zuzen, Hendaian egitekoak diren Abbadiaren Euskal Festekin batera. Iniziatiba Guilbeaurena izan da beraz. Duela hamar bat urte berak sortutako *Association Basque* delakoaren babesean eratu du biltzarra. Deiak indar betea izan dezan, “bere” elkartearen itzalaz gainera gogaide eta babesle ditu, pauso hori ematerakoan, iparraldeko euskaltzaleen patriarka Adema-Zaldubi eta, horren parez pare, hegoaldeko Arturo Campion, *Asociación Euskara de Navarra*ren sortzaileetarikoa⁴⁷.

IV.1.Zergatik Hendaian?

Zergatik aukeratu du Guilbeauk Hendaia, Euskal Ortografiaren Biltzarra egiteko? Horretaz ere ez dago, gaurkoz irispidean ditugun dokumentuen arabera, argitasun handirik. Han-hemen esan edo idatzi direnak kontuan hartuz, eta egiantz handieneko hipotesiak erantsiz, badirudi honako motibo hauek tartean izan dituela Guilbeauk, bere biltzar hori Hendaian kokatzeko:

Hendaia erdibidean dago. Ipar eta hegoaldeen junturan, trenez ongi samar komunikaturik. Zazpi euskal herrien bilgunetzat hartzeko, horrexegatik, leku aproposa-edo dirudi.

Horrezaz gainera herriak berak beratutako Euskal Festak ere badira, irailaren erdialdean. Antolamendu eta diru aldetik hobeto, beraz, Guilbeaurentzat.

a) Hendaia erdibidean dago. Ipar eta hegoaldeen junturan, trenez ongi samar komunikaturik. Zazpi euskal herrien bilgunetzat hartzeko, horrexegatik, leku aproposa-edo dirudi. Badu Hendaia, gainera, berezko balio sinbolikorik: herriko plazatik hiru bat kilometrora, Ondarraitz amaitzen deneko mendi-kaskoan, han dago Zubernoako Arragorri, Anton Abbadiaren euskal egoitza nagusia izandakoa. Aparteko erakarmena izan du etxe horrek euskaltzale askoren artean Parisko Zientzi Institutuaren lehendakaria, Abbadia handia, orain dela lau urte hil arte.

b) Antolamendua erdi-eginik dago Hendaian. Abbadiaren Euskal Festak egitekoak dira bertan, 1901eko uztailaren 14an, 15ean eta 16an. Horrezaz gainera herriak berak beratutako Euskal Festak ere badira, irailaren erdialdean. Antolamendu eta diru aldetik hobeto, beraz, Guilbeaurentzat. Kongresuak dirua kostatzen baitira, eta *Association Basque* hori justu baino justuago baitabil alde horretatik.

⁴⁶ Ikus SAIG, 267: Guilbeauren aitorten espresua dago bertan.

⁴⁷ Une jakin batean, itxuraz, S. Arana ere dei-egileen artean agertuko da.

Errazago da jendea iparraldera ekartzea, hegoaldera eramatea baino. Vinson-eta ez dira "Espainia elizkoi, atzeratu eta errukarri" horretara joatearen oso zale.

Hegoaldeko zenbait kandidato ere, Bilboko S. Arana bereziki, biltzarra Bidasoaz eskuin aldean egitearen aldeko da.

c) Etxetik hurbil dauka Hendaia: zortzi bat kilometrora. Lanez gainezka dabil Guilbeau, bere mediku-kontsultan. Batez ere joan den urtean herriko beste medikua, Goienetxe euskaltzale "xuria", hil denetik. Lasaitasun ederra, beraz, biltzarraren prestakuntza-lanak (bilera-aretoa, musika, kafe-kontua, bertako prentsa, udalgizonen parte-hartzea) etxetik pauso batera egin ahal izatea.

d) Errazago da jendea iparraldera ekartzea, hegoaldera eramatea baino. Vinson-eta ez dira "Espainia elizkoi, atzeratu eta errukarri" horretara joatearen oso zale. Bestelako hermosura dago, horien iritzian, Hendaia moderno, aurrerazale honetan. Hiriart-Urrutik ere, motiboak diferenteak izan arren, hegoaldeko hainbat kontu ez du batere gogoko. Hendaian bertan bizi den Julien Viaud-i, "Pierre Loti" idazle frantsesari, galdetu balitzaio oso bestelako kontuak esango zituen seguru asko. Baina hura ez du Guilbeauek biltzarrera deitu, ez baita linguista. Hobe, beraz, biltzarra Frantzian egitea.

e) Hegoaldeko zenbait kandidato ere, Bilboko S. Arana bereziki, biltzarra Bidasoaz eskuin aldean egitearen aldeko da. Bestelako askatasun-giroa antzematen omen du(te) iparraldean, euskararen eta euskaldunon geroaz eztabaidatu behar diren kontuak lasai eztabaidatzeko.

Izango ditu buruan bestelako kontuak ere Donibane-Lohizuneko mediku euskaltzaleak. Goiko bost horiek ez ote dira, ordea, aski eta soberra? Lekua aukeratua dago beraz. Orain dei egin behar zaio jendeari, beren lan-kontuak eta gainerako egitasmoak alde batera utzi eta esandako egune(t)an Hendaian izan daitezten. Iruñetik eta Bilbotik datozenek aurreko egunean egin beharko dute bidaia, jakina, eta Hendaian bertan (edo inguruan) ostatu hartu. Egun berean ez baitago, inola ere, bide hori egiterik.

IV. 2. Nori deitu behar zaio?

Hizkuntza baten ortografia bateratzea nola egin behar den, ez dago inon esanik. Horretarako (egun bakarreko) biltzarra egin eta hartu beharreko erabakiak hantxe bertan hartzea ez da batere lan erraza. Ez, behintzat, edonork egin ohi duen horietarikoa. Hor dago beraz, korapiloa nola askatu ez dakiela, Guilbeau medikua, gaztetan euskal poesiak-eta idatzitakoa eta orain dela hamar bat urte, euskararen alde "zerbait" egin nahirik, *Association Basque* sortu zuena. Gorriak (errepublikazale laikoak) gehiago ditu tartean, bere elkarte horrek, xuriak (hots, "zaharrontzale" apaiztiarrak) baino. Kanpoko hizkuntzalari eza-gunik (Vinson, Dodgson?) eta kanpotik etorritako errepublikazalerik (Lewy d'Abartigue) ez zaio elkarte horri falta. Donibane-Lohizuneko

Zergatik ez, beraz, euskalari eta euskal idazle guztiak bildu eta Elizanburuk, Adema-Zaldubik eta beste hainbatek aspaldi begiz jotako xede eder hura bete?

eta inguruko apaiz-jendearekin (Elizaga eta gainerakoekin) ere ez da, ordea, hain gaizki konpontzen. Zergatik ez, beraz, euskalari eta euskal idazle guztiak bildu eta Elizanburuk, Adema-Zaldubik eta beste hainbatek aspaldi begiz jotako xede eder hura bete?

Galdera bat etortzen zaio, besteak beste, burura. Biltzarrera nor gonbidatu behar du? Nor dira ezinbesteko partaideak, eta nor "komeni direnak"? Erantzun erraza, badakigu zein den: "inportanteenak, behintzat, bertara datozela". Zein dira ordea une horretan, 1901ean alegia, han-hemengo euskalgintzaren partaide inportanteenak? Zein gizajende-multzotan hasi begira? Kontuotan erantzun beterik ematerik ez badago ere, gogora dezagun une horretako panorama zein den. Batetik euskalariak daude, bertakoak zein kanpokoak. Horien eskutik etor daiteke, batez ere, horrelako erabaki batek behar duen babes zientifiko-akademikoa. Bestalde, euskal idazleak ere oso kontuan hartu behar dira: irakurlego zabala duten edo beren kalitateagatik berariaz kontsakturik daudenak bereziki. Eta gero, jakina, euskaltzaleak daude. Euskaldun-jendea mobilizatzeko gogoia eta gaitasuna duten euskaltzale horiek ere, *language loyalty*ren ildotik doazen neurrian, funtsezkoak gerta litezke ortografiaren bateratze-lanari gizarte-bizitzan txertagune sendoa eta zabalkunde iraunkorra bermatzeko. Ikus ditzagun hortaz hiru jendaki-multzook, halako xehetasun batez.

a) *Bertako euskalariak*: euskara kontuan espezialista izan eta Euskal herrian jaioak direnak alegia. Lanbidez edo jakitatez euskalartizat har daitekeen pertsona gutxi dago une horretan, bertan jaiotakorik. Iparraldeko Duvoisin eta Ithurri, hegoaldeko Jose Ignazio Arana bezala, hil berriak dira. Bizirik daudenen artean, berriz, Intxauspe kalonje-ohia oso zaharturik dago.

R. M. Azkue da une horretan, biltzarkide gehien-gehienesten, bertako euskalarien artean jantziena, aktiboena eta kapazena.

R. M. Azkue da une horretan, biltzarkide gehien-gehienesten, bertako euskalarien artean jantziena, aktiboena eta kapazena. 1896ko bere *Proyecto de Ortografía* hura funtsezko erreferentzia da, idazkeraren finkapen-kontuaz arduratzen den edonorentzat. Bizkaiko Diputazioak Bilboko Institutuan sorturiko euskara-katedraren jabe izateak, bestalde, berezko doaiez gainera osagarritzko ospea eta itzala ematen dio.

Gipuzkoan, Tolosan bereziki, Patrizio Antonio Orkaiztegi ere bada nor, eta bere gisa badu esku, euskara zuzen idaztearen kontuan. Ezin esan, ordea, une horretan aurre-aurrean dabilenik. Bere begietako ninia joskera da gainera, idazkera baino gehiago. Nahia-go du berak, ahal delarik, Lardizabalaren, Mendibururen eta antzeko idazle klasikoen testuak sintaxi aldetik "mejoratu".

Iruñeko Arturo Campion poligrafoa ere corpus-lanketa horretan jarduna da, jakina: 1884ko bere *Gramática de los cuatro dialectos literarios* jakin-iturri preziatua da, orain ere, euskalaritzan barrena abiatu nahi duen hainbatentzat. Bere bide-urratzaile garaia pasea dago, ordea, euskalaritzan: euskaraz justu-justu moldatzen da, gainera, eta ikerketaren aldetik eman zezakeen onena 80ko hamarkadaren hasiera hartan eman zuen.

Eta hor dago, noski, Sabino Arana bera: lanbidez ez da hizkuntzalaria, euskara-irakaslea ere ez; euskal ortografiaren inoiz egin den liburu zabal eta osatuenaren egilea da ordea.

Dudarik gabe Azkueren eta Aranaren ortografi proposamenak dira, une horretan, hegoaldean eztabaidatuenak. Iparraldean ez dago, proposamen teorikoei dagokienez, horrenbesteko irakinaldirik.

Horien ezean hemen dugu J. Vinson, jakina, euskal idazkera bateratzeko proposamen konkreturik besapean duena.

Eta hor dago, noski, Sabino Arana bera: lanbidez ez da hizkuntzalaria, euskara-irakaslea ere ez; euskal ortografiaren inoiz egin den liburu zabal eta osatuenaren egilea da ordea. Euskaraz ez daki nahi bezain ongi hitz egiten, baina euskaldunberrien artean ez da inola ere okerre. Idazten ere gordin samarra da, baina logikaren laguntzaz aurreko muturrera irits daitekeela uste du. Uste bakarrik ez: Azkueren ortografi proposamenari berrogeita hamasei makur aurkitu-edo dizkio, bere logika horren laguntzaz.

Dudarik gabe Azkueren eta Aranaren ortografi proposamenak dira, une horretan, hegoaldean eztabaidatuenak. Iparraldean ez dago, proposamen teorikoei dagokienez, horrenbesteko irakinaldirik. Bilbotar bien arteko eztabaida izan liteke beraz, dudarik gabe, Hendaiaren bihurriena. Euskaraz hitz egiten eta idazten, ez dago bien artean konparaziorik: Azkue da jaun eta jabe. Hizkuntza eta herria aurrera ateratzeko proiektu oso batean txertaturik eskaintzen du ordea abandoarrak, inork ez bezala, euskararen ortografia. Askori kosta egingo zaio, gauzak horrela jarri, Azkueren eta Aranaren alternatiben artean aukeratzea.

b) *Kanpoko euskalariak*: euskara kontuan jantziak diren atzerriko hizkuntzalariak. Hemen ere baldin dira, dagoeneko, XIX. mendeko 1. eta 2. belaunaldietako buruzagiak: L. L. Bonaparte printzea eta Van Eys jakintsua, XIX. mendeko euskal ortografia baturanzko eboluzioan hain funtsezkoak izan zirenak. Horien ezean hemen dugu J. Vinson, jakina, euskal idazkera bateratzeko proposamen konkreturik besapean duena. Vinsonez aparte badira beste hiruzpalau kandidato ere, linguistikan maisu izateaz gainera euskal gaitan burubelari ari direnak eta agian, hala eskatuko balitzaie, aholkuren bat emango luketenak: Schuchardt, Uhlenbeck eta Dodgson, besteak beste.

c) *Euskal idazleak*: Txomin Agirre eta R. M. Azkue bera, hegoaldekoren artean, bete-betean sartzen dira une horretako idazle eredugarrien multzoan. Gipuzkoarren artean, berriz, Ramon Artola bertso-olerkigileaz aparte hor daude "betiko" Marzelino Soroa, Karmelo Etxegarai eta Arzak donostiarrak, eta Elgoibarko P. M. Urruzuno. Sortzen

edo indartzen ari diren berrietan, berriz, aski kontuan hartzekoak dira Pepe Artola, Victoriano Iraola eta Gelbentzu donostiarrak, Enrique Elizetxea errenteriarra eta Zarauzko Jenaro Elizondo. Ez dira bakarrak, jakina; baina edonork onartzen du beraiek direla azken aldi honetan aktiboak. Nafarrak ez da askorik ageri, une horretan: Zubiri “Manezaundi” eta Irigarai “Larreko” ondotoz beranduago hasiko dira han-hemen agertzen.

Bizkaian Felipe Arrese-Beitia dago, lehendikakoen artean, nahi eta nahi ez kontuan hartzekoa. Azken ordukoetan, berriz, Paulo Zamarripa eta Evaristo Bustintza “Kirikiño” dira indartsuenik gorabidean nabari direnak.

Iparraldekoetan, berriz, Adema-Zaldubi bera, Arbelbide, Joanategi eta, batez ere, Eskualdun kazetako Manex Hiriart-Urruti dira, une horretako idazleen artean, gailen-edo ageri direnak.

Iparraldekoetan, berriz, Adema-Zaldubi bera, Arbelbide, Joanategi eta, batez ere, *Eskualdun* kazetako Manex Hiriart-Urruti dira, une horretako idazleen artean, gailen-edo ageri direnak. Ez dira ordea bakarrak: Larresoroko Abbadia zuzendaria, Hazparneko Arnaud Agirre ianai Juvenalî, Constantin aita eta Landerretxe bera ere (itzulpen-kontuak alde batera utziaz) idazle iaioak dira, zein bere alorrean. Euskarazko idazlangintzak berekin dituen ezaugarriak oso bertatik ezagutzen dituzte horiek.

d) *Euskaltzaleak*: euskararen alde daudelarik, ortografia bateratzeko orduan beren iritzia eman nahi luketen herritarrak. Multzo hau da, askogatik, definitzen eta izen-abizenez osatzen zailena. Zer da, izan ere, *euskaltzale* izatea? Zenbaterainoko zaletasuna behar da, ortografia bateratzeko biltzar batera deitua izateko? Euskaraz (ondo) jakin behar al da horretarako? Euskaraz irakurtzen eta idazten jakin behar al da? Gogoan izan “a los amantes de la lengua” dedikatu ziela Azkuek duela bost urte bere *Proyecto de Ortografía*. Eta konkretukiago, honako hau zioela: “suplan los bascófilos dispersos la falta de su congregación (hots, Akademia)”.

IV 3. Nori deitu zaio, eta nola?

Nori dei egingo dio Guilbeauk, biltzarrera etor dadin? Eta nola egingo ditu deiak (eskutitz pertsonalez, eguneroko prentsa-iragarkiaz, ordezkarien bidez)? Has gaitezen, nondipait behar da-eta, nori dei egin dion ikustetik. Gaurkoz ez dago, dakigularik, horren berri ematen duen zerrendarik. Guilbeauk berak dioenez 40 laguni egin zaio gonbitea: 20 espainoli eta 20 frantsesi (Vinson, 1902: 84). Badirudi, funtsean, honelatsu jokatu duela Guilbeauk dei horiek egiterakoan: alde batetik, lehendik ezagutzen dituen euskalari, idazle eta euskaltzale “kotsakratu”ei bidali die gonbitea, bere kabuz baina Zaldubiren eta

Guilbeauk dei horiek egiterakoan: alde batetik, lehendik ezagutzen dituen euskalari, idazle eta euskaltzale “kotsakratu”ei bidali die gonbitea.

Etorri badakigu, bestalde, euskalari trebeez eta euskal idazle ezagunez gainera euskaltzale huts direnak ere mordoska etorriko direla Hendaiara, eta berak ez dituela baztertuko.

Berariaz gonbidatu dituen kanpoko euskalarien artean Vinson, Dodgson eta Lewy d'Abartigue daudeke.

Campionen babes-itzalaz⁴⁸. Eta bestetik, ongi ezagutzen ez dituen eskualdeetan, hegoaldeko Nafarro-Bizkaietan bereziki, eskuordetu edo delegatu egin du erabaki hori: ezagunak dituen kandidatu nagusiei, Hendaiara datozela eskatzeaz gainera, beren ezagunen artean (pertsonalki edo talde gisa) biltzarrerako deia zabal dezaten eskatu die. Hala gertatu da Bizkaian behintzat⁴⁹. Probintzia horretan lau lagun bidali die Guilbeauk gonbitea: F. Arrese-Beitiari, R. M. Azkueri, X. Garitaonaindiari eta S. Aranari. Etorri, berriz, bederatziz etorri dira: lau horietatik hiru (Garitaonaindiak ezin izan du) eta beste sei. Bilboko *Centro Vasco* edo Euskal Etxeari, esate baterako, lau kide izendatzeko eskatu omen zaio eta halaxe egin omen du⁵⁰ Bizkaiko abertzaleen batzoki nagusiak.

*A posteriori*ko azalpenetan esango duenez, eta kronologiako xehetasun hori funtsezkoa delarik, soil-soilik "lingüistas y literatos de euskera notoriamente conocidos como tales en el país" gonbidatu nahi izan omen zituen Guilbeauk. Baldintza hori ez dator ordea, inondik inora, 1901eko ekainaren 28ko bere gonbitean zehazturik⁵¹. Etorri badakigu, bestalde, euskalari trebeez eta euskal idazle ezagunez gainera euskaltzale huts direnak ere mordoska etorriko direla Hendaiara, eta berak ez dituela baztertuko. Puntu horrek (hots: hasieran behar bezala zehaztu gabeko puntu horri 1902ko urtarril-martxoetan emango zaion garapenak) ekarriko du, luzarora, Hendaiako ortografi biltzarren porrot-fama ezaguna.

Guilbeauren deialdi horren bigarren ezaugarria, hasierako bere saia-kera horretan, zera izan da: Hendaiako biltzarrera euskalari guztiak gonbidatzea. Hots, etxeko eta kanpoko euskalariak gonbidatzea, ez etxekoak bakarrik. Berariaz gonbidatu dituen kanpoko euskalarien artean Vinson, Dodgson eta Lewy d'Abartigue daudeke. Aldiz Schuchardt-i, Charencey-ko kondeari eta Van Eys-i, hain urruti daudelarik, apenas dei egin dien.

Vinsonek ezezkoa eman dio Guilbeauri: denboraz gaizki dabilela eta uztailan ez daukala Hendaiara joaterik. Bigarren aldiz ere intentatzen du Guilbeauk, ortografiaren eztabaida akademikoan behar-beharrezko pieza iruditzen baitzaio Vinson, *Revue de Linguistique et*

⁴⁸ Agian beraiekin hitzartua izango du, partez bederen, gutxienezko zerrenda.

⁴⁹ Ikus SAIG

⁵⁰ Euskal Etxeak lau kide hauek izendatu omen zituen: Txomin Agirre, Serafin Albizuri, Felipe Arrese-Beitia eta Fabian Ispizua (SAIG).

⁵¹ Ikus SAIG

Kolpe gogorrena ez datorkio ordea alde horretatik, iparraldeko eskuindar xuri, apaiz edo apaiztiarren aldetik baizik. Boikot aktiboa jasan du Guilbeauk iparraldeko "betiko" euskaltzale gehienen partetik.

Sabino Aranak, aldiz, baiezkoa eman du Hendaia biltzarrerako, Guilbeauren deia jaso orduko.

Udako beroan, egun batzuk lehenago edo beranduago, iparraldeko euskaltzale xuriak (denak edo agirienak) Guilbeaurekin biltzen dira.

de Philologie Comparée-ren bultzatzaile nagusietarikoa. Alferrik, antza. Kolpe gogorrena ez datorkio ordea alde horretatik, iparraldeko eskuindar xuri, apaiz edo apaiztiarren aldetik baizik. Boikot aktiboa jasan du Guilbeauk iparraldeko "betiko" euskaltzale gehienen partetik. Laster jakingo du zergatik: Guilbeauk "framazon etsai"-ei eta errepublikazale (maiz) antiklerikalei euskal biltzarrerako atea zabaldu die. Horrekin ez daude batera konforme. Etxeko kontuak etxean, eta etxe-koen artean, garbitu behar omen dira. Kanpokoek ez omen dute zer esanik euskal ortografia erabakitzerakoan, urtea joan eta urtea etorri euskara eta euskal kontuak aztertzen ari badira ere. Iparraldeko xuriengandik etorri zaion kontraeraso horrek argudio-bide argia du: euskarari, euskal kulturari eta, oro har, tradiziozko gizarte-moldeari gau t'egun erasoka ari diren horiekin beraiek ez dira bilduko. Ez dira iparraldekoak bakarrik, bestalde, eragozpenak sortzen dizkietenak. Piarres Broussain lagunak zirikatutik R. M. Azkuek ere iparraldeko "etxezale"ekin bat egin du eta Iruñeko Campion, biltzarraren babesle-eratzzailea bera, abstentziozko jarrera horretara bultzatu nahi du. Ordurako pausoa emana dauka ordea Campionek, biltzarrera deiegile moduan ere agertu baita jadanik, eta ez dio Guilbeauri ezetza eman nahi.

Sabino Aranak, aldiz, baiezkoa eman du Hendaia biltzarrerako, Guilbeauren deia jaso orduko. Abandoarra ez da Euskal Festetara joan zale, ekitaldi-modu horiek denbora galtzeko eta euskaldun-jende xehea nahasteko besterik ez direla iruditzen baitzaio hainbatean. Baina oraingo honetara joan egingo da. Garrantzi estrategikoa du, bere ikusmoldean, euskararen ortografia bateratze horrek. Gonbidatu egin dute, gainera, euskalarien eta euskal idazleen zirkulu hautetsira (oraindainokoa ez zuen, itxuraz, horrelako deirik jaso). Une horretan buruan darabilen molde berriko herrigintza aurrera ateratzeko, gainera, biltzar hori mesedegarri izan daitekeela uste du. Aprobetxatu egin behar du okasioa. Baiezko erantzuna ematen dio antza, berandu gabe, Guilbeauri. Eta lanean hasten da, buru-belarri: gauzak ondo egingo badira, plan egokia diseinatu behar da.

Uztaileko bilera-eguna gainean du ordea, eta ez daki zer egin Donibane-Lohizuneko medikuak. Azkenean, gauzak hainbat korapilatu zaizkiolarik, uztailearen (15-)16ko biltzar-asmo hori atzeratzea erabakitzen du Guilbeauk. Apenas, ordea, Vinsoni horren berri ematen dion.

Udako beroan, egun batzuk lehenago edo beranduago, iparraldeko euskaltzale xuriak (denak edo agirienak) Guilbeaurekin biltzen dira. Jainko txikiaren berri ematen diote, hitz gutxitan, eta medikuak ez dauka irtenbiderik: horiek esaten dioten bidetik jo, edo biltzarkiderik gabe gelditu. A zer lotsa! Azkenik, buruari buelta gehiegi ematea ez

Eta handik gutxira, urak baretu direlakoan-edo, irailaren 16rako finkatzen du euskal ortografia bateratzeko biltzar-eguna.

Bigarren deialdiaren berri izan bezain azkar, Azkue mugitzen hasten da. Ezezko erantzuna eman zuen lehen, Broussaini kasu eginaz, baina oraingoan alarma-argiak piztu zaizkio. Jakin du, izan ere, Sabino Aranak baiezkoa eman duela eta buru-belarri ari dela ortografia bateratzeko kontu horiekin.

baita ona, xurien baldintza zorrotza onartuz biltzar-asmoarekin aurrea egitea erabakitzen du. Ez dio inori bere amore emate hori osorik azalduko, ez eta xuriei ere garbi-garbi, baina kasu egingo die eta atzeritarrak ez ditu konbokatuko. Eta handik gutxira, urak baretu direlakoan-edo, irailaren 16rako finkatzen du euskal ortografia bateratzeko biltzar-eguna. Bigarren gonbite-dei hau etxekoei bakarrik egiten die. Ortografiaren biltzarra etxekoentzat bakarrik izango da. Uztaileko ekinaldian bezala, oraingoan ere Hendaia aukeratzen du biltzar-lekutzat. Berriro ere bertako udaletxea, herriko euskal festak direla-eta.

Bigarren deialdiaren berri izan bezain azkar, Azkue mugitzen hasten da. Ezezko erantzuna eman zuen lehen, Broussaini kasu eginaz, baina oraingoan alarma-argiak piztu zaizkio. Jakin du, izan ere, Sabino Aranak baiezkoa eman duela eta buru-belarri ari dela ortografia bateratzeko kontu horiekin. Erro-errotik aldatzen du Aranaren partehartze horrek panorama guztia. Jende gehienak ez daki (berak bai ordea) Sabino nor den: bere jarraitzaileen artean zer-nolako karisma duen eta, batez ere, ortografi kontuei gogoz heltzen dienean noraino iristeko kapaz den. Aranak eta Campionek parte hartuko duten biltzar baten aurrean, berak ez dauka ezetz esaterik. Ez luke gero aginte-indarririk izango, "Hendaiako ortografia"-ri aurre egiteko. Hendaiara joan behar du, beraz, nahi eta nahi ez. Ahalik eta kondizio egokienean, hori bai, bere proposamena aurrera ateratzeko. Kartak eta bilera pertsonalak, behar diren guztiak egingo ditu Hendaiako bilera hori aurretik ondo prestaturik eramateko. Donostiako Ategorrietara joango da besteak beste, uda-partea horko Emilia Enean egiten baitu Campionek, poligrafo handiarekin argi eta garbi, buruz buru eta behar den diskrezioz, hitz egitera. Faborez eta mesedez eskatuko dio bestalde, bere lagun Broussaini, bera ere datorrela Hendaiara. Eta ez hori bakarrik: nagiak behingoz alde batera utzi eta gogotik ahalegindu dadila iparraldeko xuri-abstentzionistak iritiz aldatzen eta Hendaiara berekin ekartzen. Broussainek, jakina, ez daki Azkueri ezetz esaten. Hendaian agertuko dira, azkenik, ekain-uztailetan ezetza eman zuten hamabostak: Azkue, Broussain eta iparraldeko beste hamahiru lagun.

V. Nor izan da Hendaian?

Lehenengo aldia da, antza, era
Lhorretako biltzar batean Zazpi
Probintzietako euskalari, idazle eta
euskaltzaleak elkartzen direna.

Egiantz handienaz esan
Litekeena, nolana ere, zera da:
Hendaiara hogeita hamabost gizon
agertu direla 1901eko irailaren
16an.

Guilbeau medikuaren deiari erantzunez, inoren gomendioz edo bere baitarik, hogeita hamabost gizon etorri dira Hendaiara, ortografia bate-ratzeko kongresura. Emakumezkorik ez da tartean. Lehenengo aldia da, antza, era horretako biltzar batean Zazpi Probintzietako euskalari, idazle eta euskaltzaleak elkartzen direna. Urte asko pasako dira, berri-ro hain goren-mailako eta hain iritzi diferenteko euskaltzaleak ekitaldi bakarrean biltzea lortu arte. Oñatiko 1918ko biltzarrera arte, nolana ere, ez da antzeko baterabiltzerik lortuko.

Aktarik ez da egin Hendaiako biltzar horrena. Horregatik handik ehun urtera ere, Hendaiako biltzarraz eta bere porrotaz hainbat kontu eta aipamen egin delarik bien bitartean, inork ezin agertu izango du Hendaiako biltzarkideen izen-zerrenda segururik⁵². Egiantz handie-naz esan litekeena, nolana ere, zera da: Hendaiara hogeita hama-bost gizon agertu direla 1901eko irailaren 16an. Horrezaz gainera, badirudi beste hamabosten bat lagunek, bertara agertu ez diren arren, eskutitez bat egin dutela Hendaiako egitasmoarekin. Idatziz egin diren hamabost atxikimendu horietariko batzuk, dozena-erdi inguru, Hendaiako bilera-eguna baino lehen iritsi dira Guilbeauren-gana. Besteak, Telesforo Arantzadik Bartzelonatik bidalitako atxiki-mendua barne, Hendaiako bilera egin eta handik egun gutxira jaso dira. Gero, 1902ko urte-hasieran edo, beste atxikimendu-asmorik ere jasoko du Guilbeau medikuak. Kasu horretan ez dira ordea Hen-daiarako atxikimenduak, datorren irailean Hondarribian egin asmo den bigarren biltzarrerakoak baizik. Karmelo Etxegarai bere anaia Bonifazientzat egin nahi duen atxikimendua horrelakoa da, esate baterako. Horrelakorik ez da, jakina, Hendaiako hamabost atxikimen-du horien artean sartzekoa.

V.1. Etortzerik izan ez baina partaide izan nahi dutenak.

Has gaitezen beraz bazterretik. Nork bidali dio Guilbeau jaunari, Hen-daiako bilera aurretik, bere atxikimendu-idazkia? Nor dira, alegia, Hen-daiara ezingo direla etorri baina biltzar horren asmoarekin bat egiten dutela esanaz Guilbeau idazkariari atxikimenduzko eskutitza bidali diotenak? Ikus ditzagun banan-banan:

⁵² Hemen emango dena ere tentatiboa da beraz, ezinbestean. Bihar edo etzi, han-hemen gorderik daudekeen paperak argitara eman ahala, litekeena da izen-zerrenda hau zertxobait aldatu behar izatea. Eskueran dauden agiri, bertsio eta zehar-aipamen guztiak kontuan izanik prestatu da oraingo hau. Ez da erabat segurua, baina iturri ezagun guztiak hartu dira kontuan. Hori dela-eta, biltzarkideen beneta-ko zerrendaren kontu horretan aurrerantzean gerta litezkeen aldaketak, izatekotan ere, txikiak izango direla uste dut.

Zuberoako Sunharetetik, Abense-de-Haut-etik, Emmanuel Intxauspe agurgarria (1815-1902), bere garaian Baionako bikario nagusi izana eta, horren aurretik, euskal gramatikolari moduan hain goren mailara iritsia; Beneditarren Ahurtiko komentutik, Beloketik alegia, aita Basilio Joanategi (1837-1921): euskara bizi, garbi, adierazaren maisu eta irakaslea; Paris ingurutik J. Felix Larrieu (1864-1941), euskaltzale eta euskalari mediku xuberotarra, "Almanak ùskara"ren argitaratzailea 1887tik 1914ra arte; Donostiatik Antonio Arzak, Karmelo Etxegarai, Victoriano Iraola, Cazal Otegi, Marzelino Soroa, eta J. I. Uranga. Ia *Euskal-Erria* osoa; Arrasatetik Juan Carlos Gerra lege-gizona, gero eta gehiago genealogi kontuan espezializatzen ari dena; Alegitik Toribio Iriondo, bertako bikarioa; Irundik Mugartegiko Murga jenerala; Durangotik Garitaonaindia abadea; Gasteiztik Federico Baraibar irakasle euskaltzalea eta Bartzelonako Unibertsitateetik Telesforo Arantzadi, Natur-Zientzietatik Historiaurrera doan jakintza-sail zabalean, etnografian eta antropologian bereziki, euskal herri-jakintza zabaltzen eta sakontzen ari den irakasle ospetsua.

Azter ditzagun kontuok zertxobait xeheago. Nondik etorri dira, bizilekuari dagokionez, hamabost atxikimendu horiek? Ia denak, hamabostetik hamabi, Bidasoaz hegoaldetik. Iparraldetik, aitzitik, hiru lagun bakarrik gelditu dira Hendaiaratu gabe: Zuberoako bere herrira erretiraturik bizi den laurogeita sei urteko Intxauspe agurgarria, beneditarren Belokeko komentuan sartu berrien maisu dagoen aita Joanategi eta Paris inguruan bizi den Larrieu mediku euskaltzalea, "Xiberoko egunaria"ren argitaratzailea. Iparraldeko gehienak moldatu dira beraz, nola edo hala, Hendaiara hurbiltzeko. Badirudi distantziak, adinaz gainera, eragin zuzena izan duela hiru horien kasuan. Oso bestelakoa da, aldiz, hegoaldeko panorama. Hegoaldetik etorri diren hamabi atxikimenduen artean, gipuzkoarrenak dira ia guztiak (hamabitik bederatz). Gainerako hirurak Garitaonaindia durangarrak, Gasteizko Baraibarrek eta, esan bezala, Telesforo Arantzadik (Bartzelonako botanika-katedradunak) bidalitakoak dira. Hiru horien kasua ere, distantzia dela-eta, ulertzen erraza da. Zergatik gelditu da ordea hainbat gipuzkoar (ia donostiar guztiak, bereziki) Hendaiara agertu gabe? Hori bai dela harrigarria. Inork Hendaiara eskueran izatekotan, donostiarrek zeukaten hori. Garbi dago, beraz, donostiarrek kale egin dutela Hendaiakoan. Huts egite horren esplikazio posibleen artean, lau hauek dira itxuraz-koenak-edo:

- a) Urtero bezala, iraileko *Euskal Jaiak* prestatzen ari dira gipuzkoar euskaltzaleak. Hilaren bigarren hamabostaldian dute aurtengo euskal jai nagusia, Donostian urtero egiten denaz gainera. Azpeitian izango da aurtengoa, irailaren 29an. Probintzia osoa erakartzen duen jaialdi horren prestakuntza-lanean ariko dira, agian, Antonio

Iparraldeko gehienak moldatu dira beraz, nola edo hala, Hendaiara hurbiltzeko.

Zergatik gelditu da ordea hainbat gipuzkoar (ia donostiar guztiak, bereziki) Hendaiara agertu gabe?

Donostiako euskaltzaleen artean elizgizon gutxi dago. Are gutxiago astelehen osoa, goiz eta arratsalde, jai har dezakeenik.

Donostiako euskaltzaleek ez daukate "berena ez den gerra batean" sartzeko gogo handirik. Jakin badakite, berriz, Hendaian suak eta garrak pizteko arriskua dagoela.

Donostiako hainbat euskaltzalek Bilboaldeko euskaltzaletasun berriari mesfidantzaz, prebentzioz eta inbidi puntta batez begiratzen diola uste izateko.

Arzak eta bere lagunak. Hori dela-eta ez dute, akaso, Hendaia joateko astirik izango;

- b) Donostiako euskaltzaleen artean elizgizon gutxi dago. Are gutxiago astelehen osoa, goiz eta arratsalde, jai har dezakeenik. Herri liberala da Donostia aspaldixodanik, eta 1878tik aurrera bertan ernatu, hazi eta garatu den euskalgintza joria bertako kaletar laiko joshemaritarren fruitua da, neurri batean. Esku-langileak dira euskaltzale horietariko hainbat (Artola aita-sembleak, adibidez); mediku-abokatu-irakasleak besteak; Diputazioko edo udaleko funtzionarioak ere ez dira gutxi (Karmelo Etxegarai; Serapio Mujika; Antonio Arzak, Lopez-Alen,...). Astelehena egun txarra da horientzat.
- c) Donostiako euskaltzaleek ez daukate "berena ez den gerra batean" sartzeko gogo handirik. Jakin badakite, berriz, Hendaian suak eta garrak pizteko arriskua dagoela. Batez ere Azkue-Aranak, nor bere proposamen finkoaz, temati agertzen badira. "Donostiako euskal ortografia" egin samarra daukate, bestalde, Jose Manterolak orain hogeitun inguru, iparraldekoen ildotik baina gaztelaniaren markora egokituz, bere idazkera-eredua plazaratu zientetik. Luze-zabaleko *cultivation*-lana bideratu dute beraiek, hogeitun urte luzez, Manterolaren idazmolde horrekin. "Donostiako ortografia" horrekin hainbatean moldatzen dira beren *Euskal-Erria* aldizkarian, *Jostirudien Euskal Bilguman*, urteroko teatro-saioretan, bertso-paperetan eta abar. Nahikoa kostatu zaie, bestela ere, Manterolaren idazkera hori beren kideei onarraraztea. Batez ere teatro-lanetan, bertsoetan eta, oro har, aho-hizkeratik eta euskal eskolatzetik gabeko entzule-irakurleengandik hurbilago jardun behar den ingurumenetan ez da giro izaten: hain lagun eta etxekoa duten Martzelino Soroa bera, esate baterako, Manterolaren berrikuntza haiek (*Guipuzcoa, kontu, quirten ordez Gipuzkoa, kontu, kirten* etab.) zirela medio hor ibilia da euskarazko liburu, aldizkari eta paperak *kaka*-z betetzen ari garela keja bizian. Ez genuen berehalakoan gizona bere onera ekarri! Kontuz, beraz, ortografia meioratzeko abentura berriekin.
- d) Euskaltzale establezituen mesfidantza eta inbidi puntta. Inoiz gutxitan aztertu den kontua da hori, dokumentatzea ere ez baita oso erraza. Badago ordea arrazoirik, Donostiako hainbat euskaltzalek Bilboaldeko euskaltzaletasun berriari mesfidantzaz, prebentzioz eta inbidi puntta batez begiratzen diola uste izateko. Ez bizkaitaristen euskaltzaletasun punta-muturrekoari soilik, bertan sortzen ari den etnokulturazko eta soziolinguistikazko indarberritze-saio osoari baizik. Erantzuna ere parez parekoa da noski. Bai Sabino Aranak, eta bai Azkue tarteko duten *euskalerr*iaokoe ere, estimu gutxi diete

Beste hainbat gizarte-ekimenek bezala elite-berritze bat dakar ezinbestean, hezurmamitu ahala, hizkuntz plangintza horrek.

azken aldi honetan *Euskal-erria* aldizkari sasiofizialaz eta urteroko *Lore Jokoez* arduratzen diren euskaltzale establezituei. Bilboko sotatarren *Euskaldunak*, ez Aranaren *La Patriak*, esandakoa da honako hau (1901-IX-22): “sólo ha habido una nota discordante: la de los *bascófilos* de la revista *Euskal-erria* y de los *juegucitos florales* (kurtsiba eta diminutiboa jatorrizkoak dira)”. Jernuddek eta Neustupnýk aspaldi azaldu zuten beren “Language planning: for whom?” famatuan, hizkuntz plangintza ez dela sozialki neutroa. Hori eta gehiago zehaztua du Fishmanek, hizkuntzaren soziologiako bere saiakeretan: beste hainbat gizarte-ekimenek bezala elite-berritze bat dakar ezinbestean, hezurmamitu ahala, hizkuntz plangintza horrek. Eta horra: Donostiako euskaltzale establezituek, edadean aurrera samarturik doazen eta beraiek gabe (Bilbo aldean eta, partez, iparraldean) egosi den eltzekari horrekin zer irabazia baino zer galdua gehiago dutela uste edo beldur dutenek, ez daukate ilusio berezirik “bestek” asmatutako bide berrian barrena abiatzeko. Beren buruaz duten talde-iritzia ez da ondo ezkontzen euskalgintza-modu berriarekin: zer dela-eta hasi behar dute orain beste horiek, gure betiko esparrua (berr)antolatzen?. Gezurra dirudi hain kontsiderazio gutxi izatea, guk egin dugun guztiarekin euskararen alde! Zer gertatu behar du, orduan, gure mende-laurdeneko antolamenduarekin eta geure buruekin? Galderok eta harridurazko esaldiok ez daude inoren lumatik hitzez hitz jasoak. Baina korrelato zuzena, eta erabat fidagarria, dute handik gutxira gertatuko denarekin. Bizkaiko Foru Aldundiak Euskal Akademia sortzeko proposamena egiterakoan mesfidantzazko atzerakarga sortuko da, berriro ere, donostiar euskaltzaleongandik. Kasu horretan badakigu, gainera, motiboa zein izan den (ikus K. Etxegaraireren eta S. Mujikaren arteko eskutitzak).

Motibo bat dela edo bestea delat, gipuzkoar askok eskutitza bidali dio Guilbeau jaunari, suerte ona opatuz baina Hendaia ezin joan daitekeela esanaz.

Motibo bat dela edo bestea dela, gipuzkoar askok eskutitza bidali dio Guilbeau jaunari, suerte ona opatuz baina Hendaia ezin joan daitekeela esanaz⁵³. Hendaia nor etorri den jakitea inportantea da, dudarik ez. Etorri gabe nor gelditu den jakiteak ere badu ordea bere balioa: Urkixok handik hamabost bat urtera argi azalduko duenez konbentzio kontua baita, funtsean, ortografia. Eta konbentzioaren oinarria, jakina, gizarte-adostasuna baita. Donostiako euskaltzale asko, gehienak itxuraz, ez daude adostasun-marko berri baten bilaketan bereziki interesatuak. Beldur izatekoa da, alde horretatik, Hendaian erabaki sendoa hartzen bada lana izango dela erabaki horren arabera idazkera, gaur-gaurkoz behintzat, Donostialdean aurrera ateratzen. Egia da, gainera, bertara ez agertze hori ez dela Donostiako euskaltza-

⁵³ Idazlan honen azken idazkuntzako eranskinean eskainiko da, zehaztasun osoz, Hendaia etorri ez baina atxikimendua agertua izan dezaketen beste bizpahiru euskaltzaleren azalpena. Baita Garitaonaindiaren kasua ere.

Atentzioa deitzen du, alde horretatik, idazteko orduan hain ugariak eta irakurriak diren Ebaristo Bustintza "Kirikiño" eta Pedro Miguel Urruzuno ez bertara joana eta atxikimendurik bidaltzeaz ere gogoratu ez izana.

leen kontua izan, huts-hutsik. Atentzioa deitzen du, alde horretatik, idazteko orduan hain ugariak eta irakurriak diren Ebaristo Bustintza "Kirikiño" eta Pedro Miguel Urruzuno ez bertara joana eta atxikimendurik bidaltzeaz ere gogoratu ez izana. Kirikiñoren kasuan, motibo bi leudeke hori esplik dezaketena: a) hasi berria da bera euskarazko idazlangintza honetan. Sigüenzan matematika-irakasle izateari utzi eta, 1899an, Bilboko *Euskalzalen* luma zorrotzen hasi dela egia da, baina inor gutxik ezagutzen du oraingoz: bere benetako jendarteratzea orain-txe (1902ko urtarrilean, *Ibaizabal* kaleratzen den unetik aurrera) hastera doa; b) lagun-lagunak ditu bi lehiakide nagusiak (Azkue eta Arana), eta oso aldatz gora egiten zaio bietako baten proposamena hobetsi eta, ezinbestean, bestearen kontra egin behar izatea.

Atentzioa deitzen du, orobat, Luis Eleizalde eta Julio Urkixo bertan ez izatea. Egia da gazteagoak direla biak; baina badakigu, jakin, euskal kontuetan murgiltzen hasiak daudela. Urkixoren kasuan bada, gainera, kontuan hartzeko beste datua: 1894tik aurrera Donibane-Lohizunen bizi da, bere *Urkixo-baita* etxean. Atzerrian ote da irailaren erdialde horretan?

V.2. Hendaiera etorri direnak

Honetan ere ez dago adostasunik, biltzar horretaz argitasunen bat ematen dutenen artean. Gehienetan, Hendaian zenbat lagun bildu ziren esaterakoan, 31 eta 35 arteko aipamenak jaso litezke. Tarte handi samarra dago, segun noren azalpenak irakurtzen diren. Ez da harrizkoa ere, ordea: biltzar-eguneko esan-eginen aktarik jaso ez zenez, eta batzuek bere kontura-edo etorri zirenez, erraz ulertzen da han-hemengo aipamenetan biltzarkideen kopuru finkorik ez izatea. Noiz kontatu behar dira, gainera, biltzarkideak? Goizeko bederatzietan, J. Vinson oraindik tartean denean? Ala hamaiketan, bibliografoa gabe ari direnean? Arratsaldean, berriz, nola jakin zein unetan nork alde egin duen biltzarretik, eta handik aurrerako eztabaidetan eta boto emateko orduan herriko etxean zenbat biltzar-lagun dauden? Azkenazken orduko botazioetan, apenas sei lagunetik gora gelditu diren. Biltzarkideen kopuruak gora-behera nabariak izan ditu, beraz, astelehen goizetik ilunabarrera arte. 31tik 35era doazen bertsio guztiak egia izan litezke, beraz, zein bere unean. Hori ez da berez, kongresuetan zertxobait ibilia den edozeinentzat, hain gauza harrigarria. Hainbatek arratsaldekoko trena hartu beharko zuela jakinik, Baiona aldera-eta itzultzeko, are gutxiago. Hendaiera etorri direnen kopuru zehatz-berdaderoaren kontuak ez gaitu, beraz, gehiegi aztoratu behar. Arrazoizkoena, horrelakoetan, guztien izenak ematea dirudi: egun osoan egon direnena eta, egun osoan ez bada ere, partez behintzat han izan direnena. Gatozen hortaz, jira-buelta handiagorik gabe, benetako biltzarkideen

Biltzarkideen kopuruak gora-behera nabariak izan ditu, beraz, astelehen goizetik ilunabarrera arte. 31tik 35era doazen bertsio guztiak egia izan litezke, beraz, zein bere unean.

izen-abizenetara. Nor etorri da Hendaia? Nor dira Zazpi Probintzietatik etorritako hogeita hamabost lagun horiek? Goiko zertzelada guztiak kontuan izanik, eta geroxeago azalduko diren datu konkretuen arabera, Vinson tartean kontatuz badirudi hogeita hamabost lagun hauek izan direla Hendaian:

Oharrak

M i k e l Z a l b i d e

	NOR	Prob	Jaio / Hil	Belaun	Non jaioa	E, E.b.	Lanbidea	Nondik etorri
1	Adema-Zaldubi, Gratien	L	1828-1927	1,4	Senpere	E	Kalonjea	Baiona
2	Adema, J B	L	1861-1936		Senpere	E	Erretore. Gero kalonje E-ren zuzendari	Senpere
3	Agirre, Domingo	G	1864-1920	3	Ondarroa	E	Apaiza	Zumaia
4	Albizuri, Serapin	B	1869-1931	3	Gautegiz-Aretaga	E	Apaiza	Bermeo
5	Arabar bat (ezezaguna)	A				G		
6	Arana-Goiri, Luis	B			Bilbo	G		
7	Arana-Goiri, Sabino	B	1865-1903	3	Bilbo	Eb	Politikaria. Publizista	Bilbo
8	Arantzadi, Estanislao	N	1841-1918	2	Lizarra	G	Lege-gizona	Iruña
9	Arbelbide, Jean Pierre	L	1841-1905	2	Zaro, BN	E	Kalonjea	Baiona
10	Arrese-Beitia, Felipe	B	1841-1906	2	Otxandio	E	Santugina	Otxandio
11	Arrospide, J	B	1869-1952	3	Busturia	E	Medikua	Muxika
12	Artola, Ramon B. dakar	G	1831-1906	1,55	Tolosa	E	Iturgina	Donostia
13	Azkue, Resurreccin M ^a	B	1864-1951	3	Lekeitio	E	Irakasle. Hiztegitigile. Publizista. Idazle	Bilbo
14	Broussain, Pierre	L	1859-1920	3	Hazparne	E(b)	Medikua	Hazparne
15	Campion, Arturo	N	1854-1937	2,7	Iruña	Eb	Poligrafoa	Donostia
16	Constantin, A (semea)	Z	1873-1957	3,2	Izpura	E	Medikua	Atharratze
17	Daranatz, Jean Baptiste	L	1870-1945	3	Ezpeleta	E	Apepikuteigiko idazkari. Hiztegitigile. Etimologista	Baiona
18	Darricarrere, Jean Baptiste	L	1844-1927	2	Uztaritze	E	Kapitain ohia. Mugazain ohia	Baiona
19	Dourisboure, Alexis	L	1863-1931	3	Mugerre	E	Medikua	Senpere
20	Durruti, Simon	L	1857		Aiherre		Apaiza	Itsasu
21	Goiburu, Carlos	N						
22	Grijalba, Pedro	B						Bilbo
23	Guilbeau, Martin	L	1839-1912	1,95	Urruña	E(b)	Medikua	Donibane-Lohiz.
24	Hatan, xx	L		2				Ziburu
25	Hiriart, Leon	L	1829-1915	1,5	Baiona		Bibliotekaria	Baiona
26	Hiriart-Urruti, Manex	L	1859-1915	3	Hazparne	E	Irakaslea, Kazetaria	Larresoro
27	Iturralde-Suit, J	N	1840-1909	2		G		Iruña
28	"Juvenal" anaia: Arnaud Agirre	L	1850-1932	2,5	Heleta (NB)	E	Ikastetxeko zuzendari	Hazparne
29	Landerretxe, Martin	L	1842	2	Busunaritze (BN)	E	Apaiza	Donibane-Lohiz.
30	Larrea, Juan?	B						Bilbo?
31	Lasalle, Pierre Alphonse	L	1849-1905	2			"Officier d'administration" ohia	Baiona
32	Mujika, Serapio	G				E		Hondarribia
33	Salaberri, J D	Z	1837	1,85		E	Notarioa	Maule
34	Vinson, Julien	L	1843-1926	2		Eb	Hizkuntzalaria. Eusk. bibliografoa	Baiona
35	Zabala, Jose Antonio, edo F.?	B						Bermeo edo Bilbo?

Kopurua bera oso hurbil dabil, gainera, Broussainek aipatzen duen zenbakitik: bere kontaketa hartan Vinson "librepensadorea" kanpoan utzi ote zuen hazpandar medikuak, biltzarrean 34 edo 35 kide izan zirela zioenean?

- a) belaunaldiaren indizea ulertzeko, honako eredu hau hartu behar da oinarri:
 1. belaunaldia: batez ere 1810-1820 artean jaioak;
 2. belaunaldia: batez ere 1840-1850 artean jaioak;
 3. belaunaldia: batez ere 1860-1870 artean jaioak.
- b) Bestalde, E. b. laburpenaz *euskaldun berria* adierazi nahi da, *E* laburpenaz euskaldun zaharra eta Grekin gaztelaniazko erdalduna.
- c) Probintzi kontuei dagokienez, azkenik, ohiko izen-formaren lehen letra hartu da gidari.

Zerrenda hau egiterakoan zera uste izan da: Hendaian izandako batek edo bestek, handik astebetera edo urte-erdira, emandako azalpenak egia direla guztiak. Hots, biltzarkideren batek nonbait baldin badio Urlia jauna Hendaian izan dela, besteek horren aipamenik ez bada-karte ere biltzarkideen zerrendan sartu dugu Urlia hori. Gutxienak dira, halere, era horretako kasu ilunak. Kopurua bera oso hurbil dabil, gainera, Broussainek aipatzen duen zenbakitik: bere kontaketa hartan Vinson "librepensadorea" kanpoan utzi ote zuen hazpandar medikuak, biltzarrean 34 edo 35 kide izan zirela zioenean⁵⁴?

Pentsatzekoa da, bestalde, zerrenda horretako kasuren bat transkripzio okerraren fruitu dela. Nafarroatik Hendaianaratu omen den Goiburu hori ez ote da Baztango Kruz Goienetxe (1866-1925) izango, Amaiurko apaiz euskaltzale ezaguna? Niri hala iruditzen zait, baina biltzarkideen zerrendan Goiburu ageri da eta, bada ezpada, ez naiz aldaketarik egiten ausartu. Bertan izan omen zen arabarrak, berriz, are gutxiago dakigu: han izan omen zela eta euskaltzalea zela. Besterik ezer gutxi dakigu: ez zela euskal idazlea, ez eta euskalaria. Badirudi Federico Baraibar ez zela izango, atxikimenduen zerrendan baitator irakasle ezagun hori. Gaurkoz ezin, beraz, ezer gehiago esan. Oso ilun gelditzen dira, orobat, Hendaian izan omen ziren bizkaitar bi hauen nortasun-ezaugarriak: Larrea eta Zabala. Lehenengoaz ez dugu argitasun-izpirik: Juan izenekoa dela, agian, eta bilbotarra. Arte-jakitun moduan gailendutako Juan Larrearen familiakoa ote da lehenengoa? Ez ote da Bilboko Luis de Larrea y Sustacha izango, *Euskal Esnalearen* bazkide zenbakizkoa? (ikus Euskal Esnalea, 1908ko 1. zenbakiaren 7. orrialdea). Bigarrena Jose Antonio Zabala ote da, *Ibaizabal* astekariaren Bermeoko suskriizio-batzailla? Baliteke, gainera, deituraz Zabala ez izatea. Ez ote da, bere orde, Bilboko *Centro Vascok* (beste hiturekin batera: Serapin Albizuri, Txomin Agirre, Felipe Arrese-Beitia) izendaturiko Fabian de Ispizua izango?

Deigarria da, bestalde, Pedro Grijalba bat Bilbotik etorri izana. Ez,

⁵⁴ Ikus ABEI, 248: Nous étions 34 ou 35 à Hendaye.

Pierre Alphonse Lasalleren eta Serapio Mujikaren partaidetzak, azkenik, inoiz patxada hobean aztertzea merezi duen alorrera garamatza: administrazioko erdi- edo goi-funtzionarioen eta euskalgintzaren arteko harreman-modu bihurria.

Hendaiara etorriak ditugu, nolanahi ere, euskalgintzari mende-hasiera horretan indartsuenik eragiten dioten hirurak: Arana, Azkue eta Hiriart-Urruti.

halere, harrigarria: Azkueren segizioan etorriko zen seguruenik, Luis Arana-Goiri bere anaia Sabinorenean agertuko zen bezala. Kontuan hartzekoa da, azkenik, iparraldeko Hatan baten parte-hartzea. Muskuldikoa apaizak agertua zuen, 1895ean iparraldeko leku-izenen hiztegia argitara zuenetik bederen, euskal letrekiko interesa. Broussainen aitormenei kasu egin behar bazaie, ordea, nolatan gonbidatu zuen Guilbeauk horrelako “espezialista”? Pierre Alphonse Lasalleren eta Serapio Mujikaren partaidetzak, azkenik, inoiz patxada hobean aztertzea merezi duen alorrera garamatza: administrazioko erdi- edo goi-funtzionarioen eta euskalgintzaren arteko harreman-modu bihurria. Euskararen eta administrazioaren arteko ezkontza-modu profesional hori 1980tik honako berrikuntza dela esaten ohituak gaudenontzat, administrazioko bi teknikari(ohi) horien eta euskalgintzaren arteko uztartze-saioak uste baino lehenagokoak direla pentsatzera garamatzake Hendaiak.

Inguru-minguruko gogoetak dira, ordea, horiek guztiak. Hendaiako biltzarkideen enborra, izan ere, beste era bateko euskaltzaleek osatzen dute: euskalgintzan sendo diharduten, lan horregatik xoxik jasotzen ez duten baina, nork bere lanbide-esparruan, sona eta itzala eskuratua duten (edo laster eskuratzeko bidean diren) gizasemeek. Azken oharra: Hendaiara etorriak ditugu, nolanahi ere, euskalgintzari mendehasiera horretan indartsuenik eragiten dioten hirurak: Arana, Azkue eta Hiriart-Urruti. Horiek gabeko biltzarra nekez izan zitekeen Euskal Biltzarra. Horiek, eta Vinsonek, ematen diote Hendaiari berez “behar zuen tornua”.

V.3. Etorritako en zebait ezaugarri

Has gaitezen, halako xehetasun batez, Hendaiara etorritako hogeita hamabost biltzarlagunak nongoak diren ikusten. Lehenengo begi-kolpeak erakusten digunez, kopuruz antzeko multzoak etorri dira Bidasoaren alde bietatik. Iparraldeko biltzarlagunak hamazazpi dira: Lapurdi-Baxenabarretatik hamabost, eta Zuberoatik bi. Hegoaldetik beste hamazazpi lagun ditugu: arabar bat (bere izenik ez du inork eman), bederatziz bizkaitar, hiru gipuzkoar eta lau nafar⁵⁵. Azkenik, iatzerritar bat ere agertu da Hendaiara: Julen Vinson euskalari eta bibliografo jakintsua.

V.3.1. Bilbo eta Baiona, kapitain pilotu

⁵⁵ Luis Arana, iparraldean bizi denez une horretan, bertatik etorriko zela pentsa liteke. Bilbotarren multzoan sartu dut, ordea, kontaketa egiteko.

Etorri-etorri, garbi dago batez
ere bi lekutatik etorri direla
biltzarkideak: Lapurdi-
Baxenabarretatik eta Bizkaialdetik.
Burubiko biltzarra da Hendaia-
koa, biltzarlagunen jatorriaz edo
bizilekuaz denaz bezainbatean.

Hegoaldeari dagokionez, izan
ere, trantsizio-une berezian
gaude: aurrera begirako
euskalgintzaren alorrean
Gipuzkoak bere lehen gradua
galdurik-edo daukan unean.

Etorri-etorri, garbi dago batez ere bi lekutatik etorri direla biltzarkideak: Lapurdi-Baxenabarretatik⁵⁶ eta Bizkaialdetik. Burubiko biltzarra da Hendaia-koa, biltzarlagunen jatorriaz edo bizilekuaz denaz bezainbatean. Gehiago zehaztu nahi izanez gero, aski genuke Hendaiarako trena gehienek non hartu duten begiratzea: Baionan eta Bilbon. Bi hiriburu horietan, edo beren *Hinterland* hurbilean, bizi dira biltzarlagun gehienak. Demolinguistikari dagokionez Gipuzkoa da, askogatik, Pro-bintzia euskaldunena mende-hasiera horretan. Hiriburu bakarra da Donostia, horrezaz gainera, euskarak kale-giroan bizi-ingar nabaria (nahiz maldan beherakoa) duena. Hori guztia horrela izanik ere, herrialde osoak hiru lagun besterik ez ditu Hendaia-ri bidali. Hutsaldi nabarmen horren aitormen espresurik inon ez dagoenez, irudipenari leihoak zabaldu behar: hoberik ezean, goraxeago emana dugu lehen hurbilketazko esplikazio moduko bat.

Bada besterik ere, ordea, Gipuzkoako hutsaldi edo desoreka hori esplikatzeko dezakeenik. Eliteen (hobe, agian, protoeliteen) biltzarra da Hendaia-koa, ez igande-eguardeetako bertso-paperean paratzaileen edo baserrigiroko herritar xumeen bilera-leku. Horrek esplikatzeko du, neurri on batean, osaera horren berezia. Hegoaldeari dagokionez, izan ere, trantsizio-une berezian gaude: aurrera begirako euskalgintzaren alorrean Gipuzkoak bere *lehen gradua* galdurik-edo daukan unean. Ez 1890 ingurura arte gertatu da halakorik, eta ez 1910etik hona gertatuko da berriro. Hendaia-ko urte-inguru horretan etxean eta kalean, lanean eta, ahal duenean, elizan euskaraz (nagusiki euskaraz) bizi den euskaldun-jendearen multzo nagusia (kopuruz zabalena, jardueraz trinkoena) Gipuzkoan dago. Euskalgintzaren buruzagitza, aldiz, hegoaldeari dagokionez Bizkaian. Zehazkiago esateko, Bilbon. Euskal herria zer izan den, euskara eta euskaltasuna zein egoeratan dauden eta, batez ere, hizkuntzari eta hiztun-herriari zer etorkizun opa diogun (diezaiokugeun, nahi geniokeen...) Bilboko *Centro Vascon* ari da une horretan, inon baino sarriago eta biziago, eztabaidatzen. Mediku eta abokatu, apaiz eta musikari, enpresario-jende eta irakasleren bat..., Bilboalde horretan dago euskalgintzaren burua. Oso kontuan hartzeko puntua da hori, euskalgintzaren hauspoa Gipuzkoan dagoela ikustera eta "jakitera" ohiturik gaudenontzat. Buruzagien arteko kontu-garbitze saioa da Hendaia-koa, eta jauntxo-kutsu horrek aztarren argiak utziko ditu biltzarlagunen osae-
ran. Garrantzi handia izango du protoeliteen fokalizazio berezi horrek biltzarraren zer-nolakoan. Bertan agertuko diren jarrerak, interesak, ezi-

⁵⁶ Baxenabarretik etorri, apenas etorri da inor. Lapurditik etorriak dira, guztiak ez bada gehien-gehienak. Sorlekuz eta mintzairaz baxenabartar dira, ordea, Lapurditik datozen hainbat (Arbelbide, Landerretxe, Dourisboure, Agirre "Juvenal"...). Ez da alferrik *Navarro-labourdin littéraire* delakoaren erudia une horretantxe egosten ari Larresoroko seminarioan, Baionako kalonje-taldean eta, bereziki, *Eskualdun* kazetan.

neramanak eta konponbideak erabat loturik daude, izan ere, Hendaia-ko bileraren protoelitezko izaera horrekin.

V.3.2. Zaharrak: eutsi! Gazteak: eup!

Guztia ez da hori, jakina. Adinaren kontua ere hor dago eta, beste hainbatetan bezala, eragingarria da oso. Horretan ere aski nabarmena da Hendaia-ko zenbait ezaugarri: XIX. mendeko hirugarren belaunaldia, batez ere mila zortziehun eta hirurogeiko hamarkadan jaiotakoena, horixe da 1900 inguruko euskalgintzaren erabakimen-indarra bere baitan duena (Hiriart-Urruti Lapurdin, Azkue eta Arana Bizkaian). Horien kontrako proposamenik ez dago Hendaian egiterik. Ez, behintzat, hortik aurrerako aldizkari, liburu eta hiztegieta luze-zabal onartuko den ezer egin nahi bada. Hiru biltzarlagun horiek onartzen ez duten ortografia ez da ortografia batua izango. Urrutirako helburuz eta programazio xeheaz beraiek diseinatzen, antolatzen, bultzatzen eta kontrolatzen dute izan ere, 1890 ingurutik aurrera eta nork bere baliabideez, euskal idazlangintzaren zatirik aktiboena. Gazteak dira Hendaia-ko biltzarrean nagusi, handik hirurogeita zazpi urtera Arantzazukoan, oso beste modu batera ordea, gertatuko den bezala.

Gazteak dira Hendaia-ko biltzarrean nagusi, handik hirurogeita zazpi urtera Arantzazukoan, oso beste modu batera ordea, gertatuko den bezala.

Biltzar-aretoan hitz egiteko orduan, eta mahaiburuan jartzerakoan, bigarren belaunaldiak ere (1840ko hamarkadan jaiotakoak alegia) ez du atzean gelditu nahi. Bere garaian gogoz, eta zenbait kasutan oihartzun zabala eskuratuz, jardunak dira euskalgintzan: (Guilbeau, Arbelbide, Darricarrère eta Salaberri iparraldean; A. Campion (E. Arantzadi eta Iturralde-Suit) Nafarroan; Arrese-Beitia Bizkaian. Egia da euskaraz idazteko kontu horretan (Arrese-Beitia salbu) atzenduxeak dabiltzala gehienak. Iturralde-Suit eta beste batzuk ez dira gainera, lehen ere, euskaraz jardunak. Ortografiaren gainean 1894tik aurrera piztu diren eztabaidetan, bestalde, gazteak izan dira aitzindari. Eskarmentu handiko jendea da, ordea, bigarren belaunaldiko hori. Atzeak erakusten baitu aurrea nola dantzatu, berrogei urtetik beherako gaxte horiei zer erakutsia badutela iruditzen zaie hirurogei urteko jiran dabiltzan buruzagioi. Ez hori bakarrik: ortografia bateratzea eta euskara bizirik ateratzea elkarri loturik izan dituzte beraiek aspaldidanik. Eta orain, hain erabaki garrantzitsua eztabaidatzeko orduan, protagonista izan nahi dute, hariak mugitzeko besterik ez bada ere.

Atzeak erakusten baitu aurrea nola dantzatu, berrogei urtetik beherako gaxte horiei zer erakutsia badutela iruditzen zaie hirurogei urteko jiran dabiltzan buruzagioi.

Badira Hendaian, azkenik, are zaharrago diren biltzarkideak ere: Adema-Zaldubi, Ramon Artola eta Baionako Leon Hiriart bibliotekaria. Hirurogeita hamar urtetik gorako buruzuriak dira iparraldeko biak, eta donostiarra ez dabilkie urruti. Horiek ez daude eztabaida handietan sartzeko: kontuak erlatibizatzen erakutsi die biziak, eta pauso bakoitzean hil ala biziko konturik ez ikusten. Jasotako gonbiteari ezetzik ez eman nahia

Apaizak eta elizgizonak dira, lanbideari dagokionez, Hendaian nagusi. Ez ordea Bizkai-Gipuzkoetako apaizak, 1920tik 1975erako euskalgintzan hain leku printzipala izango duten horietarikoak, iparraldekoak baizik.

Apaiz-jendearen ondoren, medikuak eta lege-gizonak dira ugarienak: guztira zortzi.

Harrigarria ere bada, gaurko begiekin begiratuta, Hendaia biltzar hartan ia irakasle bakar bat ere ez egotea.

eta euskararen maitasuna: horrek ekarri ditu hona, batez ere. Horiek ez dute gerra handirik emango: txoko bat egiten bazaie gustura, eta oho-rezko edo berariazko kargurik tartean bada hobeto. Beraiekin ez kontarordea, nolana ere, lan-ardura eta esamesa handietarako.

V.3.3. Ogibidea nondik

Karakterizazio sozio-profesionala daukagu, azkenik, egiteko. Apaizak eta elizgizonak dira, lanbideari dagokionez, Hendaian nagusi. Ez ordea Bizkai-Gipuzkoetako apaizak, 1920tik 1975erako euskalgintzan hain leku printzipala izango duten horietarikoak, iparraldekoak baizik. Ez oinarri-oinarriko elizgizon xumeak gainera, erdi- edo goi-mailakoak baizik. Eskolako zuzendari da anai Juvenal, eta kalonje dira Adema-Zaldubi eta Arbelbide Baionako katedralean. Apezpikutegiko idazkari da Daranatz, eta kalonjetarako bidean doaz, beren *cursus honorum* sazerdotalean, Hiriart-Urruti irakasle kazetaria eta Adema gaztea ere. Hegoaldetik hiru apaiz bakarrik etorri dira: Txomin Agirre Zumaiatik, Bermeoko Serapin Albizuri eta Bilbotik R. M. Azkue; azken hau, halerre, irakasle da ogibidez.

Apaiz-jendearen ondoren, medikuak eta lege-gizonak dira ugarienak: guztira zortzi. Horiek ere iparraldekoak gehienak. Osagileetan P. Broussain hazpandarra, Atharratzeko Constantin, Senpereko Dourisboue eta, nola ez, Martin Guilbeau bera. Lege-gizonetan, berriz, J. D. Salaberri Maulekoa. Hegoaldetik mediku bakarra etorri da (Muxikako J. Arrospide), eta bi lege-gizon (Iruñeko Estanislao Arantzadi eta Arturo Campion poligrafoa).

Harrigarria ere bada, gaurko begiekin begiratuta, Hendaia biltzar hartan ia irakasle bakar bat ere ez egotea. Azkueren kasu berezia alde batera uzten bada, biltzarkide bi bakarrik bizi dira irakaskuntzatik: anai Juvenal lasalletarra eta Larresoroko seminarioan diharduen Hiriart-Urruti. Horiek ere apenas, ordea, klase bakar bat euskaraz ematen duten. Herri-ikastetxeetatik, ipar zein hegoaldetik, ez da pertsona bakar bat etorri Hendaia. "Ez zaielako deitu", pentsatuko du norbaitek. Eta zuzen ibiliko da agian. Baina ez da hori bakarrik: ba al dago nori deitu?

Bukatzeko, Arrese-Beitiak (santugina berau) eta R. Artolak (iturgina) euskaltzale esku-langileen lekukotza dakarte Hendaia. Gutxi dira, egia esateko. Baina ez da harritzekoa: esku-langile euskaldunen hizkuntzarekiko afizioa ahozko literatura aldera isurtzen da. Bertsolaritzara eta, gehienez ere, antzerkigintzara. Ortografia ez da, zinez, euskaldun horien kezka nagusi.

V.4. Biltzarkideen eta biltzarreko lan-programaren beste zenbait

ezaugarri.

Ikuspegi zabalago batetik, azkenik, honako ohar hauek egin litezke:

Jende prestatua, ikasketa luzeak egindakoa, ez da Hendaian falta. Serapio Mujika bat, urrutirago gabe, abokatu eta notario da ikasketaz.

Agintari-jenderik ez da, bestalde, Hendaia etorri. Herriko auzapez jauna han izan da, protokoloari zegokionez. Bera izan da, ordea, autoridade bakarra.

Euskal protoelite horiek kanpo-tutelarik gabeko erabakigunea prestatu duten lehenengo aldia da oraingo hau.

- a) Jende prestatua, ikasketa luzeak egindakoa, ez da Hendaian falta. Serapio Mujika bat, urrutirago gabe, abokatu eta notario da ikasketaz. Ez dela hortik bizi badakigu, Gipuzkoako Diputazioaren artxiboarduradun baita. Histori alorrean ere ez dabil bat ere atzera, gero eta nabarmenago agertuko denez. Hendaia eta Hondarriak ez dute destakatuko halere, Oñatiko kongresuak 1918an egingo duen bezala, elite intelektual "oso"⁵⁷ biltzen asmatu izanagatik.
- b) Agintari-jenderik ez da, bestalde, Hendaia etorri. Herriko auzapez jauna han izan da, protokoloari zegokionez. Bera izan da, ordea, autoridade bakarra. Bestelako *Establishment* politiko-akademikorik, are gutxiago ekonomikorik, ez da biltzar honetara agertu. Eten handia ageri da hemen, urteetako *modus operandi*arekin. 1851tik aurrera iparraldean, eta 1880 ingurutik hona hegoan, euskal festak, jaiak eta kongresuak bertako *Establishment* politiko, kultural eta erlijiosoarekin kontatuz (ez haien isilean, eta are gutxiago haien kontra) egin izan dira normalean. Tradizio luzea dago horretan. Gipuzkoan bereziki, Diputazioak eta Donostiako udalak harreman estua izana dute ekinbide horiekin, Lore Jokoen Euskal Bilguma dela tarteko. Iparraldean, berriz, eliz hierarkiak (eta, inoiz, euskal jatorriko gudalburu frantsesek) harreman zuzena izana dute bertako kultur ospakizun horiekin. Donibane-Lohizunen 1897an egindako *Fête de la Tradition Basque*-n, bereziki, harreman-bide horiek beren "goren gradura" iritsi-edo ziren.
- c) Beste perspektiba batetik, eta aurreko puntuarekin loturik, euskal protoelite horiek kanpo-tutelarik gabeko erabakigunea prestatu duten lehenengo aldia da oraingo hau. Aztergai monografikoa euskara izanik, eta Zazpi Probintzietako ordezkarien parte-hartze zuzenaz, etxeko zapiak etxean eta etxeko guztion artean garbitzea erabaki duten aldia. Nork eman die esku, etxea zer den eta etxe-koak nor garen erabakitzeko (osorik erabakitzea lortu ez badute ere, hartan saiatzeko behintzat)? Dirudien baino eten handiagoa dakar puntu honek, aurreko urtealdi luzean egindako bidearekin. Aranaren eta Azkueren azken hamar urteetako jarduna ez da ondorio gabea gertatzen ari. Adskripziozko begirune-bideak alde batera utzi eta gizarte aurreratuenetan nagusitzen ari diren talde-prozedura berriak burua jasotzen hasi dira euskalgintzaren esparruan.

⁵⁷ Mitxelenak emana du, laburzurtean, "oso" horren muga-baldintzen berri.

Horretan ere inflexio-gune eta *climax* modukoa nabari da Hendaian, biltzarrari eta biltzar-inguru osoari halako berritasun-aire bat (eta, *Establishment* nagusiaren begietan, halako mesfidantza-kutsu bat) erantsiko diona.

Hendaiaiko auzapez jaunak ongietorria ematen die biltzarkideei, Herriko Etxearen atarian.

Animoak ematen dizkie alkateak, Bidasoaz alde bietatik Hendaia moderno honetara etorritako biltzarkideei.

Eskerrak ematen dizkie biltzarraren izenean, auzapezari eta gainerako udalgizonei, Adema-Zaldubi handiak.

VI. Hendaian zer?

Astelehen buruzuria da, 1901eko irailaren 16koa. Goizeko bederatzietan, aurrez iragarri bezala, Hendaiaiko auzapez jaunak ongietorria ematen die biltzarkideei, Herriko Etxearen atarian. Alkateordea eta beste zenbait zinegotzi alboan dituela, begirunezko harrera egiten die Vic jaunak euskararen lehenengo Kongresu Ortografikora etorritako euskaltzaleei. Etxe barrura sartu eta udalaren areto nagusia beraien esku jartzen die, goiz eta arratsalde bertan lan egin dezaten. Ohiko laudorioak ere entzuten dira, frantses ederrean antza, “gure” hizkuntza maitearen alde: hain dela zaharra, hain diferentea, hain bertakoa, hain pullita! Zerbait egin beharra dagoela ere aipatzen da, itxuraz: euskara gaixoa galtzen ari dela, kanpoko eta bertako zenbaitek herio-bidean jarri nahi duela gainera, eta lastima handia dela hori. Animoak ematen dizkie alkateak, Bidasoaz alde bietatik Hendaia moderno honetara etorritako biltzarkideei. Ea biltzar honek (eguneko prentsak iradokitzen duen moduan) euskararen aldeko urrats sendorik egiten duen. Egunari bere distira emateko, *Gernikako Arbola* eta beste zenbait euskal kantu joarazi dio alkateak herriko orfeoari, bilera-aretoan bertan. Norbaitek pentsatu ere egin du, hain egun seinaturako ez dela oso serioa “Los Chipirones” izeneko orfeoia ekarri izana, baina tira: musika-doinu bixirik ez zaie behintzat faltako, goizean goiz hasita. Arratsalderako ere ikuskizun ederra antolatu omen du udalak: sei laguneko pilota-partida, bertara etorritako euskaltzaleen alaiagarri. Bazkari konturik ez, ordea: bakoitzak bere poltsikotik egin beharko du hori, lekurik aurkitzen duen ostatuan.

Eskerrak ematen dizkie biltzarraren izenean, auzapezari eta gainerako udalgizonei, Adema-Zaldubi handiak. Eta horrela, besterik gabe, aretoan jezartzen dira hogeita hamabost biltzarkideak. Guzti-guztiak gizonezkoak. Norbait konturatu da, berandu baino lehen, hogeita hamabost ez baina hogeita hamalau kide egon behar luketela aretoan. Bat sobra dagoela alegia. Ez dizkio buruhauste makalak ekarriko kontuak.

Mahaiburuan (ABI, 67?), espero izatekoa zenez, biltzarraren antolatzailleak ezarri dira: batetik Guilbeau, Donibane-Lohizuneko medikua, bilera-deien egilea eta biltzar-egunaren prestatzailea. Erdi-erdian Adema-Zaldubi agurgarria, Baionako katedraleko kalonjea, euskaltzaleen patriarka eta beraien kantu ofizialaren egilea⁵⁸. Zaldubiren

⁵⁸ Adema-Zaldubik egina da, izan ere, berariaz honelako ospakizunetarako prestatutako kantua: “Zazpi Eskual herriek bat egin dezagun, guztiok beti-beti gauden gu euskaldun”. Jendartean horrela ezagutzen bada ere, himnoaren benetako izenburua beste hau da “Gauden gu eskualdun”.

Mahaiburukoek berehala hartzen dute hitza, batak bestearen ondoren. Euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz, denetarik entzuten da hasierako horretan.

ondoan, Bidasoaz haraindiko “anaien” ordezkari-edo, Arturo Campion nafarra. Mahaiburukoek berehala hartzen dute hitza, batak bestearen ondoren. Euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz, denetarik entzuten da hasierako horretan. Gerora, gaiari heldu orduko, erdaraz baizik ez da egingo ia. Bere lehenengo hitzaldian, han bildutakoez gain Hendaiaiko asmoekin bat egin duen beste zenbait euskaltzaleren berri ematen du Guilbeauk: Hendaiaira ez duela etortzerik izan, baina biltzarrarekin bat egiten duela, eskutitzez azaldua du izan ere hainbat euskaltzalek. Zenbaitek gehiago ere badio: horko erabakiak onartzeko prest dagoela. Gorputzez ez baina gogoz bai, bertara bildutakotzat har daitezkeela horiek guztiak ere: hala uste du Guilbeau idazkari nagusiak. Jen-deak baietz.

Adema-Zaldubik eta Campionek hitza hartzen dute, idazkariaren ondoren. Dotore eta maisuki ari dira bata zein bestea: bihotz-hunkigarritzko hitzak eskaintzen dizkiete, halakoetan ohi duten moduan, bertara bildutako lagun guztiei. Zazpi Probintzietatik etorriak dira biltzarkideak, inoiz ez bezala, Guilbeau jaunaren deiari erantzunez; etnokulturazko euskaltzaletasunak elkaturik dauzka areto horretan, eta egun handia da gaurkoa. Hainbat euskalarik eta idazlek luzaz espero izandako unea, euskarari ortografia bakarra atxikitzea, iritsia da azkenik. Eta beraiek, han bildutako jaun agurgarriok, izango dira pauso garrantzitsu hori lehenengoz egingo dutenak. Biltzarkide gehienek bihotzak bero-bero jarri dituzte Campionek eta Zaldubik⁵⁹.

Adema-Zaldubi buru, Arturo Campion eta Sabino Arana buruorde; eta bera, Guilbeau mediku jauna, biltzarraren idazkari nagusi.

Guilbeauk hitza hartzen du berriro eta lanari ekiteko ordua dela esaten die biltzarkideei. Mahaiburua osatu behar dela horretarako, lehenik eta behin, eta proposamen zehatza egingo duela: Adema-Zaldubi buru, Arturo Campion eta Sabino Arana buruorde; eta bera, Guilbeau mediku jauna, biltzarraren idazkari nagusi. Hegoaldeko bi kide, eta iparraldeko beste bi, izango dira hortaz mahaiburuan. Zaharrak eta helduak nagusi, baina gazte suharrei leku eginaz. Sentiera desberdinen oreka modua ere ageri da, osaera horretan irudikatutik: ez da beraz hasiera kaskarra. Aho batez onartzen dute guztiak Donibane-Lohizuneko medikuaren proposamena. Berak esan bezalaxe osatuko da, beraz, mahaiburua. Hastera doa hortaz, besterik gabe, Hendaiaiko biltzarraren ekitaldi akademikoa.

Hasi aurretik, ordea, azken ohartxo egin behar omen du idazkari jaunak. Hogeita hamabost biltzarkideen artean bilera-deirik jaso gabeko

⁵⁹ Pasarte labur hau irudipenezkoa da: han-hemengo zehar-datu apurretan oinarrituz, eta Hendaia aurretik zein Hendaia ondoren Zaldubik eta Campionek biltzar-egunetan izandako ibilera kontuan hartuz, bertsio-asmo *probableena* eskaintzen da bertan. Gainerako pasarteak aldiz, berariazko oharririk egiten ez bada, azalpen hutsetik harantzko hitzlauz emanak egon arren dokumentu-oinarritz eutsi daitezke.

Vinson jauna da noski, eta ez beste inor, Guilbeau idazkariak aretotik kanpora bidali nahi duena.

S. Arana, esate baterako, ez dago J. Vinson euskalaria (ez beste inor ere) bileratik kanpora bidaltzearen alde. R.M. Azkuek, Pierre Broussainek eta Manex Hiriart-Urrutik, berriz, ezinbestekotzat daukate neurri hori.

inor baldin badago, biltzar-aretotik ateratzeko mesedez. Goizeko ekitaldi hau itxia dela: horretarako dei espresua jaso dutenek bakarrik parte har dezaketela. Estutu dira bat baino gehiago abisu hori entzutean, jaso-jaso ez baitute Guilbeau jaunaren dei espresurik jaso. Las-ter lasaitu dituzte ordea, aldamenetik: ohar hori ez dela beraientzat, "beste norbait"-entzat baizik. Vinson jauna da noski, eta ez beste inor, Guilbeau idazkariak aretotik kanpora bidali nahi duena. Vinsonek, ordea, ezetz, ez dela aterako. Guilbeauk baietz, nahi eta nahi ez alde egin behar duela handik, ez baita gaurko biltzarrera deitua izan. Vinsonek baietz, gonbite-dei pertsonala jaso duela Hendaiaiko biltzarre-rako. Bi dei gainera, baten faltan. Nork eta Guilbeauk berak bidaliak gainera. Eta ez nolanhiko gonbiteak: Vinson jakintsua gabe, Hendaia-ko biltzarra hankamotz geldituko litzatekeela; horrelatsu omen dio Guilbeauk, joan den ekainean berari espresuki egindako gonbite-idaz-kietan. Ekaineko gonbite haiek lehengo kontuak direla, erantzuten dio Guilbeauk. Hasieran baietz, biltzarra uztaillean egin nahi zuen hartan Vinson eta antzekoak berariaz gonbidatu zituela; baina gero, hainba-ten erantzuna ikusirik, Zazpi Probintzietan jaiotako jendea bakarrik gonbidatzea erabaki zuela.

Ondo baino hobeto dakite, batak zein besteak, zertan ari diren. Duela bost egun, Donibane-Lohizunen eta aurrez aurreko bileran, elkarri esandakoak jendaurrean agertzen ari dira berriro. Istilua eta zalaparta sortzen da aretoan. Ez nolanhikoa: ordura arteko euskal jai eta biltzar-retan ez da, itxuraz, horren parekorik ezagutu⁶⁰. Biltzarkideak ez dira guztiak iritzi bereko: S. Arana, esate baterako, ez dago J. Vinson eus-kalaria (ez beste inor ere) bileratik kanpora bidaltzearen alde. R.M. Azkuek, Pierre Broussainek⁶¹ eta Manex Hiriart-Urrutik, berriz, ezinbestekotzat daukate neurri hori. Iparraldeko beste hainbatek ere ez du J. Vinson, goiz parteko bilera horretan behintzat, begien bistan ikusi nahi. Euskalari frantsesa, berriz, baiezkotan firme. Guilbeauk mehatxu egiten dio orduan: hamabost bat biltzarkide erretiratu egingo direla aretotik, berak (Vinsonek alegia) alde egiten ez badu. Horra istilu gorria agertu: kontua ez da beraz Guilbeau eta Vinson, aspaldiko bi lagun-ohien arteko ika-mika pertsonala, Ipar Euskal herriko framazon-gorrien eta klerikal-atzerakoen artean aspaldixodanik bizi-bizirik dagoen konfrontazioa baizik. Biltzar hau "batzuek" kontrolatzen dute,

⁶⁰ Gorabehera aipagarririk lehen ere izana zen Euskal jaietan, 1874ko Sarako bertso-lehiaketan adibidez. 1876ko "Biba Errepublikak"-k ere hautsak astindu zituen bazterretan. Beste kontuak ziren ordea haiek, eta bigarren karlistadak eta Sedango porrotaren ondoko aginte-aldaketak sorturikako posizionamenduek apenas jendaurreko (hots: prentsa bidezko) zalapartarik sortu zuten.

⁶¹ Aspaldiko kontua dute Iparraldeko euskaltzale gehienek ikusmolde hori. Horra, adibidez, 1897-VIII-30ean Broussainek Azkueri zer idatzia dion: "Il faut absolument empêcher Vinson, qui est notre ennemi, de faire partie de cette Société ... De la sorte on sera sûr d'exclure les Vinson, les Dodgson, les Lévy etc... etc".

Sarrerako txostena, etxetik prestaturik zekarrena, irakurtzen du aurrenik Guilbeauk.

Espezialista handia izan gabe ere, gauza bat dauka ordea argi: hasi eta buka, euskal ortografiaren bateratze kontu hori egun bakarrean, irailaren 16 horretantxe hain zuzen, egin ezinik ez dagoela.

zuriek edo tradiziozaleek nolabait esan, eta “besteentzat” ez dago gaurkoan lekurik. Gogor eta garratz mokoka jardun ondoren, Guilbeau nagusituko da azkenik. Gauzak goxatze aldera-edo, zera esaten dio euskal bibliografoari: etortzeko arratsaldean, hala nahi badu, bazkalondoko ekitaldia agiria izango da-eta. Gogoz kontra izanik ere, halaxe egingo du euskalari frantsesak: aretotik aterako da, haserre baina burua zut. Entzun beharko dizkiote galantak; ez da isilik geldituko!

VI. 1. Eguarteko lan-jarduna

Bazkalondora arte Vinsonik gabe jardun ahal izango dute, beraz, hogeita hamalauk. Giroa baretu denean, atea itxi eta lanari ekiten zaio. Sarrerako txostena, etxetik prestaturik zekarrena, irakurtzen du aurrenik Guilbeauk. Erdaraz idatzia dago: frantsesez, halakoetan ohitura denez⁶². Apenas zehaztasun handirik eskaintzen duen bertan, ortografia bateratzeko bideaz edo grafema-aukera nagusien on-gaitzez. Kongresuaren antolatzailea da bera, ez ortografi kontuan puntapuntako aditua. Espezialista handia izan gabe ere, gauza bat dauka ordea argi: hasi eta buka, euskal ortografiaren bateratze kontu hori egun bakarrean, irailaren 16 horretantxe hain zuzen, egin ezinik ez dagoela. Egin litekeen gauza da hori, eta halaxe egitea ere komeni dela uste du berak. Lanerako lagungarri izan litekeelakoan-edo, biltzarrean argitu beharreko alorra bi zatitan banatzea proposatzen die bertara bilduei. Lehenik eta behin letra, grafema eta zeinu kontua: *etche*, *eche*, *etše* ala *etxe*; *orri*, *ori* ala *ofí*; *guero*, *ghero* ala *gero*; *gashotu*, *gachotu*, *gaisotu*, *gaisotu*, *gaixotu* edo *gaxotu*; *tchakur*, *chacur*, *chakur*, *tšakur*, *txakur* ala *txakur*, eta horrelako beste hainbat. Zenbait puntutan, *mutiko* / *mutico*, *oker* / *oquer* edo *zerbait* / *cerbait* auzian adibidez, iritzi gehienak bateratu samarrik daude dagoeneko. Auzi horri buruzko erabakia hartzeko orduan ez da gorabehera handirik espero. *Gelditu* / *guelditu* eztabaidan ere, idazkera biak indarrean dauden arren, logikazaleen aldera (hots, >*gelditu*<-ren aldera) makurtzen ari da balantza. Beste kontu askotan, ordea, batzuen eta besteen arteko aldeak oso nabarmenak dira eta idazleen artean ez da, oraingoz, inolako adostasun-girorik antzematen. Bi puntu dira agian, azken hamarkadako grafema-gudu horretan, zirikagarrienak edo enblematikoenak: alde batetik >*tch*, *ch*, *c*, *tš*, *tx* < idazkera (afrikatu gabeko hotsaren grafema-aukera korrelatiboez noski). Bestetik, > *r*, *rr* < hots-bikotearen grafia alternatiiboak. Hots: *etxe*, *etche*, *eche*, *etše* ala *ece* behar duen eta, era berean, (*h*)*orixe*, (*h*)*orixe*, (*h*)*orisse* ala (*h*)*orixe*. Eta bestetik, *egurra*, *eguía* ala *egura* idatzi behar den.

⁶² Txosten idatzia ekarri zuenik ez dago seguru: ez da inon agertzen, eta aipamen espresurik ere ez dago horretaz. Zehar-datuen argitan badirudi, halere, irakurri egin zuela txostena.

Euskal ortografiaren inguruko eztabaida ez da, ordea, grafema alorrean amaitzen. Argi ikusten du Guilbeau idazkariak, eta xuxen dabil horretan, bateratze faltan dagoena ez dela letra-kontua bakarrik.

Korapilo biak, bai letra-grafemen kontua eta bai eufoniarena, benetako arazo dira euskal idazle eta euskalari askorentzat.

Euskal ortografiaren inguruko eztabaida ez da, ordea, grafema alorrean amaitzen. Argi ikusten du Guilbeau idazkariak, eta xuxen dabil horretan, bateratze faltan dagoena ez dela letra-kontua bakarrik. Berak eta beste hainbatek⁶³ *eufonia* deitzen duen arazoa ere hor dago, inoiz baino gordinago agian⁶⁴, nork eta nola argituko zain: hitz-junture-tako hots-aldaketak, *sandhi* direlakoak bereziki. Nola tratatu behar dira hots-moldaera horiek, ezpainetik lumara pasatzerakoan? Adibidez: ez daki idatzi behar da, *ezdaki* edo *eztaki*? Era berean *ogi* hitzetik *ogia* atera behar da soil-soilik, idazterakoan, edota lekuan lekuko hots-moldaeren arabera *ogia*, *ogie*, *ogiya*, *ogiye*, *ogixa*, *ogixe*, *ogidxe*, *ogii*,... formak erabiltzea komeni da, han-hemengo liburu eta aldizkarietan? Euskal idazkera bateratzen hasiz gero, eufoniaren puntu hori ere finaturik uztea nahiago luke idazkari jaunak⁶⁵.

Kontu horiek guztiak ez dira Guilbeauren inolako burutazio. Hendaiara etorritako gehienek ongi ezagutzen eta sufritzen dituzte, lumari heldu orduko, euskal idazkera-molde desberdinen bide-banatze eta aje-eragozpen horiek. Erdiz erdi asmatu du beraz, horretan behintzat, Guilbeau medikuak. Korapilo biak, bai letra-grafemen kontua eta bai eufoniarena, benetako arazo dira euskal idazle eta euskalari askorentzat. Biekin zerbait egin beharra dago. Biltzarkide gehienak konforme daude, horrainokoan, idazkari nagusiaren azalpenekin. Hortxe bukatzen da, ordea, konformidadea. Askatu beharreko korapiloa hor dagoela, gehien-gehienek onartzen dute. Neurri kontuan badituzte aldeak, halere: korapilo handia da hori batzuen ustez, eta txikia beste zenbaiten iritzian. Aldeak alde bat datoz, ordea, arazoaren izaeran. Nola askatu, ordea, korapiloa? Hortxe dago gakoa. Idazkari nagusiaren diagnosis zuzena izanik ere, Hendaiara ez dira etorri lehendik ere ondo baino hobeto ezagutzen duten katramila horren berri izatera, itxurazko erremedioa bilatzera baizik.

Iritziak eta asmoak ez zaizkie falta horretarako. Proposamen konkretu-konkreturik ere badute batzuek. Inor gutxi ausartzen da ordea, Hendaiako eguarte goizean, eta hotz-hotzean, ezer esatera. Bai baitakite guztiek bide bat aukeratzeak, grafia eta idazmolde jakin bat hobestean alegia, beste guztiak gutxi-asko alboratzea esan nahi duela. Eta jakina: batasunaren zale izanik ere, biltzarkide gehienak ez daude, hori eta horrenbestez, beren grafia-moldea galtzaile ateratzen uzteko

⁶³ Eskola zaharreko gramatiken bidetik (Mattews, 1979: 111 hurr.)

⁶⁴ S. Aranaren 1896ko proposamenak oso alde batera eraman baitu, bertako fonetismo-mota gehienak grafizatu nahirik, Bizkaialdeko hainbat idazle.

⁶⁵ Bilera-deian espresuki aipatu ez den arren, zehar-aipamenez behintzat asmo hori zuela pentsa liteke.

Sabino Aranak eskatzen du hitza. Belarriak erne jarri ditu batek baino gehiagok: batez ere Azkuek eta, neurri apalagoan, Campionek, Broussainek eta Guilbeauk.

Txosten landua, ikuspegi soziohistoriko zabaletik hasi eta, ortografia bateratzeko asmoz, aurrera begirako pausoen zehaztasun handiz hornitua ekarri du S. Aranak Hendaiara.

Hizkuntzaren soziologia aplikatuaz, status-plangintzaz eta euskara indarberritzeko jokabide posiblez dihardu lehenengo atalak. Bigarrenean, aldiz, indarberritze hori gogoan izanik euskal ortografia bateratzeko jardunbide konkretua eskaintzen du Aranak.

prest. Kontuak horrela daudela, Sabino Aranak eskatzen du hitza. Belarriak erne jarri ditu batek baino gehiagok: batez ere Azkuek eta, neurri apalagoan, Campionek, Broussainek eta Guilbeauk.

Hitza ematen dio biltzarraren buru lehenak, Zaldubik, eta etxetik ekarri duen txostena irakurtzen hasten da Sabino. Beste zenbaitetan bezala, idatziz jarriak dauzka Aranak jendaurrean esan beharrekoak. Ez da Hendaiara, beste hainbaten moduan, inprobisatzera etorri. Txostena irakurtzen hasterakoan, barkamena eskatzen du gaztelaniaz jardun behar izateagatik. Motiboa ere garbi azaltzen du: “¿por qué en esta misma ocasión me veo precisado a dirigiros la palabra en español, sino porque ni a mí me sería fácil hablaros de estas materias en la lengua de nuestra raza, ni a vosotros el entenderme?” Txosten landua, ikuspegi soziohistoriko zabaletik hasi eta, ortografia bateratzeko asmoz, aurrera begirako pausoen zehaztasun handiz hornitua ekarri du S. Aranak Hendaiara. Bere aurreko zenbait idazkiren ondoan, 1888ko *pliego euskerofiloen* edo 1896ko *Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino* famatuaren ondoan bereziki, berritasun bi dakartza oraingo azalpen honek. Batetik ikuspegi soziologikoa, euskal ikaskuntzen alorrean hain bakan eta urri agertu izan den ikusmolde soziologikoa. Bestetik, berriz, corpus-plangintzaren alorreko arazoei konponbide praktikoa eskaintzeko planteamendu zehatza. Euskararen ortografia bateratzeko plan graduala, epe kontuan bideragarria, eskaintzen du gaurkoan.

Esan bezala bi zati ditu bere txostenak, aski erraz bereiztekoak: hizkuntzaren soziologia aplikatuaz, status-plangintzaz eta euskara indarberritzeko jokabide posiblez dihardu lehenengo atalak. Bigarrenean, aldiz, indarberritze hori gogoan izanik euskal ortografia bateratzeko jardunbide konkretua eskaintzen du Aranak, Hendaiako biltzarkideekin eztabaidatzeko. Gauza eta gertaera ezagunetatik abiatu da abandoarra, soziologiatzeko bere azalpenean: euskara gainbehera datorrela, han eta hemen, eta hizkuntza galduko ez bada lehenbailehen interbenitu beharra dagoela. Horraino entzule guztiak konforme: urteak daramate horixe esaten. Besterik ere badio ordea: euskararen galbide horrek giza arteko harreman-molde jakinetan duela iturburua. Mintzajardunaren giza arteko dimentsio hori ez dela ordea askotan, euskalgintzaren eguneroko urraspideetan, aintzakotzat hartzen. Hor dagoela euskaltzaleon deskuidua. Abiaturuko hanka-sartze horren ondorioz, euskaltzaleok begiz joa dugun konponbide bat baino gehiago kamutsa dela oso: euskararen aldeko gure hainbat neurrik muga larriak dituela, hizkuntza ahularen etengabeko gainbehera horri aurre egin ahal izateko. Mingarria izan arren, bigarren baieztapen horri ere ezin ezetz esan: gordinegia da eguneroko nahi eta ezina, gizarte-bizitzaren azken zokoraino hedatzen ari zaigun odol-galtze etnolinguisti-

koa, gainbehera horri ezikusiarrena egiteko. Galbide horren iturburu nagusiak seinalatzerakoan, hain berea duen ikuspegi politiko-operati-boa espresuki aipatuko du oraingoan ere. Jendea abertzaletuko balitz, Euskal herriak beregaintasun politikoaz jardun ahal baleza, beste txori batek egingo ligukeela ku-ku. Besteetan baino gutxiago azpimarratu du ordea, Hendaiaiko honetan, gizarte-aldakuntzaren ikuspegi sozio-politiko hori: nobedade handia da hori ere.

Ongi jositako argudio-sorta eskaintzen du Hendaian, biltzarkideei irakurtzen ari den txostenean, euskararen ahuldadeak eta sendabideak gizarte-bizitza berriaren argitan analizatu ahal izateko.

Ongi jositako argudio-sorta eskaintzen du Hendaian, biltzarkideei irakurtzen ari den txostenean, euskararen ahuldadeak eta sendabideak gizarte-bizitza berriaren argitan analizatu ahal izateko. Transformazio ekonoteknikoaren, urbanizazio azeleratuaren eta bestelakotze demografikoaren eskutik luze-zabaleko mintzaldaketa eta transetnizazioa eragiten ari da, Bizkai-Gipuzkoetan batez ere, modernizazio-prozesu hori. Gizarte-aldaketa horrek berekin dakarren *social reward* sistema berria oso begien aurrean dauka noski. Gizarte-berrikuntza horren ondorio soziokulturaletan zentratzen da bera, hain zuzen, bileraren berezko aztergai diren ortografi kontuei heldu aurretik. Honako puntuok dira, besteak beste, Hendaiaiko bere txostenaren sarrerakoan orain ere deigarri:

Hizkuntza txikiak indarberritu edo biziberritu nahi badira, gakoa ez dago corpus-plangintzan, status-plangintzan baizik.

a) Hizkuntza txikiak indarberritu edo biziberritu nahi badira, gakoa ez dago corpus-plangintzan, status-plangintzan baizik. Funtsezkoa ez da ortografia bateratzea, bere ohiko hitz-altxorra osatu eta eginkizun berrietara zabaltzea, hizkuntza hori erregistro jaso-formaletan egoki erabiltzeko gramatika-arauak prestatzea eta abar, hizkuntzari (aginte-esparrutik normalean) *status* ofiziala edo *de facto*-zko legitimazio soziala eskuratzea baizik, gizarte-bizitzaren esparru batzuetan edo gehienetan lehiakiderik gabe erabilia izateko. Ortografia, gramatika eta hiztegi hoberenak alferrik dira euskara hondamenditik salbatzeko, horien aurretik edo horiekin batera hiltzorian dagoen hizkuntzari eguneroko gizarte-bizitzan berebereak izango dituen jardun-esparruak eta giza arteko harreman-sareak atxikitzen ez bazaizkio. Status-plangintzaren egitekoa da, ez corpus-lanketarena, hizkuntza ahulari jardun-esparru eta harreman-sare horiek ziurtatzea. Segun zer jardun-esparru eta harreman-sare eskuratu nahi zaizkion euskarari, halako status-plangintza eratu ere beharko da. Eta orduan, ez lehenago, has gaitzeko corpus-plangintza egokiaz hitz egiten. Segun hizkuntza horrek zer jardun-esparru, harreman-sare eta funtziotan nagusitasuna eskuratzen duen, horren arabera izan beharko du, garen-mailaz eta hedaduraz, bere ortografian, lexikoan eta gramatikan egin nahi den eguneratze-saioak ere. Status-plangintza horren arabera, eta horren zerbitzari, izan beharko baitu corpus-plangintzak.

Hizkuntz jokabideen
gizarte-moldaeran ongi
txertatzen ez den
corpus-plangintza nekez hiztunen
ezpain-lumetara iritsiko da.

Euskarazko eskolaren eta
literaturazko maisu-lanen
garrantzia ez da, zoritxarrez,
euskaltzaleok uste dugun bezain
handia.

Hitz gutxitan esateko, honetara
dator Aranaren gogoeta: bere
jardun-esparru (funtzional,
espazial edota sinboliko) propioa
behar du hizkuntza orok, biziko
bada.

Hizkuntzaren batasun grafikoak zein gramatikalak, gizarte-behar berriei erantzuteko asmoz bultzaturiko hizperrigintzak bezalaxe, ez dute hortaz, berez eta besterik gabe, hizkuntzaren gizarte-egoera zurkaizteko balio-indar sendorik. Hizkuntz jokabideen gizarte-moldaeran ongi txertatzen ez den corpus-plangintza nekez hiztunen ezpain-lumetara iritsiko da. Horra, beraz, S. Aranaren ondorio garbia: hizkuntzaren ortografia finkatzerakoan hizkuntzalarien jakituria teknikoa eta idazle kotsakratuen hobespen-aukerak oso kontuan hartu behar dira, baina horienak bakarrik ez. Hizkuntza horretan irakurtzen eta idazten duten (edo bihar-etzi irakurle-idazle izan litezkeen) hiztun arruntan ohiturak, beharrak, ahalmenak eta gogoak ere oso kontuan izan behar dira. Garbia izan da Arana puntu hori azaltzerakoan, baina apenas inor asko (Bilboko Azkue, Iruñeko Arantzaiz eta Larresoroko Hiriart-Urrutiz aparte) baieztapen horren esanahi praktikoa jabetu den.

- b) Euskarazko eskolaren eta literaturazko maisu-lanen garrantzia ez da, zoritxarrez, euskaltzaleok uste dugun bezain handia. Ezta hurrik eman ere. Hil ala biziko egoeran dagoen hizkuntza ororen kasuan, errazegi goraiatu ohi da maisu-maistren eta idazle handien sendaindarra. Benetan, ordea, ondotoz apalagoak dira gauzak. Eskolarik gabe, euskarak ezin du gaur egun bizirik iraun. Beharrezkoa da eskola, baina nahikoa ez. Eskola bidezko *acquisition-planning* hobereana ere, neska-mutil eta gazte erdaldunak euskalduntzeari dagokionez, ez da berez hiltorian dagoen hizkuntza salbatzeko gai. Eskola ez da aski, berez eta bere baitarik, euskara (edo bere pareko beste edozein hizkuntza) hondamenditik atera eta biziberritzeko.

Beste horrenbeste gertatzen da literaturazko lan "salbatzaile"-aren kontuarekin: *Mireio*, *Kalevala* eta antzeko guztiak ez dira noski gauza txarra. Baina oker dabilta literaturazko maisu-lan batek (edo batzuk) mehatxupeko hizkuntzak sendabidean jartzeko berezko indarra duela uste dutenak. Are gehiago: kausa eta ondorioa justu alderantzizkoak izan ohi dira normalean. Bere hitzetan esateko: "Es general hoy la ilusa y frívola pretensión de cosechar el fruto sin cultivar la planta; hay obstinado empeño en empezar por donde tenemos que concluir [...] Confúndese lastimosamente el efecto con la causa, y se juzga que de la enseñanza y la literatura de una lengua es de donde recibe éste la vida, cuando es todo lo contrario".

- c) Hitz gutxitan esateko, honetara dator Aranaren gogoeta: bere jardun-esparru (funtzional, espazial edota sinboliko) propioa behar du hizkuntza orok, biziko bada. Inork disputatuko ez dion lurralde nahiz funtzio-esparrua: esparru handia edo txikia, horretan ez dago ezinbesteko neurri estandarrik; baina berea. Bere etxe horretan nagusi

Euskarari jardun-esparru, harreman-sare eta funtzio-sorta jakina atxikitzen eta errespetatzen bazaio, nahi bezain handia ez bada ere, posible izango du hizkuntzak bizirik ateratzea.

Status-plangintza horri eskerrak bereganatu berriak dituen gizarte-funtzio horiei ongi erantzun ahal izateko, jakina, berariazko corpus-plangintza beharko du euskarak.

bakar izan liteke, edo beste (normalean handi-indartsuago) baten uztarkide suertatuko da, bakoitzak bere funtzio-banaketa egonkorra duelarik. Gauza bat du, ordea, hizkuntza orok ezinbesteko: bere gizarte horretan indarrean dagoen *social reward* sistemari egoki txertaturik egon behar du. Harreman-sare edo funtzio batzuetan jarduteko beharrezkoa edo onuragarria izan behar du bertako hiztuentzat. Hizkuntza hori ez dakitenek sentitu egin behar dute ez jakite horren galera edo kaltea. Hori gabe, alferrik-edo da gainerako guztia. Euskarari jardun-esparru, harreman-sare eta funtzio-sorta jakina atxikitzen eta errespetatzen bazaio, nahi bezain handia ez bada ere, posible izango du hizkuntzak bizirik ateratzea. Bestela ez.

Status-plangintza horri eskerrak bereganatu berriak dituen gizarte-funtzio horiei ongi erantzun ahal izateko, jakina, berariazko corpus-plangintza beharko du euskarak. Aranek behar-beharrezkoa ikusten du euskararen ortografia bateratzea, ohiko hitz-altxorra garbitzea eta terminologia berriak sortzea, hizkuntz eredu funtzional, osabete, malguak lantzea. Nola esango du bada ezetz, beti horretan dabilenak! Biak dira beharrezkoak, baina lehenengoa lehenen. Berriro ere bere hitzetara itzuliz, "para que el euzkera se levante y viva son indispensables á la vez dos cosas: hacerlo necesario para la vida, en grande o en pequeño círculo, dentro de su propia tierra, y hacerlo apto de satisfacer esas mismas necesidades".

Entzule gehienak gogoz ari dira, Hendaiaiko udaletxearen areto nagusian, Aranaren txostena entzuten. Zentzuz eta moderazio handiz, arazoari erro-errotik helduz, ari da abandoarra. Handik ehun urtera ere nazio arteko komunitate zientifikoak hizkuntz soziologiaren eta hizkuntz plangintzaren oinarritzko printzipiotzat hartuko duen irizpide bat baino gehiago argi eta garbi agertzen ari da Hendaiaiko biltzarlagunei⁶⁶.

Den-denak ez daude pozik eta lasai, ordea. Teoria horiek guziak ongi dira, baina norat joan nahi ote du Bilboko jaun gazte hunek? da Hendaiaiko biltzarlagunei uz, ari da abandoarra. Handik ehun urtera ere nazio arteko komunitate zientifikoak hizkuntz duen Guilbeauk, Hendaiaiko 34 biltzarlagunak txosten horrekin gehiegi maitemintzea. Eta horra, hain zuzen, Aranek lehenengo txosten-atala non amaitu duen: hizkuntzaren kontsiderazio soziologikoekin bukatu omen du, eta ikusmolde horietatik abiatu euskararen ortografia bateratzeko proposamen konkretua irakurtzen hastera omen doa.

Alto ematen dio Guilbeauk Aranari. Aski dela bere txostenarekin.

⁶⁶ Diogunaren frogagarri ikus, beste askoren artean, *Progress in Language Planning*, Kanadako bibliografia teknikoa eta Fishmanen *Reversing Language Shift* (1993).

Hogeita hamalau biltzarkideak
hiru multzotan banatuko dira
hortaz, hobeto lan egin ahal
izateko.

Lehenengo batzorde-atalaren
buru Zaldubi-Adema agurgarria
izango dela jakinarazten du
Guilbeauk, bigarrena Arturo
Campionek gidatuko duela dio, eta
hirugarrena Sabino Aranaren esku
uzten omen du.

Kontu hori amaitu dela. Orduak ere aurrera doazela, eta orain beste zerbait egin behar dela. Jende gehiena harrিতuta, txosten-aurkezpenak erdibidean etetea ez baita normala. Guilbeauk ordea baietz, eten egin beharko dela. Lehen ez duela esateko astirik izan Vinsonen-eta aztoramendu harekin, baina biltzarkideak hiru zatitan banatzeko asmoa zutela, hasieratik, Hendaiako biltzarraren antolatzaileek. Jendea ez dago protokolozko eztabaida handietarako prest, eta ontzat ematen da Guilbeuren asmoa. Hogeita hamalau biltzarkideak hiru multzotan banatuko dira hortaz, hobeto lan egin ahal izateko. Batzorde-atal bakoitzak idazkari bana izango du, eta hiru idazkari horiek jasoko dute eguerdira bitartean batzorde-atal bakoitzean esan-egindakoen akta modukoa. Bazkalondoan elkarrekin hartuko dute guztiek kafea, Legarralderenean. Eta gero, jendaurrean eta guztiok elkarturik, hiru batzorde-atalen emaitzak irakurriko dituzte kasuan kasuko idazkariak. Horren ondoren erabakiko omen da, ikusi beharko nola, euskararen ortografia bateratua.

Badoaz beraz biltzarlagunak, idazkari nagusiak esan bezala, hiru taldetan banatzera. Apenas leku handirik duten horretarako, Herriko Etxea ez baita berez hain handia. Baina konpontzen dira, nola edo hala. Batzorde-atal bakoitzak, idazkariak gainera, arduradun bana izango omen du. Lehenengo batzorde-atalaren buru Zaldubi-Adema agurgarria izango dela jakinarazten du Guilbeauk, bigarrena Arturo Campionek gidatuko duela dio, eta hirugarrena Sabino Aranaren esku uzten omen du. Bera ere, Guilbeau jauna alegia, hirugarren batzorde-atal horretara joango omen da. Azken erregua egiten du idazkari nagusiak, jendea hiru batzorde-ataletan banatu aurretik: gogotik parte hartzeko, nork bere batzorde-atalean. Egin behar dituzten proposamenak eta ohar tekniko guztiak orain egiteko mesedez, bazkalaurrean. Hegoaldeko biltzarkide batzuek, hori erantzun bezain azkar, besoa jaso dute. Hendaiara agertu den arabar bakarrak eta lau bat bizkaitarrek, bereziki, zerbait esan beharra sentitzen dute. Lotsa-apur bat ere ematen die hori esateak, baina badira gauzak isilik gorde ezin direnak. Beraiek euskararen alde daudela, eta hizkuntzaren aldeko jarrera horrek eraginik etorri direla biltzarrera. Euskaraz ez dakitela ordea ezer asko, eta ortografi kontuan are gutxiago. Entzule moduan etorri direla, ez eztabaida teknikoan parte hartzera. Are gutxiago, jakina, erabaki-hartzaile gisa. Eztabaida teknikoetan, eta botazio-garaian bereziki, haiekin ez kontatzeko hortaz.

Guilbeau idazkaria ez dago kontenplazio handietarako. Horrela hasten bada jendea, izan ere, non bukatu behar du biltzarraren beraren kualifikazio-kontuak? Eskua jaso duten bost horiezaz gainera, Iruña aldeetik etorri den biltzarlagun batek baino gehiagok ere ba ote daki gero euskaraz hitz egiten edota, gutxienez, idazten? Arantzadi jaunak,

behintzat, garbi esana dauka ezetz. Eta Iturralde-Suitek? Lekutan gelditu behar zaie antolatzaileei Zazpi Probintzietako ordezkari kualifikatuaren argudioa. A zer barre-algarak egin behar dituen Vinsonek, arratsaldean! Ezetz, beraz: berandu dela orain detaile horietan hasteko. Biltzarkide direla guztiak, eta bera ez doala hogeita hamalauko zerrenda ofiziala, Zazpi Probintzietako kidez osatua, hori eta horrenbestez murriztera. Hasi dira beraz hiru azpitaldeak lanean, bakoitzean hamai-ka-hamabi kide direla⁶⁷.

Aranaren goizeko txostena, idazkariaren aginduz erdibidean utzitakoa, osorik irakurri da hirugarren batzorde-atalean.

Aranaren goizeko txostena, idazkariaren aginduz erdibidean utzitakoa, osorik irakurri da hirugarren batzorde-atalean. Ortografia bateratzeko bideaz abandoarrak ekarritako proposamena puntuz puntu eza-gutzeko aukera izan dute, beraz, azpitalde horretako lagunek. Txostena irakurri eta galdera-oharrei erantzutea ez zaio, halere, nahi bezain eroso gertatu. Eragozpenak sortu dizkio, berriro ere, Guilbeauk. Bereak eta bost egin ditu idazkari nagusiak, Aranari bere txostenaren bigarren partea (ortografia bateratzeko jardunbide posiblearen proposamena alegia) irakurtzen ez uzteko: behin eta berriro hartzen du idazkari nagusiak hitza, eta ez du isiltzeko asmorik agertzen. Iberoen letra-tipoez ere jardun du, hau dela eta bestea dela, denbora-betegarri noski. Azkenean lortu du ordea Aranak, nola edo hala, bere bigarren txosten-atala irakurtzea.

Status-plangintzaz jarduna da goizeko zatian, eta kolpean corpus-plangintzara jauzi egin du oraingoan.

Goizean irakurritako txosten-atal teorikotik alde handia dago bigarren parte honetara. Status-plangintzaz jarduna da goizeko zatian, eta kolpean corpus-plangintzara jauzi egin du oraingoan. Konkretuki, corpus-plangintzaren *codification stage* delakoa antolatzeko proposamen-modua da oraingo zatia. Zuzenbidezko karrera ikasten ibilia da Sabino Bartzelonan, estudiante garaian, eta arauzko prozedura-kontuei gustua-edo hartua die nonbait. Argi ikusten da hori txostenaren bigarren atal horretan. Reglamentista-kutsua du, nabarmena gainera, txosten-atal horrek: hartara jarria ez dagoenarentzat korapilotsu samarra gertatzen da. Hala iritziko dio Vinsonek berak, arratsaldeko saioan proposamen horren berri izatean⁶⁸.

Zer proposatzen du Aranak, bere txosten-atal praktikoan? Funtsean,

⁶⁷ Lehenengo bi batzorde-ataletan gauzak nola joan ziren ez dakigu ia ezer: Vinsonen aipamen labur-laburtxoaz aparte, batzorde-atal haie-tan esandakoen eta erabakitakoaren froga idatzirik ez da, izan ere, gaurkoz inon ageri. Hirugarren batzorde-atalean gertatuaz, aldiz, badakigu hainbat kontu, nahi genukeen guztia ez bada ere. Hor dago, hasteko, batzorde-atal horretan gertatu zenaz Aranak berak azal-dutakoa, bere idazlan guztien bilduman (nahas-mahas bada ere) jasoa. Eta, batez ere, Hendaiako bere txosten hura eskuera daukagu. XX. mendeko euskalariak hartan erreparatu ez badute ere, txosten hura aspaldi argitaraturik dago (1901-XI-3an *La Patria*). Handik zazpi urtera, horrezaz gainera, *JEL*en berrargitaratu zen).

⁶⁸ Reglamentista-joera, Hendaiako txostenean ezezik beste hainbat alorretan ere azaldua du Aranak. Ikus, besteak beste, Corcuera (1979).

honako hau:

- a) Behar-beharrezkoenera muga gaitezen Hendaiako biltzarkideok: zentra gaitezen ortografian, letra edo grafema kontu hutsean, eta eufoniaren irizpide filologikoak utz ditzagun oraingoz alde batera. Ikerlan sendoagoak eskuera izan arte zaila da izan ere, Sabinoren ustez, eufoniaren alor horretan fundamentuzko lanik egitea. Ortografia hutsean zentratu ere, ez dezagun ametsik egin bateratze-lana gaur, irailak 16, amaitu ahal izango dugunik⁶⁹. Aski dugu, gaurkoan, ortografia bateratzeko langintza horri hasiera ona ematea. Ontzia ongi bideratzen badugu, iritsiko da portura. Egin dezagun azterketa sakona, erabakirik hartu aurretik.
- b) Urtebete inguruko lan-programa eratu behar dugu, euskal ortografia bateratu nahi bada. Gaur hasi eta 1902ko irailera arteko epealdia har dezagun hortaz. Orduan egingo dugun berariazko biltzar batean amaitu genezake, urtebete luzeko langintzaren buruan, ortografia baterako prozedura. Azkarrago ezin da, gauzak ganoraz egin nahi badira. Urtebete luze horrekin ere, badugu eskua bete lan. Izan ere,
- c) Irail honetan gelditzen diren bi asteetan egin dezagun, biltzar honetara etorri garen lagun guztiok izenpeturik eta Euskal herrian zabal-kunde handiena duten egunkari-aldizkarien bitartez, hurrengo urteko kongresu horretarako deia. Bertako eta kanpoko euskalari eta euskaltzale guztiei eman diezaiegun aukera, kongresu horretarako izena emateko. Izena emateak zera esan nahi du: biltzar horretara joateko asmoa dutela eta han erabakitzen den ortografia onartuko dutela aurrerantzean. Izena emateko epea, urriaren 15ean amaituko da.
- d) Ortografia bateratzeko proiekturik balu izena emandako edonork, bere proposamena egin ahal izango luke. Idatziz, hori bai. Proposamen hori bere kontura inprimatu behar du, eta biltzarraren buruari bina kopia bidali beharko dizkio. Abenduaren 31ra arteko epea du halakok, bere proposamen-idazki hori aurkezteko. Izena emandako biltzarkide bakoitzari beste kopia bana bidali behar dio, gainera.
- e) Urtarriletik ekainera, sei hilabete izango dira nahi duenak nahi duen proposamenaz nahi duen oharra egiteko. Kritika-oharren kontu hori ondo bideratzeko, hitz-hotsak eta letra-grafemak banan-banan

Urtebete inguruko lan-programa eratu behar dugu, euskal ortografia bateratu nahi bada. Gaur hasi eta 1902ko irailera arteko epealdia har dezagun hortaz.

Ortografia bateratzeko proiekturik balu izena emandako edonork, bere proposamena egin ahal izango luke. Idatziz, hori bai.

⁶⁹ Guilbeau ez da gustura izango, seguruenik, hori aditzean. Konturatzen hasia da, halere, orduak hirurogei minutu dituela.

Kritika-oharrak egin nahi dituzten guztiei banatu beharko zaie proposamen-taula hori, garaiz eta zuzen banatu ere, nork bere oharrak egin ahal izan ditzan.

S. Aranaren ustez ondoko lau gizatalde hauek har dezakete, nork bere moduan, erabakimen horretan parte: bertako euskalariak, kanpoko euskalariak, euskal idazleak eta euskaltzaleak.

uztartuko dituen taula-eredua, frantses-euskaldunen *tableau phonétique* delakoa, prestatu beharko du norbaitek, biltzar honetako Zuzendaritzaren aginduz⁷⁰. Kritika-oharrak egin nahi dituzten guztiei banatu beharko zaie proposamen-taula hori, garaiz eta zuzen banatu ere, nork bere oharrak egin ahal izan ditzan. Oharrak idatziz ere egingo dira: idatziz eta proposamen-taulako sailkapen-modua puntuz puntu errespetatuz.

- f) Nor izan liteke, eta nor ez, euskal corpus-plangintzaren *codification*-kontuotan erabaki-hartzaile? Nori utzi behar zaio, eta nori ez, euskal ortografia erabakitzeko prozedura honetan parte hartzen? Linguistikazko jakituriaz edo praktika literariozko eskarmentuaz zeresan zuzena dutenei bakarrik?; esparru bi horietan trebeak ez izan arren berariazko interesa ager dezaketenei ere bai? “Etxekoak” (Euskal herrian jaiotako euskaltzale, idazle eta euskalariok) bakarrik izan al daitezke erabaki horretan parte-hartzaile, edota atzerriko euskalariak ere kasu egin behar zaie? S. Aranaren ustez ondoko lau gizatalde hauek har dezakete, nork bere moduan, erabakimen horretan parte: bertako euskalariak, kanpoko euskalariak, euskal idazleak eta euskaltzaleak. Lehenengo eta hirugarren multzoekin ez dago inolako eztabaidarik. Hor ere muga-arazo larririk ez litzateke faltako, aplikazio konkretura jaisterakoan: euskarari buruz edozer gauza idatzi duen bertako edonor⁷¹, izan ere, hori eta horrenbestez euskalarien kategorian sartzen al da? Zenbat, zertaz, zer eta non idatzi behar da, entzute bateko idazle izateko? Baina biltzar-egunean zabal (zabalegi ere bai, geroko kredentzial-eskakizunen argitan) jokatu da, eta horrelako detaileei ez zaie kasurik egin. Bigarren multzoak sortu du, bistan denez, goizeko eztabaida: gogoratu biltzarrari hasiera ematerakoan zer gertatu den, Vinson dela-eta. Aurrerantzean ere istilu-iturri izan liteke puntu hori, alde zuretik ondo argitzen eta arrazoizko argudioz oinarritzen ez bada. Kontua ez da Vinsonek (eta antzeko beste zenbaitek) euskal ortografiaren argibide sendorik eskain dezakeen, linguistikarekin zerikusirik ez duen beste zerbait baizik. Konpromisozko erdi-bidea formulatu du Aranek, bigarren puntuari dagokionez: bigarren multzokoek (Vinsonek eta antzekoek, hortaz) proposamen teknikorik aurkeztu eta iritzia eman ahal izango dute; bai urtebete luze honetan eta bai 1902an egingo den biltzarrean. Ortografia bateratua erabakitzeko

⁷⁰ Taula-ereduaren puntu hau ez da, hasierako proposamenean, zehatz-mehatz aipatzen. Kontuak aurrera joan ahala, urritik aurrera batez ere, behin eta berriro agertzen da ordea. Hitzaz azaldu eta onartu ote zen biltzarrean? Geroztikako (irailaren 30eko bilera) osagarria ote da? Inork ez zuen, itxuraz, taula-eredu horren beharraz kontrako iritzirik inoiz agertu.

⁷¹ Muga-inguru horretan sartzekoa genuke, adibidez, Broussainek Hatani buruz egindako iruzkina.

Laugarren multzoak sortuko du ordea, datorren urtarriletik martxora, benetako arazoa.

Puntu inportantea da zinez, inon inportanterik bada, parte-hartzaile posibleena. S. Aranak berariaz aipatu du txostenean: inork ezin dio esan, beraz, tranpan dabilenik.

orduan ez dute, ordea, botorik izango. Hitza bai, botorik ez.

- g) Laugarren multzoak sortuko du ordea, datorren urtarriletik martxora, benetako arazoa. Euskaltzale xumeak ere (hots, ez idazle entzuetsetu eta ez euskalari direnak ere) erabaki-hartzaile izan daitezkeen edo ez: horrek ekarriko du Hendaiako porrot-fama nagusia, euskal ortografiaren baterakuntza ofiziala beste bi hamarkada luzez atzeratuko duena

Puntu inportantea da zinez, inon inportanterik bada, parte-hartzaile posibleena. S. Aranak berariaz aipatu du txostenean: inork ezin dio esan, beraz, tranpan dabilenik. Hendaiako txostenean labur-labur jorratu du ordea, isilpean gorde ez duen arren, biltzarraren ondoren hain funtsezkoa bihurtuko den puntu hori. Beldur izatekoa da Hendaiako biltzarlagun gehienak ez direla jabetu Aranak bere proposamen horrekin zer-nolako bidea zabaltzen duen eta bidezabaltze horrek zenbateko arriskua dakarren. Nola zehaztu ote da puntu hori, gainera, Daranutzen laburpenezko aktan? Abandoarra bera ere konturatzen ote da, puntu hori zein garrantzitsua eta zein irristakorra den?⁷²

- h) Horrela jasotako oharrekin azken taula prestatuko du Biltzarraren Zuzendaritzak: zorioneko *Tableau Phonétique*, handik aurrerako eztabaidetan⁷³. Hurrengo urteko biltzarrean parte hartuko duten guztiei *tableau* horren ale bana eskuratuko zaie, aldez aurretik ganoraz azter dezaten eta iraileko bilerara iritzi argiaz etorri ahal izan daitezen.
- i) Euskal ortografia erabakitzeko biltzarra datorren urtean, irailean hain zuzen, egingo da. Erabakizun dauden puntu eta puntutxo guztiak banan-banan azalduz eta eztabaidatuz, bototara erabakiko dira ortografiaren auzigai guztiak.
- j) Azkenik, nahi eta nahi ezko baldintza bete beharko da ortografia bateratzeko proiektu osoan parte hartzeko. 1902ko iraileko biltzarrean parte hartu nahi duten guztiek jakinaren gaineko konpromisoa hartu behar dute aldez aurretik: bertan erabakiko den grafia

⁷² Eskueran ditugun paperen arabera, Hendaiako proposamen horrekin bere aldeko, eta Azkueren kontrako, tranpa prestatu nahian ari izan denik ezin esan liteke. Eztabaidarako gai izango da ordea, aurrerantzean ere, "isilpeko asmoa"-ren puntu jakin hori. Inoiz dokumentu berririk aurkitzen bada, litekeena da Hendaian gertatutakoaz argitasun hoberik eskaini ahal izatea: hauxe baita, nire ustez, oraindainoko paperen argitan gaurkoz egin daitezkeen edozein kontu-ateratze serioren punturik ahulena. Guztiarekin ere gauza bat dago argi, gero esango denaren ildotik: inon arriskurik ikusten badu Azkuek, Aranaren Hendaiako proposamenean, puntu horretantxe ikusten du.

⁷³ Gogoratu, nolnahi ere, taula-eredu horrezaz goragoko oin-oharrean esan dena.

hori (eta hori bakarrik) erabiliko dute handik aurrera beren eskutizetan, liburuetan, aldizkarietan eta abar. Aldez aurretiko konpromisoa behar-beharrezkoa da, biltzarrean parte hartu ahal izateko. Ikusmiran dabilen mokofinik ez da onartuko: ontzira nahi duenak, arraunean egin beharko du.

Luzetxoa da bere txostena, eta kopiarik ez du Hendaiara ekarri. Batzorde-atalaren idazkaria, Guilbeauk izendatu duen Daranatz gaztea, saiatzen ari da ahalik eta laburpen-akta txukunena jasotzen. Frantsesez ari da bera, jakina, Aranaren gaztelaniazkotik ahal duen hobekien itzuliz. Abandoarrak oso lotuak utzi nahi izan ditu gauzak, bere txostenean. Zer pauso eman behar diren, pauso bakoitza nork, noiz eta nola egitekoa den, eztabaida-lanean eta azken erabakietan nork parte har dezakeen eta, azkenik baina ez azken, parte-hartzaile orok zer konpromiso hartzen duen. Gauza horiek denak berak dioen moduan egin nahi badira, eskua bete lan izango da hurrengo hilabeteotan. Epeak zorrotz markatuak daude bere txostenean, uste gabeko atzerapenik gerta ez dadin. Azken punturaino iritsi nahi du, gainera, Aranak. Kontua ez da saioa egitea: lehen ere egin da halakorik, baina ortografiatzeko aniztasun itxuragabea ez da bateratu ahal izan. Begiz jotako helburua (euskal ortografiaren batasuna) osorik eta benetan lortzea da kontua. Hiriart-Urruti eta Azkue bezalaxe, abandoarra ez da diletanteen lagun. Zein baino zein daude hirurak lanez lepo eginda. Denbora-puska horretan inbertituko badute, emaitza garbiaren truk izan behar du. Ezpal berekoak dira, horretan, hirurak. Hortik aurrera-koetan, ordea, nor bere ikuspegiaren, interesen eta lehentasunen jabe da. Luze-zabaleko adostasun-giroa lortzeari dagokionez, Sabino ez da ortografiaren konponbide konkretua elite txiki baten (bertako euskalari jakintsuenen, euskal idazle ezagunenen) esku uztearen aldeko.

Azken puntu horretan oso iritzi **diferentea dute ordea,** **aurrerago ikusiko denez, Bilboko euskara-katedradunak eta Eskualdun kazetaren Larresoroko alma mater-ak.**

Sabino ez da ortografiaren konponbide konkretua elite txiki baten (bertako euskalari jakintsuenen, euskal idazle ezagunenen) esku uztearen aldeko.

Azken puntu horretan oso iritzi **diferentea dute ordea,** **aurrerago ikusiko denez, Bilboko euskara-katedradunak eta Eskualdun kazetaren Larresoroko alma mater-ak.**

Bazkalordua ere gainean dute, bestalde. Nahiz eta Daranatz gogotik saiatu, ez du Aranaren txostena oso-osorik itzultzerik izan: laburpena egin du, bere idazkera jorian. Gauzak gehiegi kargatzeko joera baitu idazkari gazteak, hobe beharrez-edo: zerbaitegatik esaten diote, izen-goitiz, *Pleonasma*. Aranaren ustez, Daranatzek akta-txosten hori

Taldetxo horietariko batean bildu dira R. M. Azkue lekeitiar-bilbotarra, Hazparneko P. Broussain medikua eta Iruñeko Estanislao Arantzadi abokatu euskaltzale handia.

Goitik ari dela euskal konstelazio etnokulturala indargaltzen, gesaltzen eta deusezten: hori azpimarratzen du Estanislao.

aukeran motxegi gelditu da. Jarri dituen guztiak ongi jarrita daude, baina funtsezko puntu batzuk ia aipatu gabe utzi ditu. Hamabiak jo dute ordea eta ez dago bestetarako astirik. Hala beharko du gaurkoz. Gerokoak geroko utzita, taldetxoka edo banaka, Hendaiako biltzarla-gun guztiak bazkaltzera doaz.

Taldetxo horietariko batean bildu dira R. M. Azkue lekeitiar-bilbotarra, Hazparneko P. Broussain medikua eta Iruñeko Estanislao Arantzadi abokatu euskaltzale handia: Hendaiako *Hôtel de France* aukeratu dute bazkaltzeko (ABI, 73). Goizeko kontuak komentatzen ari direlarik, bere betiko lelora itzultzen da Estanislao. Ortografia eta gramatika, erdaldu-nentzako euskara-klaseak eta gainerako kontu horiek oso ondo dau-dela; euskararen mesederako direla horiek guztiak, dudarik gabe. Baina hori ez dela gauzak konpontzeko bidea. Benetako arazoa ez dagoela nagusiki corpus-plangintzaren alorrean eta, beraz, denbora alferrik galtzen-edo ari garela. Euskaratik erdarara pasatzen ari dela jendea, tropelean: batez ere herri hazitxoetako kaletarrak eta, oro har, dezakeen jendea. Modernizazioaren gurpilera lotzen ari den jende-sail gero eta zabalagoa euskarari bizkar ematen ari dela. Hori dela benetako problema, ez euskarazko letra-grafemen batasunik eza. Lehenik eta behin kaletar-jendearen mintzaldatze horri erantzun behar zaiola. Etnolinguistikazko odol-galtze horri, urtetik urtera areagotzen ari den mintzaldatze horri, bilatu behar zaiola erremedioa. Gehiago ere esaten du Estanislao, iparraldeko Hiriart-Urrutiren gogo-betegarri nekez izan litekeena: behinolako “Euskal herri” hari bere ezaugarri mugatueta eusten saiatzea, itsu-itsuan, alferlana dela. Euskaltasunaren indarberritze-saioak begi-luzeago izan behar duela. Zabaldu egin behar omen dugu lurraldez (Ebrorainoko guztia berreuskaldundu behar omen da, ez saio osoa oraindik euskaldun diren gotorleku bakan-xume-arlotee-tara bildu), eta gizarte-estrato guztiak irabazi behar omen dira. Base-rritar, arrantzale eta herrixketako beharginetara mugatzea, esplizituki edo inplizituki hainbat kasutan egin ohi den moduan, euskalgintzaren partida osoa jokatu aurretik galtzea omen da. Berariazko enfasia egi-ten du berak, lurraldea gora-behera, estratifikazio sozialaren kontue-tan. Goitik ari dela euskal konstelazio etnokulturala indargaltzen, gesaltzen eta deusezten: hori azpimarratzen du Estanislao. Goikoen jokabidea hartzen dutela behekoek eredutzat; haien ohiturak berega-natzen saiatzen direla, mintzajardunari dagozkionetan ere. Sendabi-deak ere, ezinbestean, goitik etorri beharko duela hortaz. Dezakeen jendea euskaldundu behar dugula, besteak beste eta lehenbailehen, euskara bizirik aterako bada. Arrantzaleen eta nekazarien gizonailean baino areago elite edo protoelite ekonomiko, intelektual, erlijioso, poli-tiko eta kulturalean dagoela erronka: gizatalde horiek euskaldundu behar ditugula. Txostentxo bat ekarri du Hendaiara, berariaz kontu horretaz diharduena. Erdaraz idatzia, jakina. Oso-osorik irakurtzen die

Konforme gaitzaren diagnostikoan: bai Azkue eta bai, bereziki, Broussain.

Estanislao Arantzadik dioenari ezaputz egin gabe ere, behar-beharrezkoa ikusten dute izan ere, bai Azkuek eta bai Broussainek, *corpus planning* sendoa berehala bideratzea.

Lehentasun kontua izango da **l**ugutzia, konforme: baina horretan ikuspegi diferentea dute Arantzadik eta bere bi solaskideek.

bazkari-lagunei, eta hauek konforme.

Konforme gaitzaren diagnostikoan: bai Azkue eta bai, bereziki, Broussain. Ez erabat ados, ordea, erremedioari dagokionez. Sendabideei dagokienean badute biek, izan ere, iruinxemearen iritzi desberdinik. Estanislao Arantzadik dioenari zaputz egin gabe ere, behar-beharrezkoa ikusten dute izan ere, bai Azkuek eta bai Broussainek, *corpus planning* sendoa berehala bideratzea. Kapeladunak, lebitadunak, dirudunak eta gainerako jauntxoak funtsezkoak dira euskara indarberrituko bada, baina hizkuntza bera ere “prestatu beharra daukagu” ohiz kanpoko eginkizun ausart horretarako. Nola nahi duzu donostiar “kaskarin”-ek bilbotar “bilbaino”-ekin euskaraz jardutea, gure hizkuntza xaharrari hain erantsia dagoen ukuilu-kiratsa, taberna-zuloko kea eta mendialdeko garo-usaina gainetik astindu gabe? Eginkizun berri-dotore horretarako txukun prestatzen ez badugu euskara, isekaz eta mespretxuz jarraituko du kaletar-jende dotoreak. Lehentasun kontua izango da guztia, konforme: baina horretan ikuspegi diferentea dute Arantzadik eta bere bi solaskideek. Hori ezin da ukatu. Gainerakoan, bai dotore idazten duela gizonak: euskaraz ezin duela, horixe lastima. Estilo kontuaz aparte errespetu handia dio Azkuek Estanislauri, bai baitaki hitzeko gizona dela iruñarra. Esandakoa bete egiten duten horietarikoa. Eta nola bete, gainera. Jauntxoan artean planteatzen duena, euskara indarberritze aldera, etxean bertan aurrera eramana du, lehenik eta behin, Iruñeko abokatuak. Estanislao eta bere emaztea erdaldunak dira, ez dakite euskaraz: seme-alabak euskaldun iaioak dituzte, ordea. Eta nola irakurtzen dutela, jendaurrean!⁷⁴

Bukatu da bazkalordua ere. Bakoitzak berea ordaindu eta Legarralde-renera doaz biltzarkide guztiak, kafea elkarrekin hartzera. Sabino ondoezik sentitzen hasten da. Urdaileko molestia du gaurkoan. Betikoa: bere osasun makal horrek buruhausteak eman behar dizkio orain ere. Kafea hartu eta itzuli dira, azkenik, udaletxeko aretora. Arratsaldeko ekitaldia, jendaurrekoa, hastera doa. Ez da giro: lehengo 34 biltzarlagunez gainera hor etorri zaie J. Vinson hizkuntzalaria eta, batez ere, Hendaiaiko jende xehea⁷⁵. Tropelean etorri ere. Denak hurbildu dira, ahal duten bezala, udaletxeko areto estura: goizeko biltzarkideak, Vinson, Hendaiaiko herritar xeheak, tartean direlarik atso-agure mordoska eta nahi adina neska-mutil. Alboan, guztien alaigarri, *Los Chipiro-nes* orfeoia firin-faran hasia da berriro, bere musika-piezak eskainiz.

⁷⁴ Ikus, adibidez, 1902ko irailaren 28an Oñatan egindako Euskal Festetako irakurmen-lehiaketa (Ibaizabal, 1902-X-5)

⁷⁵ Besterik ere badakigu, jakin: kazetariak ere etorri direla, Madril aldetik eta beste zenbait lekutatik, eztabaida bizen eta elkarren arteko mutur-joka nabariaren peskisan itxura denez (ikus, bereziki, Bilboko *Euskaldunaren* berri-ematea).

Txanda iristen zaionean, hirugarren batzorde-atalaren izenean eskabide konkretua egiten du Sabino Aranak: Daranatzek bazkalaurrean, frantsesez eta presaka, prestatu duen akta hori laburregia dela eta, horregatik, lehendabizi bere txostenaren bigarren partea osorik irakurri nahi duela berak, guztien aurrean.

VI.2. Bazkalondoan, osoko bilera

Goizean zer egin den esan die Guilbeau idazkariak, lehenik eta behin, aretoan (eta kanpoan, barrura sartu ezinik) dauden guztiei. Hiru batzorde-atalen berri ematen dute, ondoren, hartarako izendaturik izan diren idazkariak. Batzorde-atal batek (lehenengoak edo bigarrenak, hori da gutxiena) proposamen konkretuak prestatu ditu: >u< eta >ü< bereizi behar den ala ez, >t< ala >tt<, komeni den, >l< ala >ll<, eta horrelakoak. Txanda iristen zaionean, hirugarren batzorde-atalaren izenean eskabide konkretua egiten du Sabino Aranak: Daranatzek bazkalaurrean, frantsesez eta presaka, prestatu duen akta hori laburregia dela eta, horregatik, lehendabizi bere txostenaren bigarren partea osorik irakurri nahi duela berak, guztien aurrean. Ontzat ematen dute biltzarkideek, eta burutik burura irakurtzen du Aranak bere plan hori. Gero, jakina, bazkalaurreko bere laburpena irakurtzen du Daranatz gazteak, azken aldi honetan Baionako apezpikutegian idazkari-lanean diharduenak. Vinsonek ere irakurri nahi luke bere txostena, baina ez da ausartzen. Guilbeauk garbi esana du, izan ere, eztabaidatu beharreko iritzi pertsonalak goizean eztabaidatu direla. Euskalari frantsesak ezin izango du, beraz, besapean dakarren txosten-idazkia irakurri eta defendatu.

Hurrengo pausoa eman behar da orain: hiru proposamenetako bat (edo hiruren tarte-bitarteko sintesi-modu bat) aukeratu, euskararen ortografia behingoz bateratuz edo bateratze-bidean jarritz. Iritsi da, beraz, erabakia hartzeko unea. Guilbeauk hitza hartzen du berriro. Aranaren txostenari problema serio bat ikusten omen dio berak: nork bere ortografi proiektua aurkezteko formula hori oso deszentralizatua dela, denbora aldetik atzerapen handiak ekarriko dituela eta lan guztia zaildu besterik ez duela egingo. Aranak ez du halakorik uste, eta Guilbeau oker dagoela erakusteko ariketa praktikoa xehea egiten du, guztien aurrean. Bere formula eta Guilbeaurena ezker-eskuin jarriaz, eta kontuak atereaz, jendea konbentzitu-edo egin du abandoarrak. Koska hori erraz gainditu du. Beste norbaitek ere badu, ordea, bere planaz zer esanik: buruan ortografi proiektu ona duen pertsona bat baino gehiago ezer egin gabe gera litekeela, Aranaren plana onartzen bada. Nork bere poltsikotik ordaindu behar du bere proiektua inprimatzeko gastua, izan ere, eta zenbaitek ezin izango du ordaindu. Horri ere buelta ematen dio Aranak: inprimatze-gastu hori proiektugileak berak (edo bere lagunek) ordain deza(te)la orain, eta kongresuak itzuliko diola dirua, hemendik hilabete gutxira. Kongresuak nondik aterako du, ordea, dirua? Horra non bukatu duten betiko puntuan: ditxosozko dirua behar da, ortografia bateratzeko ere. Bizkaitar eta gipuzkoar batzuek uste dute, badakitela korapilo hori nola askatu. Hain dago

aberastua Bilboalde hori!

Biltzarkideek Aranaren proposamena hobesten dute, dagoen-dagoenean eta aho batez.

Arratsaldea aurrera doa, ordea, eta erabakia hartu behar da. Hiru proposamen horietatik zein aukeratuko ote da? Suak eta garrak piztuko ote dira berriro? Bai zera: jendea ez dago borrokarako. Guztiek ere nahiago dute bide zuhurretik jo. Eta zuhurrena, dudarik gabe, gauzak poliki-poliki egitea da. Biltzarkideek Aranaren proposamena hobesten dute, dagoen-dagoenean eta aho batez. Jakin ez dakigu zuhurtziagatik izan den erabateko adostasun hori, edo beste biderik ikusten ez zelako: erdizkako akordiorik ez baitzukeen, seguruenik, txostengileak onartuko. Honegatik edo hargatik, izan, gauza bat dago argi: dagoen-dagoenean eta aho batez onartu dela Aranaren proposamena.

Hendaiaiko aretoan, erabakia adosteko orduan, gauzatxo batekin ohartu da Zaldubi, biltzarraren buru lehena. Idazkari nagusia ez da aktarik jasotzen ari eta prentsarako oharririk ez du inork prestatu.

Hendaiaiko aretoan, erabakia adosteko orduan, gauzatxo batekin ohartu da Zaldubi, biltzarraren buru lehena. Idazkari nagusia ez da aktarik jasotzen ari eta prentsarako oharririk ez du inork prestatu. Nahikoa eta gehiagi egiten du Guilbeauk, biltzarrari nola edo hala zutik eustearekin. Ezin eskatuko dio, beraz, nekez egin dezakeenik. Idatziz ondo moldatzen den, eta bilerako gaiak artez menderatzen dituen, beste norbait hartu beharko du horretarako. Sabino Arana izan liteke, Zaldubiren ustez, lan delikatu hori egiteko gizon egokia. Orfeoiairen doinu ozenen zurrumbiloan, atso-agureen eta ume jolas-tien zalaparta artean, berariazko enkargua ematen dio hortaz abandonarrari. Ea, mesedez, osoko bileraren goizeko eta arratsaldeko esan-eginen prentsa-ohar moduko bat prestatuko liokeen. Badakiela lan hori beste baten eginkizuna dela, baina Guilbeau gizajoa gaintua dagoela. Denera ezin dela iritsi. Sabinok baietz, prestatuko duela prentsa-ohar hori. Uste baino lan gehiago du, ordea, Zaldubi ile-zuriak eman dion enkargu horrek. Hasteko, Guilbeau idazkariari ahaztu egin zaio biltzarkideen zerrenda eta helbideak prestatzea. Gaur erabaki den planaren parte inportante bat, gainera, hurrengo lau asteotan hezurmamitu beharko da. Behar bezain garbi gelditu ote da hori, guztien barruan? Horretan ari delarik, fase berri batean sartzen da arratsaldeko bilera.

Sabino Arana izan liteke, Zaldubiren ustez, lan delikatu hori egiteko gizon egokia.

VI. 3. Azken orduko proiektua

Estanislao Arantziadik, denak denekin ari diren solasaldi bihurri horren erdian, eguneko aztergai-zerrenda alde batera utzi eta zeharo beste-lako asmo bati heltzea erabakitzen du. Zoli eta ozen, bere erdara dotorean, eguerdian Azkueri eta Broussaini azaldu dien asmoaren ildotik aparteko proiektua aurkezten du jendaurrean: euskara salbatzeko, egungo hondamenditik atera eta indarberritzeko, laguntza-elkarte bat sortzea. Euskaltzale guztiak bilduko dituen erakundea sortu behar omen da, ahal delarik gaur bertan, Hendaian. Piztu dira berriro bazte-

Euskaltzale guztiak bilduko dituen Erakundeak sortu behar omen da, ahal delarik gaur bertan, Hendaian. Piztu dira berriro bazterrak: hori bai asmo ederra, bihotz-bihotzekoa!

Azkuek begi onez ikusten du Euskaltzaleen elkarte-modua sortzea. Bera ere ez dago ordea, fetxa aldetik, Estanislak mahai-gaineratu duen asmoarekin oso interesatua.

rrak: hori bai asmo ederra, bihotz-bihotzekoa! Erdiz erdi asmatu du Estanislak, Hendaiaiko euskaltzale askoren beldur-ametsetan. Berta-bertatik jarraitu dute, horrexegatik, iruinxemearen azalpena. Gehienak ados daude asmo nagusiarekin. Puntu konkretuetan, halere, badute iritzi desberdinik. Bi puntu dira, batez ere, Arantzadiren proiektu horretan eztabaida bizia eragiten dutenak: a) zenbateko kuota jarriko dugu, bazkideok urtero kotizatzekeo?; b) zer izen emango diogu elkarte berriari?

Goizean ortografiarako arazo teknikoaren eztabaidan sartzeraz ausartu ez direnak ere gogoz ari dira orain, arratsaldeko eztabaida berri horretan. Arana kontra dago: gai-zerrendatik kanpora dagoela euskararen aldeko elkarte berri bat sortzeko kontu hori; helburua txalogarria izanik ere, asmo hori ez dela ortografiaren bateratze-saioarekin nahastea komeni, eta abar. Alferrik ordea: jendea bero-bero egin da Arantzadiren asmo berriarekin. Ortografiaren kontuaz, hemendik aurrera, ez du inork hitz egingo. Azkuek begi onez ikusten du euskaltzaleen elkarte-modua sortzea. Bera ere ez dago ordea, fetxa aldetik, Estanislak mahai-gaineratu duen asmoarekin oso interesatua. Hamar urte luze lanean aritu da bere hiztegia prestatzen, eta amaitu samarrik-edo dauka. Inprimategira eraman beharko du laster. *Ibaizabal* astekaria ere aurten bertan jarri nahi du kalean. Euskara ikasteko metodoak, eliza-liburuak, eleberrak eta abar argitara bidean ditu... eta kontu horietarako ortografia *bat* behar du lehenbailehen. Nahikoa atzerapen ekar dezake berez Aranaren proiektuak, azken erabakia urtebetez diferitu duenak. Orain beste erakunde bat sortzen hasten bagara, ortografiaren kontuak noizko? Zer irabazten dugu dena batera konpondu nahi izate horrekin? Betikoa: Abbadiaren oinordetzaz, Diputazioen babesaz edo dena delako aginpidez Hizkuntz Akademia sortu artean, ez dugu atarramentu onik atera behar!

Etixerako bidea hartzen dute berak eta beste batzuek, arratsaldea ere aurrera doala-eta. Ordutako bidea dute, izan ere, biltzarkide askok: Bilbo aldera itzuli behar dutenek, batez ere. Jendea joaten hasi dela ikusiaz, eta gauzak ongi lotze aldera, honako hau bururatzen zaio Hendaiaiko biltzarraren Zuzendaritzari: A. Campion, S. Arana eta anai Agirre Juvenal, Lasalletarren Hazparneko eskolaren zuzendaria, bil daitezela berehala alboko gelatxo batean eta presta dezatela euskararen aldeko laguntza-elkarte berriaren lehenengo zirriborroa. Esan eta egin: Zaldubiri eta Guilbeauri kasu eginaz, bildu dira hirurak gelatxo horretan, eta elkarte-asmo berriaren oin-arauak paratu dituzte. Labur-laburrak, behin-behinekoak, baina oin-arauak. Izenari dagokionez, momentuz FLB deitu diote elkarte-asmo berriari: *Fédération Littéraire Basque / Federación Literaria Vasca*⁷⁶. Oin-arau horiek papelean jarri eta areto nagusira itzultzen dira, biltzarkideei beren propo-

Izenari dagokionez, momentuz FLB deitu diote elkarte-asmo berriari: *Fédération Littéraire Basque / Federación Literaria Vasca*.

Federación Literaria Vasca horren behin-betiko osaera, ortografiaren azuia erabakitzekeo biltzarra bezala, datorren urteko irailean finkatuko da, irailaren lehen hamabostaldian Hondarribian egingo den bileran.

S. Arana pozik da biltzarraren erabakiarekin, normala ere denez. Bere proposamen tekniko atera da Hendaian garaile.

samena aurkeztera. Ez alferrik: aretoa hutsik dago, etxerako bidea hartu ez dutenak frontoira joan baitira, Udalak berariaz eskaintzen dien pilota-partida ikustera. Hara doaz, beraz, FLBren zirriborro-pres-tatzaileak ere.

Frontoian enteratzen dira batzuk, handik gutxira, hirukoteak idatzi duen zirriborro horretan urteko bazkide-kuota ageri dela: hamar libe-rakoa, alajainkoa! Batzuk baietz, konforme direla. Beste batzuk ezetz, gehiegi dela hori. Pilota-partidaren amaieran, oraindik Hendaian dau-denek berriro biltzea erabakitzen dute. Hamasei dira guztira: azken orduko bileratxo horretan, batez ere, kuota-kontua berraztertzen dute. Urteko sei libera eskatzearekin nahikoa izango dela, bazkideak ugari bildu nahi badira. Kalkuluak egiten ere hasten dira batzuk: ehun baz-kide baietz bildu, hurrengo urtean elkartea sortzen denerako. Erakun-de berriari euskarazko izena jarri behar litzaiokeela: hori ere esan du norbaitek, eta guztiak konforme. Epe bat jarriko da, bere gustuko ize-nen bat proposatu nahi lukeenak garaiz aurkeztu ahal izan dezan. Guilbeau idazkariari pasatzeko izenak, eta gero erabakiko dela. Azke-nik, erabaki garrantzitsua hartzen dute azken hamaseiek. FLB edo *Federación Literaria Vasca* horren behin-betiko osaera, ortografiaren azuia erabakitzekeo biltzarra bezala, datorren urteko irailean finkatuko da, irailaren lehen hamabostaldian Hondarribian egingo den bileran. Handik aurrera, urte biz behin, euskararen aldeko biltzar-bilerak egin-go dira Hendaian eta Hondarribian. Eta horrela, gauza handiak egin direlako ustearekin, elkar agurtu eta nor bere etxera abiatzen dira azken hamaseiak.

VI. 4. Egindakoaren hausnarrean

S. Arana pozik da biltzarraren erabakiarekin, normala ere denez. Bere proposamen tekniko atera da Hendaian garaile. Hizkuntz plangintza-ren alorrean leku bat egiten ari dela (hots: hizkuntza arazoak nola kon-pondu asmatzeko gaitasun-modu bat aitortzen zaiola) esan nahi du horrek. Ez hori bakarrik: Hendaia-ko biltzarkideen hobespen horrek azken hilabeteotako bere bideberritzea ere bermatu egiten du. Bide-berritze zorrotza eratzen ari da abandoarra, bere odisea pertsonalean. Berrikuntza horrek enfasi-aldaketa nabarmena dakar: ordura arteko helburu nagusitik, burujabetza politiko osoarenetik, beste konstelazio ideologiko baterako jauzia. Euskaraz bizi den hiztun-herriari bere horretan eustea, eta horretatik abiatuz hizkuntza ahula indarberritzea, horiek dira bere *fase espainolistaren* korrelato soziokultural ezagunak. Zentraltasun nabarmena eskuratzen dute hizkuntzak eta hiztun-elkar-

⁷⁶ Zenbait paperetan *Basca* ageri da.

Zentraltasun nabarmena
Leskuratzen dute hizkuntzak eta
hiztun-elkarreak, Aranaren
formulazio berrian.

Gainerako biltzarkide gehienak
Here, pozez gainezka ez egon
arren, badirudi lasai gelditu direla.

Haserre bizian atera da Vinson
Hendaiatik, behar bezala parte
hartzten utzi ez zaiolako.

Horren aitormen espresurik ez
badugu ere pentsatzekoa da,
orobat, pozak zorutzen ez dela
atera Azkue Hendaiatik.

teak, Aranaren formulazio berrian. Zentraltasun soziolinguistiko hori funtsezkoa da, ene ustez, Aranaren hurrengo bi urteetako euskalgintzak bere baitan duen hainbat bidebanatze, anibalentzia, kontraesan eta itxuraberritze taxuz ulertzeko. *Yiddish* hizkuntzaz *Tshernovits*-en, 1908ko kongresuan, agertutako asmo eta tentsio askoren antzeko egonezina antzematen zaio, oso bestelako motiboengatik eta oso bestelako irtenbideez bada ere, abandoarraren euskalgintza horri⁷⁷. Bideberritze eta gutzi, esan bezala, uste izatekoa da oso pozik itzuli dela Arana Hendaiatik. Ez da harritzekoa, horrexegatik, Hendaian irakurri duen txostena handik berrogei bat egunera Bilboko, "bere" aldizkarian publikatu izana.

Gainerako biltzarkide gehienak ere, pozez gainezka ez egon arren, badirudi lasai gelditu direla. Bistan da zergatik: gaur ezin lortu izan bada ere, hemendik urtebetera buruturik izan dezakete euskal ortografiaren batasuna. Urtebete pasatxoko epealdia dute, izan ere, zerbait ganoraz egiteko. Nola okurritu zitzaizen gero, Guilbeau medikuari eta konpainiari, erabakia egun bakarrean hartzea! Nahikoa lan, Aranaren urtebeteko formula horrekin ere, eman beharreko pausoak garaiz emateko.

Haserre bizian atera da Vinson Hendaiatik, behar bezala parte hartzen utzi ez zaiolako. Euskalari profesional, kotsakratu bakarretakoa izan, bertara bildu diren amateur horien artean, eta justu berari ateak itxi: hori ez du nolana barkatuko⁷⁸. Bi artikulu gogor, oso kritiko, idatziko ditu handik gutxira. Berari eta bere antzekoei parte hartzen uzten ez zaien biltzarrak, Hendaiakoa kasu, *grotesko hutsak* direla esango du.

Horren aitormen espresurik ez badugu ere pentsatzekoa da, orobat, pozak zorutzen ez dela atera Azkue Hendaiatik. Bi gauza hauek kezkatzen dute bera: a) euskaltzaleek ere botoa eman ahal izango dutela hurrengo urtean (zein euskaltzalek ordea? eta zenbatek? ez ote da gutzia Aranaren maniobra izango?); b) bere hiztegiarentzat atzerapean ekar ditzake urtebeteko luzamendu horrek: ortografia *lehenbailehen* erabaki beharra dago, hamar urte luze baitarama bere hiztegi erraldoia osatzen eta laster inprimatzeko prest jarri nahi baitu. Urtebete itxaron behar bada, bale; baina gehiago ez. Bilera amaitu aurretik

⁷⁷ Tshernovitseko Hizkuntz Konferentziaz, eta bere ingurumenaz, argibide zehatzik nahi duenak badu, J. A. Fishmani eskerrak, nora jo. Ikus bere *Ideology, Society and Language* (1987). Hizkuntzaren zentraltasunaz, ikus bereziki bertako 109-12 orr.

⁷⁸ Dans [la Revue de Linguistique] (t. XXXIV, p. 356-361; et t. XXXV, p. 82-85), j'ai parlé du singulier Congrès de Hendaye, de 1901, où, pour traiter de l'orthographe et de la grammaire basque, on n'admettait que des gens nés dans le pays, n'eussent-ils rien écrit, ne se fussent-ils jamais occupés de leur langue maternelle, et l'eussent-ils même complètement oubliée. Une sorte de discussion des convenances à propos de ce congrès a eu lieu dans divers journaux du pays.

Manex Hiriart-Urruti ere badoa bileratik. Eszeptiko etorri zen Hendaiara, eta itzuli ere ez da etxera pozez gainezka itzuliko.

Ortografiako aldaketa gogorrak ezartzen bazaizkie, ihes egingo dute euskal testu idatzietatik. Orduan alferrik izango dira munduko corpus-plangintza guztiak.

alde egin du berak, bestalde, eta azken orduko erabakien berri ez daki ezertxo. Broussainek jarriko du FLBren eta zuzendaritza-taldearen inguruko xehetasunen jakinaren gainean: eskutitzez jarri ere, handik egun gutxira.

Manex Hiriart-Urruti ere badoa bileratik. Eszeptiko etorri zen Hendaiara, eta itzuli ere ez da etxera pozez gainezka itzuliko. Dirua eta denbora berak baino ugariago dute, bistan da, Hendaiara etorri diren gehienek: mediku, abokatu eta funtzionario-jende horrek bereziki. Txoriak ere bai buruan, behar baino gehixeago. Jakingo ote dute jauntxo horiek kapritxoak eta beharrak, ametsak eta benetako auke-rabideak ongi bereizten? Ez ahal dira, behintzat, grafiarekin hasi eta, gramatikara zein hiztegiara hegaldaturaz, erabateko euskara batu bakarra eratzen hasiko: euskararen batasuna, lekuz kanpoko kontua da gaur-gaurkoz. Nondipait hasi behar zela Hendaiara, hori egia da. Zer-baiten beharra badu euskarak, eta ez dago gaizki ortografiatik hasi izana. Euskararen idazkera bateratze aldera eman litezkeen pausoak, tentuz egiten badira, guztion mesederako izan litezke. Pozik doa, beraz, alde horretatik. Bada ordea gauza bat, Aranaren proiektu horretan inola ere gustatu ez zaiona. Hartzen den erabakia hartzen dela, biltzarkide guztiek ortografia horixe erabili beharko dutela aurre-rantzean, nahi eta nahi ez, beren idazki eta argitalpen guztietan. Hori ez: inola ere ez. Hiriart-Urruti ez dago horrelako hipoteka larririk onar-tzeko prest. Bera ez da linguista, konforme, baina esku artean zer negozio duen oso ongi daki. *Eskualdun* kazeta irakurtzen duen jendea, erdia baino gehiago, herritar xeheak dira, herri-herrixka euskal-dunetako esku-langileak, laborari-jendea eta abar. Apez lagunen artean ere, zenbatek du bada euskalarien mundutxo horrekiko harre-man zuzenik! Prestakuntzaz eta gaitasunez, euskalari-jendea baino apal-arruntagoak dira bere irakurle gehienak. Eskolan ikasi duten apurra frantsesez ikasi dute, bere grafia jakinaz. Hortik aurrera elizli-buruak eta kantu-liburuxkak izan dituzte, lautatik hirutan, euskarazko alfabetatze-bide nagusi. Ortografiako aldaketa gogorrak ezartzen bazaizkie, ihes egingo dute euskal testu idatzietatik. Orduan alferrik izango dira munduko corpus-plangintza guztiak. Zer ote dakite Hendaiako jaun inportante horiek bere bezeriaren nolakoaz? Nork garantizatzen dio berari, Hondarribian hartuko den erabakiak behar bezain kontuan hartuko dituela ortografia ororen aplikazio-arazoak? Kasu horretan, berak bere bezeriarekin izan ditzakeen eragozpen larriez jabetzen al dira Bilboaldeko gidari-nahi horiek? Berekin ez dezatela kontu, hortaz, inolako konpromisotarako. Erabaki dezatela nahi dute-na, eta gero ikusiko du berak zer egin.

Hendaiako biltzarra pauso handia izan da gehienentzat. Vinson, Hiriart-Urruti eta Azkue izan dira, dakigularik edo susma dezakegu-nez, Hendaiatik atera diren iritzi kritiko, ezezkor edo kezkatu bakarrak.

Hendaiaiko biltzarra pauso handia izan da gehientzat. Vinson, Hiriart-Urruti eta Azkue izan dira, dakigularik edo susma dezakegunez, Hendaiaitik atera diren iritzi kritiko, ezezkor edo kezkatu bakarrak.

Ortografi araurik adostu ez bada ere, arau-sistema osoa hamabi hilabeteko epean erabakitzeko plan zehatza aurkeztu eta onartu da.

Gainerakoan, jendea gustura edo (Serapio Mujikaren eta Martin Guilbeuren kasuan, adibidez) oso gustura atera da. Hendaiaiko biltzarra arrakasta handia izan da, alde askotatik. Euskalari- eta euskaltzalekopuru zabala erakarri du, hasteko: bertara etorri diren hogeita hamaboste beren atxikimendua eta onespena bidali dutenak gaineratzen bazaizkie, dudarik ez da gertaera jendetsua izan dela. Ez hori bakarrik: Zazpi Probintzietatik etorri da jendea, Guilbeuren deiari jarriki. Dakigularik lehen aldia da, halakorik gertatu dena⁷⁹. Gutxitan gertatu ere da berriro, urte askoz, halakorik. Bilerak, gainera, helburu konkretu-jakina izan du: euskal ortografia bateratzea. Hori ere nobedade handia da. Azken urteetako Euskal Festetan behinolako Euskal herri goxo-xahar-maitagarriaren goresmen hutsalak nagusitu izan dira. Oraingoan, aldiz, azal-itxurak alde batera utzi eta mamira jo dute guztiek. Gorabeherarik ez da falta izan bileran, baina begiz jotako aztergai nagusiarri hainbat ordu eskaini zaizkio. Eta, ortografi araurik adostu ez bada ere, arau-sistema osoa hamabi hilabeteko epean erabakitzeko plan zehatza aurkeztu eta onartu da. Azkenik, eta bide batez, euskara indarberritzen saiatuko den elkarte bat sortzea proposatu da: bere oin-arauak idatzi dira, eta behin-behineko izaeraz onartu. Hori ere, idaztarauena bezala, hurrengo urtean Hondarribian finkatu eta berresteko gelditu da. Jakin badakigu, gainera, elkarte horrek (Eskualzaleen Biltzarrak) bizirik jardungo duela ehun urtez. Iparraldean batez ere, eta ia egungo egunera arte, Hendaian asmatutako elkarte hori izango da bertako euskalgintzaren bateragune nagusi. Ehun urte iraun duen euskaltzale-elkarte bakarra dauka Euskal herriak, eta hura Hendaian asmatua. Zer gehiago eskatu behar zaio egun bakarreko biltzarrari, arrakastatsua izan dela aitortzeko? Zergatik gabiltza orduan, handik ehun urtera ere, Hendaiaiko porrota gora eta Hendaiaiko porrota behera? Nola ezkontzen dira bata eta bestea? Hori aztertu nahi genuke hurrengo atalean.

⁷⁹ Mende-erdi bada jadanik Zazpi Probintzien etnokulturazko batasuna han-hemen (lehenik han, iparraldean, eta foruak galdu ondoren hemen ere bai) aldarrikatzen dena. Aldarrikatu bai, baina herrialde guztietako jakitun-jendea apenas orain arte, aldi berean eta hizkuntza indarberritzeko xedeaz, inoiz bildu den.

VII. Hendaiatik Hondarribira: lemazainik gabeko bidaia

Hendaiako porrota ez da Hendaian gertatu, 1901eko irailean. Handik aurrera okertuko dira kontuak, urritik abendura konkretuki.

Hendaiako porrota ez da Hendaian gertatu, 1901eko irailean. Handik aurrera okertuko dira kontuak, urritik abendura konkretuki. Eta leher-eztanda egingo du ortografia bateratzeko egitasmo osoak, modurik mingarrienean egin ere, 1902ko urtarriletik martxora artean: 1901eko irail-amaieratik 1902ko martxora arteko hori izango da, nagusiki, "Hendaiako porrota". Gero, 1902ko irailean Hondarribiko bilkura egingo denean, ortografia ez da aztergai ere izango. Ortografia bateratzeko saioen porrota pasata dago ordurako. Beste kontuak dira han aztergai. Hauts handiak harrotuko dituzte beste kontu horiek ere, baina ez aztergaiak eta ez lehiakide nagusiak dira Hendaiakoak. Zer gertatu da, beraz, 1901eko irail-amaieratik aurrera? Zer gertatu da, bereziki, 1901eko urritik 1902ko martxora artean? Labur-labur esateko honako gertaera hauek metatu dira elkarren gain, eta guztiaren ondorioz hankaz gora joan da ortografia bateratzeko proiektua:

a) Baliabiderik ez dago

Edozein talde-lanek, aurrera aterako bada, baliabideak behar ditu: gizajendea, dirua, tresneria, denbora eta antolamendua. Bostak dira beharrezkoak, zein bere neurrian, gauzak ondo egin ahal izateko.

Edozein talde-lanek, aurrera aterako bada, baliabideak behar ditu: gizajendea, dirua, tresneria, denbora eta antolamendua. Bostak dira beharrezkoak, zein bere neurrian, gauzak ondo egin ahal izateko. Bostetan eskas, oso eskas, jaito da ortografia bateratzeko proiektua. Beste horrenbeste esan liteke FLB edo Euskaltzaleen biltzarra eratzeko egitasmoaz ere. Gauzak are gehiago nahasteko, hainbat biltzarkidek zaku berean sartuko ditu proiektu biak (ortografiaren batasuna eta Euskaltzaleen biltzarra), noiz bat az eta noiz besteaz ari diren nekez antzeman daitekeelarik. Baliabiderik eza edo eskasia honako elementuotan antzematen da, batez ere:

a1) Antolamendu falta: Hendaiako biltzarraz ez da aktarik egin. Biltzarkideen zerrendarik ere ez da prestatu: hots, biltzarkide bakoitzaren izen-abizenak eta helbideak ez dira jaso. Eta orain nola konpondu okerra? Nori bidaliko zaizkio hemendik aurrerako deiak? *Aldanondo* metodoa (ahal den ondoen jardutekoa, alegia) aplikatuko du idazkari nagusiak: lehen bezala, *batzuei* kartak bidaliko dizkie Guilbeauk, eta beraien artean hitz egin eta talde-erantzuna eman dezatela eskatuko die. Aski koordinazio eskasa, nolana ere, boto bidezko erabaki sendoak hartu behar badira.

a2) Diru falta: dirurik ez dauka Guilbeauk, eta *Association Basque* ere apenas. Nola gestionatuko dira korrespondentzia, posta-kontua eta inprimatze-lanak (inprimakiak, dei-bidaltzeak eta *tableau photographique* delakoa)? Diruaren kontu hori ez da inolako txikikeria.

Berrogeiren bat (agian ehundik gora) kide bilduko dituen txostengile-, aztertzaile-, ohargile- eta koordinatzaile-taldeak, hamabi hilabeteko jardunean itxuraz funtzionatuko badu, dirua beharko du.

Astirik ere ez dauka M. Guilbeauk, ez behar adinbat behintzat, S. Aranaren planak ezarri duen lan-programa trinkoaz arduratzeko.

Hitz batean esateko: baliabiderik gabe sortu da Hendaiaiko plana, hamabi hilabeteko jardunean euskalgintza osoari (corpus- zein status-plangintzari) arnasa berria eman nahi liokeena.

Berrogeiren bat (agian ehundik gora) kide bilduko dituen txostengile-, aztertzaile-, ohargile- eta koordinatzaile-taldeak, hamabi hilabeteko jardunean itxuraz funtzionatuko badu, dirua beharko du. Guilbeaurenean ez dagoena beste norbaitek jarri beharko du, hortaz.

Hendaiaiko bilera egin eta hurrengo egunean Baionako Apezpikutegira joan dira biltzarkide zenbait (Bizkaiko lau elizgizon, tartean Txomin Agirre), biltzarraren berri ematera. Berehala galdetu diete: “eta dirua nork jarriko du, asmo eder horiek aurrera ateratzeko? Has gaitezen errazenetik: nork ordainduko ditu Hendaiaiko akten inprimatze-gastuak?”. Txomin Agirrek eta beste apaizlagun batek, baikortasun handiegiaz noski, lasai egoteko diote: Bilboalde horretan euskaltzale-jendea indartzen ari dela, eta hango *Centro Vasco* edo Euskal-etxetik etorriko dela behar den dirua. Laster jakingo da, ordea, ametsetan ari dela *Auñemendiko Lorearen* egilea. Aranak aurreko egunean, bazkalondoko eztabaidan, esandakoaz fidaturik egin du Tx. Agirrek, akaso, bere eskaintza hori. Baina oker dabil. Gauzak ez daude uste bezain samur, Bilboalde horretan ere⁸⁰.

a3) Dedikazio falta: astirik ere ez dauka M. Guilbeauk, ez behar adinbat behintzat, S. Aranaren planak ezarri duen lan-programa trinkoaz arduratzeko. Adema-Zaldubi, bestetik, zaharregia da gauza horietan sartzeko. A. Campion Iruñeko puntan dago berriz, eta S. Arana Bilbon. Are okerrago: Hendaiaiko biltzar-egunean ondoezik sentitu denetik okerrera egin du bere osasun-egoerak. Bilbora ez baina Sukarrietara erretiratu da Sabino, etxetik ateratzeko gauza ez dela, eta horrela jarraituko du abendura arte.

Hitz batean esateko: baliabiderik gabe sortu da Hendaiaiko plana, hamabi hilabeteko jardunean euskalgintza osoari (corpus- zein status-plangintzari) arnasa berria eman nahi liokeena. Alor guztietan antzematen da baliabiderik ezaren larritasun hori: ez dago dirurik; ez dago hainbat prestalari astia eskainiko dionik; langintza handi hori bere gain hartzeko gaitasunik duen zuzendaritzarik ere ez dago. Hots, ez dago antolamendu sendorik. Hitz onak eta asmo ederrak bai: hortik aurrera, ezer gutxi. Berehala konturatzen dira biltzarkide batzuk, Hendaian erabaki dena gehiegizko zama dela Guilbaurentzat eta, zer esanik ez, arras agure zaharturik dagoen Zaldubirentzat. Hortik etorriko da, borondaterik onenaz baina prebisio falta handiz, bigarren hanka-sartzea: Hendaian hartutako erabaki sendoak (lan-programaren epe nagusiak eta zuzendaritza-taldeen osaera, besteak beste), diferitzen eta aldatzen hasiko dira lasai-

⁸⁰ Juan Carlos Gortazarrek berak, *Centro Vasco*ren lehendakariak alegia, espresuki desautorizatuko ditu abade-lagunak.

lasai, horrek ekar ditzakeen ondorioez jabetu gabe.

b) *Erabakiak aldatuz doaz.*

Aranaren planak baditu eragozpen ohargarriak, baina abantail argiak ere bai: oinarrizko pausoei dagokienez aski zehazturik dago, bere planean, nork noiz zer egin behar duen.

Ortografiaren batasun-ontzia portu onera eramateko, gorago esan denez, lau kideko batzorde iraunkorra osatu da Hendaian. Bere kideak hauek dira: Adema-Zaldubi buru; Campion eta Arana buruorde; Guilbeau idazkari.

Aranaren planak baditu eragozpen ohargarriak, baina abantail argiak ere bai: oinarrizko pausoei dagokienez aski zehazturik dago, bere planean, nork noiz zer egin behar duen. Programazio xehea eskaintzen du, alegia. Plan hori aho batez onartu da Hendaian. Orain bete egin behar da, beraz, han onartutakoa. Hortxe hasiko dira arazoak. Horixe izango da, une horretan besterik badirudi ere, Hendaia porrotaren bigarren iturburua: adostutako erabakiak bete ez, eta haien orde bestelako planak egiten hastea. Hel diezaiozun batzorde iraunkorraren kontuari. Nabarmena da, benetan, zuzendaritza-talde horrek zenbateko aldaketak izango dituen aste gutxiren barruan: hasieran lau kide direnak berehala bost izango dira, handik gutxira zortzi edo bederatz, eta hamaika edo hamabi izeneko zerrendarik ere aipatuko da inoiz. Borondatea eta gogo ona ugari, denek "zerbait" egin nahi, eta ontzia gobernatuko duen lema-zainik ez.

Ortografiaren batasun-ontzia portu onera eramateko, gorago esan denez, lau kideko batzorde iraunkorra osatu da Hendaian. Bere kideak hauek dira: Adema-Zaldubi buru; Campion eta Arana buruorde; Guilbeau idazkari. Badirudi ordea bilera bera aurrera samarturik zegoenean (hamasei-hamazazpi kide besterik tartean ez zirenean) erabaki zela batzorde iraunkorraren osaera hori, eta zenbait biltzarkide ez dela horrekin, handik gutxira, konforme agertu. Dirukontuen larriaz oharturik, Baionako Hiriar bibliotekaria diruzainlanean jarri dute, handik gutxira. Batzorde iraunkor hori ez da, ordea, lehenengo bost hilabetean inoiz bilduko. Inoiz ez. Buruak ez ditu, dakigunetik, gainerako hiru kideak (Hiriartekin lau) inoiz bilera batera deituko. Norbaitek esan dezake, jakina, deia ez daukala Zaldubik egin beharrik. Ordura arte Guilbeuren eskutik joan ohi zen bilera-deien kontu hori, eta orain ere berdin-berdin egin liteke. Berak ere ez du, ordea, pauso hori emango. Badirudi, gainera, batzorde bi nahastu dituela jendeak, behar baino sarriago: batetik lauzpabosteko hori, ortografi kontuez arduratu behar zuena; bestetik batzorde zabala, Eskualzaleen Biltzarra eratzekoa. Zenbaiten ustetan (ikus Bilboko *Euskalduna*) batzorde zabal hori da benetako zuzendaritza edo batzorde iraunkorra, ortografia kontuak ere bere gain hartu behar dituen⁸¹. Ez Adema-Zaldubik eta ez Guilbeauk dirudite gai, gaizkiulertu horiek garaiz zuzentzeko.

Adema-Zaldubiren eta Guilbeuren ahuldade hori konpondu nahi-

⁸¹ Izan ez da, ordea, horrela: martxoan (gauzak erabat mingosturik daudenean eta aurrez aurreko kontu-garbitzeari ekiten zaiocenean) hasierako laurak bilduko dira. Berandu da, ordea, bitarteko nahaspide osoa konpontzeko.

Adema-Zaldubiren eta Guilbeuren ahuldade hori konpondu nahirik, bide paraleloak sortzen hasten dira batzuek eta besteak. Batez ere batzuek: iparraldeko Broussain eta hegoaldeko Campion-Azkue biak.

Hori guztia gutxi balitz, Azkueren esku uzten du Broussainek hegoaldeko kideak aukeratzea. Funtsezko aldaketa da hori, Aranaren planari (Hendaiako biltzarrak aho batez onartuari) oso bestelako filosofia ezartzen diona.

rik, bide paraleloak sortzen hasten dira batzuek eta besteak. Batez ere batzuek: iparraldeko Broussain eta hegoaldeko Campion-Azkue biak. Hendaiako Zuzendaritza (hobe esan: Zaldubi-Adema) aldatu eta Arbelbide guztien buru jartzea ere pentsatzen dute. Gehienez isilpean noski, eta interesatu bati baino gehiagori ezer galdetu gabe itxuraz. Baina ez: azkenean, Arbelbide berak atzera egiten duenez, Adema buru jarraituko du. Zuzendaritza ez da jakingo ordea, inoiz, zenbatek eta zer aginpidez osatzen duten.

Indefinizio horren erdian, Hendaiako hainbat erabaki hankaz gora jarri eta prozedura berriak hutsetik bezala planteatzen hasten dira biltzarkide batzuek. Zer beste aldaketa dira, batzorde iraunkorrarenaz gainera, egun horietan “erabaki” direnak? Honako hauek, besteak beste: batetik, hurrengo urtean nork parte hartu ahal izango duen, eta nork ez, ortografia bateratzeko Hondarribian egingo den bilkuran. Broussainek, Hendaiako erabakiaren kontra, hona zer jakinarazten dion Azkueri, 1901eko irailaren 30eko eskutitzean: “Il ne faudrait admettre au Congrès pour l’unification de l’orthographe basque qui se tiendra l’année prochaine à Fontarrabie, qu’un très petit nombre de nouveaux adhérents, une dizaine tout au plus”. Hamar gehienera, eta horietatik hiru edo lau frantses-euskaldunak. Hori baino gehiago ere erabaki nahi izan dute dagoeneko, hilaren 16an Hendaiako erabakitakoaren aurka, Broussainek eta beste zenbaitek. Horra zehaztasunak: “nous avons décidé Adéma, Guilbeau, Hiriart, Daranatz et moi de n’admettre que 3 ou 4 adhérents, connus par les études approfondies de l’eskuara on les services qu’ils ou rendus à notre langue. Je proposerai: Harriet, Abbadie (Larresoroko seminarioaren burua), Diharasarry et Althabe”. Hori guztia gutxi balitz, Azkueren esku uzten du Broussainek hegoaldeko kideak aukeratzea. Funtsezko aldaketa da hori, Aranaren planari (Hendaiako biltzarrak aho batez onartuari) oso bestelako filosofia ezartzen diona. Biltzarkide berri gutxi (gehienez hamar) izango dira Hondarribian, Broussainen aburuz. Are gutxiago dira, hamar horiek nor izan daitezkeen pentsatuko dutenak: iparrean Broussain, hegoan Azkue. Nork eman die horretarako esku?

Aldaketak ez dira hor amaitzen: diruzain baten ordezkari bi sortzea planteatu du Hiriartek (hegoaldea urrun gelditzen zaiolako, agian). Guilbeauk, bestalde, Daranatz nahi (eta, itxuraz, lortu) du idazkariordetarako. Eta, batez ere, eskualzale xurien helburua ontzat ematea lortu nahi da. Broussain da, orain ere, berri-emaile: “Le Congrès de Fontarrabie sera absolument privé. Les étrangers, formellement exclus. Idem journalistes”. Hori ere Hendaiako erabakitakoaren kontra doa, eskuera ditugun datuen arabera. Batzorde iraunkorraren bilerak Hondarribian egitea planteatzen da, azkenik. Aldakuntza horien berri gutxien-gutxien dakiena, Sukarrietan gaixo-

Aldakuntza horien berri gutxien-gutxien dakiena, Sukarrietan gaixorik dagoen abandoarra da. "Berea" izan Hendaiako plana, eta berari ezer esan gabe aldatu nahian edo aldatzen ari dira hainbat irizpide.

Labur bilduz: biltzarra amaitu eta hurrengo hilabetean, inork hartarako baimenik eman gabe, Hendaiako erabakiak goitik behera aldatzen hasiko dira zenbait biltzarkide.

rik dagoen abandoarra da. "Berea" izan Hendaiako plana, eta berari ezer esan gabe aldatu nahian edo aldatzen ari dira hainbat irizpide. Erabaki-aldaketok, *Comité permanent* delakoaren asmo-txosten gisa, urriaren 11ko zirkular batean helaraziko dira iparraldetik hegora: zirkular horren bidaltzaileak bost kide dira dagoeneko (Adema-Zaldubi, Guilbeau, R. M. Azkue, A. Campion eta Gerra). Horiezaz gainera beste bizpahiru kide hartu nahi dira batzorde iraunkorrerako: Ormaiztegiko Mujika eta D. Legaz, Iruñeko Seminario Handiaren burua. Joanategi ere sartu nahiko dute, handik gutxira, hasierako batzorde iraunkorretik ezer gutxi gelditzen zaion talde zabal horretan. Bere burua behin-behinekoa dela aitortzeaz gainera, erabaki operatibo argi bakarra jakinarazten du zirkularrak. S. Aranaren planak jarriak zituen epe-kontuak alde batera utziaz, batzorde iraunkorraren lan-bilera Hondarribian egingo dela, azaroaren 18an, gauzak behingoz argitzeko. Zer da ordea argitu beharra dagoena? Zer da, batez ere, Azkuek Broussaini (urriaren 16an, zirkularra jaso eta berehala, hortaz) "principalísimo asunto" deitzen diona? Aurrera-zeago ikusiko da hori, Azkueren pauso-ibilera azaltzerakoan.

Labur bilduz: biltzarra amaitu eta hurrengo hilabetean, inork hartarako baimenik eman gabe, Hendaiako erabakiak goitik behera aldatzen hasiko dira zenbait biltzarkide. "Mejora" horiek pertsona gutxiren artean pentsatu eta zehaztu dira: Piarrez Broussain dugu, dirudienez, berrikuntza-plan horietan aktiboena. Ez da bakarra, ordea; Iparraldeko xurien babesaz dihardu hazpandar medikuak, Guilbeauren onespenez gainera. R. M. Azkue ere gogaide du, itxuraz, bide-berritze horretan.

c) Lan-enkarguak, langile motelen esku.

Berehala abiatu beharreko zenbait lan, *sine die* atzeratuz doa: *tableau phonétique* eta FLBren oin-arauen garapena, besteak beste. Bata eta bestea egiteaz, ez dakigu bestek proposaturik ala bere borondatez, P. Broussain arduratu da. Bera eta, dirudienez, J. B. Darrikarrere. Hazparneko medikua euskaltzalea da lepahezurre-raino. Hizkuntz plangintzaren kontuan, gainera, ez da ezjakin hutsa. Parisen, medikuntza ikasten egin dituen urte luzeetan, harreman estua izan du Quebec-eko ikasle frankoabertzaleekin. Handik jasoak izango ditu, agian, soziolinguistikazko zenbait irizpide. Gizon ona da Pierre Broussain, traturoko atsegina eta guztien lagun. Baina ez da gizon aktiboa, ez eta bereari finko eusten dakienetakoa. Ongi ezagutzen dutenen hitzetan nagia da Broussain, eta jokabidez epela. Asko kostatzen zaio hitz emandako lanarekin hastea, eta askoz gehiago bukatzea. Etengabeko atzerapenak sortuko ditu horrek, hasierako planean. Lagun mina duen Azkuek ere eraso

Aranaren planak ateak zabalik utzi ditu, ordea, era bateko eta besteko euskaltzaleak hurrengo hamabi hilabeteetan elkarren ondoan jarduteko.

Gero ikusiko denez, xuri-gorrien arteko ezin eraman hori izango da Hondarribiko istiluen iturburu nagusia.

egingo dio *Pierre Loti*-ri, egunak eta asteak ez ezik hilabeteak ere aurrera joan ahala *tableau* hori ez dela agertzen ikusita. Lo hartzen duen jendearekin ezin da horrelako lan-programa sakonik aurrera eraman: doai handiak ditu Hazparneko medikuak beste hainbat alokretan, baina gestio-lanerako ez du balio. Hendaiaiko porrotaren oinarrian, besteak beste, talde-lanerako hain noraezekoak diren epekontuen gestio ahula (edo gestiorik eza) dago.

d) *Ideologiazko mesfidantza.*

Egia da Hendaian, iparraldeko iritziz nagusiei dagokienez, ia joera bakarreko kideak izan direla: xuriak, eskuindarrak, kontserbadoreak. Aranaren planak ateak zabalik utzi ditu, ordea, era bateko eta besteko euskaltzaleak hurrengo hamabi hilabeteetan elkarren ondoan jarduteko. Guztiak ez dira erabaki horrekin kontentu. Bada-kigu, jakin, buruan zer kezka-modu darabilten: “zer dela-eta ibili behar dugu gorri-francmason-antiklerikal horiekin nahasten? Euskararen alde gaude, jakina; baina ez edozein preziotan: Eliza, betiko *Eskual herria* eta Frantzia bake santuan lotuko dituen uztarritik joango da euskararen aldeko gure ahalegina”. Hemeretzigarren mendeko Ipar Euskal herriak ezagutu duen euskaltzaletasun etnokultural sendoa, hainbat puntutan Herder-en oinordeko zirudiena, Frantzia osoko estrategia soziopolitiko globalagoetan txertatzen ari da⁸². Ikuspegi horiek ez dute euskaltzaleen batasuna, ez eta oinarri-oinarrizko puntuetan ere, beren lehentasunen artean: erasotuak sentitzen diren euskaltzaleok ez daude prest, erasotzaileekin batera jarduteko. Hendaiaiko beste (hots: hegoaldeko euskaltzaleen) ikuspegiekin ez da jokabide hori ezkontzen erraza. Entenditzen ere ez, hainbatean: hemengo euskaltzale-jendea, bere tasun eta keria guztiekin ere, ontzi berean sentitzen da funtsean. Gero ikusiko denez, xuri-gorrien arteko ezin eraman hori izango da Hondarribiko istiluen iturburu nagusia. Ideologiazko mesfidantza horrek sortu du Hendaian (“Vinson onartu/ez onartu” kontuarekin) momenturik larriena, eta Hondarribian suak eta garrak piztuko dira konfrontazio horren haritik. Orain arteko azalpenetan errazegi baztertu den kontua da, beraz, iparraldeko euskaltzale xuri-gorrien arteko gatazka-giroa.

e) *Azkueren eta Broussainen aukera: koiunturaren tentazioa.*

⁸² Hots, ordura arteko euskaltzaleek euskarari aitortu izan dioten zentraltasun-maila altu hura apaltzen ari da.

Baliabiderik gabe, atzo erabakitakoa bihar (unilateralki) bestelakotuz, lanik delikatuenak langile motelen esku jarriaz eta ideologiazko mesfidantza-giroa areagotuz.

Azkuek beldur dio Aranari. Hondarribirako proposatu den, eta biltzarkideek aho batez onartu duten, botazio-kontuaz, bereziki, ez da batere fio.

Aurreko lau faktoreak garrantzitsuak dira, Hendaiaiko porrota esplikatzeko: baliabiderik gabe, atzo erabakitakoa bihar (unilateralki) bestelakotuz, lanik delikatuenak langile motelen esku jarriaz eta ideologiazko mesfidantza-giroa areagotuz, nola espero liteke Hendaiaiko proiektua aurrera atera izana? Garrantzitsuak dira lau faktore horiek, gertatutakoa zergatik gertatu zen esplikatzeko. Faktore horiek (oraingainokoa bezala) kontuan hartzen ez dituen azalpena motx geldituko da, Hendai-Hondarribietako esan-eginak zentzuz eta neurritz esplikatzerakoan. Bada ordea, guztiarekin ere, kontuan hartu beharreko bosgarren faktorea: motibazio pertsonalen faktore kointurala. Batez ere Azkuek eta Broussainek ustiatu nahi izango dutena. Has gaitezen lekeitiarrarekin: Azkuek ez dauka interes berezi-berezirik, Hendaiaiko proiektua aurrera atera dadin. Biltzarraren onartutako proiektu hori, hasteko, ez da berea. Berak ez zukeen, inoiz, hain txosten "berezia" egingo, are gutxiago halako "reglamento"-kutsuko lan-programa ezarriko. Hori da, ordea, gutxiena. Besterik da, funtsean, benetako arazoa. Azkuek beldur dio Aranari. Hondarribirako proposatu den, eta biltzarkideek aho batez onartu duten, botazio-kontuaz, bereziki, ez da batere fio. Jakin badaki, urak beren bidetik badoaz bi alternatiba nagusiren artean egin beharko dela Hondarribiko aukera: Aranarena batetik eta berea bestetik. Kalkuluak eginak ditu lekeitiarrak, Hendaiaiko biltzarkideen joerak kontuan hartuz. Iparraldeko euskaltzaleak errazago emango diote bere (hots: Azkueren) ortografiari botoa, Aranaren proposamen hiperfonetistari baino. Horretan ez du duda handirik. Hegoaldeko botoak ere, neurri on batean, bere alde joan litezke: ikusita dago Bilboko *Centro Vasco* edo Euskal-etxeak ere erdi eta erdi bidali dituela Hendaia, Sabinoren eta On Resurrecciónen aldeko kideak. Hori guztia horrela da, baldin Hondarribira etorriko den jendea Hendaia etorritakoa edo horien parekoa bada. Zer gertatuko da, ordea, Aranek bere euskaltzale-jende xumea mobilizatzen badu? Hortxe baitago koska: botoz erabaki behar bada ortografiaren auzia, eta edozein euskaltzale xume boto-emaile izan badaiteke, kopuru hutsaren irizpidea gailenduko zaio kalitatezko irizpide teknikoari. Horrexegatik dio Azkuek beldurra, Aranek Hendaian aurrera atera duen proposamenari. Ezetz ezin izan du argi-argi esan, hori baita euskaltzale gehienek (bera tarteko delarik) onartu berri dutena eta, hori aski ez balitz, horixe baita mahai gainean dagoen aukera bakarra. Onartu den planak ez du, ordea, asebetetzen. Nahiago luke berak, ahal balitz, bestela jokatu. Diputazioetako agintari-jendea euskal gauzetara emanago balitz eta euskal *Ikasola* edo Akademia sortuko balute! Abbadiaren testamentuan euskalgintzarako ezarria geratu omen den diru-asignazio hori behingoz hezurmamituko balitz! Ametsak dira, ordea, horiek. Ametsak? Agian ez. Gizarte-giroa aldatuz doa Hendaiaiko biltzarraren

Herri Aginteak, Bizkaikoak bereziki, euskararen aldeko hitz onak alde batera utzi eta pauso konkretuak egiten hastera doaz.

Abbadiaren alargunaren testamentutik, bestalde, oso berri onak datoz antza. Diru-mordo polita utzia izan behar du, azkenik, euskal Ikasola edo Hizkuntz Akademia sortzeko.

ondotik, astetik aстера. Horrela:

e1) Herri Aginteak, Bizkaikoak bereziki, euskararen aldeko hitz onak alde batera utzi eta pauso konkretuak egiten hastera doaz. Bizkaiko Aldundia semaforo-argi berdea piztera doa, hilabete batzuren buruan, Azkueren hiztegiarentzat: berariazko aretoa jarriko diote Aldundiaren *Gran Viako* egoitza nagusian, bere lan erraldoia inprentarako prestatzeko. Babes ofiziala eta lekua bakarrik ez: dirua ere bai. Aldundiak berak ordainduko omen du argitalpena. Pauso hori ez da oraindik iritsi, baina Azkuek ezaupide zuzenak ditu protagonista instituzional horiekin: badu motiborik, beraz, bere kalkuluak jakinaren gainean egiteko⁶³.

e2) Abbadiaren alargunaren testamentutik, bestalde, oso berri onak datoz antza. Diru-mordo polita utzia izan behar du, azkenik, euskal Ikasola edo Hizkuntz Akademia sortzeko. Orain bai orain tentazioa, eta ez nolana hiko, Azkueri eta bere lagunei eskuetara datorkiena. Abbadiaren testamentuko diru-oinarriaz *Akademia lortzen badugu, zertarako Hendaia plan horrekin gehiegi saiatu? Aldekoxe erraztasunak izango ditugu, diruz eta soldatapeko langilez hornitzen garenean*. Akademiaren bidez, gainera, burutik burura desagertuko dira boto-bide zabalaren arriskuak. Gauzak horrela datozela ikusirik, eta lagunarte hurbila aukeratuz, isilgordeko plan alternatiboa bultzatzen eta esploratzen hasiko dira Broussain eta R. M. Azkue. Eztabaidagarria da, eskuera ditugun datuen argitan, alternatibo izate hori zenbaterainokoa den. Garbi dagoena, hori bai, beste hau da: Aranaren isilpean egin nahi dutela Broussainek eta Azkuek corpus-plangintzarako formulazio alternatibo hori. Horretaz ez dago duda zipitzik. Hartaz ezer argitu nahi lukeenak aski luke Azkueren eta Broussainen elkar-idazkietara jotzea: batez ere 1901eko azarabenduetako dokumentuetara.

Isilgordeko jokabide hori ez da, dokumentu ezagunen arabera, Azkueren beraren inizatiba izan. Iparraldeko euskaltzale-giroan sortu dela dirudi. Motiboa ere garbi asko azaltzen du Broussainek: "J'aimerais autant que Sabino Arana n'assît pas à notre petit conciliabule: j'ai peur de son intransigeance et de son exclusivisme. Bien entendu il fera partie de l'Académie". Horra, beraz, datu berria: Azkue bera ez ezik, iparraldeko zenbait euskaltzale ere beldurtu egin ditu Aranak, Hendaian. Zer dela-eta dira, horiek ere, Aranaren *intransigeance* eta *exclusivismen* beldur? Uste izatekoa da Hen-

⁶³ Gero katramilatuko dira gauzak, bere *Iztegi* honen babes ofizialaren inguruan. Oraingoz ongi aztertu gabe dauden motiboengatik, Tourseko gastuen ordainketa kontua ez da hasieran uste bezain erraza gertatuko. Motibo bi, itxuraz, pisuzkoak izan bide dira:

a) Agintari-jende berria ez du Azkuek, Bizkaiko Diputazioan, aurrekoan bezain aldekoa;
b) Hasieran begiz jotako inprimatze-gastuak gora joan dira Toursen: nabarmen joan ere.

daiako bazkalondoko bilerak, Aranaren proiektua zegoen-zegoenean onartzera eraman duenak, zerikusi nabarmena izango zuela beldur-giro horretan. Hipotesia da hori, ez ongi frogaturiko datua. Badago horren aldeko zehar-aipamenik ere, ordea. Nolanahi ere, Broussainek proposamen jakina egiten dio Bilboko euskara-irakasleari: Hondarribian bertan, azaroaren 18ko bileraren biharamunean, “un conciliabule” egitea. Asmo jakina izango du isil-bilera horrek: “dresser la liste des bascophiles dignes d’entrer à l’Academie”. Kide jakinak proposatzen ditu hazpandarrak, erakunde horretarako: Campion, Azkue, Arbelbide eta Broussain bera.

f) *Batzorde iraunkorraren bateratze-saioa: Hondarribiko lan-bilera.*

Gauzak okertzen ari direla-eta, Zuzendaritza-taldeari bilera-deia egin zaio. Hondarribian egin da batzorde iraunkor horren bilera, azaroaren 18an, bertako udaletxean.

Arana, esan dezagun labur, kezkaturik dago Hendaiaiko plana (epe kontuan eta oinarritzko irizpideetan) baztertzen ari direla konturatzen hasi delako.

Gauzak okertzen ari direla-eta, Zuzendaritza-taldeari bilera-deia egin zaio. Hondarribian egin da *batzorde iraunkor* horren bilera, azaroaren 18an, bertako udaletxean. Batzorde iraunkorraren lan-bilera hori luzea eta bizia gertatu da. Gai asko zituztelako, batetik. Aranaren idazki luzea jaso dutelako, bestetik, zer esana eta zer egina franko emango diena⁸⁴. Arana, esan dezagun labur, kezkaturik dago Hendaiaiko plana (epe kontuan eta oinarritzko irizpideetan) baztertzen ari direla konturatzen hasi delako. Hondarribian bildutakoak, berriz, minduta daude Aranaren idazki horrekin. Lehendik zituzketen beldurrak areagotu egin ditu, dudarik gabe, azken hila-beteko joan-etorriak. Zer egin? Azpibatzerde bat izendatuko da, hurrengo goizean goiz Aranari zer erantzun erabakitzeko. Campion, Azkue, Gerra, Mujika eta Broussain dira, ezaguna denez, azpibatzerde horren kideak. Eta gero, Aranarentzako erantzun-prestaera hori egindakoa, Broussainek prestaturiko *conciliabule*-bilkuraxka egingo dute lauzpabost lagunek⁸⁵. Gauza bi argitu nahi lituzkete, ahal den neurrian: batetik, Abbadiaren herentziarekin Akademiarik sortzerik izango ote duten; bestetik akademikotarako nor aukeratu behar den. Alferrik ordea: uste baino gordinago daude, benetan, Abbadiatarren testamentuko diru-kontu horiek.

Azaroaren 18ko bilera izan da, nolanahi ere, Hendaiaiko biltzarrean onartutako planaren hilobia. Saiatu ere saiatuko dira, talde-erantzunaz zein buruz buruko eskutitzez, Arana lasaitzen, bere plana aintzakotzat hartuko dela esaten. Jakin badakigu, ordea, azaroaren

⁸⁴ Sukarrietan dago Arana, esan bezala, eta ezin izan du Hondarribira joan. Eskutitz luzea bidali du, hori bai, Zuzendaritzatik egin zaizkion galderei puntuz puntu erantzunaz. Erantzun gordinek ez da tartean falta; haserre bizikorik ere ez. Hautsak astindu ditu Hondarribian, nolanahi ere, bere karta horrek.

⁸⁵ Azkue, Broussain, Campion, Arbelbide eta, agian, Joanategi izan dira, itxuraz, bilkuraxka horretan. Batean eta bestean zein dabilizan begiratzen bada, garbi dago kontrol-ahalmena une honetan nork daukan: Azkue-Broussain bikoteak.

18ko eta 19ko bilerakideak ez daudela abandoarraren bidetik aurrera egiteko prest. Eguna baino argiago geratuko da hori asteak aurrera joan ahala, beren idazkietan.

g) *Aranaren haserrebidia.*

Isilgordean ibili nahi izatea, Azkue-Broussain eta beste zenbait lagun ari diren bezala, gauza bat da. Benetan isilik gordetzea, berriz, bestea. Urritik abendura doan tarte horretan, batez ere azaroaren 18tik aurrera, etxean gaixorik egonik ere laster antzematen du abandoarrak gauzak okertuz doazela eta zenbaitek ez diola egia osoa. Bera, berriz, ez dago horretarako prest. Nork aginduta aldatu dute lau (demagun bost) kideko Zuzendaritza-batzordea? Zergatik apurtzen ari dira Hendaian erabakitako epe guztiak? Zergatik nahi dute, Hendaian erabakitakoaren kontra, grafia kontuak puntuz puntu bototara jarri eta ez, berak proposatu eta biltzarrak onartu bezala, guztia blokean erabaki? Zer dela-eta gelditu behar dute atzerritarrek zeharo kanpora, datorren urtean Hondarribian egingo den ortografi bilkuran? Nor ari da, eta zergatik, Hendaian erabakitakoak hankaz gora jartzen? Ekintza-gizona da Arana, lehenik eta behin. Oraingoan ere ez da, hortaz, zer egin jakin gabe burumakur geldituko. Inorekin (hots: berarekin) kontatu gabe hasierako planak birmoldatzen ari direla ikusirik, kezka-girotik haserrera pasako da Arana. Eta hasieran aho batez onartutako plana goitik behera aldatu diotela sentitzen duenean, haserretik amorru bizira pasako da. Beregan ohikoa den moduan, erabateko hordagoaz erantzungo du. Aranak ez du Hendaian erabaki zena ia ezertxotan aldatu nahi izango (fetxa kontuan izan ezik, hori ezin baita konpondu), eta Azkuek berehala usain egingo du ekaitza datorrela.

Proiektu osoaren nondik norakoa eskuetatik ihes doakiola konturatzen da Arana, garbi-garbi, gabonak inguruan. Eta orduan bai: amorruaren amorruz kolpea emango du Aranak urtarrilean, guztiek (Broussainek salbu, bere uste okerrean) abandonatu edo saldu dutela sentitzen duenean. Urte berriarekin bat, isilgordeko manio-bran hasiko da bera ere. Bere alderdikide jakinei (hogeiren bati?), Hondarribiko ortografi bilkuran parte hartzeko sinadurak (bakoitzak hamar-hamabi) biltzeko eskatuko die, eta Guilbeauri bidaltzeko esango, “nor bere kabuz” ari balira bezala. Gehiago ere esaten die: sinatzen duten alderdikide horiek ez dutela gero, benetan, Hondarribira joan beharrik izango. Aski izango dutela nork bere botoa etxetik ematea: gehien gustatzen zaien ortografi sistemari (hots, Sabinorenari) aldeko botoa ematea, horixe da xedea noski. Datorren irailean, hainbat sinadura bere alde dituela, *goxua* eta *etxia* aterako da nagusi, ez *gozoa* eta *etsea*.

Inorekin (hots: berarekin) kontatu gabe hasierako planak birmoldatzen ari direla ikusirik, kezka-girotik haserrera pasako da Arana.

Proiektu osoaren nondik norakoa eskuetatik ihes doakiola konturatzen da Arana, garbi-garbi, gabonak inguruan. Eta orduan bai: amorruaren amorruz kolpea emango du Aranak urtarrilean.

Eskuetatik joango zaio abandoarrari, erabat joan ere, bere maniobra hori: zenbait alderdikidek, hamar-hamabi firma ordez, hirurogei ere bildu ditu.

Azkuek kolpean erantzungo du: *"Horra nik esaten nuen! Tranpatan ari zen Arana hasieratik, bere plana aurkeztu zuenetik. Hona hemen, azkenean, bere tranpa horren ondorioak. Umeek umekeriak egin nahi badituzte, ez dezatela euskaltzale serioekin kontatu"*.

Eta Aranak, azkenik, hogeita hamaika eskutik daukala uste izango du: *"guri (bizkaitarrioi) kasu egiten ez bazaigu, geure ortografia erabakiko dugu. Gainerakook hor konpon"*.

Eskuetatik joango zaio abandoarrari, erabat joan ere, bere maniobra hori: zenbait alderdikidek, hamar-hamabi firma ordez, hirurogei ere bildu ditu. Hirurehun eta hogeia sinadura etorri dira kolpean, Aranaren ingurumenetik, Guilbeuren bulegora. Lekutan gelditzen dira Broussainen hamar kide "aditu"-ren arteko kontu haiek. Arazoa ez da, gainera, kopuruzkoa bakarrik. Kopuruaz gainera, eta horren aurretik, fidagarritasun teknikoaren eragozpen larria dago. Aranaren aldeko 320 izen-emaile horietariko gehien-gehienak, dudarik gabe, ez dira ortografi kontuan jakitunak. Euskal idazleak ere ez, hamarretik bederatzi. Are gehiago: izenpetzaille horietariko asko eta asko eskolagabeak dira. Eskolagabe hutsak edota, nolana ere, euskaraz irakurtzen eta idazten inolako ohiturarik gabeak. "Euskaltzale" hitza, hori eta horrenbestez, "alderdikide"-tara transformatu du S. Aranak⁸⁶.

- h) Azkuek kolpean erantzungo du: *"Horra nik esaten nuen! Tranpatan ari zen Arana hasieratik, bere plana aurkeztu zuenetik. Hona hemen, azkenean, bere tranpa horren ondorioak. Umeek umekeriak egin nahi badituzte, ez dezatela euskaltzale serioekin kontatu"*. Zer hasi behar du berak, euskaraz inoiz ezer irakurri ez duen Elantxobeko arrantzale batekin grafia kontuak eztabaidatzen? Arrazoi oso du, horretan, Azkuek: horrela ezin da ortografiarik bateratu.
- i) Eztabaida, deskalkifikazio eta kontra-argudio luzeetan barrena amilduko dira, hortik aurrera, batzuek eta besteak. Aranari desitxuratu eta ezabatu egin diote, isilgordean egin ere, Hendaiako biltzarrean ofizialki erabakitako plana. Berak, ordea, inork defenditu ezin duen muturrera, tranpa bidez noski, eraman du auzia. Guztiek dute arrazoi-zati bat. Elkarrengana bildu eta nork bere erruak aitortzeko gogorik, ordea, ez da inon ikusten. Eta Aranak, azkenik, hogeita hamaika eskutik daukala uste izango du: *"guri (bizkaitarrioi) kasu egiten ez bazaigu, geure ortografia erabakiko dugu. Gainerakook hor konpon"*. Gainerakoek beldur diote mehatxu horri: konturatzen hasiak baino gehiago daude, dagoeneko, ortografia zientifiko hutsik ez dagoela inon; benetan euskaraz idazten duen (edo idazteko bidean doan) jendearen gogoia irabazi gabe alferrik direla jakintsu "handi"-en erabakiak.

⁸⁶ Kontuan izan ditzagun, ordea, ondoko bi elementuok:

a) Aranaren aldeko 320 sinatzaile horien izen-zerrendarik ez da inoiz egin. Hipotesiaz ari gara, beraz, horretan. Motibo sendoak daude, halere, Azkuek sinatzaile askoren kualifikazio teknikorik ezaz dioena zuzena dela uste izateko. Askorenaz dioena bai, seguruenik. Zenbat dira ordea, 320 horien artean, benetan, ezjakinak?

b) Hurrengo mende-laurdenean, *euskal idazle*-en loratze-aldi zabala gertatuko da hegoaldean oro har, eta Bizkaian bereziki. Nola jakin loratze-bidean doazen horiek 320en artean dauden edo ez dauden?

Sabino Aranak, urtarrileko bere hanka-sartzeaz jabeturik, erdibideko formula ekarri du besapean. Boto guztiei ez litzaieke, formula horren arabera, pisu bera emango.

Berandu da ordea: egun horretan bertan, Donostiako emaitzaren berri izan orduko, fruta oraindik gordinik dagoela erabakiko dute iparraldeko Broussainek, Arbelbidek, Daranatzek, Darrikarrerek eta abarrek.

j) Konponbide baten bila jardungo dute azkenik, Adema-Zaldubik eta Guilbeauk iparrean eta Campion-Azkuek hegoan, 1902ko otsailetik aurrera. Berriazko bilera antolatuko dute, martxoaren 10ean hain zuzen, hasiera-hasierako (hots, Hendaian eratu zenetik inoiz bildu ez den lau kideko) batzorde iraunkorarekin.

Zaldubi, Guilbeau, Campion eta Arana aurrez aurre bildu dira hortaz Donostian, Bulebarreko *Hotel La Estrellan*, auzia konpontze aldera erdibideren bat bilatzeko. Sabino Aranak, urtarrileko bere hanka-sartzeaz jabeturik, erdibideko formula ekarri du besapean. Boto guztiei ez litzaieke, formula horren arabera, pisu bera emango: gradazio oso bat egitea proposatzen du berak, irizpide jakinen arabera boto-emaille batzuei puntu bat atxikiz, beste batzuei bi, zenbaiti hiru eta abar. Formula hori ere diskutigarria da: zer dela-eta balio izan behar dute Elantxobeko bost arrantzalek, boto kontuan, R. M. Azkuek adina? Nork erabakiko du, gainera, urliari puntu bat dago kiola, sandiari bi eta abar? Aranak ekarri duen proposamena zehaztaperen reglamentistaz horniturik dago, baina ez da aplikazio mekaniko hutsekoa. Neurri batean pentsatu ere egin liteke, nolabaiteko adostasunera iritsi nahi dutela. Arana eta Campion, nor bere aldetik, aurreko hilabeteetako gorabeherak argitzen saiatzen ari dira. Hurbilpen modukorik badagoela dirudi *La Estrella* hotelean, puntuz puntuko xehetasunetan sartuz eta, zenbait kasutan, ondorio bateratura iritsiz. Guilbeau ezkorrago eta zorrotzago agertu da, ordea, hasieratik beretik. Zaldubik, bestalde, ez dakigu justu nola jokatu duen. Beste zenbaitetan gertatua kontuan izanik, taldea bateratzen saiatuko zela pentsa liteke. Saiatu bakarrik ez: zertxobait aurreratu ote den iruditzen zaio, eta aurrerapen horren berri eman nahirik itzuli da Baionara, bertako lagunei Donostiako esan-eginen berri ematera.

k) Berandu da ordea: egun horretan bertan, Donostiako emaitzaren berri izan orduko, *fruta oraindik gordinik* dagoela erabakiko dute iparraldeko Broussainek, Arbelbidek, Daranatzek, Darrikarrerek eta abarrek. Gordinik dagoela, eta hobe dela ortografia bateratzeko kontua oraingoz bertan behera uztea. Nahigabe handia hartuko du Zaldubi-Ademak, "bere lagun" jokoeraz. Abandonatu egin dutela sentituko du, eta erabateko etsia hartuko. 1902ko martxoaren 10a da, hortaz, Hendaia porrotaren erabateko eguna. Hortxe amaitu da guztia. Handik aurrera, 1956ra arte, kontu horretaz ez du inork berriro, itxuraz, hitz-erdirik egingo. Oso mingarria izan da bateratze-saioa, hartan jardun duten askorentzat. Eta batzuek, Azkuek bereziki (baina L. Eleizalde eta J. Urkixok ere bai, handik gutxira), kontuak argi aterako dituzte. Ortografia zientzi kontu hutsa deneko fantasiak han amaitu dira. Besterik ere ulertu du, itxuraz, zenbait:

kulturgintza ezin da, arrazoi bidez jokatu nahi bada, alderdi jakin baten edo besteren esparru itxira mugatu. XX. mendeko euskal gizartea aurreratuegia dago, gogoz kontra eta luzaro giltzape horretan jarduteko. Xehetasun asko eman litezke, sei hilabete horietan gertatuaz. Funtsezkoenak, halere, goiko horiek direla iruditzen zait.

Badakit goiko deskribapen hau askotxo urruntzen dela ia mende erdiz (1957 ingurutik aurrera) indarrean egon den bertsio ofizialetik. Gauzak horrela izan direla uste izateko motibo sendoagoak daude, ordea, oraindainsa eskuratu ahal izan diren dokumentuen argitan. Funtsean, esplikazio-saio hau hiru puntu jakinetan urruntzen da orain arteko bertsio ofizialetik:

Hendaiako biltzarra egin ondoko bateratze-saioan zehar, urte-erdi luzean, hanka-sartze ugari egin zen eta hanka-sartze horiek askorenak izan ziren, ez pertsona bakarrarenak; bide okerretik abiatutakoa, orduko dokumentuek diotenaren argitan, ez zen S. Arana izan.

- k1) Hendaiako biltzarra, gorabehera nabarmenik izan bazuen ere, aski arrakastatsua izan zen berez.
- k2) Hendaiako biltzarra egin ondoko bateratze-saioan zehar, urte-erdi luzean, hanka-sartze ugari egin zen eta hanka-sartze horiek askorenak izan ziren, ez pertsona bakarrarenak;
- k3) bide okerretik abiatutakoa, orduko dokumentuek diotenaren argitan, ez zen S. Arana izan. Aho batez onartutako biltzar-erabakiak baztertu eta, isilgordeka edo erdi-isilean, bide berriak zabaltzen hasitakoak beste batzuk izan ziren: kronologia ezin da itzulipurdikatu.

Sarreran esan den bezala behin-behineko ondorioak dira, ezinbestean, Hendaiako biltzarraz eta biltzar-ondorenaz azterlan honetan plazaratzen direnak. Argudiobide zehatza eman nahi izan da, hori bai, kontu-ateratze hori egiterakoan. Argudio horien benetako zehaztasuna eta balio-indarra bihar-etzi argitu beharko dira, dokumentu berriak (halakorik balego) kaleratu eta lehendik han-hemen dagoen informazioa hobeto egituratu ahala. Hizkuntz soziologiaren hurbilbideak, bien bitartean, gure artean inoiz gutxitan aitortu ohi den gertaera nabarra begien bistaratu digu: linguistika hutsetik harantz dagoen ekimena dela hizkuntz plangintza. Ez status-plangintza bakarrik (hori gero eta onartuago dago gure artean), corpus-plangintza ere baizik. Abandoarraren *umekeria*, *izugarrikeria* hura zerbaiten seinale da, lehenik eta behin. Baita Broussain-Azkue bikotearen isilgordeko kaptazio-bide hautetsia ere: giza arteko interes-lehia bizia eta gizarte osoaren soziokulturazko eztabaida (une eta leku jakineko konstelazio ideologiko nagusien konfrontazio-giroa, alegia) adierazten digu, besteak beste, ustez eginkizun “tekniko hutsa” behar zukeen corpus-plangintzaren esparruko jardunbide horrek guztiak.

Hendaiako biltzar-emaizten kontuak ez ziren ordea, osorik eta erabat, 1901eko martxoaren 10eko bilerarekin amaitu. Ortografia bateratzeko proiektua bai: hilabeteetako bide-galtze ugarien ostean hantxe amaitu

zen proiektu horren prestalana. Aldiz beste proiektuak, *Fédération Littéraire Basque* sortzekoak, aurrera egin zuen: nola edo hala, baina aurrera. Horretaz jardungo dugu, hain zuzen, hurrengo atalean.

VIII. Hondarribiko biltzarra: prestaera eta esan-eginen kronika

Hendaian euskal ortografia
bateratzeko egindako
bilkuraren jarraipena da
Hondarribiko hau, alde askotatik
begiratuta.

1902ko irailaren 1ean⁸⁷ Adema-Zaldubi lehendakariak eta Martin Guilbeau idazkari nagusiak egindako deiari erantzunez, *Fédération Littéraire Basque* delakoaren bilkura ospatu da Hondarribian, urte horretako irailaren 11n. Iaz, Hendaian euskal ortografia bateratzeko egindako bilkuraren jarraipena da Hondarribiko hau, alde askotatik begiratuta. Antolatzaileak orduko Zaldubi, Campion eta Guilbeau dira. Orduan, iazko bileraren azken orduan, hartutako erabakia hezur-mamitzera etorri dira. Hendaian izandako hainbat biltzarlagun ere, iparraldeko apaiz-mediku mordoska bereziki, Hondarribira etorriak dira. Kontuen berri dakitenek ongi aski dakite, ordea, Hondarribiko hau ez dela Hendaia-koaren jarraipen hutsa. Egitarauak garbi adierazten duenez, goizeko hamaiketan hastekoa da 1902ko irailaren 11ko bilkura hori. Bazkalondoan, ordubetan ekingo diote berriro: hala dago, behintzat, begiz joa. Udaletxearen areto nagusian egingo da biltzarra, alkate jaunaren ongi-etorriaz eta hasierako hitzaldi batez. Udala, egia esan, portatu da. Zezakeen neurrian saiatu da, bai horixe, biltzarkideei egonaldi atsegina prestatzen. Areto nagusia eskaintzeaz gainera “diferentes festejos típicos y característicos del país” antolatu ditu biltzarkideen omenez. Bertsolari-saioa ere bai, balkoitik balkoira aurrez aurre⁸⁸. Arratsaldean, bestalde, arauzko biltzarkideek bakarrik bilkuran parte hartu ahal izango dutela jakinarazten du programak. Egitarauaren mamiari dagokionez, honako gai-zerrenda hau du *Fédération Littéraire Basque* horrek aztergai. Miarritzen inprimatua da Hondarribiko bilkura horretarako dei-orria. Aski gauza logikoa, lehendakari-idazkariak biak frantses-euskaldunak direla kontuan izanik:

⁸⁷ Ikus xx.eraskina

⁸⁸ Ez dut oraindik konprobatzerik izan, eta hipotesia besterik ez da oraingoz, baina aurrez aurre jardundako bi bertsolariak Pello Errota eta Udarregi izan zirela uste dut. Berto-saioa honela hasia izango zuten, uste horretan zuzen baldin banabil:

Pello Errotak: Berez kupi gaitzala guzior Jabiak,
ta eman ditzraigula abilitadiak;
orain astera goaz predikadoriak;
beñe kolejiuan ibili gabia.

Udarregik: Asiera eman du Pello Errotariak,
batek ainbat eginkizun badaukagu biak;
aitortuko ditugu publiko egia:
gure kolejiuak sagardotegia.

Batak zein besteak aipagai duten *kolejiua*, ez da inolako huskeria. Bertsolariak oso ondo konturatzen dira, bilkura horrek baduela zerbait berezia. Bai bertara bildu den hainbat lagun jende ikasia delako, eta bai hizkuntz plangintzaren inguruko saio horiek ezaugarri nabarmena dutelako, aldeaz edo moldez: ordura arte L hizkuntza izandakoa H funtziora eraman nahia. Sagardotegitik kolejiarako saltoa, beraien hitzetan.

Han-hemenka sortzen, eta maiz asko handik berehala indargaltzen, hutsaltzen eta iraugitzen diren elkarte-asmo euskaltzale haietariko bat gehiago izan liteke, lehen begiratu batean.

Beste gauzetan dauka jendeak interesa, ostegun horretan: oraindik amaitu gabe dagoen Donostiako udaldian, bereziki.

- 1.- ordurainoko (hots, behin-behineko) Zuzendaritza-batzordearen esan-eginen kontu-garbitzea;
- 2.- sortzekoa den elkartearen araudia irakurri, eztabaidatu eta onartzea. Elkartearen izena bera erabakizun dago;
- 3.- biltzarkide berriak hartzea;
- 4.- Zuzendaritza-batzordea hautatzea; eta
- 5.- elkarte berria osorik antolatu eta hurrengo urteko bilkura non izango den erabakitzea.

Dei-orri hori irakurriz ez dirudi bilkurak, azken urtebeteko gora-behera agiri eta izkutuen berri handirik ez lukeenarentzat, ezer apartekorik dakarrenik: han-hemenka sortzen, eta maiz asko handik berehala indargaltzen, hutsaltzen eta iraugitzen diren elkarte-asmo euskaltzale haietariko bat gehiago izan liteke, lehen begiratu batean, Hondarribian 1902an eratzekoa dena. Zenbait aldizkarik ere, ohi den moduan, iragarria dute aurretik bilera horren noiz-nongoa. Abisu labur eta hotzak dira, halere, horietariko gehienak. Inork gutxi iritzi-azalpen zabalagoetan "busti" nahi du, antza, bilkura hori dela-eta. Ramon Artola donostiar neurtizlaria izan da itxuraz, bere onginahiezko olerki labur-xumeaz, hostasun horren pean bestelako ur irakinik balegokeela aditzera eman duen bakarra⁸⁹. Beste gauzetan dauka jendeak interesa, ostegun horretan: oraindik amaitu gabe dagoen Donostiako udaldian, bereziki. Miramar jauregian daude errege-erreginak, eta gerra-ontziak bertara etorri dira: *acorazado Pelayo*, *crucero Cardenal Cisneros*, *cañoneros*... hala dio behintzat *La Unión Vascongada*. Bertako duque de Mandas jauna, Londresen enbajadore dagoena, atzo itzuli omen da Madrildik. Eskuin-muturreko Derroulade frantsesa Suitzara partitzeko puntuan omen da, Donostiako desterruan aski gustura egon ondoren. *La Unión Vascongada* horren gaur zortziko alean, jakina, Sabino Aranaren kontua izan da gai mamitsua: Bilboko bere alderdikideak Donostiara etorri dira, erregeari mezua ematera eta Sabinoren askatasuna eskatzera. Kontua ez da txantxetakoa: 8365 sinadura ditu bizkaitaristen eske-idazki horrek. Alderdi politiko diferentetako kideenak ere bai. Bertako giroa aldatzen ari da. Erregea bera Bilbora joango omen da, zer gertatzen ari den xehekiro ikustera, eta Gobernuak ez omen ditu oraingoz bizkaitaristen ordezkariak hartuko. Kontu xumeagoetara gatozen, ordea. Egundoko festa izan da atzo Teatro Printzipalen: jendea gainezka. *Orfeón Donostiarra* kontzertua zuen antolatua. Ekitaldi bakarreko sainete-antzerkia ere bazen, kontzertuaz gainera. Euskaraz, jakina. Toribio Altzagaren *Aterako gera*. Pepe Artola antzezleri, beste hainbatetan bezala. Ikusle-entzuleak

⁸⁹ Ikus bere olerkitxo xumea, egun horretako *El Correo de Guipuzcoan* argitara emana: "Ondarribiako bilzarkidari gure izkuntza maitagarria gatik" izenburuaz.

Hondarribiko biltzarraren hurbilagoko konturik ere bada gaur Donostian aipagai: hil honen amaieran (irailaren 29an) Oñatin egingo diren Euskal Jaien antolamendu-batzorde ofizialaren aipamena.

txaloka leheru beharrean. Hondarribiko biltzarraren hurbilagoko konturik ere bada gaur Donostian aipagai: hil honen amaieran (irailaren 29an) Oñatin egingo diren Euskal Jaien antolamendu-batzorde ofizialaren aipamena. Hiri kosmopolita ari zaigu Donostia bihurtzen: musika-lehiaketaren aitzakian berrehun bat automobil etorri dira, zalgurdiak ehunka ikus daitezke Boulevarden, Alderdi Ederren eta Avenidan, trenak berriz etengabe datoz Norteko estaziora eta Amara zaharrea,... Berez 40.000 bizilagun izan ohi dituen *Bella Easori* beste 36.000 bisitari erantsi zaizkio. Emaiezu horiei Hondarribiko asmoen berri. Gutxi harritu, beraz, bertako prentsak hain abisu-dei labur eta eskasa egin izana.

Aldez aurretiko hostasun hori baino hagitz nabarmenagoa izango da, ordea, bilera-eguna pasa eta handik aurrerako isiltasuna: egunkari nahiz aldizkarietan, euskaraz zein erdaraz, ez da urte askoz elkarte haren sorrera-bilera publikoaz ia ezer esango. Zaila da beraz, oso, Hondarribian bene-benetan zer gertatu den jakitea.

Zailtasun hori nolabait arintze aldera, has gaitezen errazenetik. Zenbat jende bildu da Hondarribian? Hendaiaiko kopuruaz eman ahal izan dugun erantzuna hala-holakoa izan bada, oraingoak are ahulagoa izan beharko du. Dasantzek, handik mende-erdira edo, ehun eta hamabost lagun bildu zirela esango du. Badakigu, ordea, zenbaki hori nondik (hots, zer izen-zerrendatetik) jaso duen. Ez da ezinbestean iturri okerra, hobetik ez baitago gaur-gaurkoz. Jakin badakigu, ordea, erabat zuzena ez dela. Gatozen bigarren puntura: nork hitz egin du Hondarribian, eta zertaz? Idatzizko txostenak irakurri al dira, ala hitzez (eta burura etorri ahala) jardun dute soil-soilik? Eta zer hizkuntzatan? Zer ondorio konkretu ateratu da Hondarribitik? Galdera askotxo, eta garantiako erantzun zehatz gutxi. Gatozen dokumentu-oinarri fidagarrietara.

Ortografiaren batasunaz hitz egin al da bilkuran? Erantzuna, erantzun nagusia, ezezkoa da. Horra hor lehenengo datu gogoangarria.

Ortografiaren batasunaz hitz egin al da bilkuran? Erantzuna, erantzun nagusia, ezezkoa da. Horra hor lehenengo datu gogoangarria. Hendaiaiko ortografi bilerari segida eman al zaio, hasieran erabakitako moduan, Hondarribiko bilkuran? Irailaren 11ko bilera horretaz eman izan den mamizko informazioa, gure artean luze-zabal korritu duen esaera ezaguna, badakizue zein den: Hondarribiko bilerak, aurreko urtean Hendaian egindakoak bezala, porrot egin duela, eta begiz joto-ko helburu nagusia (euskararen ortografia bateratzea) lehen bezain gordin edo are okerrago gelditu dela. Hondarribirako bilera-deian ez da ordea, gorago azaldu denez, ortografi konturik aipatzen, aski bes-telako eginkizunak baizik. Hitz egin ere, *Eskualduna* astekariak (1902-IX-19) emandako argibideen arabera, bilera-deian iragarritako puntuez hitz egin da bertan. Hona, konkretuki, irailaren 19ko *Eskualdun* kazetak zer dioen:

Jaun Alkaldeak erran du eskuaraz zoin atsegin handiarekin ikhusten zituen Ondarrabira bilduak Frantziako eta Espainiako eskualzale ohoragarri eta famatuena.

Gero etsaminatu dute phonduz phondu kontseiluak preparatu erreklamendua, zoina agertua izanen baita ondoko egunetan.

“Ihabethe hunen hamekan izan da Ondarrabian, Espainian, Eskualzalen biltzarra.

Arras ongi errezibituak izan dire hiriko aitzindariak, bereziki auzaphez edo alkaldeaz. Herriko etche-nagusian, kontseilua biltzen den salan egin da bilkhura. Kampoz eta barnez edergailuz bethea etche hura. Alde orotan ageri ziren hitz hauk: Ongi ethorri.

Bilkhura hasi da goizeko hameka orenetan. Morde Adema, Bayonako kalonje ohoragarri eta errespetagarriak gidatu du. Jaun Alkaldeak erran du eskuaraz zoin atsegin handiarekin ikhusten zituen Ondarrabira bilduak Frantziako eta Espainiako eskualzale ohoragarri eta famatuena.

Haren ondotik egin du Morde Guilbeau, Donibane Lohitzuneko medikuak, bertze diskurtsa eder bat, zointan esplikatu baitu zer lanak eta urhatsak egin dituen jua den urthean Hendayako bilkhuran izendatua izan zen kontseiluak.

Azkenean mintzatu da Morde Broussain, Hazparneko medikua Gipuzkoako mintzairean, arras ederki eta garbiki, erran du zer behar luketen egin Eskualdun guziek. Nahi luke zerbait laguntza emanarazi eskuaraz okupatzen diren kazeta, liburu, eskola egileri. Heiek hola lagunduz heda laiteke geroago eta gehiago gure Eskuara maitea.

Bilkhuran ziren guziek laudatu dute idea hori eta hitzeman urthe osoz emanen dutela bakhotchak bederen sei libera.

Gero etsaminatu dute phonduz phondu kontseiluak preparatu erreklamendua, zoina agertua izanen baita ondoko egunetan.

Phentsatzeko den bezala, ez ziren bilkhurako membro guziak idea berekoak; bainan oro erori dire gehienek nahitarat.

Zombaitek nahi zuten ere kontseilua erreberitu; bainan lan horren egiteko mementua ethorri orduko berantche zen, jadanik zombait lagun urrunekoak jua ziren eta utzi dire gauzak aintzinean bezala, erranez heldu den urthean ikhusiko dela zer egin Donibane-Lohitzunen egina izanen den bilkhuran”.

Gauza batzuk argi daude beraz, Hondarribiko bilkuraz. Herriko alkaterearen protokolozko jardunaz aparte, hiru lagunek eraman dute bilkura osoaren pisu nagusia: Zaldubi burulehenak, Guilbeau idazkariak eta Broussainek. Protagonismo hirukoitz horrek funtzio-banaketa argia du:

- a)Adema-Zaldubik, “betiko” euskalgintzaren zilegitasun sinbolikoa eskaini dio proiektu berriari.
- b)Guilbeau, aldiz, zilegitasun operatiboaz arduratu da: lehendik (Hendaikatik) datozen erabaki formalen arauzko aplikazioa da gaurkoa, eta bera da horren berme-emaile. Bere urte t’erdiko lanaren zurigarri ere bada hori, bide batez.
- c)Broussain, azkenik, proiektuaren hezuramaitzaile lanean agertu da

jendaurrean. Eguneroko lan isil, jarrai, ongi katigaturako hain nagia den gizona antzaldatu egiten da une jakin-berezi horietan: hor ematen du hazpandarrak bere formazio soziolinguistikoaren betea.

“Broussainen bilkura” izan da, inorena izatekotan, Hondarribikoa. Bai formagatik eta bai mamiagatik. Has gaitezen formarekin.

Ehun urteko iraupena izango duen Eskualzaleen biltzarraren araudia, berariaz landu eta, itxuraz, onartu da Broussainen interbentzio horri eskerrak.

“Broussainen bilkura” izan da, inorena izatekotan, Hondarribikoa. Bai formagatik eta bai mamiagatik. Has gaitezen formarekin: bere herriko edo eskualdeko euskalkiaz gainera orotariko hizkera-molde jasoaz baliatzeko gai den mediku baten aurrean daude Hondarribiko entzuleak; horrelakorik gutxitan gertatzen da. Euskararen aldeko status-plangintzari aplikazio-ardatz argiak ezarri dizkio, bestalde: komunikabideak (*kazeta*), irakaskuntza (*eskola egileak*) eta ahozko literaturatik harantz doan kultur produkzio idatzia (*liburuak*). Hiru ardatz horiek berez bezala eskatzen duten idazteredu bateratuaz, gutxien-gutxienez ortografiaz, ez du halere hitzik egin.

Planaren logistikak, biltzarkideen diru-emaitzaren zenbatekoak, berriazko interesa piztu du oraingoan ere. Eta araudia, ehun urteko iraupena izango duen *Eskualzaleen biltzarraren* araudia, berariaz landu eta, itxuraz, onartu da Broussainen interbentzio horri eskerrak. Puntu hori ere azpimarratzekoa dugu: beste hainbat izen eman izan da, biltzarraren hasiera hartako hezurmamitzaile nor izan zen esaterakoan. Dokumentu horren argitan badirudi, ordea, elkarte horren bultzatzaile nagusia, sortzeko une horretan, Broussain bera izan dela. Egia ote da hori? Nola argitu liteke, edozein erakunderen historian hain gogoangarria izan ohi den kontua?

Hiriart-Urrutiren *Eskualdunak* era hotz eta aseptikoan adierazitako kronika horrezaz gainera, argitasun handirik nekez bila liteke. 1902ko irailaren 11n gertatu zenaz dakiguna, mamiaren mamira bagoaz, iturburu bitatik dakigu kronika horrezaz gainera: P. Broussainek Hondarribiko bilera izan eta handik zortzi egunera Arbelbideri egindako eskutitz batean dioenetik, batetik; Etxepare jaun medikuak handik hamaika urte eta gehiagora idatzitako artikulu batean egiten duen aipamenetik, bestetik. Ikus ditzagun biak, hurrenez hurren.

Broussainek honela dio, hitzez hitz (gaztelaniazko itzulpenez), Arbelbideri egindako eskutitzean:

“Ud. Debe estar informado ya, más o menos, yo supongo, y no ignorará que el Congreso se ha terminado (en) un fracaso completo. La sesión de la tarde ha sido absolutamente escandalosa y burlesca a la vez, gracias a la presencia de un verdadero loco llamado Saubot-Dambourgez que el Sr. Adéma había llevado con él de Bayona y a quien no ha pensado un solo momento en retirarle la palabra, a pesar de sus insensateces, sus invectivas, sus gritos. Finalmente, después de haber votado penosamente los Estatutos, nos separamos en

medio de un tumulto y de un lodazal espantoso, sin poder constituir un Comité definitivo. Yo espero que después de una parecida prueba de su insuficiencia los señores Adéma y Guilbeau tendrán el pudor de retirarse definitivamente y dejarnos tranquilos”.

Porrot osoa izan da beraz, Broussain hazpandar medikuarentzat, Hondarribiko bilkura. Berak ez du bere burua, inola ere, garaile edo auzi-konpontzaile ikusten.

Porrot osoa izan da beraz, Broussain hazpandar medikuarentzat, Hondarribiko bilkura. Berak ez du bere burua, inola ere, garaile edo auzi-konpontzaile ikusten. Ez auzirik konpondu da, bere ustez, eta ez garaile atera da bera. Hala ikusten ditu gauzak: Hondarribia (Hendaia ez bezala) “fracaso completo” izan da bertako aktore nagusiaren ustean. Kongresuaren antolatzaile nagusiak jotzen ditu, ikusten denez, hutsegite horren errudun nagusi.

Ettxepare medikuak handik hamaika urtera idatzitakoak, azkenik, honako hau dio:

“O! Lehen biltzar hura Ondarrabiako herriko-etxe aberats, ederrean! Beldurtu ginen, arimaz egia, ez ote zoanez berriz hastera han Babeleko dorrea. Euskal mintzaiak mendien bi hegaletan dauzkan hizkuntza guziak aditzen ziren barne hartan, zoin bere azantz bereziekin; heiekin batean, nahasteka, frantses eta espainola, bai eta angles izpi bat.

*Zertaz zen solas jakitea, lana zen; orobat eta are gehiago, izaitokotz, zer gogo zuketean, zer xede, harat bilduek. Politika bat sendi zinezaken, batetik bertzera ximixtatzen ziren behakoak bezain gaixtoa. Airean bazabiltzan, ahapetik, bainan zorrotz, erdarazko hitz gaitz hok: **franc-maçon, clerical,** eta holako.*

Gora mintzo ziren gazte batzu, deus etzakitenak; xahar batzu, aita familiako beren haurrer euskara hitzik erakustea nahi ukan etzutenak, oihuka aldiz hek, euskararen alde: bizpahiru, euskararen etsai gorriak, kalapitan, huni laidoz; jakintsun batzu, beren ikasiak oro batean ezin agertuz nekatuak, eta kexu. Maipurua, Zalduby xahar ohoragarria, arrunt erlastua, eri, beti bere xilintxa eskuan, hura ezin... aski inarrosiz...

Goizean, bi jaun bizikisko hizkatu ziren. Sar-ateraldi bat egin behar ukan ginuen guziek karrikan, jabaldu artio heien bien eta ororen samurra. Eguerditan beharrik, bazkaritako ateratzearekin, bi koplari zoin gehiago arizan zitzauzkigun, karrika arte, galeria batetik bertzera bekoz beko, aldizkatuz koplak Gipuzkoako mintzai arinean. Egiatzko euskaldunak bi laborari gaizo hek bederen, beren begitarte larruhas eta luze, soineko beren xamar eta bonetekin, makila bedera zaukate-la ukaretik dilindan!

Arratsaldean makurrago baizik ez: burrunba bat, bururik ez buzta-nik gabea. Karrikan, itsas-bazterrean, itzalpeetan aiduru zauden andreek, ah! Zer irriak egin zituzketen, beren gizonak ikustearrekin azkenekotz jalgitzen, erasian, gorrituak, lan handi zerbait egin ukan balute bezala, haritz xiloetarik batzutan ilkitzen diren lezorren pare! Gozatu zituzketen amultsuki gizagaizoak, erdi josteta, erdi larderiaz;

Politika bat sendi zinezaken, batetik bertzera ximixtatzen ziren behakoak bezain gaixtoa.

eztiki emaiten ziozkatelarik egun hartako hanpatuaren bete ahalge eta trufa..."

Hondarribiko bilkura, ele-anitza izan da. Aranaren Hendaia tesiak garaile atera dira, beraz, iparraldeko xurien asmoen gainetik.

Etxeparenetik ere badago, bere laburrean, zer ikasi. Honako puntuok, besteak beste, segurutzat eman litezke:

a) Hondarribiko bilkura, ele-anitza izan da. Aranaren Hendaia tesiak garaile atera dira, beraz, iparraldeko *xurien* asmoen gainetik. Nobedade handia da hori ere. Lau hizkuntzatan ari izan dira bilkuran: euskaraz (are gehiago: euskalki guztietan; beraz, oraingoan ere zazpi probintzietatik etorri bide da jendea); frantsesez (Vinson bertan ote?); gaztelaniaz (Campion, Estanislao Arantzadi eta hainbat bilbotar oso nekez ari litezke euskaraz); eta, *last but not least*, ingelesez. Ez da harrizkoa Pello Errotaren eta Udarregiren burumakurtzea (gure kolejiyua: sagardotegiya), jendarte-modu horren erdian. Badakigu euskarak, linguistikaren ikuspegitik, Europako hainbat espezialista erakarri izan duela aspaldidanik. Egituraz hain aparta den hizkuntzaren gramatikaz, hitz-altxorraz, euskalki-banaketat eta filologiazko hainbat xehetasunez interesatu izan dira atzeritar euskalariok. Hondarribiko bilkurak besterik erakusten digu ordea: euskara bizirik gorde eta indarberritzea ere, halako neurri batean, zenbait atzeritarren agenda akademikoan sarturik dagoela aspaldixodanik.

b) Hondarribiko bilkuraren jestioa, Zuzendaritzaren aldetik, ez da egokia izan. Broussainek afektatu gisa esandakoari lekuko hotz eta urrunago baten baieztapena erantsi behar zaio: *zertaz zen solas jakitea, lana zen*. Inprobisazioa. Aginte-ahalmenik ezaz edo dena delakoaz, kapitain piloturik gabe egin behar izan dute beren ibilera Hondarribiko "marinel"ek.

c) Hondarribiko bilkura hankaz gora jarri duen auzia ez da ortografia izan: apenas gai horri aurrez aurre heldu zaion. Eztabaida piztu duena ez da, bestalde, S. Arana: giltzapean dago Bilbon, bere gogoeta-bide politiko-operatibo berriaren zurrunbiloaren erdian. Bere jarraitzaileek ere, 320 bizkaitarrista indokumentatu haiek, buruhauste handirik ez dute eman: ez goiz partean, gauzak ondo samar joan direnean; ez eguarterean, (itxuraz) Broussain eta beste norbait biziki haserretu direnean; eta ez arratsalde, bilkura osoak ez buru eta ez hanka izan duenean. Ezin inolako buruhausterik eman, bertara joan ez den jendeak. Hondarribiko bilkura ez dute bizkaitarriek lehertu.

d) Buruhauste eta zalaparta, argi eta garbi esanik, iparraldeko bi euskaltzale-multzo nagusiek ekarri dute: klerikal-xuriek eta framazon-gorriek. Ez dakigu zerk piztu duen sua, baina badakigu borroka zein irizpideren ildotik eraman den. Eztabaida eta konfrontazioa ez da hegoaldeko filosofia soziopolitikoaren arabera izan, 1880tik aurrera Iparraldeak bizi izandako transformazio demografiko, politiko-

Hondarribiko bilkura hankaz gora jarri duen auzia ez da ortografia izan: apenas gai horri aurrez aurre heldu zaion. Eztabaida piztu duena ez da, bestalde, S. Arana: giltzapean dago Bilbon.

Buruhauste eta zalaparta, argi eta garbi esanik, iparraldeko bi euskaltzale-multzo nagusiek ekarri dute: klerikal-xuriek eta framazon-gorriek.

operatibo, ekonotekniko eta soziokulturalak sortu duen etenaren arabera koa baizik. Azken aldia izango da Hondarribiko hau, dakigularik, buruz buruko bide-banatze hori euskaltzale-giroan hain alde-rik alde eta hain gordin plazaratuko dena: non eta “eskualdun hau-ride guzien” begien bistan.

Itxura txarra hartzen zaio beraz, Broussain irakurri zein Etxepare ira-kurri, Hondarribian egindako bilkura horri: esamesak eta ahoberoke-riak, oihuak eta berritsuketak, nahaste-borraste handia eta onik ezer gutxi, entzundakoaren arabera. Ez da harritzekoa, hortaz, Hondarribi-ko bilkura ere, Hendaian egindakoa bezala, hurrengo mende-erdiz isil-pe ilunean gelditu izana. Balirudike, gauzak horrela ikusita, estrapozu moduko bat izan dela Hondarribiko bilkura hori: zazpi probintzietako euskaltzaleak, atzerriko euskalari batzuk eta bestelako zenbait biltzar- kide kongresu batera joan, eztabaidan hasi, haserretu eta fundamen- tuzko ezertara iritsi gabe nor bere etxera itzuli izan balira bezala. Pasa- dizo txar bat, euskalgintzaren urraspide luzean. Aipatzea ere apenas merezi lukeen gora-beheratxo bat.

Bere istilu eta kalapita guztiekin bere, ez buru eta ez hanka zuen bilera hartatik ehun urte iraun duen eta, luzaro, ipar Euskal herriko euskalgintzaren bilgune nagusi eta indar-emaile izan den elkarte sortu da bertan: Eskualzaleen Biltzarra.

Funtsean Hondarribiko asmoak eta prozedurak izango dira, saio horietariko gehienetan, mende osoan zehar nagusi.

Zenbait gauza gogoan izan behar ditugu, ordea, arras etsipenezko ondorio hutsera makurtuko ez bagara. Bere istilu eta kalapita guztie-kin ere, ez buru eta ez hanka zuen bilera hartatik ehun urte iraun duen eta, luzaro, ipar Euskal herriko euskalgintzaren bilgune nagusi eta indar-emaile izan den elkarte sortu da bertan: *Eskualzaleen Biltzarra*. Uste izatekoa da, bestalde, Hondarribi horretan guztia ez dela istilua izan. Estanislao Arantzadi, R. M. Azkue, I. Lopez-Mendizabal eta G. Lacombe moduko euskalari-euskaltzaleak ere tartean izan dira eta horiek, zeharbidez dakigunez, ondo samar jakin dute istilu horietan ez sartzen. Estanislao bete-betean parte hartua izan behar du, gainera, elkarrekin sortzen ari diren elkarte berriaren helburuez eta arauzko osaeraz hainbat zehaztasun eskaintzen. Hondarribiko asmo-azalpena eta proiektuaren defentsa Broussainen kontura joan bada ere bera (E. Arantzadi) da benetan, status-plangintzarako *bottom-up* jarduerazko idearen sortzaile-bultzatzailea. Berak atera zuen gaia Hendaian; orain urtebete Bilboko Euskal Etxean ere saiatu da, apiril inguruan, ekintza- bide horren oinarri sozio-filosofikoak azaltzen. Hori aski ez baillitza- n, hurrengo hilabeteetan buru-belarri jardungo du asmoari itxura konkre- tua ematen. Handik aurrera ugari sortuko dira, hegoaldean batik bat, euskaltzaleen indarrak bilduz galzorian dagoen hizkuntza ondamene- tik gorde eta begiratzeko ekimenak. Funtsean Hondarribiko asmoak eta prozedurak izango dira, saio horietariko gehienetan, mende osoan zehar nagusi.

Euskalgintza (kasu honetan status-plangintza) ez dela inondik inora ideologiaz neutroa: horixe erakusten digu Hondarribiak, eguna baino

argiago, bere peripezia guztiekin. Hitzunez, erabilera-esparruz eta funtzioz gainbehera datorren hizkuntza ahula indarberritzea oso lan zaila dela esaten digu Hondarribiak. Oso zaila eta soziokulturazko, politikazko, ekonomiazko zein teknologiazko garapen-berrikuntzen mendeko ere badela, horiengan guztiengan nolabaiteko eragile ere izateaz gainera. Hori guztia kontuan izan gabe alferrik da, Hendaia eta Hondarribiko gertaera haien zergatikoa aztertu nahi izatea.

IX. Porrotaren ondoren, zer?: Hendaiatik Oñatira.

Hamazazpi urte pasako dira, Hendaiatik Oñatira; Hondarribikotik hamasei. Oñatikoa arrakasta handia izan zela esaten da aho batez.

Hamazazpi urte pasako dira, Hendaiatik Oñatira; Hondarribikotik hamasei. Oñatikoa arrakasta handia izan zela esaten da aho batez. Urte askotan berriro iritsiko ez zuen goi-erpina jo zuela euskalgintzak, kontzeptu-lanketaz zein erakarmenez; euskal maitezko elite berri bat plazaratu zela orduan eta gizarte-bizitzaren hainbat esparrutan behetu edo eragozpen-traba izandako korapiloak askatzeko bidean jarri zirela: Euskaltzaindia sortu, euskal eskolen zer-nolakoa zehaztu, unibertsitate-estudioetan euskal gaiak "nagusi soineko"-z jantzi. Orduantxe sortuak edo sortzekoak diren auzo-eskola elebidunetarako (eta, oro har, euskalgintza instituzionalaren gogoeta-lanerako) berariazko zerbitzua eratuko da orobat, Bizkaiko Aldundian, garai-inguru horretan. Oñatikoak eta Oñati ondokoak alde batera utziaz gatozen, hortaz, aurreko hamasei-hamazazpi urte horien zoko-miratzera. Axal-axaleko zoko-miratzera izango da hau, ezinbestean, Euskal Esnalearen 1906ko sorrerak eta 1912 inguruko arnasberritze-saioek berariazko azterketa eskatzen baitute. Zentra gaitezen beraz, oraingoan, galdera bi hauen erantzunean: zer gertatu zen euskal ortografiarekin, Hendaiatik Oñatira bitartean? zer gertatu zen Eskualzaleen Biltzarrekin, Hondarribikotik aurrera? Galdera biei, ahal delarik, hizkuntz soziologiaren ikuspegitik erantzun nahi litzaieke.

IX.I. Ortografia bateratzea: erabilera nagusi

Mingostu eta zakartu egin zituen euskaltzaleen arteko harremanak, aspaldi ez bezala, Hendaiako esperientzia hark. Batez ere 1902ko urtarriletik martxora bitarteko ibilerak.

Mingostu eta zakartu egin zituen euskaltzaleen arteko harremanak, aspaldi ez bezala, Hendaiako esperientzia hark. Batez ere 1902ko urtarriletik martxora bitarteko ibilerak. Aspaldiko lagunek kale egin zioten bati baino gehiagori: Adema-Zaldubik, bereziki, min hartu zuen "bere jendea"ren atzera egiteaz. Sabino Aranak ere berandu gabe antzeman zuen, etxean (*Centro Vascon* alegia) zeukala disidentzia. *Aita Gurearen* Palestinarako erreforma-saioarekin izango zuen okasioa, laster asko izan ere, etxe barruko bide-banatzeko horretaz jabetzeko. Guztiek guztien mesfidati izaten ikasi behar izan zuten. Beste horrelako kongresu bat egiteko asmoak burutik kendu zitzaizkien denbora puska baterako behintzat.

Gehien aipatzen zena, Hendaia aurretik bezala, Akademiaren kontua zen.

Gehien aipatzen zena, Hendaia aurretik bezala, Akademiaren kontua zen. *Authoritative allocation of resources* dela esan ohi da hizkuntz plangintza instituzionala, berdin du *corpus* zein *status* alorretan. Hori xe du bere hastapenetako definizio ezagunena. Eta hemen horixe falta zen: aginpidea eta ahalmena, espezialista egokiak izendatzeko, beraien lanari beharrezko baliabideak eskaintzeko (egoitza, antolamendua eta, batez ere, dirua) eta haiek sortuko zuten produktuari eus-

Euskarari eguneroko
gizarte-bizitzan funtzio berririk
erantsi nahi ez bazitzaion,
zertarako erreforma grafiko,
lexikal eta estilistikoaren
nahaspila horietan sartu?

Ez dago dudarik, ordea,
Ecorpus-plangintzaren saio
instituzional garrantzitsua egin
zela handik gutxira.

Handik hamar bat urtera ekin
zitzaien berriro, iparraldean,
ortografia bateratzeko lanari.

kal gizartean, ofizialtasun-indarrez, zabalkunde osoa emateko. Horren bila jardun zuten, deblauki, Azkuek eta bere zenbait lagunek hegoaldean. Iparraldean aldiz, Broussainen asmo ederrez gainera, ez zen luzaro halako itzaropiderik ikusi. Hitz ederrak gora-behera antzua zen oro har, euskara gizarte berrirako egokitzeari dagokionez, *Establishment* nagusiaren jarrera. Eta ez zitzaion, funtsean, arrazoirik falta: euskarari eguneroko gizarte-bizitzan funtzio berririk erantsi nahi ez bazitzaion, zertarako erreforma grafiko, lexikal eta estilistikoaren nahaspila horietan sartu? Euskaltzale munduak bezala tentsio eta duda-muda ugari zeraman ordea, bere baitan, *Establishment* horrek ere. Itxura ere bazuen une batean, 1904 inguruan, Bizkaiko aldun nagusiak (Julio Urkixoren anaiak) lortuko zuela gainerako hiru Aldundiekin *Ikasola*, *Akademia*, *Euskal Boditz* edo *Euskaltzaindi* modukoren bat aurrera ateratzea. Ez zen halakorik gertatu, ordea, motibo bat baino gehiago zelarik tarteko. Ez agintariak zeukaten horrelako zerbaiten hil ala bizi-ko beharrik, eta ez Donostiako euskaltzale *establezitu*en jarrerak, itxuraz, ezer asko lagundu zuen ofizialtze horretan. Betikoa: proiektu berri bat sortzeak (proto)elite berri bat indartzea zekarren berekin, eta aurrekoa gutxi-asko baztertea. “Eta gu zertarako gaude?”, erantzun zuten berehala urteetako lanaz eta ilusioaz euskararen alde “zerbait” egina zutela uste-edo zuten donostiarrek. Ez dago dudarik, ordea, corpus-plangintzaren saio instituzional garrantzitsua egin zela handik gutxira. Zenbait gorabeheraren buruan, ofizial-ofiziala izan gabe ere agintaritzaren (Bizkaiko Aldundiaren) babes-bermea berekin zekarren *Iztegia* argitaratu zuen R. M. Azkuek Tours-en, 1905-1906an. Ortografi giroa hain mingostua zegoelarik, bide errazenetik jo zuen Azkuek *Iztegi* horretan: bere gogozko grafia-sistema aukeratu zuen berak, XX. mendean barrena hain oihartzun zabala izango zuen *codification*-lan horretarako.

Iparraldean, berriz, aski lan izan zuten Hondarribiko ur biziak baretzearekin. Hasiera batean, behintzat, ez dirudi ortografi kontuak euskaltzaleen agendan lehentasun handirik eskuratu zuenik⁹⁰. Handik hamar bat urtera ekin zitzaion berriro, iparraldean, ortografia bateratzeko lanari. Adema-Zaldubirik eta Guilbeaurik gabe oraingoan, baina protoeliteen multzo hautetsira mugatuz berriro ere. Iparraldeko ortografi saio hori, 1911n hasi eta 14an lehen mundu-gerrarekin amaitua, *Cercle d'Etudes Euskariennes* haren inguruan bilbatu zen. Egoitzaz iparraldekoa izanik ere, alde bietako euskalariak eta idazleak osaturik zegoen: iparraldetik Lacombe, Gavel eta Broussain ziren zirkuluki-de; hegoaldeetik berriz Azkue, Campion, Domingo Agirre, Gregorio

⁹⁰ Martin Landerretxeren idazkiek, Euskaltzaleen Biltzarretan irakurri eta, aldiaren behin, RIEVen argitara emandakoek, eskaintzen dute iparraldeko ikusmolde nagusi horren testigantzarik fidagarriena.

Berandu zen ordea: hegoaldeko euskal idazle berriak, eta lehengoak ez gutxi, Aranaren diagnostiko eta interbentzio-bide soziopolitikoarekin bat egiten ari ziren.

Oñatiko Eusko Ikaskuntzaren bilera zela medio Euskaltzaindia sortu zuten Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek.

Mujika, Karmelo Etxegarai, Kruz Goienetxe eta, gonbidatu gisa, S. Aranaren oinordeko Luis Eleizalde. Urkixo, azkenik, erdibidean zegoen: bilbotarra sortzez eta eraginez, iparraldekoa bizilekuz. *Eskualdunaren* bulegoan, 1911ko azaroaren 9an eta Urkixo buru zelarik, Miarritze-Baionako Kongresu historiko-antropologiko burutu berriaren txanpan eratu zen elkarte hori. Hendaiakoaren arrastorik ez zitzaion falta, inspirazioan eta jardueran. Azken aldia izan zen hori, euskararen ortografia goitik behera, euskaraz idazten zutenentzat baina haien dinamismo soziokulturala bigarren plano batean utziaz, batera zitekeela uste izan zenekoa. Bakezko erdibidearen bila zebiltzan bertako kideak, Azkueren arrastotik gehiegi aldendu gabe. Ez *gocho* eta ez *goxo* beraz, Azkueren-eta *gožo* baizik hobetsi nahi izan zuen *Cercle* delakoak. Berandu zen ordea: hegoaldeko euskal idazle berriak, eta lehengoak ez gutxi, Aranaren diagnostiko eta interbentzio-bide soziopolitikoarekin bat egiten ari ziren, eta ez zeuden maisuaren >x< (*goxo*, *orixe*), >tx< (*txori*, *aurtxo*) eta >f< (*gogoña*, *añaun*) ikur-letrak galtzen uzteko prest. Molde berriko euskaltzale horientzat Aranaren letra bereizgarriek baitzekarten berekin, ez fuerista zaharren >ch< historikoak edota Azkue jakintsu urrun-hotzaren >š<ak, aberriaren etorkizun bizi-pozgarria. Sabino Aranaren euskara-eredu *garbija* oro har, eta bere ortografia bereziki, Euskal herri (*Euzkadi*) duin, burujabe baten balio sinbolikoa bereganatzen ari zen idazle askoren artean egunetik egunera.

Hortik aurrerakoa ezaguna-edo da. 1919an, abertzaleak aginte-esparrura indar bizian iritsi eta handik gutxira, Oñatiko Eusko Ikaskuntzaren bilera zela medio *Euskaltzaindia* sortu zuten Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek. Eta orduan bai, Akademia sortu eta handik berehala, ez txosten sakon eta ez *tableau phonétique*, >x< eta >tx> atera ziren garaile. Baita >r< gangarduna ere. Esplikaziorik garbiena, leialena ere bai, Azkuek berak eman zuen bitan: 1916an lehenik, hauteskunderen joera eta Bizkaiko aginte-berritzea begien bistan zuelarik; eta 1923an ondoren, *Euskal Morfologia* argitara ematerakoan (EUSKERA: 1923, 295). Euskaltzainburuaren hitzetan esateko “solo él [Sabino Arana] ha proporcionado a nuestra lengua, por lo menos dentro de Euskaleña, mas lectores y escritores que todos los demás vascólogos juntos”. Eleizaldek, Kizkitzak eta Kirikiñok ere garbi baino garbiago azaldua zeukaten, ondotxoz lehenagotik, idazle-jendearen desio-urak nondik nora joatekoak ziren. Alferrik ziren hizkuntzalari jakitunen proposamen eta lantu-jotzeak. Faktore soziologikoez, hogeit hamar urte aurretik erretako proiektu soziopolitikoak bereziki, bere bidea egin zuten kontsiderazio linguistiko hutsen gainetik. Iparraldean aldiz, gizarte-bilakaera hain bestelakoa izanik, Euskaltzaindiaren hasiera-hasierako ortografia ofizial horrek ondotxoz sarbide mugatua izango zuen. Gavel baten esplikazio tekniko, pausatu eta argiga-

1919ko bere erabaki horretan oinarriturik, batek baino gehiagok esan izan du Euskaltzaindiaren (jaioberritako) ortografia ofiziala Sabino Aranarena izana dela goitik behera. Hori ere ez da ordea, inodik inora.

Elkarlanean ibilitako bideak, idazkera hiperfonetista baztertuz, Txomin Agirrearen garbitasun-eredua indarberritu zuen, nolabait esan. Eta horren guztiaren atzean, esan beharrik ez dago, Azkueren hogeituzetako lan eskerga zegoen.

riek lagunduko zuten azkenik, handik urte gutxira, bilakaera horren bestelako dibertziak apaltzen, lasaitzen eta idazkera baterabilduak finkatzen. Gutxitan aitortzen da Gavelen apartazioaren garrantzia, baina eragin handikoa izan zela uste dut.

1919ko bere erabaki horretan oinarriturik, batek baino gehiagok esan izan du Euskaltzaindiaren (jaioberritako) ortografia ofiziala Sabino Aranarena izana dela goitik behera. Hori ere ez da ordea, inodik inora, egia. Lan honen esparrutik kanpora gelditzen da puntu hori zehatz-mehatz arakatzea, eta ez gara beraz horretan sartuko. Ikuspegi orekatu batek, nolabait ere, kontuan hartu beharko ditu ordea honako bi elementu hauek:

- a) Aranaren 1896ko ortografi asmoak letra-grafemez gainera busti-palatalen eta *sandhi*-fenomeno osoaren filosofia fonetista itxia zuen, euskalki arteko osina arindu ordez sakondu egiten zuena. Ongi dakigunez, berriz, filosofia horrek ez zuen aurrera egin: ez 1919an, eta are gutxiago gero. Aranazaleek beraiek aldaketa argia eragin zuten gainera, puntu horri dagokionez, maisuaren planteamendu teorikoetan. Aldaketa horren eragile, besteak beste, Aranaren gogaide eta oinordeko zuzenenetarikoa izan ziren: Luis Eleizalde, oso bereziki. Elkarlanean ibilitako bideak, idazkera hiperfonetista baztertuz, Txomin Agirrearen garbitasun-eredua indarberritu zuen, nolabait esan. Eta horren guztiaren atzean, esan beharrik ez dago, Azkueren hogeituzetako lan eskerga zegoen.
- b) Egia da Euskaltzaindiaren 1919ko ortografia ofizialak Aranaren proposamena indartu eta ofizialdu zuela neurri on batean: hots jakinei grafema bereziak egokitzerakoan (hots: grafizazio alorraren muinmuineko fasean) bere idaztarauak hartu ziren oinarri. Corpus-plan-gintzak (are grafizazioak) *code-selection* grafemikoa baino ondotoz zeregin zabalagoa izan ohi du ordea berekin, hiztun-herri zabalean hedatu eta gailenduko bada. Idaztarau horiek aplikatu egin behar dira eguneroko jardunean. Idazteredu oso bat garatu behar da. Hizkuntza landuz (gizarte-esparru jakinetan erabiliz eta finkatuz) egin ohi da garapen-lan hori. Elaborazio estilistikoa (askotan, baina ez beti, hitz-altxorren elaborazio edo *Ausbau* delakoaz) eskatzen du *cultivation*-lanketa horrek. *Cultivation* faseari dagokion lan isil, zabal eta iraunkorrean, eguna baino argiago dago Azkueren bideak gero eta esparru zabalagoa eskuratu zuela.

Bilbotar lagun-etsai handi bien formulazio sinkretikoa dugu hortaz, Gavelen eta beste zenbait euskalariren irizpide pausatuez orekatu-rik, XX. mendean barrena (Arantzazuko astinaldi berrira artekoan) euskal idazlangintza osoan zabalduz eta garatuz joandakoa. Eguneroko erabilera konkretuak, idazleen adierazmen-beharrei eta irakur-

leen ulermen-mugei egokituak, aurreko hogeita bost urteetako txosten teknikoek, proiektuek eta biltzar-zirkuluek baino pisu handiagoa izan zuten, nolana ere, grafizazio-alorreko xehetasun askoren finkapen kontuan.

Ibilian ikasi zuen idazle- eta irakurle-jendeak, euskaraz idazten eta irakurtzen. Eskolak ez zion ikasbide handirik eskaini, eta hizkuntz plan-gintzaren *implementation* eta *cultivation stage* direlakoak izan ziren, *code selection* (hitz-altxor nagusia bateratzea) eta *elaboration* (terminologi lanketa) baino gehiago, garai hartako euskara idatziari bere "tornua" eman ziotenak. Oraingo euskaldun gehienontzat aski eredu egosgaitz, hots-aldaeretan muturregiratu eta hizperrigintzan oker-itxurakoa gertatzen da, dudarik gabe, orain dela ehun urte inguruko euskalari eta idazle askoren joera nagusi hura. Handik aterako ziren ordea, ez bestetatik, Altuberen *Zweckprosa* sendoa eta Lizardi-Orixe bikotearen idazkera garden-gihartsua, hitz lauz zein olerkiz euskal literaturari gaindegi berrietarako bidea zabalduko ziotena.

IX.II. Euskara indarberritzea: indar handirik ez eta gurdia aurre-eragin nahi.

Entenditu nahi zuenarentzat garbi azaldurik utzi zuen Aranak, hil aurreko bere hirugarren fasean (1901-1902 horietan, nolabait esan), egungo hizkuntz soziologiak *language loss* eta *language shift* deitzen duen horren pean zer dagoen. Garbi ikusi zuen berak, orduko hainbat txostenetan, euskararen galerari buelta emango bazitzaion euskal maitasuna eta abertzaletasuna (horra abandoarraren azken berrikuntza) ez zirela aski. Ez eta eskoletan euskara irakastea edo euskarazko literatur obra ederrik izatea ere. Hor ez zegoela gakoa, beste nonbait baino, hitzez hitz azaltzera ere iritsi zen. Hendaiako biltzarra pasa eta handik berehala (egun gutxira?, zenbait astetara?), M. Unamunori erantzunaz egindako "Conócete a ti mismo" artikuluan, inoiz gai horretaz egindako azalpen zorrotzenetarikoa irakur daitezke:

"El euzkera se muere. Es verdad. No lo mata el extraño. Los mismos vascos le están dando la muerte. Ha mucho tiempo que empezaron a negarle el sustento y hasta el aire. [] ¿Para qué querían su lengua? ¿Para adorno y lujo? Esto es poco práctico, y el vasco es de sentido práctico, y tiene razón en serlo []."

El euzkera, para vivir y propagarse y florecer, no necesita de academias alemanas, ni de literatura encerrada en un círculo de bombos mutuos, ni de eruditos que le ponderen al mismo tiempo que se cuidan bien poco de que la raza que la habla no desaparezca. El euzkera, para vivir y propagarse, no necesita tampoco de ser enseñado a

Garbi ikusi zuen berak, orduko hainbat txostenetan, euskararen galerari buelta emango bazitzaion euskal maitasuna eta abertzaletasuna (horra abandoarraren azken berrikuntza) ez zirela aski. Ez eta eskoletan euskara irakastea edo euskarazko literatur obra ederrik izatea ere.

quien no lo conoce, sino primero y principalmente [debe] de ser conservado entre los que le hablan, enseñando a los niños en euzkera, y no a los grandes el euzkera.

El euzkera, hoy de nada vale. Al contrario, es un obstáculo, un estorbo para todo: para educarse, para estudiar, para el comercio, para la vida. Los ricos y los ilustrados habéis llegado a esa posición hablando español. ¿Por qué del aldeano queréis exigir que no lo aprenda, o a menos que no lo hable? ¿Es que no queréis que se iguale a vosotros en riqueza y en conocimientos?

Haced que el euzkera sea necesario en su patria, y entonces, no lo dudeis, ningún hijo del pueblo lo ha de olvidar. Haced que sirva para educarse, para prosperar, para vivir, para ilustrarse, y entonces, el que lo posee, hallará razonable conservarlo, y el que no lo habla podrá moverse a aprenderlo. Entretanto, al primero solo le sirve de estorbo; al segundo, sólo le serviría de vano lujo. Al de abajo no le obliqueis a aquello que le es imposible realizar sin el auxilio de los de arriba. La clase que vive con el esfuerzo de sus brazos, es el menor de la sociedad civil: de sus errores y extravíos es responsable la clase directriz: el clero, las autoridades, los intelectuales y los ricos”.

Zita luze honek puntu bat baino gehiago ditu, hizkuntzaren soziologia modernoarekin lotura zuzen-zuzena dutenak. Bada ordea bata, guztien artean, *Eskualzaleen Biltzarraren* ehun urteotako jarduna aztertzeko orduan neurri-neurrira datorkiguna. Fishmanek ezin argiago esana dauka, Aranaren argudio-bide horrekin ondotoxto uztartuz, “*The masses of any speech community speak the way they do —monolingually or bilingually— because of their dependence on **reward systems requiring such speech**. The rewards involved are social rewards (enforcing and recognizing membership in the family, in the community, in the society, in the people), fiscal rewards (jobs, promotions, raises, bonuses), political rewards (awards, contracts, appointments, public acclaim), religious rewards etc.*”

Fishmanek ezin argiago esana dauka, Aranaren argudio-bide horrekin ondotoxto uztartuz.

Hanka-sartze eta intrantsigentzia, esajerazio eta sasi-asmakizun nabariaren artean bazuen S. Aranak, hil aurreko urte-pare horretan konkretuki, hizkuntzaren eta hiztun-herrien kontsiderazio soziologiko sendoa, bere zenbait argudiori ehun urteko proiektzioa emango ziona.

Hanka-sartze eta intrantsigentzia, esajerazio eta sasi-asmakizun nabariaren artean bazuen S. Aranak, hil aurreko urte-pare horretan konkretuki, hizkuntzaren eta hiztun-herrien kontsiderazio soziologiko sendoa, bere zenbait argudiori ehun urteko proiektzioa emango ziona. Aipatu berria den konparazioa ez da, inola ere, diodanaren lekuko ahulena.

Hizkuntza orok, biziko bada, *social reward* edo gizarte-ordainsari jakinak erantsirik eraman behar ditu ezinbestean. Hizkuntzaren (hots, hiztun-herriaren) dimentsio territoriala eta demografikoa garrantzi handi-

ko faktoreak dira noski, gizarte horren politikazko eta ekonomiazko autorregulazio-ahalmena ere bai, baina dimentsio horietan ezin da bai ala ezko dikotomia esturik ezarri. Iragarpen-indar handieneko eta kausa-ondorio hurbileneko faktorea, gaurkoz metatua dagoen informazioaren arabera, *social reward (and sanction) system* delakoa da.

Gatozen hortaz, ikuspegi horren arabera, orain ehun urte inguruko esan-eginen analisi soziologikoaren esparrura.

Ba al zuen Eskualzaleen Biltzarrak *reward system* hauek guztiak, hauetariko batzuk edota, gutxien-gutxienez, *reward system* bat bakarra bederen, bere kabuz osatu eta euskaldungoaren bizibide arruntean urterik urte txertatzeko indarririk edo aginpiderik?. Erantzuna begien bistakoa da, eta horrexek berak erakutsi behar digu gauzak zergatik joan diren han (iparraldean) eta hemen, euskararen aldeko erakunde guttien etengabeko saioak gora-behera, joan diren norabide jakinean.

Gertatu dena, han eta hemen, badakigu zer den: hertsiki berezirik zituztela mende luzez, euskara-erdarek, beren erabilera-funtzioak eta bizi-esparruak. Eta esparruok bereizten zituen muga-hesia txikitu eta birrindu egin dela, azken 200 urtean, hainbat aldetatik.

Gertatu dena, han eta hemen, badakigu zer den: hertsiki berezirik zituztela mende luzez, euskara-erdarek, beren erabilera-funtzioak eta bizi-esparruak. Eta esparruok bereizten zituen muga-hesia txikitu eta birrindu egin dela, azken 200 urtean, hainbat aldetatik. Bereak zituen lehen euskarak, eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez, etxea eta hurbileko lagunartea, auzoa eta herria. Euskaraz mintzo zen familian (familiarte zabal elebakarrean, askotan) jaiotzen zen haurra. Eta bere bizi-denbora osoan euskaraz egiten zuen, eguna joan eta eguna etorri, bizimolde arruntaren jardungune, harreman-sare eta funtzio gehienetan. Ez denetan, halere: elizan bazuen izan ere, apaiz askoren euskara-maila ahularen eta sozialki onarturiko konbentzioen ondorioz, gaztelaniarekiko kontakturik. Eskola osoa, berriz, erdara hutsezkoa izaten zuen gehienetan (*transitional bilingual education* kasuetan izan ezik). Zer esanik ez administrazioa, idatzizko (ez ahozko!) jardunari dagokionez, eta erdaldunekiko tratumodu guztiak (soldadutzan, marineletan eta urruneko garraio-merkataritzan). Garbi zegoen hesia, nolana ere, euskara-erdaren artean. Bere *reward system* propioa, bere status jakinekin, zuten euskal jardungune horiek, eta haietan parte hartu nahi zuenak euskaraz ikasi behar zuen ezinbestean, eta euskaldunekin euskaraz egin. Horixe zen, eta ez beste, euskarari eta euskaldun-jendeari bere horretan, luze-zabaleko mintzaldaketarik gabe alegia, eusten zion diglosia. Euskara ez zen aski, berez eta bere hutsean, bigiro osoari zegozkion jardungune, harreman-sare eta mintzabehar guztiak (batez ere jaso-formalak, eskola bidez ikasiak eta idatziz bideratuak) asetzeko. Baina eguneko ordu gehien-gehienak euskaraz egiten zituen bertako herritar arruntak, diglosi molde hori indarrean zegoen ingurumenetan: goizeko errezuetatik hasi eta oheratu bitartean, eus-

Baina eguneko ordu gehien-gehienak euskaraz egiten zituen bertako herritar arruntak, diglosi molde hori indarrean zegoen ingurumenetan.

Euskal konstelazio etnokulturala indargaltzen, gesaltzen eta odolusten ari da, eta horrekin batera euskara-erdaren konpartimentazio tradizional hura birrinduz doa egunetik egunera.

Euskaldun izateko ez dago, hortik aurrera, ez euskaraz jakin beharrik eta ez euskaraz egin beharrik.

kara zen bere etxean, lagunarte hurbilean, lantegian eta herriko plazan jaun eta jabe.

Horixe da Campionek, Arantzadik, Azkuek, Aranek, Hiriart-Urrutik eta Hendai-Hondarribietako gehien-gehienek galtzen ikusten dutena. Euskal konstelazio etnokulturala indargaltzen, gesaltzen eta odolusten ari da, eta horrekin batera euskara-erdaren konpartimentazio tradizional hura birrinduz doa egunetik egunera. Erdal ordainsari-sistemaren gero eta beharreanago gertatuko da euskalduna, biazian aurrera egiteko: behar hori ez du izango, lehen bezala, goi-mailako esparruetan soilik (eskolan, administrazioan, kalegiro modernoko lan-munduan), ordura arte bere-bereak (hots, bere *reward system* propioaren menpekoak) izan dituen esparru tradizionaletan ere baizik. Biazian aurrera egingo badu, azken mendi-zokondoetako baserritar arlote gizagaixoen pare geldituko ez bada, behar-beharrezkoa du erdaraz ondo jakitea (*Chomin del Regato* edo *Pellokirten*-en pare geldituko da bestela) eta erdaraz egitea. Egunetik egunera murriztu egingo dira, hirigintzak eta mendealdeko modernizazioaren osagai izan diren transformazio demografiko, ekonotekniko, soziokultural eta politiko-operatiboek aurrera egin ahala, euskaldunek euskaldunekin euskaraz (euskara hutsean, nagusiki euskaraz) egin dezaketean rol-harremanak (jardungune, harreman-sare eta funtzioak), eta ugarituz joango dira euskaldunek erdaldunekin, edo beraiek bezala translinguifikatzen ari diren euskaldunekin, erdaraz egin beharrekoak. Euskaldun izateko ez dago, hortik aurrera, ez euskaraz jakin beharrik eta ez euskaraz egin beharrik. Erdarazko euskaldunen belaunaldi berria ugarituko da nonahi: batez ere hiriburuetan, inmigrazioak gogor eragindako industrigune gero eta zabalagoetan eta, azkenik baina ez azken, garraiobideek eta herriz haraindiko merkataritzak erdararen erabilera hori *sine-qua-non* baldintza bihurtuko duten lan-esparru eta zonaldeetan.

Language shift edo luze-zabaleko mintzaldaketa: eszenario horretan plazaratuko dira Hendaiako eta Hondarribiko biltzarkideak. Nafarroan berandu dabilta dagoeneko, Iruñerriko atzerakadari frenoa jartzeko: *El último tamborilero de Erraondo*, bere beroan eta mingarrian, hiru belaunaldien erdalduntze-zikloa osorik burutu izanaren testigu mingotsa da. Bilbon ere gauzak ez daude askoz hobeto, baina jaurerretik hiriburura eta inguruetara, lan bila eta bizibide modernoagoaren peskisan, etengabe datorren euskaldun-jendeak esperantza-bide sendoagoak pizten ditu bertako protoelite euskaltzale arras dinamiko horrengan. Gasteiz, zer esanik ez, aspaldi-aspalditik erdaldundua dago. Donostia daukagu, beraz, gotorrenik. Euskaraz egiten da oraindik Donostian, behinolako diglosiaren ildotik baina atzerabide argian, neurri handi-ohargarrian. Hor egingo da, dudarik gabe, XX. mendeko euskaltzaleen indarberritze-saio zabal, luzeena. Azterkizun dugun mende-

Zazpi probintzietarako pentsatua
Lizanik ere Eskualzaleen
Biltzarra, iparraldean zentratuko
du elkarte horrek bere ekimena,
gero eta mugatuago gainera.

Besteren (batez ere hegoaldeko
Euskaltzaleen) eredu izan da
gainera, hainbat aldiz, Eskualzaleen
Biltzarra: 1906-7ko Euskal Esnalea,
hasteko, bere irudira ez ezik bere
errietatik ere sortu zen.

hasiera horretan lo bezala agertzen da, ordea, Gipuzkoako hiriburua. Ez luzaroan, ordea: Oñatira arteko ekintza-bide berri eta ausartenak hortxe hezur-mamituko dira, izan ere, 1907tik aurrera.

Eta Iparraldea? Zazpi probintzietarako pentsatua izanik ere *Eskualzaleen Biltzarra*, iparraldean zentratuko du elkarte horrek bere ekimena, gero eta mugatuago gainera. Gorago esan dugunez diglosi-galtzearen ondoriozko euskal jardungune, harreman-sare eta funtzio tradizionalak ahultzen eta desegiten hasten dira han ere, eta *Eskualzaleen Biltzarra* indargaltze horri eusten eta, ahal baledi, indarberritze-saioez erantzuten saiatuko da.

Hainbat hutsune, nahi-eta-ezin, ahultasun eta ezinikusiren artean sortutako euskal elkarte horrek badu, mende oso batez bizirik irauten jakin izanagatik beragatik zor zaion begiruneaz gainera, probetxuzko ekarpenik aski. Eta gisako da, argi-ilunezko txanponaren alderdi bakarra miratzen ibiliko ez bagara, bere emaitza on-ustezko eta abantaila horiek orobat, labur-labur izango bada ere, azpimarratzea. Zer ekarri digu, onik, Eskualzaleen Biltzarrek? Honako elementuok, besteak beste:

- a) Babes- eta laguntza-elkarte hori izan da, gure jakinaren gainean, zazpi euskal herrietako gizakiek, kasu honetan euskaltzaleek, Euskal herriaren aldeko ekintza amankomun batera deitu eta elkarrekin —nola edo hala, baina elkarren ondoan— eramaten asmatu izan duten lehenengo elkarte. Euskaltzaindia ondotoz geroagokoa dugu, Eusko Ikaskuntza bezala. Eskualzaleen Biltzarreko bileretan euskaldunon arteko batasun-giroa noraino sentitu eta, 1926ra bitartean bederen, bultzatu izan zenaz aipamen ugari daude han-hemen, eta ez naiz beraz lehendik aski argi adierazia dagoen kontu horrekin luzatuko.
- b) Besteren (batez ere hegoaldeko euskaltzaleen) eredu izan da gainera, hainbat aldiz, Eskualzaleen Biltzarra: 1906-7ko *Euskal Esnalea*, hasteko, bere irudira ez ezik bere errietatik ere sortu zen. Honderribikoa irentsiz lortu nahi zuen batasun zabalagoaren ordez bitasuna eragin zuen, ordea, hegoaldeko ekinbide horrek. 1933ko *Euskeraren laguntzaileak* izeneko elkarteak ere ondo bekorian eraman zituen, hasieratik beretik, Eskualzaleen Biltzarren seinale-markak. Azkenik, eta gerra ondoko uhin berriari dagokionez, 1956, 58 eta 59ko Euskaltzaleen Biltzarrez ez dago zer esanik: azken berrogei urteotako euskalgintzaren oinarritzeko hipotesi gehienek konfigurazioan hain eragin nabarmena izana duten Euskaltzaindiaren hiru jardunaldi horiek izana ez ezik izena bera iparraldeko elkartetik hartu dute. Bide-erakusle izana dugu beraz, bidegile izateaz gainera,

1901ean Hendaian bururatu eta formalki 1902an Hondarrbian sortutako biltzar hura.

Hainbat urtez berari zor izan zaizkio, beste inori baino areago, Iparraldeko herri- eta eliz aginteei euskararen kontrako neurriak ezabatu eta aldekoak har zitzaten egindako deiak eta eskeak.

Bere bidez lortu izan da orobat, neurri ohargarrian, tradiziozko euskal gogoia, artikulazio kontzeptual handirik gabe baina herritar xume askoren buru-bihotzak sendotuz etorri ohi zen language loyalty hura.

c) Hainbat urtez berari zor izan zaizkio, beste inori baino areago, Iparraldeko herri- eta eliz aginteei euskararen kontrako neurriak ezabatu eta aldekoak har zitzaten egindako deiak eta eskeak. Zenbaiten ustez otxan eta menpekoegi jokatu zuen batzuetan: 1919ko bilaldian "Bas-ses Pyrenees"eko goi-agintaritzarekin Iparraldearen politikazko autonomi nahiaz Donibane Garazin izandako eztabaidan, adibidez, burumakurregi agertu omen zen eske-dei horiek egiterakoan. Kotsiderazio soziologikotik harantz gelditzen dira, ordea, balioespen etsi horiek. Jakin dakiguna, ondorio sendoei dagokienez, honako hau da: aurrez aurre eta funtsezko eraginez jarduten asmatu izan duela hainbatean. Eskola-adineko haurren, apaizgaien eta, inoiz, irakasleen alfabetatze-lana, 1913tik hasi eta, batez ere, 1920 ingurutik aurrerakoa, Iparraldeari dagokionez berak asmatu, bultzatu eta hezurmamitu izan du nagusiki. Promozio-lan horrek erakarrita, bertako lehiaketa-galbahetik pasatuz euskaraz trebatuetarikoak izanak ditugu, besteak beste, bai Piarres Laffitte euskaltzain eta euskaltzale handia eta bai, formulazio sinkretiko horiez inor gutxi arduratzen bada ere, Xal-bador bertsolaria bera.

d) Bere bidez lortu izan da orobat, neurri ohargarrian, tradiziozko euskal gogoia, artikulazio kontzeptual handirik gabe baina herritar xume askoren buru-bihotzak sendotuz etorri ohi zen *language loyalty* hura, XX. mendeko ikusmoldeetara egokitu eta Iparraldeko herritar xeheen artean zabaltzea. Egokitzen honek, herri-gogoaren jatorrizko formulazio soziokultural lazo-sotil hori zabaldu ere egin izan du inoiz edo behin, proiektzio territorialaren eta sinbologia politiko-operatiboaren esparrura hedatuz: Eskualzaleen Biltzarraren bidez zabaldua eta gizarteratua da, adibidez, ikurriña Iparraldean.

e) 1926an Frantziako gobernuak ofizialki onetsi zuenetik jakin izan du gainera, behar bezain zehatz ezagutzen ez dugun baina 1929 inguruko datuen arabera aski agerian dagoen neurrian, herri-aginteetako dirulaguntzaz Iparraldean (Lapurdin bereziki) euskalgintza bultzatzen. Egin asmo zuen guztia praktikara ezin (urrundik ere ezin) eraman izan arren Eskualzaleen Biltzarrak aski gogoan izan du oinarrizko irizpide hori: euskara indaberritzeko langintzak, *status planning* saio guztiek bezala, the *authoritative allocation of resources* eskatzen duela ezinbestean eta hori, gaur eta hemen, herri-aginteen partaidetza zuzenaz baizik nekez eskura daitekeela.

Aginte-maila beregain handirik gabeko ipar Euskal herrian jardun behar izan duenez, bere buruari xede apal baina eskuragarriak ezarri

izan dizkio, sarritan, Eskualzaleen Biltzarrak. Bertako indar apurrak biltzen eta euskalgintzaren katea eten gabe zaintzen saiatu izan da batez ere. Hori du bere alde; hori du bere herentzia. Jakingo al da, hasi berria dugun mende honetan, dagoenari eusten, Sisiforen antzera etengabe asmo berriak pizten ibili ordez? Ez genuke hori ere, bere murriz-mugatuan, Eskualzaleen Biltzarraren ikasbide antzuen.

Bibliografia:

- (HIRIART-URRUTI) (1901): "Eskualdun Biltzarrea", in *Eskualduna*, 1901-IX-20.
- "Congreso de euzkeráfilos", in *Patria* (?), 1902-IX-?
- ADÉMA "ZALDUBY", Gratien: *Kantikak eta Neurtitzak*. Ales Bengoetxea prestatzaile, 1991. Bilbo: Ed. Mensajero-Gero
- ALISJAHBANA; S. Takdir. (1971): "Some Planning Processes in the Development of the Indonesian/Malay Language", in Joan Rubin y Bjorn Jernudd (eds.) *Can Language be Planned ?* Honolulu: East-West Center Press.
- ANDURAIN DE MAYTIE, Clement (1902): "Biba eskuara", in *Eskualduna*, 1902-XII-20.
- ANNAMALAI, E. (1989): "The linguistic and social dimensions of purism" in Jernudd eta Shapiro, *The Politics of Language Purism*, 225-31 orr.
- ANON (1930): *Practical Orthography of African Languages*. Londres: Oxford University Press.
- ARANA, José Ignacio de (1882): "Ortografía Bascongada", in *Euskal-erría* VI. alea, 109-11 orr.
- ARANA, Sabino (1896): *Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino*. Bilbao: Tipografía Amorrortu.
- ARANTZADI, Telesforo (1900): "Congreso Internacional de Estudios Vascos", in *Euskalduna*, 173. zkia., 401-5 orr. (1900-10-28).
- AZKUE, R. M. (1896): *Proyecto de Ortografía*, Bilbao: Imp. Artística de Müller y Zavaleta.
- BERRY, Jack (1968): "The Making of Alphabets", in J. A. Fishman (ed.) *Readings in the Sociology of the Language*, La Haya: Mouton de Gruyter, 737-53 orr.
- BLOOMFIELD, Leonard (1927): "Literate and illiterate speech", in *American Speech* 2, 432-9 orr.
- (1933): *Language* (New York: Holt)
- BOLINGER, D. L. (1946): "Visual Morphemes", in *Language*, XX, 333-40 orr.
- BONAPARTE, Louis-Lucien (1958) *Canticum trium puerorum in XI vasconicae linguae dialectos ac varietates versum. Collegit et novae orthographiae accommodavit*. Edicio altera, Londini.
- BOWERS, John (?): "Language Problems and Literacy", in J. A. Fishman, C. A. Ferguson eta J. Das Gupta (edk.) *Language Problems of Developing Nations*, 381-401 orr.
- BURNS, Donald (1953): "Social and political implications in the choice of an orthography", in *Fundamental and Adult Education* 5, 80-5 orr.
- CIRB (1987): *Proceedings of the International Colloquium on Language Planning*. Quebec: Les Presses de l'Université Laval.

- COBARRUBIAS, Juan (1983): "Language Planning: The State of the Art", in J. Cobarrubias eta J. A. Fishman editoreak, *Progress in Language Planning*. Berlin: Mouton de Gruyter, 3-26 orr.
- COOPER, Robert L. (1990): *Language planning and social change*. Cambridge: Cambridge University Press.
- CORCUERA, Javier (1979): *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco, 1876-1904*. Madrid: Siglo XXI de España.
- DARANATZ, J. B. (1908): "Le Chanoine Adéma", in RIEV, 2, 121-4 orr.
- DEUTSCH; Karl W. (1966) (2. argitaraldia) *Nationalism and Social Communication*. Cambridge, Mass.: M.I.T.
- DUVOISIN (1878): "Observaciones sobre la ortografía vascongada", in *Revista Euskara*, I, 172-3 orr.
- ELISSAGARAY, R. Dí (1902): "A la Fédération Basque!", in *Euskalduna*, 1902-IX-26?
- ELISSAGARAY, R. Dí (1902): "La guerre contre le Basque", in *Euskalduna*, 1902-IX-28?
- EUSKALDUNA ? (1901): "El Congreso de Hendaya", in *Euskalduna*, VI, 200. zkia, 617-18 orr. (1901-9-22).
- EUSKAL-HERRIA? (1901): "Congreso basco de Hendaya (Francia)", in *Euskal-erria*, XXII, 763. zkia., 242-3 orr. (1901-09-20).
- EUSKAL-HERRIA? (1902): "Congreso de euskeristas para la unificación de la ortografía", in *Euskal-erria*, XXIII, 776. zkia., 89-92 orr. (1902-01-30).
- FERGUSON, Charles A. (1959): "Diglossia", in *Word*, XV, 325-50 orr.
- (1967): "St. Stefen of Perm and Applied Linguistics", in *To Honor Roman Jakobson*, La Haya.; Mouton de Gruyter. Orobat in J. A. Fishman, C. A. Ferguson eta J. Das Gupta (edk.) *Language Problems of Developing Nations*, 253-66 orr.
- FISCHEL, A (1919): *Der Panslawismus bis zum Weltkrieg*. Stuttgart/Berlin: Cotta.
- FISHMAN, Joshua A. (1972): *Language and nationalism: Two integrative essays*. Rowley, Mass.: Newbury House.
- (1972): "The Sociology of the Language" Newbury House. Erabilitako iturria, gaztelaniazko itzulpena: *Sociología del lenguaje*, 1982. Madrid: Ed. Cátedra.
- (1977): *Advances in the Creation and Revision of Writing Systems*. The Hague
- (1983): "Modeling rationales in corpus planning: Modernity and tradition in images of the good corpus", in J. COBARRUBIAS eta J. A. FISHMAN (ed.) *Progress in Language Planning*. Berlin: Mouton de Gruyter, 107-18 orr.
- (1987): *Ideology, society and language. The Odyssey of Nathan Birnbaum*. Ann Arbor: Kasoma Publishers.
- (1988): "The Development and Reform of Writing Systems", in *Sociolinguistics / Soziolinguistik*, 16, 43-50 orr.

- (1993): "Exploring an overlooked sociolinguistic phenomenon (The First Congress for Language X)", in J. A. Fishman editore, *The Earliest Stage of Language Planning. The "First Congress" Phenomenon*. Berlin: Mouton de Gruyter, 1-9 orr.
- (1993): *The Earliest Stage of Language Planning. The "First Congress" Phenomenon*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- GARVIN, Paul L. (1959): "The standard language problem. Concepts and methods", in *Anthropological Linguistics* 1:3, 28-31 orr.
- (1954): "Literacy as a problem in language and culture", in Georgetown University Monograph Series on Language and Linguistics, 7, 117-29 orr.
- GAVEL, Henri: "Observaciones sobre la Ortografía del vascuence", in *Euskera*, ? zkia, 193-212 orr.
- (1933): "Sur l'ortograhe de la langue basque" in *Gure Herria*, XIII, 173-84 orr.
- GELB, I. J. (1952): *A Study of Writing*. Chicago: The University of Chicago Press.
- GOYHENETCHE, J. (1993): "Les origines sociales et historiques de liassociation Eskualzaleen Biltzarra (1893-1913)", in *Bulletin du Musée Basque*, 135, 1-68 orr.
- GUMPERZ, John J. (1962): "Types of linguistic communities", in *Anthropological Linguistic*, 4: 1, 28-40 orr.
- HALL, Robert A, Jr. (1950): *Leave your Language Alone!* Ithaca, N.Y., Linguistica
- HAMERS, J. F. eta M. BLANC. 1983. *Bilingualité et bilinguisme*. Bruxelles, Pierre Mardaga
- HAUGEN, Einar (1966): *Language Planning and Language Conflict; The Case of Modern Norwegian*. Cambridge, Mass.: Harvard.
- (1972): "Language Planning in Modern Norway", in E. Scheraton Firchow eta beste, editore, *Studies by Einar Haugen*. The Hague: Mouton, 422-32 orr.
- (1972): "Linguistics and Language Planning", in Evelyn Scheraton Firchow eta beste, editore *Studies by Einar Haugen*. The Hague: Mouton, 512-30 orr.
- (1983): "The Implementation of Corpus Planning: Theory and Practice", in J. Cobarrubias eta J. A. Fishman editoreak, *Progress in Language Planning*; Berlin: Mouton, 269-89 orr.
- HAVRÁNEK, Bohumil (1938): "Zum Problem der Norm in der heutigen Sprachwissenschaft und Sprachkultur", in *Actes du Quatrième Congrès International de Linguistes* (Copenhagen) 151-6 orr.
- HAVRÁNEK, Bohuslav (1964): "The Funtional Differentiation of the Standard Language", in Paul L. Garvin (ed.) *A Prague School Reader on Esthetics, Literary Structure and Style*, 1-18 orr. Washington D. C.: Georgetown University Press.

- HERMANN, Eduard (1929): "Die litauische Gemeinsprache als Problem der allgemeinen Sprachwissenschaft", in *Nachrichten der Gesellschaft der Wissenschaften zu Göttingen*, 1, 65-125 orr.
- HEYD, Uriel (1954): *Language Reform in Modern Turkey*. Jerusalem: Israel Oriental Society.
- HUMBOLDT, Wilhelm Freiherr von (1801): *Los Vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*. Berraltalpena. Donostia: Auñamendi, 1975.
- IRIGARAI, Aingeru (1932): "Quelques idées sur l'orthographe de l'Euskara", in *Gure Herria*, XII, 455-8 orr.
- IRIGOIEN, Alfontso (1957): "Del epistolario de Azkue", in *Euskera*, II, 261-393 orr.
- JERNUDD, Björn H. eta Michel J. Shapiro (edk.) (1989): *The Politics of Language Purism*. Berlin/New York: Mouton de Gruyter.
- JESPERSEN, Otto (1925): *Menneskehed, Nasjon og Individ i Sproget*. Oslo. Ingelesez *Mankind, Nation and Individual from a Linguistic Point of View*. London, 1946
- JONES, D. (1942): *Problems of a National Script for India*. Hartford, Conn.: Hartford Seminary Foundation.
- JOOS, Martin (1960): "Review of Axel Wijk, Regularized English", in *Language* 36, 250-62 orr.
- JUARISTI, Jon (1987): *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*. Madrid: Taurus.
- KLOSS, Heinz (1952): *Die Entwicklung Neuer Germanischer Kultursprachen von 1800 bis 1950*. München: Pohl.
- (1967). "‘Abstand’ languages and ‘Ausbau’ Languages", in *Anthropological Linguistics*, IX, vii, 29-41 orr.
- (1969). *Research Possibilities on group bilingualism: a Report*. Quebec: International center for research on bilingualism.
- LAFITTE, Pierre (1932): "Orthographe" in *Gure Herria*, XII, 554-8 orr.
- LARRONDE, Jean Claude (1977): *El Nacionalismo Vasco. Su origen y su ideología en la obra de Sabino Goiri*. Donostia: Txertoa.
- MACDONALD, Dwight (1962): "Three questions for structural linguists, or Weber revisited", in J. Sledd eta W. R. Ebbitt, *Dictionaries and That Dictionary*, Chicago, 256-64 orr.
- MATTEWS, P. H. (1979): *Morfología. Introducción a la teoría de la estructura de la palabra*. Madrid: Paraninfo.
- MORAG, Shelomo (1959): "Planned and Unplanned Development in Modern Hebrew", in *Lingua* LXXXVIII, 247-63 orr.
- NEUSTUPNÝ, J. V. (1989): "Language purism as a type of language correction", in Jernudd eta Shapiro (edk.) *The politics of Language Purism* 211-23 orr.
- NIDA, Eugene A., "Practical Limitations to a Phonemic Orthography", in *Bible Translator*, V, 35-9 eta 58-62 orr.

- NOREEN, Adolf (1892): "Über Sprachrichtigkeit", in *Indogermanischen Forschungen* 1, 95-157 orr. Suedieratik itzulia
- NOREEN, Adolf (1903): *Vart Sprak*. Lund, Gleerup
- PATTANAYAK, D.P. (1981): "The problem and planning of scripts", in *Multilingualism and mother tongue education*. Delhi.
- PHILLIPS, Hofrath George (1870): *Über das baskische alphabet*. Viena.
- RADIN, Paul (1924): "The Adoption of an Alphabet by an Aboriginal People", in *Cambridge University Reporter*, 1924-XI, 27-34 orr.
- RAY, Punya Sloka (1963): *Language Standardization: Studies in Prescriptive Linguistics* (The Hague, Mouton)
- ROSS, Alan S. C. (1938): "Artificial word in present-day Estonian", in *Transactions of the Philological Society*, 64-72 orr.
- RUBIN, Joan eta Bjorn H. Jernudd (ed.) (1971): *Can Language Be Planned?* Honolulu: The University Press of Hawaii. East-West Center Press.
- RUBIN, Joan eta Bjorn H. Jernudd, J. Das Gupta, J. A. Fishman eta C. A. Ferguson (1977): *Language Planning Processes*. The Hague: Mouton.
- SJOBERG, Andree F. (1964): "Writing, Speech and Society: Some Changing Interrelationships", in *Proceedings of the Ninth International Congress of Linguistics*, 892-97 orr. La Haya: Mouton de Gruyter.
- SJOBERG, Andree F. (1966): "Socio-Cultural and Linguistic Factors in the Development of Writing Systems for Pre-literate Peoples", in Wm. Bright (ed.) *Sociolinguistics*, 260-76. La Haya: Mouton de Gruyter.
- SMALLEY, William A. (1964): *Orthography Studies: Articles on New Writing Systems*. Londres: United Bible Societies.
- TELLECHEA IDIGORAS, José Ignacio (1987): "Cartas a Miguel de Unamuno, de Telesforo de Aranzadi, R. M^a. de Azkue, Justo Garate y Angel Apraiz", in RIEV XXXII-2: 315-62. orr.
- UNAMUNO, Miguel: "La unificación del vascuence". Berrargitaratua in *Obras Completas* (IV. liburukia), 271-3 orr. Madril: Escelicer (1968).
- VACHEK, Joseph (1948): "Written Language and Printed Language" in *Recueil Linguistique de Bratislava*, I, 67-75 orr.
- (1945-9): "Some Remarks on Writing and Phonetic Transcription", in *Acta Linguistica*, V, 86-93 orr. Copenhagen.
- VILLASANTE, L. (1979): *Historia de la Literatura Vasca*. Oñati: EFA.
- (1987): "Euskalduna astekariaren mendeburuan", in *Euskera* XXXII.
- VINSON, Julien (1902): "La réunion d'Hendaye et la réforme de l'orthographe basque" in *RLPhC*, XXXIV, 356-61 orr.
- (1902): "Encore le Congrès basque d'Hendaye" in *RLPhC*, XXXVI, 82-5 orr.
- WALKER, Willard (1969): "Notes on Native Writing Systems and the

- Design of Native Literacy Programs”, in *Anthropological Linguistics*, XI, 148-66 orr.
- WEINREICH, Uriel (1953): *Languages in Contact*. New York: Publications of the Linguistic Circle of New York. Erabilitako iturria: 9. argitaraldia, 1979koa.
- WINTER, Werner (1983): “Tradition and innovation in alphabet making”, in Coulmas F. eta K. Ehlich (edk.) *Writing in focus*. The Hague, 239-53 orr.
- XARRITON, Piarres (1985): “Gratien Adéma-Zalduby-ren bizia ta lanak (1828-1907)”, in *Mundaiz*, 29, 47-53 orr.
- (1985): *P. Broussain, sa contribution aux études basques*. Paris:CNRS
- (1987): “Euskalduna-ren mendeurrena Baionan”, in *Euskera* XXXII, 245-52 orr.
- (1987): “R. M. Azkue eta P. Broussain-en elkarridazketa”, in *Iker* 4. Bilbo: Euskaltzaindia
- XX (1902): “Ondarrabia”, in *Eskualduna*, 1902-IX-19.
- ZUAZO, Koldo (1988): *Euskararen batasuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.